

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA  
Zerbitzu Zuzendaritza  
Estatistika Organo Espezifikoa

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES  
Dirección de Servicios  
Órgano Estadístico Específico

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

## GIZARTE-ZERBITZUEN ETA GIZARTE-EKINTZAREN ESTATISTIKA GIZARTE-ZERBITZUEN GASTU PUBLIKOA 2016/2019

*Emitza nagusiak*  
2021eko abenduaren 4a

*Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren*  
*Estatistika Organo Espezifikoa*





## AURKIBIDEA

<b>1.Sarrera .....</b>	<b>5</b>
<b>2.Zerbitzuen eskaintza .....</b>	<b>9</b>
2.1. Egoitza-plazak.....	9
2.2. Egoitzakoak ez diren plazak .....	15
<b>3.Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastua .....</b>	<b>23</b>
3.1. Gastu osoa.....	23
3.2. Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko gastua .....	26
3.2.1 Arloa eta zentro/zerbitzu mota .....	26
3.2.2 Gastuaren aldeak lurralde historikoen arabera .....	37
3.3. Gizarte-prestazioetako gastua.....	43
3.3.1 Prestazio motak.....	43
3.3.2 Gastuaren aldeak lurralde historikoen arabera .....	46
<b>4.Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastuaren finantzaketa.....</b>	<b>51</b>
4.1. Finantzaketaren alderdi orokorrak .....	51
4.2. Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren finantzaketa .....	53
4.2.1 Arloa eta zentro/zerbitzu mota .....	54
Erabiltzaileen ekarpenaren pisu espezifikoak .....	67
4.3. Gizarte-prestazioen finantzaketa .....	71
4.4. Foru-aldundien parte-hartze konparatua, lurralde historikoen arabera.....	74
4.5. Udal-erakundeen parte-hartzearen alderaketa, lurralde historikoen arabera .....	86
<b>5.Gizarte-zerbitzuetako langileak .....</b>	<b>117</b>
5.1. Alderdi orokorrak .....	117
5.2. Enpleguaren sektorekako banaketa .....	119
5.3. Enpleguaren banaketa profesionala .....	127
5.4. Enpleguaren banaketa, lurralde historikoaren arabera .....	135
<b>6.Kudeaketa-adierazle nagusiak, zentro eta zerbitzuen arabera .....</b>	<b>143</b>
6.1. Egoitza-zentroak .....	143
6.2. Egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzuak .....	153
<b>KONTZEPTUEN ETA DEFINIZIOEN ERANSKINA.....</b>	<b>165</b>
<b>ALDERDI OROKORRAK .....</b>	<b>165</b>
Gizarte-zerbitzuak eta prestazio sozialak .....	165

Zentroa edo zerbitzua .....	166
Artatutako biztanleria mota. Hurbilketa orokorra.....	166
Artatutako biztanleria mota. Mendekotasuna babestea .....	167
Artatutako biztanleria mota. Haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babestea .....	168
Egoitza-zentro eta -zerbitzuak.....	168
Eguneko arretarako zentro eta zerbitzuak (egoitzakoak ez direnak) .....	170
Erabiltzaileak.....	172
<b>SISTEMAK ESKAINTZEN DITUEN PLAZEI BURUZKO ALDERDIAK.....</b>	<b>173</b>
Plazak.....	173
Plazen titulartasuna.....	173
<b>GASTUARI BURUZKO ALDERDIAK .....</b>	<b>174</b>
Gastu arrunta.....	174
<b>FINANTZAKETARI BURUZKO ALDERDIAK.....</b>	<b>175</b>
Finantzaketa: administrazio-jatorria.....	175
Finantzaketa: izaera.....	176
Finantzaketa-adierazleak .....	176
<b>LANGILEEI BURUZKO ALDERDIAK.....</b>	<b>177</b>
Langile motak, zentroarekin duten loturaren arabera .....	177
Langileak, kualifikazioaren arabera .....	177
Langileei buruzko datuak: orokorrak eta LOB.....	178
<b>KUDEAKETARI BURUZKO ADIERAZLEAK .....</b>	<b>179</b>
Zentro edo zerbitzuen okupazio-adierazlea.....	179
Gastu arrunta erabiltzaileko .....	179
Erabiltzaileko batez besteko kuota .....	179
LOB erako berezko langileak 100 erabiltzaileko.....	179
Langileko (LOB) batez besteko soldata.....	179
<b>LURRALDEARI DAGOZKION ALDERDIAK .....</b>	<b>180</b>
Udalerrri motak.....	180



## 1. Sarrera

Txosten honek garatzen du **Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren, Erakundeen eta Zentroen Estatistikaren** (GZEZE) emaitza nagusien deskribapenaren urteko agiria aurkezteko proiektua. Proiektu hori 2017an taxutu eta zehaztu zen, 2012-2015 aldirako lehen datuak argitaratzearekin batera. Horrela, bada, 2016-2019 aldiari buruzko emaitza berriak aurkeztean, sendotu egin da joan den hamarkadaren erdialdera arte Eustatek gauzatzen zuen hedapen-lanari berriro ekiteko helburua; izan ere, EAEko administrazio publikoen finantza-krisialdian ezin izan baitzitzaion egiteko hari guztiz eutsi.

GZEZEren helburu nagusia da gizarte-zerbitzuekin, gizarteratzeko politikekin eta, oro har, gizarte-ekintzarekin lotutako eskaintza ezagutzea. Norabide horretan, GZEZEK gizarte-zerbitzu eta -prestazioekin lotutako hainbat aldagai ekonomiko biltzen ditu eta sistemaren erabiltzaile eta onuradunen zenbaketa orokorrera gerturatzen da. Eragiketa estatistikoak aintzat hartzen ditu, batetik, eskumenen banaketa berezitik eta, bestetik, gizarte-zerbitzuen zein gizarteratze-politiken munduan aktiboki parte hartzen duten eragileen dibertsitatetik sortzen diren askotariko jarioak. Horrekin, sistema osoaren (egoitzak, finantzaketa-jarioak, etab.) ikuspegi bat eman nahi da.

Gizarte-zerbitzuen sektorea beste arlo orokor batzuek estaltzen ez zituzten gizarte-premiei erantzuteko baliabide eta jarduera multzo gisa sortu zen hein handian, eta sektore horren helburua zehazten joan da termino juridikoetan; horri esker, esparru horren azalpen estatistikoa zehaztu da.

Hastapenetan, eta estatistika-termino haietan, gizarte-zerbitzuak sistema ireki gisa zehaztu ziren, pixkanaka mugatzen joateko. 1988. urtean hasi zen estatistika, eta orduz geroztik, hainbat zerbitzu, hala nola haurtzaindegi eta adingabekoen erreforma-zentroenak, sistematik kanpo geratu dira, beste erakunde batzuek hartu baitituzte euren gain. Enplegu-zentro bereziak autonomo bihurtzea eta lan-sistemarekin lotzea izan da beste funtsezko elementu bat, bai eta diru-sarrerak bermatzeko prestazio batzuk Lanbidera igarotzea ere.

Aintzat hartutako zentro eta prestazio askok, aldiz, GZEZEren estatistika-jarraipenaren xede izaten jarraitzen dute. Horren arrazoia da informazioari jarraipena ematea bermatzea, GZEZErik gabe ez baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-ekintzaren testuinguruan jasoko.

Nolanahi ere, gizarte-zerbitzuen sistema finkatzeari esker, sistema honi buruzko azterketak gehiago zehaztu ahal izan dira. Nahiz eta hurbilketa estatistikoa, egonkortasun-bokazioagatik, ezin den erabat subsumitu dauden mugaketa juridikoetan (aldakortasun potentzialagatik), garai honetan esan daiteke oinarrizko justaposizioa dagoela gizarte-zerbitzuen sektorearen definizio estatistiko eta juridiko-administratiboetan, diru-sarrerak bermatzeko eta familia babesteko politikei lotutako jarduerak barne. Hori dela eta, erabilgarria da gizarte-zerbitzuen egungo konfigurazioaren azterlan zehatz bat, euskal administrazio publikoek eta gainerako eragileek, eta, bereziki, hirugarren sektorearekin lotutakoak, aintzat hartzen duten moduan.

Azken urteotan gizarte-zerbitzuen arloko edukiak lortu duen zehaztasun ia-ia behin betikoa aintzat hartuta, txostenean aipatzen diren informazioa tratatzeko bi arlo handiak gizarte-ekintzaren bi alderdi nagusiei lotzen zaizkie: lehena gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiari, eta bigarrena, eduki ekonomikoa duten prestazioen sistema osagarriari.

Bigarren esparru hori lotzen da, batik bat, 80ko hamarkadaren amaieratik ezarritako diru-sarrerak bermatzeko politikarekin, baina lotura du familiei laguntza emateko jarduketekin ere. Zerbitzu horiek gizarte-zerbitzuen eta familia-politiken eskumena duen sailak bultzatuko zituela adostu zen mendearen hasieratik (une honetan, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila).

Prestazio horien zati bat, GLLak kasurako, gizarte-zerbitzuen egitura sistematikoari lotutako osagaitzat hartzen dira. Gainerakoek esparru nabarmen berezia eta autonomia dute, baina gizarte-zerbitzuen sistemarekin lotuta egoten jarraitzen dute, antzeko oinarri juridiko-politikoak dutelako, Konstituzioan eta Estatutuan ezarritako eskumen berberen garapenarekin lotzen den heinean.

Azpimarratu beharreko alderdi garrantzitsu bat da txosten honek GZEZE eta **Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoari** buruzko estatistika batera ustiatzen dituela. Estatistika osagarri honen helburua da zehaztasunez jasotzea administrazio publikoek gizarte-zerbitzuak, gizarte-prestazioak eta gizarteratzeko prozesuekin lotutako zerbitzuak mantentzeko bideratzen duten gastu publiko arrunta.

Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoa aintzat hartzean, asmoa da hedapenean, dokumentu bakar koordinatu baten bitartez, estatistika-eragiketa honen edukia sartzea, GZEZEkoaren paraleloa eta, neurri handi batean, subsidiarioa baita (erakunde eta zentroi hurbiltzeko mekanismoa den heinean). Erabaki hori garrantzitsua da; izan ere, datuen ustiapen-diseinuan ahalegin berezi bat egitea ekarri du, tradizionalki Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoaren estatistiketan jasotako informazioa antolatzeari dagokionez.

GZEZEren eta Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoaren 2016-2019 aldiko txostenak, funtsean, 2015-2018 aldirako egindako txostenean (2021eko martxoan hedatu zena) finkatutako lan-ildoarekin jarraitu nahi du. Lan-ildo horren joera da gizarte-zerbitzuak aztertzearekin lotutako estatistika-eragiketen emaitza nagusiak elkarrekin aurkeztea.

Edukiari dagokionez, agiriak alderdi hauek hartzen ditu ardatz gisa:

- a) Gizarte-zerbitzuen sektoreko zentro, zerbitzu eta programen sistemaren aurkezpen orokorra, bereziki aipatuz egungo plazen egitura (egoitza-plazak direnena eta ez direnena).
- b) Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastuari lotutako emaitza nagusien deskribapena. Ikuspegiaren ardatza soilik gastu arruntaren analisisa da.
- c) Gastu arruntaren finantzaketa-egituraren analisisa; erreferentzia berezia eginez administrazio publikoen eta erabiltzaileen zereginari.



d) Gizarte-zerbitzuen erdiguneko langileen egituraren xehetasunak, aintzat hartuta sektorearen alderdiak nahiz langile horien ezaugarri diren alderdi hertsiki profesionalak.

Hurbilketan, langile azpikontratatuena eta boluntarioen zereginari buruzko alderdiak ere txertatu dira.

e) Azkenik, gizarte-zerbitzuen sektorea osatzen duten zentro eta zerbitzuen araberako kudeaketaren adierazle handietako batzuen aurkezpena egingo da. Adierazle horiei esker, errazagoa da egungo zentro eta zerbitzu batzuen profil espezifikoak ulertzea.

Datuen aurkezpenarekin batera, adierazitako atal gehienetan, atxikitako lurralde-informazioa adierazten da, bai lurralde historikoaren ikuspegitik, bai txostenean baliatutako udalerrien multzokatze-sistemaren eta hiriburuen ikuspegitik ere. Hartara, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lurralde desberdinetan eta udalerrietan ikus daitezkeen aldeak zehaztu nahi ditu txostenak.







## 2. Zerbitzuen eskaintza

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuek lurralde osoan eskaintzen dituzte zerbitzuak eta zentroak. Gizarte-prestazio ekonomikoen sistemak bermatzen duen babesaz gain, eskaintza hori bi motatako plazen bolumen jakin batean zehazten da: batetik, egoitza-plazak, eta, bestetik, egoitzakoak ez direnak. Jarraian aztertzen dira.

### 2.1. Egoitza-plazak

2019an, 1. taulan ikus daitekeen bezala, EAEko gizarte-zerbitzuen sistemak 30.036 egoitza-plaza eskaini zituen guztira. Horrek % 3,4ko gehikuntza adierazten du, 2018an zeuden 29.041 plazekin alderatuta.

Horiek horrela, 2012-2013 aldiko jaitsieraren eta 2014ko egonkortzearen ostean, 2014tik 2015era bitartean hasitako suspertze-bidea sendotu da; plazen kopuruak % 1,0 egin zuen gora aldi horretan. 2016-2017 aldian zertxobait moteldu zen hazkundera, eta % 2,1 baino ez zuen gora egin (2015-2016 aldiko % 2,6ko gorakada baino txikiagoa); 2017-2018 aldian, ordea, plazen kopuruaren igoera berriro piztu zen, zehazki, % 2,8 egin zuen gora. Gorako joera areagotu egin zen 2018-2019ko % 3,4ko gehikuntzarekin.

Egoitza-plazen % 69,7 adinekoei arreta emateko eremukoak dira, eta 2019an 20.949 plaza izan ziren. 2018aren eta 2019aren artean, halako plazek % 1,4 egin zuten gora, aldi horretan egoitzen sistema osoan, ehunekoetan, -2,0 puntu. Hala ere, adinekoentzat egoitza-plazak sortzeko dinamika 2016-2017 aldiko % 0,4tik eta 2017-2018 aldiko % 0,9tik gora kokatzen da, eta 2015-2016 aldiko % 1,6ra hurbiltzen da. Termino absolutuetan 295 plaza garbi sortu ziren 2018. eta 2019. urteen artean. Kopuru hori 2015-2016 aldian sortutako 314ko kopurura hurbildu zen, eta 2016-2017 aldian sortu ziren 75 plaza garbiak gainditu zituen, baita 2017-2018 aldiko 179 plazak ere. Halaber, 2014-2015 aldiko 165 plaza garbi berriak gainditu zituen.

Gizarte-zerbitzuen egoitza-eskaintzaren bigarren arreta-arlo nagusia bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentroena da: 4.077 plaza eskaini ziren, hau da, plaza guztien % 13,6. Horietatik, 3.415 (plaza guztien % 11,4) etxebizitzetakoak edo egoitza-zentroetakoak ziren, eta 662 (plaza guztien % 2,2), gaueko harrera-zentroetakoak.

2018. eta 2019. urteen artean, nabarmena izan zen bazterketaren arloan izandako egoitza-plazen areagotzea: % 12,3koa, 2018an zeuden 3.630 plazekin alderatuta. Horrenbestez, gainditu egin zen 2017-2018 aldiko % 7,4 gehikuntza, baita % 11tik hurbileko 2015-2016 aldiko maila (% 11,4) eta 2016-2017 aldikoa (% 11).

2016. eta 2018. urteen artean ikusitakoarekin alderatuta, gainera, goranzko joera zentro mota ezberdinetan hauteman zen. Hala, eskaintzaren bilakaerak goranzko joerari eutsi zion etxebizitzetan edo egoitza-zentroetan, 2018. eta 2019. urteetan % 11,5eko gehikuntza izan baitzuen, 2017-2018 aldiko % 9,4aren gainetik, eta berriro hurbildu zen 2015-2016ko % 12,5era, eta 2016-2017ko % 13,5era. Baina joera bera ikusten da harrera-zentroetan, non % 16,5eko gehikuntza izan baitzen, oso deigarria 2016-2017 aldiko % 0,3ko hazkunderarekin eta 2017-2018 aldiko -% 2,2ko jaitsierarekin alderatuta. Goranzko joera berreskuratzeko erritmoak 2015. eta 2016. urteen artean plazen kopuruan erregistratutako % 7ko igoera gainditu zuen 2018-2019ko aldian.

Multzoan hartuta, bazterketaren arloan 447 plaza garbi sortu ziren 2018-2019 aldian, alegia, 2017-2018 aldian sortutako 251 plazen gainetik, zein 2015-2016 aldiko 311 eta 2016-2017 aldiko 335 plazen gainetik. Horrekin, mantendu egin zen 2012. eta 2015. urteen artean hautemandako beheranzko joera eta geroko egonkortzea hausteko dinamika; 2014-2015 aldian, sektore honetan 33 plaza baino ez ziren sortu.

Eskaintzaren igoera etxebizitzetara eta egoitza-zentrotara lotzen zaie, non beheranzko joera egon baitzen 2015era arte: 2.192 plaza urte horretan; eta 2012an, ordea, 2.261 plaza. 2015. eta 2016. urteen artean, bazterketa-egoeran zeuden pertsonentzako egoitza-zentroetan 273 plaza sortu ziren, eta 2016-2017 aldian, berriz, 333 plaza. 2017-2018 aldian, sortutako 264 plaza berriek erakusten dute zertxobait moteldu zela eskaintzaren hedapena, baina argi dago gora egiten jarraitzen zuela. Joera hori areagotu egin zen 2018an eta 2019an, 353 plaza berri sortu baitziren. 2012tik izandako zifrarik handiena izan zen. Berreskuratze-lerroari dagokionez, gaueko harrera-zentroetan 2018an eta 2019an sortutako 94 plaza berrietan islatu zen. Alde nabarmena dago 2017-2018an izandako jaitsierarekin -13 plaza gutxiago- eta 2016an eta 2017an sortutako plaza kopuru txikiarekin -2 baino ez-.

Desgaitasun-egoeran edo gaixorik dauden pertsonetara emateko eremuan, 2018-2019 aldian hautsi egin zen aurretik egondako plaza kopuru urria gehitzeko joera: 2016-2017 aldian % 0,4koa izan zen igoera, eta 2017-2018 aldian, % 0,3koa. Aldea handia da 2018an eta 2019an, plazen kopurua % 5,2 handiagoa izan baitzen. Kopuru horrek modu nabarmenean gaintu zuen 2014-2015 aldiko % 1,3ko gehikuntza eta 2015-2016 aldiko % 3,5koa. Plazen kopurua 2.906 izatera iritsi zen 2019an, hau da, 144 plaza berri 2018koekin alderatuta (2.762 plaza zeuden). Hala, areagotu egin zen goranzko joera apala, 2012ko 2.566 plazetatik 2.600 plaza baino apur bat gehiago izatera iritsi baitzen 2013. eta 2015. urteen artean; gero, 2016tik 2018ra bitartean, 2.750era iritsi zen, eta, azkenik, 2019an, 2.906ra.

Edonola ere, desgaitasun-egoeran edo gaixorik dauden pertsonetara emandako arreta gizarte-zerbitzuen hirugarren arreta-eremua zen oraindik ere: 2019an, plaza guztien % 9,7 osatu zuen. Hala ere, proportzio horrek gora egin zuen 2018ari dagokionez (% 9,5), 2017koa baino txikiagoa izan zen (% 9,8), baita 2016koa baino ere (% 9,9).

Adingabeentzako, gazteentzako eta familientzako egoitza-zentroek plaza guztien % 5,4 hartu zuten. Kopuru hori 2016koa (% 3,8) eta 2017koa (% 4,2) baino handiagoa izan zen, baina egonkortu egiten da 2019an, 2018an lortutako proportzioa mantendu baitzen.

Adingabeentzako, gazteentzako eta familientzako egoitza-zentroetako plazen kopuruak gora egiten jarraitu zuen 2018. eta 2019. urteen artean, % 3,8ko gehikuntzarekin. Hala ere, aldi horretan nabarmen moteldu zen hazkundera aurreko urteetan ikusitakoarekin alderatuta: 2016-2017 aldian plazen kopuruak % 13,1 egin zuen gora, eta 2017-2018 aldian, % 31,9.

Zifra absolutuak hartuta, 2016-2017 aldiak nabarmen eten zuen lehenagoko plazak murrizteko joera, izan ere, 2012an 1.144 plaza ziren; 2015ean, 1.071 plaza, eta 2016an, 1.047 plaza. 2017an, berriz, aldaketa nabarmena izan zen eta 137 plaza gehiago sortu ziren: guztira 1.184 plaza izan ziren eta 2012koa gaintu zen. Gorako joera areagotu egin zen 2017. eta 2018. urteen artean, 491 plaza berri sortu baitziren. 2018. eta 2019. urteen artean 59 plaza berri baino sortu ez baziren ere -2016. eta 2018. urteen artean izandako gehikuntzaren azpitik-, mantendu egin zen plaza gehiago izateko joera. Izan ere, 2019an eskainitako plazen kopurua handiena izan zen 2012tik, 1.621 plaza eskaini baitziren, hau da, 2018an (1.562) eta 2017an (1.184) baino gehiago.



1. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-plazak, zentro/zerbitzu motaren arabera. 2016-2019 (Datu absolutuak, % bertikalak eta urte arteko bariazioa %-tan)

	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	Bariazioa 2018/2019 aldian
	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak
Zentro/Zerbitzu mota	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%
Egoitza-zentroak	20.382	20.457	20.636	20.931	73,7	72,4	71,1	69,7	1,4
Atsedena- eta babes-zerbitzuak	18	18	18	18	0,1	0,1	0,1	0,1	0,0
<b>ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA</b>	<b>20.400</b>	<b>20.475</b>	<b>20.654</b>	<b>20.949</b>	<b>73,7</b>	<b>72,5</b>	<b>71,1</b>	<b>69,7</b>	<b>1,4</b>
Egoitza-zentroak	2.700	2.711	2.718	2.861	9,8	9,6	9,4	9,5	5,3
Atsedena- eta babes-zerbitzuak	44	44	44	45	0,2	0,2	0,2	0,1	2,3
<b>DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA</b>	<b>2.744</b>	<b>2.755</b>	<b>2.762</b>	<b>2.906</b>	<b>9,9</b>	<b>9,8</b>	<b>9,5</b>	<b>9,7</b>	<b>5,2</b>
Egoitza-zentroak	1.047	1.184	1.562	1.621	3,8	4,2	5,4	5,4	3,8
<b>ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA</b>	<b>1.047</b>	<b>1.184</b>	<b>1.562</b>	<b>1.621</b>	<b>3,8</b>	<b>4,2</b>	<b>5,4</b>	<b>5,4</b>	<b>3,8</b>
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak ez)	183	207	185	216	0,7	0,7	0,6	0,7	16,8
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	250	248	248	267	0,9	0,9	0,9	0,9	7,7
<b>EMAKUMEAK GUZTIRA</b>	<b>433</b>	<b>455</b>	<b>433</b>	<b>483</b>	<b>1,6</b>	<b>1,6</b>	<b>1,5</b>	<b>1,6</b>	<b>11,5</b>
Ostatu/egoitza-zentroak	2.465	2.798	3.062	3.415	8,9	9,9	10,5	11,4	11,5
Gaueko harrera-zentroak	579	581	568	662	2,1	2,1	2,0	2,2	16,5
<b>BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA</b>	<b>3.044</b>	<b>3.379</b>	<b>3.630</b>	<b>4.077</b>	<b>11,0</b>	<b>12,0</b>	<b>12,5</b>	<b>13,6</b>	<b>12,3</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>27.668</b>	<b>28.248</b>	<b>29.041</b>	<b>30.036</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>3,4</b>

Iturria: EOE, BJKPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika  
OHARRA: Ikus atsedena- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean

**2. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-plazak (publikoak, itunduak eta pribatuak), zentro/zerbitzu motaren arabera. 2016-2019 (Plaza guztien gaineko %)**

Zentro/Zerbitzu mota	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019
	Publikoak	Publikoak	Publikoak	Publikoak	Itunduak	Itunduak	Itunduak	Itunduak	Pribatuak	Pribatuak	Pribatuak	Pribatuak
	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %
<b>ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA</b>	<b>37,0</b>	<b>36,7</b>	<b>36,3</b>	<b>35,7</b>	<b>31,2</b>	<b>30,3</b>	<b>31,8</b>	<b>32,0</b>	<b>31,8</b>	<b>33,0</b>	<b>31,8</b>	<b>32,3</b>
<b>DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA</b>	<b>31,8</b>	<b>29,4</b>	<b>28,0</b>	<b>28,0</b>	<b>62,8</b>	<b>64,4</b>	<b>68,0</b>	<b>66,0</b>	<b>5,4</b>	<b>6,2</b>	<b>4,1</b>	<b>6,1</b>
<b>ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA</b>	<b>86,5</b>	<b>87,4</b>	<b>90,4</b>	<b>87,8</b>	<b>11,8</b>	<b>11,0</b>	<b>8,1</b>	<b>11,4</b>	<b>1,6</b>	<b>1,6</b>	<b>1,5</b>	<b>0,8</b>
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak ez)	32,8	30,0	36,8	30,1	29,0	32,4	33,5	32,4	38,3	37,7	29,7	37,5
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	95,6	95,6	95,6	95,9	3,2	3,6	1,6	3,4	1,2	0,8	2,8	0,7
<b>EMAKUMEAK GUZTIRA</b>	<b>69,1</b>	<b>65,7</b>	<b>70,4</b>	<b>66,5</b>	<b>14,1</b>	<b>16,7</b>	<b>15,2</b>	<b>16,4</b>	<b>16,9</b>	<b>17,6</b>	<b>14,3</b>	<b>17,2</b>
Ostatu/egoitza-zentroak	29,6	29,8	28,7	30,1	23,9	22,0	18,9	19,6	46,5	48,2	52,4	50,3
Gaueko harrera-zentroak	76,3	77,8	76,9	79,0	9,0	9,0	12,0	7,7	14,7	13,3	11,1	13,3
<b>BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA</b>	<b>38,5</b>	<b>38,1</b>	<b>36,3</b>	<b>38,0</b>	<b>21,1</b>	<b>19,7</b>	<b>17,9</b>	<b>17,7</b>	<b>40,4</b>	<b>42,2</b>	<b>45,9</b>	<b>44,3</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>39,0</b>	<b>38,8</b>	<b>38,9</b>	<b>38,6</b>	<b>32,2</b>	<b>31,3</b>	<b>32,0</b>	<b>32,0</b>	<b>28,8</b>	<b>29,9</b>	<b>29,1</b>	<b>29,4</b>

Iturria: EOE, BJKPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



2012. eta 2015. urteen bitartean emakumeentzako plazen kopurua 433tik 428ra murriztu ondoren (-% 1,2), 2016an % 1,2 hazi zen eta berriro iritsi zen 2012ko 433ko kopurura. Gora egiteko dinamika nabarmenagoa izan zen 2017an, eta, guztira 455 plaza zeuden kolektibo horrentzat. 2018an, ordea, berriro egin zuen behera, eta 2012ko eta 2016ko 433 plaza kopurura itzuli zen, hau da, 2017an baino -% 4,8.

Hala ere, 2018. eta 2019. urteen artean emakumeentzako gizarte-zerbitzuetarako plazen kopuruak % 11,5eko igoera nabarmena izan zuen 50 plaza berri sortuta. Horren ondorioz, 483 egoitza-plaza eskaini ziren, zifrarik handiena 2012az geroztik. Haatik, plaza horiek EAEko gizarte-zerbitzuetako egoitza-eskaintza osoaren % 1,6 besterik ez ziren izan.

Arreta-arlo honetan, 2018-2019 aldian plaza gehiago izatea tratu txarren biktima izan ez diren emakumeentzako plazen kopuruari lotzen zaio: 2019an 216 plaza izan ziren, hau da, 2017an baino gehiago, orduan izan baitzen aurreko maximoa (207 plaza). 2019ko eskaintza nabarmen urrundu zen 2015ean, 2016an eta 2018an izandako kopuruetatik: 178 eta 185 artekoak.

Hala ere, gorakada genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako eskaintzan ere izan zen, 2019an 267 plaza eskaini baitziren. 2018an baino % 7,7 gehiago, urte horretan 248 plaza eskaini baitziren. Zerbitzu mota honen aurreko urteetako ezaugarria egonkortasuna izan zen. Hala, 2018an 248 plaza zeuden, 2015. eta 2017. urteen artean izandako maila berean, eta 2012ko maila baino zertxobait gorago (246 plaza izan ziren).

2. taulan ikus daitekeen bezala, gizarte-zerbitzu guztiei erreparatuta, egoitza-plazen banaketa titulartasunaren arabera aztertuz gero, plaza publikoek eta itunpeko plaza pribatuek pisu nabarmena dute. 2019an, plazen % 38,6 eta % 32,0, hurrenez hurren, publikoak eta itunduak ziren, eta araubide guztiz pribatukoa zen % 29,4. Sektore guztiz pribatuaren pisu erlatiboak gora egin zuen 2015eko % 27,3tik 2017an % 29,9ra iritsi arte, eta berriro hartu zuen indarra 2018an proportzio hori % 29,1era jaitsi ondoren.

2019an, plaza publikoen eragin erlatibo handiena indarkeriaren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroetan eta adingabe, gazte edo familientzako zentroetan izan zen: hurrenez hurren, plaza publikoen % 95,9 eta % 87,8. Proportzio hori oso altua izan zen bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan ere (% 79,0).

Kontrako egoeran, 2019an plaza publikoen proportziorik txikiena desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroek izan zuten (% 28,0), bai eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eta genero-indarkeriaren edo tratu txarren biktima izan ez diren emakumeentzako etxebizitzek eta egoitza-zentroek ere (% 30,1 kasu bietan). Proportzioa zertxobait altuagoa izan zen adinekoentzako egoitza-zentroetan (% 35,7).

Plaza publiko gutxi dituzten sektoreetan, 2019an sendotu egin zen plaza horiek desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroetan zuten pisu erlatiboaren beheranzko joera (2014ko % 32,9tik 2018 eta 2019ko % 28ra). Gauza bera gertatu da adinekoentzako egoitza-zentroetako plaza publikoekin; % 35,7 izan ziren 2019an, eta beheranzko joera apala, baina jarraitua, erakusten du 2016ko % 37arekin alderatuta.

Antzeko joera dago genero-indarkeriaren edo tratu txarren biktima izan ez diren emakumeentzako arretan: 2015etik (% 35,4) 2017ra (% 30) izandako beherakada berreskuratu zen 2019an. 2018an gora egin ondoren, % 36,8ra iritsita, 2019ko % 30,1eko balioarekin, 2017ko gutxieneko mailetan kokatu zen berriro.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitzetako edo egoitza-zentroetako plaza publikoei dagokienez, berriz, 2016ko eta 2017ko proportzioak (% 29,6 eta % 29,8) 2018an % 28,7ra jaitsi ondoren, 2019an apur bat gora egin zuen plaza horien pisuak eta % 30,1ean kokatu zen.

Plaza publiko gehiago dituzten zentroetan joerak era askotakoak dira ere. Alde batetik, indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako etxebizitzetan edo egoitza-zentroetan, plaza publikoen pisua egonkor mantendu zen (% 95,6 eta % 95,9 artean 2016az geroztik). Beste alde batetik, gaueko harrera-zentroetan, 2017an eta 2018an murrizketa bat egon bazen ere (% 77,8tik % 76,9ra), 2016tik goranzko joera izan zuten, orduko % 76,3tik 2019ko % 79ra iritsi arte. Goranzko joera hori adingabeentzako edo familientzako plaza publikoetan ere ikusi zen, 2016ko % 86,5etik 2018ko % 90,4ra, baina 2019an behera egin zuen erreferentziako proportzioak eta % 87,8koa izan zen, 2017ko % 87,4tik hurbil.

Itunpeko plazei dagokienez, haien pisu erlatiboa bereziki altua izan zen 2019an desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zerbitzuetan. Kasu horretan, eskainitako plaza guztien % 66 izan ziren. Berreskuratze-joera argi eta jarraituaren ondoren –2014ko % 58,5etik 2018ko % 68ra–, 2018. eta 2019. urteen artean proportzioak behera egin zuen, ehuneko puntu bi. Hala ere, 2019ko % 66ko proportzioa bigarren erregistro altuena izan zen 2014tik ordura arte.

Maila horiek EAEko proportzio orokorraren inguruan (% 32) kokatzen dira adinekoentzako eta genero-indarkeriaren arloan arazoak ez dituzten emakumeentzako egoitza-zentroei dagokienez (% 32,0 eta % 32,4, hurrenez hurren). Hala ere, joera berriena ezberdina izan zen zentro mota horietako bakoitzean. Hala, adinekoentzako egoitza-zentroetan, 2019an mantendu egin zen plaza itunduen proportzioaren goranzko joera. 2015. eta 2017. urteen artean % 33,2tik % 30,3ra behera egin ondoren, 2018an berreskuratu egin zen plaza publikoen proportzioa eta % 31,8an kokatu zen adierazle hau, eta gorakada txiki bat izan zuen 2019an (% 32). Hala ere, proportzio hori 2015eko % 33,2ko proportzioa baino ehuneko 1,2 puntu txikiagoa izan zen.

Genero-indarkeriaren arloko arazorik ez duten emakumeentzako egoitza-zentroetan, berriz, argi eta garbi eten zen 2018ra arte plaza itunduen ehunekoan izandako goranzko joera jarraitua. Ehuneko hori 2016ko % 29tik 2018ko % 33,5 pasatu zen, hau da, 2015eko % 33,7ko mailaren parean jarri zen berriro. 2019an, hala ere, plaza itunduen pisuak % 32,4 egin zuen behera, eta, beraz, 2017an erregistratutako mailetara itzuli zen.

Adierazitako zentro mota horiek baino dezente beherago dago plaza itunduen pisua bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan (% 19,6). 2018ko % 18,9ko balioaren gainetik egon arren, zifra horrek ez zuen ekarri aldaketa garrantzitsurik aurreko urteetan hautemandako beheranzko joeran (% 24,8, 2015ean; % 22, 2017an), eta maila baxuena izan zen 2012tik aurrerako datuekin alderatuta.

Itunpeko plazen proportzioa askoz txikiagoa izan zen egoitza-arretaren gainerako arloetan: % 11,4 adingabe, gazte edo familientzako egoitza-zentroetan; % 7,7, gaueko harrera-zentroetan, eta % 3,4, genero-indarkeriaren edo tratu txarren biktimak diren emakumeentzako etxebizitzetan.



Azkenik, nabarmentzekoa da plaza pribatuek bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitzak eta egoitza-zentroei dagokienez 2019an izan zuten pisua (% 50,3)<sup>1</sup>. Plaza horiek EAEko adierazle orokorretik gora egon ziren, orobat, adinekoentzako eta indarkeriaren biktimak ez diren emakumeentzako egoitza-zentroetan (% 32,3 eta % 37,5, hurrenez hurren). Proporzioa askoz txikiagoa zen, aldiz, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan (% 13,3) eta desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroetan (% 6,1). Plaza pribatuen ehunekoa % 0,7 eta % 0,8 bitartean kokatu zen adingabe, gazte eta familientzako zein genero-indarkeriaren edo tratatu txarren biktima izandako emakumeentzako egoitza-zentroetan.

Aurreko urteetan ikusitakoari dagokionez, eta plaza pribatu gehien zituzten hiru zentro motei dagokienez, oraintsuko bilakaeran, nolabaiteko beheranzko egonkortze bat izan zuen araubide guztiz pribatuko plazen pisuak bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitza-zerbitzuen eta egoitza-zentroen esparruan. Kasu horretan, 2018ko plaza pribatuen kopuruak (% 52,4) luzatu egin zuen 2013ko % 41,9tik hautemandako goranzko joera argia. 2019ko % 50,3a nolabaiteko atzerapena izan zen, baina ez zuen aldatu aipatutako joera hori, oraindik ere 2017ko % 48,2aren gainetik baitzegoen (urte horretan erregistratu zen zifrarik altuena 2012az geroztik). 2013an zeuden plaza pribatuen proportzioarekin alderatuta, beraz, oraindik esan daiteke egoitza-zentro horietako plaza pribatuen pisua gorantz ari zela.

2019ko datuek bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan islatzen zuten egonkortze-joera adinekoentzako egoitza-zentroetan ere ematen zen, neurri handi batean, baina, kasu horretan, goranzko berreskuratze-maila baten testuinguruan. Hala, plaza pribatuen pisu erlatiboak gora egin zuen 2018ko % 31,8tik 2019ko % 32,3ra. Proporzio hori urrundu egin zen 2014-2015 aldiko % 30,1 eta % 30,6tik, baina 2012ko % 33,1 eta 2017ko % 33ko balioen azpitik geratu zen oraindik ere.

Genero-indarkeriaren biktima izan ez diren emakumeentzako zentroetan, aldiz, nabarmen aldatu zen 2018an ikusitako beheranzko joera. Orduan, plaza pribatuak % 29,7 ziren, hau da, 2012-2013 aldiko eta 2016-2017 aldiko zifretatik (% 37,7 eta % 40,1) beherakoa. 2019an, proportzioak gora egin zuen eta % 37,5era iritsi zen. Zifra hori berriro jarri zen % 37,7 eta % 40,1 arteko tarte horren barruan.

Gainerako egoitza-zentroei dagokienez —zeinetan nabaria baitzen plaza pribatuen presentzia erlatibo txikiagoa—, 2018tik 2019ra izandako bariazioek ez zuten ekarri aldaketa nabarmenik egoitza-plaza pribatuen pisu erlatiboan.

## 2.2. Egoitzakoak ez diren plazak

3. taulan jasota dago EAEko gizarte-zerbitzuen sistemak duen eskaintza, egoitzakoak ez diren plazei dagokienez. Ikus daitekeen bezala, sistema horrek egoitzakoak ez diren 15.637 plaza zituen guztira 2019an, hau da, 2018an baino % 4,0 gehiago. Urte horretan 15.029 plaza izan ziren<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> Edonola ere, bazterketa-egoeran daudenei arreta emateko zerbitzuetan, kontuan hartzekoak dira Kontzeptuen eta Definizioen Eranskinean arreta-sektore horretako plaza itunduei eta plaza pribatuei buruz egiten diren zehaztapenak.

<sup>2</sup> Analisian, egoitza-zentroetan dauden egoitzakoak ez diren plazak sartu dira. Beste alde batetik, zehaztu behar da GZEEren 2016-2019 eragiketari doitu egin dela egoitza-plazen neurketari lotutako hurbilketa desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitzak ez diren zentro batzuetan, eta zenbait aldaketa sartu dira aurreko txostenekin alderatuta.

2012. eta 2013. urteen artean hautemandako igoeraren ondoren eta 2013. eta 2015. urteen bitartean zenbatekoak egonkortu ondoren, 2015-2016 aldiak gizarte-zerbitzuen eskaintzaren susperraldia ekarri zuen egoitzakoa ez den arretan; zehazki, % 5etik gorakoa igoera izan zuen plazen kopuruak. 2016tik 2018ra hazkundearen erritmo moteldu egin zen, eta, 2016tik 2017ra bitartean, % 2,8 egin zuen gora (14.261 plazatik 14.660ra); 2017-2018 aldian, berriz, % 2,5 (14.660tik 15.029ra). Gero, 2018-2019 aldian gora egin zuen berriro eskaintako plazen kopuruak, aipatutako % 4,0.

Desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen sektoreak zituen mota horretako plaza gehien: 7.090 plaza 2019an, hau da, plaza guztien % 45,3. Hala ere, 2016an 6.802 plaza izatetik 2018an 7.112 plaza izatera pasatu ondoren, azken bilakaeran apur bat beherantz egonkortu zen plazen kopurua, eta horrek eskaintzaren beheranzko joera bat islatzen zuen. Hortaz, 2016-2017 aldian hazkundera moteldu ostean (% 3,7 egin zuen gora plazen kopuruak), 2017-2018an moteltze hori nabarmenagoa izan zen (% 0,8), eta 2018-2019 aldian beheranzko joera nabarmendu zen plazen eskaintzan (-% 0,3).

Desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitzakoa ez den arretan, zeuden plaza gehienak eguneko laguntza-zentroetan eta asistentzia-jarduerari okupazioaren osagaia eransten dioten eguneko zentroetan izan ziren. 2019an eguneko laguntza-zentroetan zeuden 2.212 plazak kontuan hartuta, % 1,1 gehiago zen 2018arekin alderatuta, eta 2014tik izandako goranzko nolabaiteko egonkortze-joerari eutsi zitzaion. Bariazio positibo motelak izan ziren 2014-2019 aldiaren barruan erregistratutako 2.098 eta 2.212 plazen artean (+% 2,9, 2016ko 2.150 plazetatik 2019ko 2.212 plazetara). Okupazioaren aldagaia duten eguneko zentroek 2.926 plaza zituzten 2019an, hau da, 2018an baino -% 1,0 gutxiago, 2.955 izan baitziren. Hala ere, epe luzera, mantendu egiten da goranzko joera, 2016ko 2.755 plazekin alderatuta (+% 6,2, aldi horretan).

Bestalde, suspertze- eta arreta-zentroek 805 plaza zituzten, 2018an baino % 3,5 gehiago (778 plaza urte horretan), eta goranzko joera nabarmena zen 2017ko 765 plazak aintzat hartuta. Hala ere, 2019an izandako plazen eskaintza 2016koa baino txikiagoa izan zen, -% 1,9, orduko 821 plazekin alderatuta. Laneratzeko zentroetan, 2019an izandako 1.138 plazek beherakada argia erakusten dute 2017an izandako 1.368 plazekin alderatuta, baina 2016ko 1.057 plazen gainetik egon zen kopurua (+% 7,7).

Adineko pertsonen arretaren arloan, egoitzakoak ez diren 5.847 plaza zeuden 2019an, plaza guztien % 37,4. 2015-2016ko % 4,4ko igoeraren ondoren (5.213 plazatik 5.440 plazara), 2017an egonkortu egin zen, % 0,3ko igoera baino ez baitzen egon, 5.456 plaza izatera. Hala ere, 2017-2019 aldian nabarmen egin zuen gora eskaintzak. Hala, urteko % 2,2ko hazkundera izan ondoren, 2018an 5.577 plaza izatera iritsi arte; 2018. eta 2019. urteen artean, urteko hazkundera % 4,8koa izan zen, hau da, 2015-2016 aldian erregistratutakoaren gainetik egon zen.

Eguneko laguntza-zentroak egoitzakoa ez den adinekoentzako eskaintza honen funtsezko zatia ziren, 4.529 plaza baitzituzten 2019an, hau da, 2018an baino % 1,7 gehiago (4.452 plaza). Halako zentroetan eskaintzak egoitzakoak ez diren beste gizarte-zerbitzu batzuen jarduera-eremuetan baino gutxiago egin zuen gora, baina 2018-2019 aldian nabarmen aldatu zen joera. Hala, 2014-2016 aldian urtean % 1,8 eta % 1,9 arteko hazkundera izan ondoren (plaza kopurua 4.255etik 4.414ra pasatu zen), 2016-2017 aldian % 1,1 baino ez zuen gora egin; eta, azkenik, 2017-2018 aldian kopuru negatiboak izan zituen (-% 0,3). 2018-2019 aldian, hazkunde-erritmoaren beheranzko joera hori aldatu egin zen, eta 2014-2016 aldiko hazkunde-maila moderatuak berreskuratu zituen.





**3. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitzakoak ez diren plazak, zentro/zerbitzu motaren arabera 2016-2019**  
(Datu absolutuak, % bertikalak eta urte arteko bariazioa %-tan)

	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	Bariazioa 2018/2019 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%
<b>Zentro/Zerbitzu mota</b>									
Egoitza-zentroak	208	87	91	126	1,5	0,6	0,6	0,8	38,5
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	122	92	92	122	0,9	0,6	0,6	0,8	32,6
Eguneko laguntza-zentroak	4.414	4.464	4.452	4.529	31,0	30,5	29,6	29,0	1,7
Jantokiak	558	658	763	896	3,9	4,5	5,1	5,7	17,4
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	138	155	179	174	1,0	1,1	1,2	1,1	-2,8
<b>ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA</b>	<b>5.440</b>	<b>5.456</b>	<b>5.577</b>	<b>5.847</b>	<b>38,1</b>	<b>37,2</b>	<b>37,1</b>	<b>37,4</b>	<b>4,8</b>
Egoitza-zentroak	19	14	8	9	0,1	0,1	0,1	0,1	12,5
Atsedeen- eta babes-zerbitzua					0,0	0,0	0,0	0,0	
Eguneko zentroak	2.150	2.106	2.188	2.212	15,1	14,4	14,6	14,1	1,1
Suspertze- eta arreata-zentroak	821	765	778	805	5,8	5,2	5,2	5,1	3,5
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	2.755	2.803	2.955	2.926	19,3	19,1	19,7	18,7	-1,0
Laneratze-zentroak	1.057	1.368	1.183	1.138	7,4	9,3	7,9	7,3	-3,8
<b>DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA</b>	<b>6.802</b>	<b>7.056</b>	<b>7.112</b>	<b>7.090</b>	<b>47,7</b>	<b>48,1</b>	<b>47,3</b>	<b>45,3</b>	<b>-0,3</b>
Adingabe/familien egoitza-zentroak		4	4	4	0,0	0,0	0,0	0,0	
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreata	324	364	427	538	2,3	2,5	2,8	3,4	26,0
<b>ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA</b>	<b>324</b>	<b>368</b>	<b>431</b>	<b>542</b>	<b>2,3</b>	<b>2,5</b>	<b>2,9</b>	<b>3,5</b>	<b>25,8</b>
Ostatu eta egoitza-zentroak.	25	23	23	22	0,2	0,2	0,2	0,1	-4,3
Eguneko zentroak	1.197	1.114	1.233	1.328	8,4	7,6	8,2	8,5	7,7
Jantoki sozialak	473	643	653	808	3,3	4,4	4,3	5,2	23,7
<b>BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA</b>	<b>1.695</b>	<b>1.780</b>	<b>1.909</b>	<b>2.158</b>	<b>11,9</b>	<b>12,1</b>	<b>12,7</b>	<b>13,8</b>	<b>13,0</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.261</b>	<b>14.660</b>	<b>15.029</b>	<b>15.637</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>4,0</b>

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika OHARRA: Ikus atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean

4. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitzakoak ez diren plazak: publikoak, itunduak eta pribatuak. 2016-2019

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019
	Publikoak	Publikoak	Publikoak	Publikoak	Itunduak	Itunduak	Itunduak	Itunduak	Pribatuak	Pribatuak	Pribatuak	Pribatuak
	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %
Zentro/Zerbitzu mota												
Egoitza-zentroak	8,7	31,0	30,8	20,6	8,7	23,0	17,6	35,7	82,7	46,0	51,6	43,7
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	100,0	100,0	100,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Eguneko laguntza-zentroak	70,0	69,6	69,1	67,5	18,7	17,9	20,1	21,3	11,3	12,5	10,8	11,2
Jantokiak	96,4	100,0	100,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	3,6	0,0	0,0	0,0
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	7,2	6,5	19,0	29,3	50,7	0,0	0,0	20,1	42,0	93,5	81,0	50,6
<b>ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA</b>	<b>69,5</b>	<b>71,4</b>	<b>71,6</b>	<b>71,0</b>	<b>16,8</b>	<b>15,0</b>	<b>16,3</b>	<b>17,9</b>	<b>13,8</b>	<b>13,6</b>	<b>12,1</b>	<b>11,2</b>
Egoitza-zentroak	31,6	14,3	0,0	0,0	36,8	28,6	0,0	55,6	31,6	57,1	100,0	44,4
Atsedeen- eta babes-zerbitzua	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Eguneko zentroak	19,0	18,7	20,0	18,6	76,7	75,4	75,3	78,2	4,3	5,9	4,7	3,3
Suspertze- eta arreta-zentroak	0,0	3,4	2,6	2,5	11,6	2,0	0,0	27,3	88,4	94,6	97,4	70,2
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	21,2	20,9	19,4	19,5	2,5	2,5	4,8	5,2	76,2	76,6	75,8	75,3
Laneratze-zentroak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<b>DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA</b>	<b>14,7</b>	<b>14,3</b>	<b>14,5</b>	<b>14,1</b>	<b>26,8</b>	<b>23,8</b>	<b>25,2</b>	<b>29,7</b>	<b>58,5</b>	<b>61,9</b>	<b>60,4</b>	<b>56,2</b>
Adingabe/familien egoitza-zentroak		100,0	100,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	45,7	44,0	44,0	34,9	38,3	23,4	8,2	37,4	16,0	32,7	47,8	27,7
<b>ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA</b>	<b>45,7</b>	<b>44,6</b>	<b>44,5</b>	<b>35,4</b>	<b>38,3</b>	<b>23,1</b>	<b>8,1</b>	<b>37,1</b>	<b>16,0</b>	<b>32,3</b>	<b>47,3</b>	<b>27,5</b>
Ostatu eta egoitza-zentroak.	88,0	87,0	87,0	90,9	0,0	0,0	0,0	0,0	12,0	13,0	13,0	9,1
Eguneko zentroak	11,3	13,2	12,6	14,2	40,1	33,2	33,3	49,8	48,6	53,6	54,1	36,1
Jantoki sozialak	3,2	2,3	2,3	7,4	0,0	0,0	0,0	0,0	96,8	97,7	97,7	92,6
<b>BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA</b>	<b>10,1</b>	<b>10,2</b>	<b>10,0</b>	<b>12,4</b>	<b>28,3</b>	<b>20,8</b>	<b>21,5</b>	<b>30,6</b>	<b>61,5</b>	<b>69,0</b>	<b>68,5</b>	<b>57,0</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>35,8</b>	<b>35,8</b>	<b>36,0</b>	<b>35,9</b>	<b>23,4</b>	<b>20,1</b>	<b>20,9</b>	<b>25,7</b>	<b>40,8</b>	<b>44,1</b>	<b>43,1</b>	<b>38,4</b>

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

OHARRA: Ikus atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean



Adinekoentzako jantokiek, berriz, 896 plaza eskaini zituzten 2019an. Kasu horretan, sendotu egin zen goranzko joera indartsua 2014-2015 aldiko 528 plazekin alderatuta, eta, 2018-2019an aldian, % 17,4 egin zuen gora, hau da, 2017-2018 aldiko % 16tik eta 2016-2017 aldiko % 17,9tik hurbil kokatu zen, eta 2015etik 2016ra izandako % 5,7ko igoera baino nabarmen handiagoa izan zen.

Horrez gainera, 174 plaza izan ziren egoitzakoak ez diren adinekoentzako zentroetan, eta 248, atsedean eta laguntza emateko zerbitzuetan edo egoitzakoa ez den zerbitzua ematen duten egoitza-zentroetan.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonak babesteko zerbitzuetan egoitzakoak ez ziren 2.158 plaza zenbatu ziren 2019an, hau da, plaza guztien % 13,8. 2014-2015 aldian beherakada izan ondoren (1.734tik 1.560ra), handik aurrera 2015-2016 aldiko goranzko joerari eutsi zion eskaintzak: 2016. eta 2017. urteen artean, % 5 egin zuen gora, eta 2017-2018 aldian, % 7,2. Goranzko joera hori areagotu egin zen 2018-2019 aldian, eta plazen kopuruan % 13,0ko igoera izan zen; 2015-2016 aldiko hazkundera gainditu zen ere. 2019ko 2.158 plazak 2014ko erregistroa baino % 24,5 gehiago izan ziren.

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroek 1.328 plaza izan zituzten 2019an. 2016-2017 aldian beherakada izan ondoren (-% 6,9koa, 1.197 plazatik 1.114ra jaitsi zen), 2017-2018 aldian berreskuratu egin zen 2015-2016 aldeko goranzko joera, zeuden plazetan % 10,7 gora egin ondoren. Indar gutxiagorekin bada ere, hazkunde-erritmoa altua izan zen 2018. eta 2019. urteen artean (% 7,7). Hori dela eta, 2019an gainditu egin zen aurretiaz egondako maximoa, hau da, 2013ko 1.262 plaza.

2016-2017 aldian igoera nabarmena izan ondoren (tarte horretan % 35,9 egin zuen gora jantoki sozialetako plazen kopuruak, 473tik 643ra), 2018an egonkortzeko joera erregistratu zen, 653 plaza egon baitziren, hots, 2017an baino % 1,6 gehiago. 2018-2019 aldian, berriz, berriro sustatu zen jantoki sozialen eskaintza, eta 2019an 808 plaza eskaini ziren guztira, 2018an baino % 23,7 gehiago. Jantoki sozialen eskaintzak nabarmen gainditu zituen 2012ko 483 plazak 2019an.

Azkenik, egoitzakoak ez diren plazen % 3,5 adingabeen, gazteen eta familien arlokoak izan ziren: 542 plaza guztira, 2019an. Kasu horretan, agerikoa zen goranzko joera: 2018an baino % 25,8 gehiago (431 plaza izan ziren); beraz, areagotu egin zen 2017-2018ko aldiko % 17,1eko gehikuntza eta 2016-2017 aldiko % 13,6koa.

4. taula aztertzen badugu, gizarte-zerbitzuen sisteman dauden egoitzakoak ez diren plaza erabilgarrien % 35,9 publikoak dira, eta % 25,7, itunduak. Gainerako % 38,4a plaza erabat pribatuak osatzen dute.

Plaza publikoei dagokienez, adineko pertsonen arretaren arloan, plaza mota horren inpaktua oso handia izan zen eguneko laguntza-zentroetan (% 67,5), baita atsedean eta laguntza emateko zerbitzuetan eta jantokietan ere (zerbitzu bietan % 100 osatu zuten). Guztira, adinekoen arretaren arloan, egoitzakoak ez diren plazen % 71,0 ziren publikoak.

2017an aldatu egin zen aurreko urteetako beherakada adierazle honetan. Hartara, 2012. eta 2013. urteen artean % 71,3tik % 72,8ra igo ondoren, proportzioa mailaka-mailaka jaitsi zen: 2015ean % 71,1 zen eta 2016an, % 69,5. 2017tik aurrera, aldiz, berriro egin zuen gora, eta 2017an % 71,4ra iritsi zen, eta 2018an, berriz, % 71,6ra. Hortaz, 2019ko % 71,0eko balioak 2016an nagusi zen beheranzko joera berreskuratzea ekarri zuen nolabait.

Plaza publikoen presentzia garrantzitsua da, halaber, adingabe, gazte eta familientzako eguneko arretan: % 34,9, 2019an. Kasu horretan, argi ikusi zen plaza publikoen garrantziak gorakada

jarraitua izan zuela 2012ko % 30,9tik 2015eko % 46,3ra. Hortik aurrera, berriz, beherakada bat izan zen eskaintza publikoaren proportzioan: % 44, 2017an, eta proportzio horri eutsi zitzaion 2018an ere. Beheranzko joera nabarmen areagotu zen 2018-2019 aldian, 2019an % 34,9an kokatu arte.

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonen arreta emateko eremuan, plaza publikoen pisu erlatiboa txikiagoa izan zen eguneko laguntza-zentroetan, bai jarduera hori okupazio-jarduerekin konbinatzen dutenetan zein halakorik egiten ez dutenetan (% 19,5 eta % 18,6, hurrenez hurren). Gauza bera gertatzen da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan ere (% 14,2).

Kasu horietan guztietan, plaza publikoen pisuak goranzko joera bat izan zuen 2012tik 2014-2015 aldira bitartean, eta bilakaera aldarra izan zen 2016tik 2019ra. Azken epe horretan, eta tarte erlatiboki egonkorren barruan, beheranzko joera txikia edo moderatu izan zen epe ertain edo luzera desgaitasun-egoeran edo gaixorik dauden pertsonentzako eguneko zentroetan (% 21,2tik % 19,5era, okupazio-jarduerak dituzten zentroetan, eta % 19,0tik % 18,6ra, eguneko zentroaren jarduna baino ez dutenetan).

Ez da gauza bera gertatzen bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan. Kasu horretan, 2012tik 2015era bitartean, plaza publikoen pisuak gora egin zuen, % 8,3tik % 12,5era, baina proportzioak behera egin zuen eta 2016an % 11,3ra jaitsi zen. 2017tik 2018ra % 13,2tik % 12,6 jaitsi arren, 2016-2019 aldian goranzko joera izan zuen orokorrean, eta 2019an % 14,2koa zen plaza publikoen proportzioa.

Plaza asko daukaten beste zerbitzu mota batzuetan ere 2018an oso txikia izan plaza publikoen kopurua; edo ez zen halako plazarik izan. Hori gertatzen da desgaitasun-egoeran eta gaixorik dauden pertsonentzako zerbitzuetan: suspertze- eta arreta-zentroetan (% 2,5) edo laneratzeko zentroetan (% 0,0). Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako jantoki sozialen kasuan, 2015etik 2018ra bitartean % 2,3tik % 3,2ra aldatu ondoren, 2019an proportzioa % 7,4ra iritsi zen.

Itunpeko plazen pisua oso altua da desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan: plaza guztien % 78,2. Proportzio hori 2016ko eta 2017ko % 75,3-75,4ko mailak baino gorago dago. 2015eko % 78ko balioa baino apur bat gorago dago, eta 2012ko % 76,2koa baino nabarmen gorago.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetako plazen % 49,8 itunduak ziren. 2018-2019an halako plazen pisuak gora egin zuen beste arloetako bat da. Zifra hauek izan zituen: 2014an, % 26,2; 2015ean, % 31,2, eta 2017an eta 2018an, % 33,2-33,3. 2012., 2013. eta 2016. urteetan % 40tik gorako zifrak izan baziren ere, 2019an aurrerapen kualitatiboa erregistratu zen halako eguneko zentroetako arreta itunduan.

Adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan ere aintzat hartzekoa da itunpeko plazen kopurua. Kasu horretan, 2019ko % 21,3ko balioak aurrerapen moderatua islatu zuen 2017ko % 17,9ko eta 2018ko % 20,1eko balioekin alderatuta. Izan ere, lehen aldiz, halako zentroetan gaintu egin zen 2012tik 2018ra bitartean % 18 eta % 20 bitartean ohikoa izan zen modadun tarte.

Desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonentzako suspertze- eta arreta-zentroetan, 2015ean gora egin ondoren (% 16,9ra), 2016an jada behera egiten hasi zen (% 11,6ra); 2017an % 2ra iritsi zen, eta 2018an, % 0 izan zen. Plaza itunduek pisua galtzeko prozesu hori adingabe eta familientzako eguneko arreta-zentroetan ere ikusi zen: 2018an % 8,2 baino ez ziren halako plazak.



Hala ere, kasu bietan, 2019an gora egin zuten, nabarmenki, plaza itunduek: suspertze- eta arreta-zentroetan, % 27,3 izan ziren plaza itunduak, eta adingabe eta familientzako eguneko arreta-zentroetan, % 37,4.

Oro har, ikusitako joerek erakusten dute egoitzakoak ez diren zerbitzu sozialetan plaza itunduek gora egiten ari zirela. 2016tik 2017ra behera egin ondoren (% 23,4tik % 20,1era), plaza itunduen proportzioak apur bat gora egin zuen 2018an, eta % 20,9koa izan zen. Goranzko joera nabarmenagoa izan zen 2019an, % 25,7ra iritsita, eta 2012an eta 2013an izandako maximoak (% 25,2 eta % 25,4, hurrenez hurren) gainditu ziren. Hala, hautsi egin zen 2013tik 2017ra bitartean plaza itunduen pisuan ikusitako beheranzko joera argia.

Erabat pribatuak diren plazei dagokienez, egoitzakoak ez diren beste zentroetan izan ezik (plaza guztien % 50,6 ziren), kopurua oso txikia izan zen adineko pertsonentzako arretan; jantoki-zerbitzuetan ez zegoen bat ere eta laguntza-zentroetan oso txikia izan zen. Halako zentroetan kopuruak apur bat gora egin zuen 2014tik 2017ra (% 10,2tik % 12,5era), baina 2018an berriro egin zuen behera, % 10,8ra. 2019an igoera txiki bat baino ez zuen izan, eta % 11,2ra iritsi zen.

Desgaitasunen bat edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako arretaren arloan oso handia izan zen plaza pribatuen kopurua: eguneko zentroetan eta okupazio-zentroetan eta suspertze- eta arreta-zentroetan % 70etik gorakoa izan zen (% 75,3 eta % 70,2, hurrenez hurren). Eguneko zentroetan eta okupazio-zentroetan egonkortasun handia erregistratu zen (2015etik aurrera, % 75,3 eta % 76,6 bitarteko proportzioak), baina suspertze- eta arreta-zentroetan, ordea, beheranzko joera ikusi zen epe ertainera, 2013ko % 93tik 2015eko % 83,1era eta 2019ko % 70,2ra. Hala ere, 2016-2018 aldian, arreta pribatuaren arloak igoera esanguratsua izan zuen (2016ko % 88,4tik 2018ko % 97,4ra).

Bestalde, arreta pribatua % 100ekoa izan zen desgaitasun- eta gaixotasun-arazoak dituzten pertsonentzako laneratze-zentroetan.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako arretaren arloan, plaza pribatuen kopurua oso handia zen jantoki sozialetan ere: % 92,6, 2019an; baina 2016-2018 aldiko zifrak baino txikiagoa izan zen, garai hartan % 96,8 eta % 97,7 bitartekoa izan baitzen.

Arreta-eremu horretan, plaza pribatuak gehiengoa izan ziren 2018ra arte bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan. Halako zerbitzuetan, 2014ko % 64,3tik 2016ko % 48,6ra behera egin ondoren, plaza pribatuen proportzioak gora egin zuen 2017an (% 53,6) eta 2018an (% 54,1). 2019an, berriz, plaza horien pisuak behera egin zuen nabarmen, eta % 36,1ean kokatu zen.

Arreta pribatuan (itunduan zein itundua ez denean), 2015. eta 2016. urteen bitarteko aldaketa nagusia adingabe, gazte eta familientzako eguneko arretan ikusi zen. Kasu horretan, 2016ko eskaintza osoaren % 38,3 eskaintza itundua izan zen; izan ere, 2015etik 2016ra behera egin zuen hertsiki pribatua den eskaintzak (% 53,8tik % 16ra). 2016. eta 2018. urteen bitartean, aldiz, hertsiki pribatua den arretak gora egin zuen, eta % 47,8ra iritsi zen 2018an. Itunpeko plazen pisu erlatiboak, ordea, behera egin zuen 2016ko % 38,3tik 2018ko % 8,2ra. 2019an, deskribatutako ildo alderrai horren barruan, plaza pribatuen kopuruak behera egin zuen berriro, % 27,7ra, eta berriro jarri zen plaza itunduen proportzioaren (% 37,4) azpitik.

Desgaitasunen bat edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako suspertze- eta laguntza-zentroetako eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetako plazen proportzioak behera egitearen batera, 2018. eta 2019. urteen artean adingabe, gazte eta familie

eguneko arreta emateko zentroen dinamika faktore erabakigarria izan zen gizarte-zerbitzuen egoitzakoak ez diren zerbitzu guztietako plaza pribatuen pisu erlatiboaren beherakada esanguratsuan.

Egoitzakoak ez diren zerbitzuetan, plaza pribatuen proportzioa % 37,5 izan zen 2012an. Gero, gora egin zuen 2016an % 40,8ra iritsi arte. 2017an iritsi zen maximora: % 44,1. 2017-2018 aldian, aldatu egin zen joera, eta plaza pribatuen pisu erlatiboaren lehen beherakada gertatu zen: % 43,1ean kokatu zen. Joera hori indartu egin zen 2019an, eta berriro egin zuen behera, % 38,4ra. Proportzio horrek 2012an eta 2013an izan ziren % 37,5 inguruko mailak baino ez zituen gainditu.



### 3. Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastua

Apartatu honetan gizarte-zerbitzuetan eta eduki ekonomikoa duten gizarte-prestazioetan guztira izandako gastu arrunta aztertzen da. Datuen aurkezpenean, aintzat hartu dira, bereziki, gastuak zentro/zerbitzu motaren arabera eta prestazioaren arabera izan duen bilakaera.

#### 3.1. Gastu osoa

Gastuari buruzko datu garrantzitsuenak 5. eta 6. tauletan aurkezten dira. Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian eta prestazioen sisteman eginiko gastua 2.176,29 milioi eurokoa izan zen 2019an. Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiak gastu horren % 72,6 ekarri zuen, hau da, 1.579,10 milioi euro 2019an. Prestazio-sistemak gainerako % 27,4a hartu zuen: 597,19 milioi. Ia-ia guztia sektore publikoko prestazioei dagokie (591,31 milioi, hirugarren sektoreko erakundeek kudeatutako 5,89 milioi euroko gastu pribatuarekin alderatuta).

Oro har, biztanleko gastua 994,64 eurokoa izan zen 2019an. 721,70 euro gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiari dagozkio, eta gainerako 272,94 euroak, eduki ekonomikoa duten prestazioen sistemari.

2019an, 2.176,29 milioi euroko gastua 2016koa baino % 4,96 handiagoa izan zen (urte hartan 2.073,39 milioi gastatu ziren) gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian eta prestazioen sisteman. 2014tik 2017ra bitartean hazkundearen erritmoa azkartu ondoren (2014-2015 aldiko % 1,10etik 2015-2016 aldiko % 3,60ra edo 2016-2017 aldiko % 2,97ra), 2017-2018 aldirian hazkundearen erritmoa nabarmen moteldu zen, eta % 0,72koa izan zen. 2018-2019 aldiko % 1,20ko igoerak gastua handitzeko erritmoak goranzko joera berreskuratzea ekarri bazuen ere, oso urrun zegoen 2015etik 2017ra bitartean izandako % 3ko edo hortik gorako mailetatik.

Gastuaren barne-dinamikaren azterketa xehatua egiteko zenbait ñabardura garrantzitsu aipatu behar dira. Batetik, 2018. eta 2019. urteen artean, gastuaren bilakaera egonkor bat egiaztatu zen prezio konstanteetan, % 0,04ko hazkunde txikiarekin, termino korrontetan izandako % 1,20koarekin alderatuta. Egonkortasun horrek, beraz, sendotu egin zuen, 2016-2017 aldiko gastuan, zifra konstanteetan izandako % 1,87ko hazkundeari dagokionez 2018an hautemandako aldaketa garrantzitsua. 2017-2018 aldirian, berriz, -% 0,24 egin zuen behera gastuak prezio konstanteetan.

Benetan, dibergentzia handiagoa da gastu konstanteak biztanleko izandako bilakaera kontuan hartzen bada: 2016-2017 aldirian % 1,68 egin zuen gora, baina 2017-2018 aldirian, ordea, negatibo bihurtu zen (-% 0,46). Joera negatibo hori luzatu egin zen 2018-2019 aldirian, biztanleko gastuak -% 0,30 egin baitzuen behera prezio konstanteetan.

Hala eta guztiz ere, daturik deigarriena eta esanguratsua hau da (2015-2018 aldirian bezala): 2018. eta 2019. urteen bitartean, finkatu egin zen gastuaren gorakada, eta hertsiki lotuta zegoen gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiarekin. Horiek horrela, gizarte-zerbitzuen jardunaren nukleo nagusiak gorako joera positiboari eutsi zion 2018. eta 2019. urteen artean: % 3,15, termino korrontetan; % 1,97, termino konstanteetan, eta % 1,62, biztanleko gastu konstantean.

**5. taula. Gizarte-zerbitzuetako eta -prestazioetako (publikoak eta pribatuak) gastu arrunta. 2016-2019  
(Gastu nominala -euroak milioitan-, % bertikalak, % BPGd, biztanleko gastua eurotan eta gastuaren %-aren urte arteko bariazioa)**

Gastu mota	2016				2017				2018				2019				Urte arteko bariazioa %-tan			
	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua/biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua/biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua/biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua/biz.	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2016/2019
<b>Gastu arrunta guztira</b>	<b>2.073,39</b>	<b>100</b>	<b>2,91</b>	<b>954,65</b>	<b>2.135,03</b>	<b>100</b>	<b>2,90</b>	<b>981,25</b>	<b>2.150,48</b>	<b>100</b>	<b>2,80</b>	<b>986,26</b>	<b>2.176,29</b>	<b>100</b>	<b>2,74</b>	<b>994,64</b>	<b>2,97</b>	<b>0,72</b>	<b>1,20</b>	<b>4,96</b>
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	1.401,25	67,6	1,97	645,18	1.478,49	69,2	2,01	679,51	1.530,89	71,2	1,99	702,10	1.579,10	72,6	1,99	721,70	5,51	3,54	3,15	12,69
Gizarte-prestazio publikoak	669,86	32,3	0,94	308,42	651,71	30,5	0,88	299,52	614,37	28,6	0,80	281,76	591,31	27,2	0,74	270,25	-2,71	-5,73	-3,75	-11,73
Gizarte-prestazio pribatuak	2,28	0,1	0,00	1,05	4,84	0,2	0,01	2,22	5,22	0,2	0,01	2,40	5,89	0,3	0,01	2,69	111,69	8,06	12,65	157,70

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

**6. taula.**

**Gizarte-zerbitzuetako eta -prestazioetako (publikoak eta pribatuak) gastu arrunta. 2016-2019 (Gastua 2019ko prezioetan -euroak milioitan- eta urte arteko bariazioa %-tan)**

Gastu mota	2016	2017	2018	2019	Urte arteko bariazioa %-tan			
	Miloi euro	Miloi euro	Miloi euro	Miloi euro	2015/2016	2016/2017	2017/2018	2015/2018
<b>Gastu arrunta guztira</b>	<b>2140,68</b>	<b>2180,68</b>	<b>2175,36</b>	<b>2176,29</b>	<b>1,87</b>	<b>-0,24</b>	<b>0,04</b>	<b>1,66</b>
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	1446,72	1510,10	1548,60	1579,10	4,38	2,55	1,97	9,15
Gizarte-prestazio publikoak	691,60	665,64	621,48	591,31	-3,75	-6,63	-4,85	-14,50
Gizarte-prestazio pribatuak	2,36	4,94	5,29	5,89	109,42	7,02	11,36	149,60

**(Gastua 2018ko prezioetan -euro/biztanleko- eta urte arteko bariazioa %-tan)**

Gastu mota	2015	2016	2017	2018	Urte arteko bariazioa %-tan			
	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	2015/2016	2016/2017	2017/2018	2015/2018
<b>Gastu arrunta guztira</b>	<b>985,63</b>	<b>1002,23</b>	<b>997,67</b>	<b>994,64</b>	<b>1,68</b>	<b>-0,46</b>	<b>-0,30</b>	<b>0,91</b>
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	666,11	694,04	710,22	721,70	4,19	2,33	1,62	8,35
Gizarte-prestazio publikoak	318,43	305,93	285,02	270,25	-3,93	-6,83	-5,18	-15,13
Gizarte-prestazio pribatuak	1,09	2,27	2,42	2,69	109,05	6,79	10,98	147,76

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika





Dinamika horrek finkatu egin zuen 2015etik aurrera gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian hautemandako gastua suspertzeko joera argia. Zehazki, 2014. eta 2015. urteen bitartean gastuaren beherakada erreala izan ondoren (termino konstanteetan eta termino korrontetan), 2015-2016 aldian, ordea, zifra nominalak % 5,11ra igo ziren, eta 2016-2017 aldian, % 5,51ra (ia iritsi zen 2013-2014 aldiko kopuruetara; zehazki, aldi horretako gastuaren gorakada nominala % 5,79 izan zen). Hazkundearen erritmoa 2017-2018 aldian apaltzen bada ere, positiboa izan zen oraindik ere: % 3,54. Joera hori mantendu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean, eta urtetik urtera % 3,15 egin zuen gora.

Apur bat lehenago izandako hobetze-lerroa agerikoa izan zen 2019ko prezio konstanteetan ere: 2018. eta 2019. urteen artean, ia % 2ra iritsi zen hazkundera (% 1,97), 2017-2018 aldiko % 2,55etik hurbil. Hala ere, hazkunde hori 2016-2017 aldiko % 4,38koa baino txikiagoa izan zen. Oso antzekoa bada ere, apur bat lehenago izandako hobekuntza txixixeagoa izan zen biztanleko gastuari dagokionez, prezio konstanteetan: 2018-2019 aldian % 1,62 egin zuen gora, 2017-2018 aldiko % 2,33ko eta 2016-2017 aldiko % 4,19ko balioen azpitik.

Datuek erakusten dute 2018. eta 2019. urteen artean jarraitu egin zutela gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren gastuen gorakada esanguratsuek, nahiz eta hazkunde-erritmoetan beheranzko joera sendotu aurreko urteekin alderatuta. Gastu orokorraren egonkortzea edo beherakada, beraz, era eksklusiboan lotzen zitzaizen eduki ekonomikoko gizarte-prestazioei.

Hala, ondorioztatu ahal da, 2012. eta 2015. urteen artean gizarte-prestazio publikoetan izandako gastuaren gorakada nagusiaren aldean, 2016-2017 aldian gastu hori behera egiten hasi zela (-% 2,71), eta lehenengo aldiz kopuru negatiboak jaso zirela aurreko urteetan hasitako gastua txikiagotzeko joera horretan. Ildo horretan, 2013-2014 aldian % 10,41 hazi ondoren, hazkundera % 4,80ra jaitsi zen 2014tik 2015era, eta % 0,95ekoa baino ez zen izan 2015etik 2016ra.

2017-2018 aldian 2016-2017 aldiko behera egiteko joera egonkortu zen, eta prestazio publikoen gastu arruntaren beherakada -% 5,73koa izan zen. Beheranzko joera apur bat apalagoa izan arren, mantendu egin zen 2018-2019 aldian: -% 3,75 da.

Gastu konstanteari dagokionez, bilakaeran izandako aldaketa deigarriagoa da: 2016-2017 aldian -% 3,75 murriztu zen gizarte-prestazio publikoetako gastua, eta maximora iritsi zen 2017-2018 aldian, -% 6,63ra. 2018. eta 2019. urteen artean, prezio konstanteetan, gastuaren murrizketa -% 4,85ekoa izan zen, hau da, 2016-2017 aldian erregistratutakoa baino handiagoa.

Termino konstanteetan, gizarte-prestazio publikoetan 2019an eginiko gastua oso urrun egon zen 2016ko gastutik: 591,31 milioi euro, eta 2016an, berriz, 691,60 milioi, hau da, -% 14,50. Prezio konstanteetan egindako gastu-esfortzua oso bestelakoa izan zen aldi horretan gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian: gastuak % 9,15 egin zuen gora 2016. eta 2019. urteen artean (1.446,72 milioi eurotik 1.579,10 milioira). Zerbitzuetan eta prestazioetan guztira egindako gastu sozialean, efektu konpentsatzaile hori garrantzitsua izan zen, eta 2019an prezio konstanteetan egindako gastua % 1,66 handiagoa izan zen 2016an egindakoa baino (2.176,29 milioi euro vs 2.140,68, milioi).

Prestazioetako gastua, berriz, berriro piztu zen eremu pribatuan 2018. eta 2019. urteen bitartean. Kasu horretan gastu arrunt nominalak % 12,65 egin zuen gora, eta sendotu egin zen 2016-2017 aldiko % 111,69koa eta 2017-2018 aldiko % 8,06ko gorakadari lotutako suspertze-lerroa, 2015-2016 aldiko beherakadatik nabarmen urrunduta. 2016-2019 aldi osorako, % 157,7koa izan zen hazkunde nominala (% 149,60koa, 2019ko prezio konstanteetan).

Aipatutako aldaketek eragina izan zuten gastu arrunt osoaren banaketan, eta gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiak pisu erlatibo gorakorra izan zuen. Sektore pribatuak guztizko gastuari egindako ekarpena % 68,7 izan zen 2013an, eta % 66,6ra jaitsi zen 2015ean. 2016an, ordea, % 67,6ra igo zen; 2017an, % 69,2ra, eta 2018an, % 71,2ra. 2012az geroztik, 2018an lehenengo aldiz gainditu zen % 70eko atalasea, eta 2019an sendotu egin zen gorantz, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusia % 72,6ra iritsi baitzen gizarte-zerbitzu eta -prestazioetan guztira egindako gastuan.

Sektoreak ekonomian duen garrantzia kontuan hartzen badugu, ikusten da gizarte-zerbitzuetan eta -prestazioetan izandako gastuak barne-produktu gordinean duen pisuak behera egin zuela 2019an. Horrela, 2015eko % 2,92etik izandako beheranzko joera mantendu zen, zifra hauekin: 2016an, % 2,91; 2017an, % 2,90; 2018an, % 2,80, eta 2019an, % 2,74.

2015ekoarekin alderatuta, gizarte-zerbitzuetako gastuak barne-produktu gordinaren gainean zuen pisu eskasagoak eragina eskasagoa izan zuen ere gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiari dagokionez. 2013an BPGdaren % 1,95etik 2014ko % 2,02ra igo zen gastua. Ondoren, 2015ean % 1,95era itzuli zen, eta, geroago, gora egin zuen: 2016an, % 1,97koa izan zen, eta 2017an, % 2,01ekoa. Beheranzko joerari eutsita bada ere, 2018an eta 2019an antzeko proportzioetan mantendu zen (% 1,99). 2017-2018an izandako beherakadaren ondoren, 2018-2019 aldian kontrolatu egin zen beheranzko joera, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian egindako gastuak BPGdari dagokionez zuen partaidetza egonkortu egin zelako. Gainera, partaidetza hori 2015ean eta 2016an izandako mailetatik nabarmen gorago zegoen.

Gastu sozialaren eta BPGdaren arteko erlazioaren beherakadan erabakigarriagoa izan zen gizarte-prestazio publikoen dinamika. 2012az geroztik lehen aldiz, 2015. eta 2016. urteen artean, behera egin zuen gizarte-prestazio publikoek BPGdan zuten partaidetzak: % 0,97tik % 0,94ra. Joera hori areagotu egin zen 2017tik aurrera. Urte horretan prestazio horiek barne-produktu gordinean zuten pisuak % 0,88ra egin zuen behera. Proportzioa % 0,80 izan zen 2018an. Beheranzko joera mantendu egin zen 2019an, eta barne-produktu gordinean izandako partaidetza % 0,74koa izan zen.

## **3.2. Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko gastua**

### **3.2.1 Arloa eta zentro/zerbitzu mota**

7. eta 8. taulek erakusten dute zer gastu arrunt izan den gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian, gastuaren sektorearen eta zentro edo zerbitzu motaren arabera.

7. taulan ikus daitekeen bezala, 2019an gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiari esleitutako 1.579,10 milioi euroetatik gehiena mendekotasuna duten biztanleen arretara eta adinekoen edo desgaitasunek edo gaixotasunek eragindako arazoak dituzten pertsonen arretara bideratu zen. 2019an, gastuaren % 73,9 kolektibo horretara bideratu zen; guztira, 1.166,90 milioi euro.



Gastu-sektore horren barruan, zatirik handiena adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuena izan zen; zehazki, gastu osoaren % 44,5 gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian metatu zen (702,29 milioi euro). Desgaitasunen bat edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentroei edo zerbitzuei esleitutako partidak gastu osoaren % 13,9 hartu zuen (220,09 milioi); ondoren, mendekotasuna arintzeko prestazioek % 8,9 hartu zuten (140,69 milioi). Etxeko laguntzako, telelaguntzako eta zaintzaileei laguntzeko programek aztertutako gastuaren % 6,6 hartu zuten (103,83 milioi).

Mendekotasunari, adineko pertsonari eta desgaitasunen bat edo gaixotasunen bat duten pertsonari arreta emateko gastuak gora egiten jarraitu zuen 2018. eta 2019. urteen artean, eta aztertutako aldian % 3,72koa izan zen gehikuntza nominala. Hazkunde-erritmo hori 2015-2016 aldikoa (% 4,11) eta 2016-2017 aldikoa (% 3,96) baino txikiagoa izan zen, eta 2017tik 2018ra izandako % 3,31koa gainditu zuen. Prezio konstanteetan, igoera % 2,53koa izan zen 2018. eta 2019. urteen artean. 2017-2018 aldiko % 2,32tik gora dago, eta 2015-2016 aldiko % 2,55etik hurbil. Eta hiru hamarren baino ez 2016-2017 aldiko % 2,85eko balioaren azpitik.

Bestalde, 2015etik 2018ra bitartean ez bezala, mendekotasunari, adineko pertsonari eta desgaitasunen bat edo gaixotasunen bat duten pertsonari arreta emateko gastua gizarte-zerbitzuen nukleoaren hazkunde orokorraren gainetik kokatu zen 2018. eta 2019. urteen artean (% 3,72 vs % 3,15). Bilakaera horrek hautsi egin zuen 2015etik aurrera gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian sektore-gastu horren pisu erlatiboak izandako beheranzko joera. Horrela, pisu hori 2015ean % 75,5 izatetik –2013ko kopuruak (% 76) baino ez du gainditu emaitza hori– 2016an % 74,8 izatera pasatu zen; 2017an, % 73,7, eta 2018an, % 73,5. 2019an, aipatutako proportzioa 2017ko eta 2018ko mailetatik gora jarri zen: % 73,9.

Aztertutako arreta-eremuetan (mendekotasuna, adinekoak eta desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonak), oso dinamika desberdinak ikus daitezke 2018. eta 2019. urteen artean izandako gastuaren bariazioan, zentro, zerbitzu edo programa motaren arabera. Hala, aldaketa garrantzitsu bat dago etxeko laguntzarako, telelaguntzarako eta zaintzaileentzako laguntzarako gastuak aldi horretan izandako bilakaera hedakor nabarmenari lotuta.

Kasu horretan, gastu arruntak % 6,88 egin zuen gora 2016tik 2017ra (% 5,73, termino konstanteetan). Dinamika hori ez zettorren bat 2015-2016 aldiko gehikuntza nominalarekin; zehazki, % 1,01 izan zen, eta horrek gastuaren beherakada erreala eragin zuen termino konstanteetan (–% 0,50). 2017-2018 aldiaren antzeko egoera izan zen, baina askoz nabarmenagoa izan zen beheranzko joera: etxeko laguntzari, telelaguntzari eta zaintzaileentzako laguntzari lotutako gastuak –% 2,78 egin zuen behera (termino konstanteetan, –% 3,72). 2018. eta 2019. urteen artean, berriz, gizarte-zerbitzuen sektore horren gastuak gora egin zuen berriro eta % 9,84ko gehikuntza nominala izan zuen (% 8,59 termino konstanteetan).

8. taulan ikus daitekeen moduan, bilakaera horren funtsezko alderdia da etxeko laguntzari lotutako gastuak 2018an eta 2019an izandako suspertzea, zeina kuantitatiboki 2016an eta 2017an izandakotik hurbil baitzegoen. Hala, etxeko laguntzarako gastuak bilakaera hau izan zuen: 2016an, 81,53 milioi euro; 2017an, 88,54 milioi, eta 2019an, 93,13 milioi, 2018ko behin-behineko beherakada (85,95 milioira) gainditu ondoren.

**7. taula. Gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta gastu-sektorearen arabera. 2016-2019**  
**(Gastu nominala eurotan, % bertikalak eta bariazioa 2016-2019, nominala eta 2019ko prezioetan)**

	Gastua				% bertikalak				Bariazioa 2018-2019 aldian	
	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	Arrunta	2019ko prezioak
	%	%	%	%	%	%	%	%	%-tan	%-tan
<b>GIZARTE-ZERBITZUAK: ERDIGUNEA</b>	<b>1.401.251.572</b>	<b>1.478.488.049</b>	<b>1.530.887.362</b>	<b>1.579.099.164</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>3,15</b>	<b>1,97</b>
Egitura orokorra (defizita/superabita)	81.941.791	77.544.634	68.185.726	45.001.294	5,8	5,2	4,5	2,8	-34,00	-34,76
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-larrialdiak eta espezializatuak	103.902.703	132.789.052	142.116.991	149.900.085	7,4	9,0	9,3	9,5	5,48	4,27
<b>EGITURAREN GASTUA</b>	<b>185.844.494</b>	<b>210.333.686</b>	<b>210.302.717</b>	<b>194.901.379</b>	<b>13,3</b>	<b>14,2</b>	<b>13,7</b>	<b>12,3</b>	<b>-7,32</b>	<b>-8,38</b>
Adinekoentzako zentro eta zerbitzuak	630.951.935	651.613.538	677.522.083	702.291.271	45,0	44,1	44,3	44,5	3,66	2,47
Desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentroak eta zerbitzuak	200.394.544	209.221.280	215.487.782	220.086.758	14,3	14,2	14,1	13,9	2,13	0,97
Etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileen babesa	90.974.870	97.233.029	94.526.586	103.830.970	6,5	6,6	6,2	6,6	9,84	8,59
Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoak	125.136.069	130.904.487	137.496.963	140.688.885	8,9	8,9	9,0	8,9	2,32	1,15
<b>GASTUA MENDEKOTASUNA, ADINEKOAK, DESGAITASUNA</b>	<b>1.047.457.418</b>	<b>1.088.972.334</b>	<b>1.125.033.414</b>	<b>1.166.897.884</b>	<b>74,8</b>	<b>73,7</b>	<b>73,5</b>	<b>73,9</b>	<b>3,72</b>	<b>2,53</b>
Haur, gazte eta familientzako eta emakumeentzako zentro eta zerbitzuak	78.829.668	87.523.874	97.350.385	108.023.895	5,6	5,9	6,4	6,8	10,96	9,69
Tratu txarren, harreraren, adopzioaren arloko arretarako programak eta familiako esku-hartzearen arloko programak	42.258.054	42.935.253	45.173.721	50.407.663	3,0	2,9	3,0	3,2	11,59	10,31
Tratu txarren biktimentzako prestazio ekonomikoak	897.156	1.068.408	1.014.551	1.118.546	0,1	0,1	0,1	0,1	10,25	8,99
<b>GASTUA HAUR, GAZTE, FAMILIA (tratu txarren prebentzioa/arreta barne)</b>	<b>121.984.878</b>	<b>131.527.535</b>	<b>143.538.657</b>	<b>159.550.104</b>	<b>8,7</b>	<b>8,9</b>	<b>9,4</b>	<b>10,1</b>	<b>11,15</b>	<b>9,88</b>
<b>GASTUA BAZTERKETA</b>	<b>45.964.782</b>	<b>47.654.494</b>	<b>52.012.574</b>	<b>57.749.797</b>	<b>3,3</b>	<b>3,2</b>	<b>3,4</b>	<b>3,7</b>	<b>11,03</b>	<b>9,76</b>

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

**8. taula. Gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta, zentro/zerbitzu motaren arabera. 2016-2019**  
(Gastu nominala eurotan, % bertikalak eta 2018-2019 bariazioa, nominala eta 2019ko prezioetan)

	Gastua				% bertikalak				Bariazioa 2018-2019 aldian	
	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	Arrunta	2019ko prezioak
	%	%	%	%	%	%	%	%	%-tan	%-tan
Zerbitzu mota										
<b>GIZARTE-ZERBITZUAK: ERDIGUNEA</b>	<b>1.401.251.572</b>	<b>1.478.488.049</b>	<b>1.530.887.362</b>	<b>1.579.099.164</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>3,15</b>	<b>1,97</b>
Egitura orokorra (defizita/superabita)	81.941.791	77.544.634	68.185.726	45.001.294	5,8	5,2	4,5	2,8	-34,00	-34,76
Oinarritzko gizarte-zerbitzuak, gizarte-larrialdiak eta espezializatuak	103.902.703	132.789.052	142.116.991	149.900.085	7,4	9,0	9,3	9,5	5,48	4,27
<b>EGITURA</b>	<b>185.844.494</b>	<b>210.333.686</b>	<b>210.302.717</b>	<b>194.901.379</b>	<b>13,3</b>	<b>14,2</b>	<b>13,7</b>	<b>12,3</b>	<b>-7,32</b>	<b>-8,38</b>
Adinekoentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	569.669.073	588.394.522	610.024.477	633.163.837	40,7	39,8	39,8	40,1	3,79	2,61
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	117.307.554	120.399.510	124.548.032	132.838.425	8,4	8,1	8,1	8,4	6,66	5,44
Adingabeentzako/familientzako egoitza-zentroak	66.793.735	74.016.355	83.033.120	92.547.585	4,8	5,0	5,4	5,9	11,46	10,18
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak	6.477.572	6.542.123	6.451.721	7.972.995	0,5	0,4	0,4	0,5	23,58	22,17
Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu, harrera eta egoitza-zentroak	35.346.655	37.690.315	40.782.295	44.057.047	2,5	2,5	2,7	2,8	8,03	6,79
<b>EGOITZA-ZENTROAK</b>	<b>795.594.589</b>	<b>827.042.825</b>	<b>864.839.645</b>	<b>910.579.889</b>	<b>56,8</b>	<b>55,9</b>	<b>56,5</b>	<b>57,7</b>	<b>5,29</b>	<b>4,08</b>
Adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak	60.096.117	61.810.463	65.374.398	66.833.605	4,3	4,2	4,3	4,2	2,23	1,06
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako eguneko laguntza-zentroak	35.334.280	34.356.388	34.964.594	36.619.905	2,5	2,3	2,3	2,3	4,73	3,54
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako beste eguneko zentroak	38.391.707	43.709.450	42.799.472	37.784.768	2,7	3,0	2,8	2,4	-11,72	-12,73
Adingabe/familientzako eguneko arreta	2.948.756	4.262.654	4.992.928	4.339.007	0,2	0,3	0,3	0,3	-13,10	-14,09
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	8.867.857	8.433.338	9.598.764	11.905.396	0,6	0,6	0,6	0,8	24,03	22,61
<b>EGUNEKO ZENTROAK</b>	<b>145.638.717</b>	<b>152.572.293</b>	<b>157.730.156</b>	<b>157.482.681</b>	<b>10,4</b>	<b>10,3</b>	<b>10,3</b>	<b>10,0</b>	<b>-0,16</b>	<b>-1,30</b>
<b>ETXEKO LAGUNTZA</b>	<b>81.533.374</b>	<b>88.542.862</b>	<b>85.952.755</b>	<b>93.129.416</b>	<b>5,8</b>	<b>6,0</b>	<b>5,6</b>	<b>5,9</b>	<b>8,35</b>	<b>7,11</b>
<b>TELELAGUNTZA ETA ZAINTZAILEENTZAKO BABESA</b>	<b>9.441.496</b>	<b>8.690.167</b>	<b>8.573.831</b>	<b>10.701.554</b>	<b>0,7</b>	<b>0,6</b>	<b>0,6</b>	<b>0,7</b>	<b>24,82</b>	<b>23,39</b>
<b>ESKU-HARTZE ETA EKINTZA FAMILIARREKO PROGRAMAK</b>	<b>44.867.659</b>	<b>45.637.995</b>	<b>48.046.337</b>	<b>53.571.971</b>	<b>3,2</b>	<b>3,1</b>	<b>3,1</b>	<b>3,4</b>	<b>11,50</b>	<b>10,23</b>
<b>MENDEKOTASUNEN ARLOKO PRESTAZIOAK ETA BESTE</b>	<b>126.033.225</b>	<b>131.972.895</b>	<b>138.511.514</b>	<b>141.807.431</b>	<b>9,0</b>	<b>8,9</b>	<b>9,0</b>	<b>9,0</b>	<b>2,38</b>	<b>1,21</b>
<b>BESTE ZENTRO ETA ZERBITZU BATZUK</b>	<b>12.298.018</b>	<b>13.695.326</b>	<b>16.930.407</b>	<b>16.924.843</b>	<b>0,9</b>	<b>0,9</b>	<b>1,1</b>	<b>1,1</b>	<b>-0,03</b>	<b>-1,18</b>

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Urtetik urterako hazkunde-tasak kontuan hartuta, 2015era arte gastuari eutsi zitzaion, eta 2015-2016 aldian gastua apur bat gora egiten hasi zen termino nominaletan (+% 0,24). Baina, termino konstanteetan, aurreko aldietako joera negatiboa mantendu zen: -% 1,26. 2016. eta 2017. urteen artean, aldiz, etxeko laguntzari lotutako gastu arruntak % 8,6 egin zuen gora (% 7,43, termino konstanteetan). Izan ere, esku-hartze sozialeko arlo horretan gastua suspertu izana 2016-2017 aldiko alderdirik onenetako bat izan zen.

2017an eta 2018an, ordea, etxeko laguntzaren arloko gastua murriztu egin zen berriro: -% 2,93, gastu arruntean, eta -% 3,86, gastu konstantean. 2018-2019 aldiko bilakaera 2016-2017 aldiko egoerara hurbildu zen eta ordukoa baino gehikuntza apur bat txikiagoa izan zen: % 8,35, termino nominaletan, eta % 7,11, prezio konstanteetan.

2018an eta 2019an gora egin zuen telelaguntzaren arloko eta zaintzaileei laguntza emateko programen arloko gastuak: % 24,82, termino nominaletan, % 23,39, prezio konstanteetan. Bilakaera horrekin, hautsi egiten da 2016-2018ko beheranzko joera. 2019an izandako 10,70 milioi euroko gastuak gainditu egin zuen 2016koa (9,44 milioi).

Berriro ere 7. taulari erreparatuta, aipatzekoa da 2018. eta 2019. urteen artean adinekoentzako zentroetan eta zerbitzuetan izandako gastuaren gorakada. Kasu horretan, gehikuntza mendekotasunaren eta adinekoen arloan edo desgaitasuna/gaixotasuna dutenen arloan izandako gastuak ikusitako mailetatik hurbil kokatu zen: % 3,66, termino nominaletan, eta % 2,47, prezio konstanteetan.

Adineko pertsonentzako arretari dagokionez, 2015etik 2018ra bitartean, prezio konstanteetan nabarmen areagotu zen gastua: 2015-2016 aldian, % 1,58; 2016-2017 aldian, % 2,17; eta 2017-2018 aldian, % 2,98. 2012tik 2015era bitartean gertatu zen bezala, 2017-2018 aldian adineko pertsonentzako zentroetan eta zerbitzuetan egindako gastuaren gorakada-mailak gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren batezbestekoaren gainetik egon ziren. 2017-2018 aldian gastu konstantearen hazkunde-erritmoa % 2,98tik % 2,47ra jaitsi arren, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiari zegokion % 1,97aren gainetik zegoen. Horrela, zentro mota horretako gastua hedatzeko dinamika finkatu egin zen 2012-2019 aldian.

2018-2019an aldian, desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentroyen eta zerbitzuen arloko gastuak gora egin arren, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian izandakoa baino moderatuagoa edo txikiagoa izan zen: % 2,13, termino nominaletan, eta % 0,97, prezio konstanteetan. Halako zentro eta zerbitzuetan, gastuaren urtetik urterako hazkunde-erritmoak gora egin zuen ere 2015etik aurrera: 2015-2016 aldiko % 2,43tik 2016-2017 aldiko % 3,29ra. 2017-2018 aldian gora egiten jarraitu zuen arren, 2015-2017 aldian izandako zifren azpitik geratu zen: % 2,01. Hazkunde-erritmoaren moteltzea areagotu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean: aipatutako % 0,97.

Hala, desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuetan izandako gastuaren dinamika hedakorra -2012-2019 aldian nabaria da- adineko pertsonentzako arretan izandakoa baino txikiagoa izan zen, eta, gainera, nabarmen moteldu zen azken urteetan.

Mendekotasunari, adinekoei edo desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonen emandako arretaren arloan, nabarmena da 2017-2018 aldian mendekotasunari lotutako prestazio ekonomikoetan izandako gastuaren gehikuntza (% 5,04, nominalean, eta % 4,03 termino konstanteetan). Argi dago zifra horiek 2015-2016 aldikoak baino txikiagoak direla (% 12,21 eta % 10,53, hurrenez hurren), baina gora jotzeko erritmoak 2016-2017 aldikoak baino handiagoak



izan ziren (% 4,61, nominalean; eta % 3,49, termino konstanteetan); hortaz, prestazio horiei lotutako gastua suspertzeko joera sendotu zuten.

2018-2019 aldirian mantendu egin zen mendekotasunari lotutako prestazioetan egindako gastuaren goranzko joera, baina moteldu egin zen hazkunde-erritmoa: % 2,32, termino nominaletan, eta % 1,15, prezio konstanteetan. Horrenbestez, 2012tik 2015era bitartean prestazio hauetan egindako gastuak hazkunde mugatua izan ondoren, eta 2015-2018 aldirian suspertze garrantzitsua izan ondoren, 2018-2019 aldirian mantendu egin zen gastuaren goranzko joera, baina motelagoak izan ziren hazkunde-erritmoak.

Haur, gazte eta familien arretara bideratutako zentro, zerbitzu eta programetan egindako gastua (horren barruan sartuta genero-indarkeriaren eta tratu txarren aurkako prebentziora eta borrokara bideratutako ekintzak ere), aldiz, 159,55 milioi eurora iritsi zen 2019an, hau da, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiari lotutako gastu osoaren % 10,1.

Gastu horren zati nagusia haur, gazte eta familientzako zentro eta zerbitzuei zegokien, eta gastu osoaren % 6,8 hartu zuten (108,02 milioi euro). Tratu txarren biktimei arreta emateko programek, adopzioarako eta familian esku hartzeko gainerako programek gastuaren % 3,2 hartu zuten (50,41 milioi). Gainerako % 0,1a genero-indarkeriaren eta tratu txarren biktimei zuzendutako prestazioei zegokien (1,12 milioi).

Arreta-eremu horretan, eta jada 2012tik 2018ra bitartean ikusitakoaren ildotik, gehikuntza nominala % 11,15ekoa izan zen (% 9,88, termino konstanteetan), eta, hala, 2018-2019 aldiko gastuaren gorakada gizarte-zerbitzuen nukleo osoarena baino handiagoa izan zen.

2018-2019 aldirian, sektore horren ezaugarri deigarri bat izan zen gastuaren hazkunde-erritmoan izandako homogeneizazio bitxia, aurreko urteetan hautemandako ezberdintasun garrantzitsuekin alderatuta. Hala, azpisektore ezberdinetan, gastuaren igoera nominala % 10,25 eta % 11,59 artean kokatu zen.

Gastu handiena izan zuen multzoan, hau da, haur, gazte eta familientzako zentro eta zerbitzuei dagokienean, 2018. eta 2019. urteen artean, gastuak % 10,96 egin zuen gora termino korranteetan. Termino konstanteetan, berriz, % 9,69 egin zuen gora. 2017-2018 aldiko % 10,16 eta 2016-2017ko % 9,84a baino apur bat beherago bada ere, hazkunde-erritmoa mantendu egin zen, eta 2015-2016 aldiko % 3,1eko proportzioa baino hiru aldiz handiagoa izan zen.

2016tik 2019ra bitartean halako zentro eta zerbitzuetan egindako gastuaren hazkunde-tasa altuek areagotu egin zuten 2014-2015 aldirian hautemandako joera aldaketa. Aldi horrek, beraz, amaiera eman zion 2013-2014 aldirian izandako murrizketari. Murrizketa horrek 2012-2015 aldiko gastu-mailaren egonkortasuna zehaztu zuen; izan ere, gastua ia ez zen igo aldi horretan.

8. taulan ikus daitekeenez, aipatutako dinamika adingabeentzako eta familientzako egoitzazentrotan eginiko gastuaren bilakaerari lotzen zaio oraindik ere 2018. eta 2019. urteen artean. Termino konstanteetan, zentro mota horretan egindako gastuak -% 1,69 egin zuen behera 2014. eta 2015. urteen artean; gero, 2015. eta 2016. urteen artean, gora egin zuen, % 1,89. Horren ostean, gastuak goranzko joera nabarmena izan zuen: 2016-2017 aldirian, % 9,62ko igoera konstantea; 2017-2018 aldirian, % 11,11koa, eta 2018-2019 aldirian, % 10,18koa.

Dinamika horrekin batera, 2015etik 2018ra bitartean, emakume, adingabe eta familiei eguneko arreta emateko programei esleitutako gastua nabarmen areagotu zen: 2015-2016 aldiaren prezio konstanteetan % 12,10 izatetik 2016-2017 aldiaren % 43,01 izatera aldatu zen, eta 2017-2018 aldiaren, % 16,01. Hala ere, 2018-2019 aldiaren, jarduketaren hauen gastu-mailak -% 14,09 egin zuen behera. 2019ko 4,34 milioi euroko gastua 2017ko 4,26 milioietara hurbildu zen, baina 2018ko 4,99 milioi euroko gastuaren azpitik zegoen.

Berrito 7. taulari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu 2018-2019 aldiaren tratua txarrei arreta emateko programetan, harrera eta adopzioarako programetan eta familietan esku hartzeko gainerako programetan gastua erreperatu egin zela. Programa horiek hazkunde nabarmen izan zuten 2012-2016 aldiaren; eta, bereziki, 2015. eta 2016. urteen artean (+% 4,83, prezio konstanteetan). Hala eta guztiz ere, 2016. eta 2017. urteen artean, hazkunde-erritmoa nabarmen baretu zen: % 1,60 termino nominala, eta % 0,51, prezio konstanteetan. 2017. eta 2018. urteen artean gastuak berrito egin zuen gora, zehazki, % 5,21 (+% 4,20, prezio konstanteetan), eta gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren batezbestekoa gailendu zuen. Joera hori indartu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean: % 11,59ko gehikuntza, prezio konstanteetan, eta % 10,31koa, prezio konstanteetan.

Aztertu dugun arreta-eremuan, 2016-2017 aldiko gastuaren gehikuntzarik handiena tratua txarren biktimei zuzendutako prestazio ekonomikoetara bideratu zen, % 19,09 (% 17,81, termino konstanteetan). Esku-hartze horretan, hain zuzen ere, gastua biziki txikiagotu zen 2015-2016 aldiaren (-% 4,24, zifra konstanteetan). Horrela, berreskuratu egin zen 2014-2015 aldiaren esku-hartzearen arlo horretako gastuaren izandako goranzko joera. 2017-2018 aldiaren berrito murriztu zen, -% 5,04ko beherakada nominalarekin (-% 5,95, prezio konstanteetan). 2018-2019 aldiaren, berriz, gastuak gora egin zuen: % 10,25, nominala, eta % 8,99, prezio konstanteetan. Termino nominala, 2019an, tratua txarren biktimei emandako prestazio ekonomikoaren gastua 2016koa baino % 24,7 handiagoa izan zen.

2018. eta 2019. urteen artean, haur, gazte eta familientzako sektorean egindako gastuaren hautemandako gizarte-zerbitzuen nukleo nagusi osoan izandakoa baino aurrerapen handiagoaren ondorioa da nukleo nagusi horren gastu osoan zuen partaidetza igoera esanguratsua izatea. 2014ko % 8,4tik 2015-2017 aldiko % 8,7-8,9ra iritsi ondoren, 2018ko % 9,4ko balioak jada erakusten zuen gastuaren izandako partaidetza gorago zegoela, eta 2019an sendotu egin zen, % 10,1ean kokatuta. 2012az geroztik, lehen aldiz gailendu zen % 10eko langa sektore horrek gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko gastu osoan izandako partaidetza.

Gizarte-bazterketaren aurkako zentroetan, zerbitzuetan eta programetan egindako gastua, guztira, 57,75 milioi eurokoa izan zen 2019an, hau da, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian izandako gastu osoaren % 3,7 baino ez, baina 2012koa (% 3,1) eta 2015-2018 aldikoa (% 3,2 eta % 3,4 artekoa) baino handiagoa izan zen. Gizarte-zerbitzuen 2015. eta 2016. urteen arteko gastuaren batezbesteko hazkundearen erritmoa gailendu eta gero, % 3,82ko gehikuntza erregistratuta, kasu horretan apur bat moteldu zen erritmoa 2016-2017 aldiaren. Hala, aldi horretan gastuak % 3,68 egin zuen gora termino nominala, eta % 2,56, prezio konstanteetan: 2015ean eta 2016an izandakoa baino -% 1,26 gutxiago. 2017-2018 aldiaren, ordea, sektore hori izan zen gizarte-zerbitzuetan gehien handitu dena: hazkunde nominala % 9,15koa izan zen (+% 8,10, termino konstanteetan). Haurren, gazteen eta familien arloan izandako gastuaren apur bat azpitik badago ere, 2018-2019 aldiaren izandako % 11,03ko hazkunde nominala (% 9,76 prezio konstanteetan), gastuaren hedapen-joera sendotzeaz gain, indartu egin zuen joera hori, 2017-2018 aldiarekin alderatuta.





Gizarte-zerbitzuetako egituraren gastua gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian guztira izandako gastuaren % 12,3 izan zen 2019an, 194,90 milioi eurokoa, zehazki. Kopuru horretatik, 149,90 milioi, hau da, guztizko gastuaren % 9,5, oinarrizko gizarte-zerbitzuei, gizarte-larrialdiei eta zerbitzu espezializatu orokorrei zegozkien. Gainerako % 2,8a, berriz, egitura orokorrari zegokion (45,00 milioi), eta partida horren barruan zegoen urteko emaitza (defizita edo superabita).

2015-2016 aldian gastu nominalak izan zuen % 10,98ko gorakada handia (% 9,32, prezio konstanteetan) abiapuntutzat hartuta, 2016-2017 aldian sendotu egin zen gizarte-zerbitzuen egituraren egindako gastuaren igoera esanguratsua. Aldi horretan, gastu nominalak % 13,18 egin zuen gora (+% 11,96, termino konstanteetan). 2017-2018 aldian aldaketa nabarmena izan zen bilakaera horretan, eta gastu nominala beherantz egonkortu zen (-% 0,01). Horren atzean, -% 0,97 beherakada dago, termino konstanteetan. Joera hori indartu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean: -% 7,32, prezio korranteetan (-% 8,38, prezio konstanteetan).

Bilakaera hori lotzen zaio egitura orokorrari lotutako gastuari eusteko joerari, 2018-2019 aldia baino lehenago hasitako defizit/superabit binomioaren dinamikak baldintzatuta. Hori dela eta, 2015-2016 aldian prezio konstanteetan % 19,72ko gehikuntza egon arren, 2016-2017 aldian partidak jada -% 6,38 egin zuen behera prezio konstanteetan. Joera hori areagotu egin zen 2017-2018 aldian, eta gastu konstanteak -% 12,91 egin zuen behera. Beheranzko joera hori are deigarriagoa izan zen 2018-2019 aldian: -% 34,00, prezio korranteetan, eta -% 34,76, prezio konstanteetan.

Bilakaera horrek erakusten zuen gizarte-zerbitzuen kudeaketaz arduratzen ziren erakundeek ezohiko ekarpenei lotutako prozesuak mugatu nahi izan zituztela, eta, oro har, defizita kontrolatu nahi zela. Finantza-normalizazioaren adierazle bat zen gizarte-zerbitzuen egitura mantentzeaz arduratzen ziren erakundeek ekarpenari dagokionez.

Doikuntza lan garrantzitsu horrek bide eman zuen oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, gizarte-larrialdietakoetan eta zerbitzu espezializatuetan gastua paraleloan igotzen jarraitzeko. 2017-2018 aldian, zerbitzu horietan, gastu nominalak % 7,02 egin zuen gora (+% 6, termino konstanteetan). 2016-2017 aldian gizarte-zerbitzuen jardun-eremu garrantzitsu horretako gastu-maila horrenbeste igo ondoren (+% 26,43, prezio konstanteetan), 2017-2018 aldiko hazkunde-erritmo handiei esker —izan ere, gizarte-zerbitzuen batezbesteko orokorretik gorakoak dira (% 6,0 vs % 2,55en, prezio konstanteetan)—, sektore hori sendotu egin zen 2016. eta 2018. urteen artean. Nahiz eta 2016tik aurrera beheranzko joera izan, 2018-2019 aldian mantendu egin ziren hazkunde-erritmo handiak: % 5,48, termino nominaletan, eta % 4,27, prezio konstanteetan. Aldi horretan, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, gizarte-larrialdietakoetan eta espezializatuetan egindako gastua gizarte-zerbitzuetan orokorrean izandako gastuaren gainetik egon zen oraindik ere.

2012-2013 aldian erregistratu zen beherakada handiarekin alderatuta, 2016-2019 aldiko dinamikak bultzada handia eman zion oinarrizko zerbitzu horietan eta zerbitzu espezializatuetan gastua berreskuratzeko bideari. Bide hori jada 2013tik gauzatzen hasi zen, baina 2016an oraindik gastu nominala (103,90 milioi) 2012koa (105,01 milioi) baino txikiagoa izan zen. Are gehiago, gogoratu behar da 2015-2016 aldian gastuak gora egin zuela, baina horren ondorioa % 2,31ko igoera baino ez zela izan, prezio konstanteetan. Gehikuntza-linea hori oraindik gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren batezbestekotik behera egon zen. 2016-2019 aldiak aldatu egin zuen egoera hori: 2019an, 149,90 eurokoa izan zen gastua; beraz, termino nominaletan, 2012an baino % 42,7 gehiago gastatu zen.

Aztertutako zerbitzuen barruan, eta 7. edo 8. tauletan azaltzen den desagregazioa alde batera utzita, komeni da aipatzea oinarrizko gizarte-zerbitzuen bilakaera, zentzu hertsian, hobea zela jada azken urteetan, baina hazkundera nolabait moteldu zela 2015etik aurrera.

Ilido horretan, oinarrizko egiturako gainerako zerbitzuetan ikusitakoa ez bezala, oinarrizko gizarte-zerbitzuen gastuak gora egin zuen etengabe 2012-2015 aldian, eta % 15,2ko hazkundera izan zuen guztira (2012ko 40,29 milioi euroko gastutik 2015eko 46,43 milioikora). Hala ere, 2014-2015 aldian ikusitako gorakada argiaren ostean (+% 7,4), 2015-2016 aldiko dinamikak hazkunderitmoaren apaltze arin bat izan zuen, baina oraindik argia zen gorako joera, % 4,5eko hazkundera eta 48,52 milioiko gastua izan baitzen 2016an. Hazkundera are gehiago moteldu zen 2016-2017 aldian: gehikuntza % 2koa izan zen, eta gastua, 49,48 milioi eurokoa. 2017-2018 aldian, ordea, gastua berriro handitu zen, eta 2018an 52,21 milioi eurora iritsi zen. Gastu hori 2017koa baino % 5,5 handiagoa izan zen. Joera hori 2019ra arte mantendu zen, 54,41 milioi eurokoa izan baitzen gastua; beraz, 2018. eta 2019. urteen artean % 4,2 egin zuen gora.

2014an % 3,2 izan ondoren, oinarrizko gizarte-zerbitzuen gastuak gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko gastu osoan izandako pisu erlatiboak bilakaera hau izan zuen: 2015-2016 aldian, % 3,5koa; eta 2017an, % 3,3koa. Gastua berreskuratu arren, oraindik % 3,4 izan zen 2018-2019 aldian, hots, 2015eko eta 2016ko mailetatik beherakoa.

2016-2017 aldian, oinarrizko gizarte-zerbitzuen gastua gehiago mugatu izanaren ondorioetako bat izan zen oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, gizarte-larrialdietan eta zerbitzu espezializatuetan egindako gastuak 2016-2017 aldian izandako aurrerapen nabarmena benetan zerbitzu espezializatuetan kontzentratu zela. Euskal administrazio publikoen finantzaketa-krisiaren ondorioak gaintitu ondoren, erreferentzia-aldian aukera egon zen langile-egitura espezializatueta gastua berriz handitzeko.

2014-2016 aldian laguntza-egitura espezializatueta egindako gastua 52 milioi euro ingurukoa izan zen; 2017an, berriz, 80,83 milioikoa; 2018an, 87,07koa, eta 2019an, 92,68 milioikoa, hau da, 2016koa baino % 75,4 handiagoa. Neurri handi batean, finantzaketa-krisiaren ondorengo urteetan administrazio horiek ezaugarritu zituen finantzaketa-defizitari eusteko gaitasuna lortu izanaren ondorioa izan zen.

Zentro, zerbitzu edo programa motaren ikuspegiari erreparatuta, eta 8. taulan jasotako datuei berriro helduz, gastuaren xede nagusia egoitza-zentroak direla egiazta daiteke. Zentro horietan egindako gastua 910,58 milioi eurokoa izan zen 2019an, hau da, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian izandako gastu osoaren % 57,7. Zatiirik handiena adineko pertsonentzako egoitzetakoa izan zen, gastu horrek 2019ko gastu osoaren % 40,1 hartu baitzuen (633,16 milioi). Proporzio horrek aldaketa txiki bat markatu zuen 2015eko % 41,4tik ikusitako beheranzko joeran, zeinak ondorioak izan baitzuten, oraindik ere, 2017an eta 2018an. Hala, 2017-2018ko % 39,8ko ehunekoa 2012ko gutxieneko % 39,6tik hurbil egon zen. 2019an, adinekoentzako egoitza-zentroetan gastu erlatibo handiagoa izateak berriro ere % 40ko atalasea gaintitzea ekarri zuen. 2019ko % 40,1eko ehunekoa 2013. eta 2016. urteen artean nagusi izan zen % 40,1 eta % 41,4 arteko tartean kokatu zen berriro.

Adineko pertsonentzako egoitzetan egindako gastuaren pisu erlatiboa nabarmen handiagoa izan zen desgaitasunen bat duten pertsonen arloan (132,84 milioi, % 8,4) eta adingabeen arloan (92,55 milioi, % 5,9) egindakoa baino. Beste % 2,8 erabiltzen da bazterketa-egoeran dauden pertsonen etxebizitza, harrera eta egoitza emateko (44,06 milioi); eta % 0,5 osagarria bideratzen da emakumeen etxebizitza eta egoitza emateko, genero-indarkeria edo tratatu txarrak jasan zein ez (7,97 milioi).



2015-2018 aldian bezala, 2018-2019 aldian egoitza-zentroetara bideratutako gastu nominalaren gehikuntzak orokortzeko joera izan zuen. Gora jotzeko ildo nagusietako bat adingabe, gazte eta familiekin egindako esku-hartzeei zegokien: % 11,46 egin zuen gora gastu nominalean. Kasu horretan, 2012. eta 2014. urteen artean behera egin ondoren, 2014-2015 aldian areagotu egin zen gastua berreskuratzeko bidea. Hala, 2016-2017 aldian, gastuak % 9,62 egin zuen gora prezio konstanteetan; 2017-2018 aldian, berriz, % 11,11. Bi aldi horietako gastuak sobera gainditu zuen 2015. eta 2016. urteen artean izandako % 1,89. 2018-2019 aldian, apur bat beherantz bada ere – prezio konstanteetan % 10,18 egin zuen gora–, sendotu egin ziren % 10etik gorako hazkunde-erritmoak gastu konstantean.

Gizarte-zerbitzuen 2015. eta 2016. urteen arteko gastuaren batez besteko erritmoetara hurbildu eta gero, 2016. eta 2019. urteen artean gorakadak gainditu egin zuen nukleo nagusiaren adierazle orokorra bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan. Kasu horretan, 2016-2017 aldian, % 6,63koa izan zen gorakada nominala; 2017-2018 aldian, % 8,20koa, eta 2018-2019 aldian, % 8,03koa (termino konstanteetan, % 5,49, % 7,17 eta % 6,79koa, hurrenez hurren; beti 2015-2016 aldiko % 3,53tik gorakoa).

2018-2019 aldian, nabarmena izan zen, oraindik ere, adinekoentzako egoitza-zentroetan egindako gastuaren hazkunde-erritmoa. Prezio konstanteetan, urteko gehikuntzak bilakaera hau izan zuen: 2015-2016 aldian, % 1,63; 2016-2017 aldian, % 2,18, eta 2017-2018 aldian, % 2,68. Azken aldi horretan gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren hazkundearen ginetik egon zen. Hazkunde-erritmoaren gorako joera mantentzen ez bada ere, 2018-2019 aldian izandako % 2,61eko igoera 2017-2018 aldiko erregistrotik hurbil egon zen, eta gizarte-zerbitzuen hazkunde orokorraren ginetik egon zen, oraindik ere.

2018. eta 2019. urteen artean, bi dinamika garrantzitsu ikusten dira egoitza-zentroetan izandako gastuaren bilakaeran. Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroi dagokienez, 2015-2018 aldian egin zen gastuaren hazkundea gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren adierazle orokorraren azpitik egon zen. Kasu horretan, gainera, hazkunde-erritmoa zerbait moteldu zen: 2015-2016 aldian % 2,21 izan zen, eta 2016-2017 aldian, ordea, % 1,54. Dena den, 2017-2018 aldian berriro piztu zen, % 2,45eko gorakada izan baitzuen prezio konstanteetan. Konparazioa eginda neurritsua zen hazkunde horrek luzatu egin zuen 2012. eta 2014. urteen artean gizarte-zerbitzuen batezbestekotik gorakoa zen gastuaren hazkunde-dinamika.

2018-2019 aldian areagotu egin zen 2017. eta 2018. urteetan izandako aldaketa, eta % 6,66 egin zuen gora gastu nominalak (% 5,44, prezio konstanteetan). Kopuru horrek ia bikoiztu egin zituen 2015. eta 2018. urteen arteko hazkunde-erritmoak. Halako zentroetan izandako gastuaren hazkundea, gainera, 2018-2019 aldian urrundu egin zen gizarte-zerbitzuen nukleoaren multzoan hazkundeak izandako beheranzko dinamikatik.

Joeraren aldaketa are deigarriagoa da emakumeentzako etxebizitza- eta egoitza-zerbitzuetan, genero-indarkeriarekin edo tratu txarrekin lotutako arazoak izan zein ez. Kasu horretan, 2015-2016 aldian, prezio konstanteetan % 9,02 gora egin ondoren, 2016-2018 aldian gastuak behera egin zuen. 2016-2017 aldian, ia egonkortu egin zen prezio konstanteetan (–% 0,09), baina 2017-2018 aldian –% 2,33ko beherakada izan zuen. 2012. eta 2016. urteen artean zerbitzu horiek batezbestekoaren ginetik zegoen hazkundea izan zuten, baina azken beherakada horrek gora egiteko joera hautsi zuen. Hala ere, 2018-2019 aldian, indartsu berreskuratu zen goranzko joera,

eta emakumeentzako etxebizitzak edo egoitza-zentroak gastuan hazkunde handiena izan zuten egoitza-zerbitzuak izan ziren: % 23,58, termino nominaletan, eta % 22,17, prezio konstanteetan.

Orokorrean, 2018. eta 2019. urteen artean, egoitza-zentroetan izandako gastuak % 5,29 egin zuen gora (% 4,08, prezio konstanteetan). Hortaz, areagotu egin zen gastuaren hazkunde-erritmoa 2017-2018 aldiko % 4,57ko hazkundearekin alderatuta (+% 3,57 termino konstanteetan). 2016an eta 2017an izandakoarekin alderatuta, 2017. eta 2019. urteen artean, gainera, egoitza-zerbitzuetan sendotu egin zen gastuaren hazkundera, eta gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian izandako gastuaren gehikuntza orokorraren gainera kokatu zen. 2017. eta 2019. urteen arteko hazkunde konparatu handiago hori dela eta, zerbitzuen eremu horretako gastuaren pisuak hautsi egin zuen aurretiaz izandako beheranzko joera. Honelakoa izan zen aurreko beherakada hori: 2015eko % 57,7tik 2016ko % 56,8ra pasatu zen, eta, gero, 2017ko % 55,9ra. 2018ko erregistroa % 56,5era iritsi zen, hau da, 2016ko mailetara hurbildu zen berriro, baina 2019ko kopuruak (% 57,7) gainditu egin zuen 2016ko erregistroa, eta 2015eko proportzioan kokatu zen.

Zentro, zerbitzu edo programen araberrako gastua aztertuz gero, gastuaren bigarren arlo aipagarria eguneko zentroena izan zen: gastua, guztira, 157,48 milioi eurokoa izan zen, hau da, 2018an gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian izandako gastu osoaren % 10,0.

Kasu horretan, desgaitasuna edo gaixotasunak dituzten pertsonen arretarako zentro mota desberdinek izan zuten gastuaren zatirik handiena, 74,40 milioi, zehazki (gastu osoaren % 4,7). Adinekoentzako eguneko zentroetara bideratutako partida 66,83 milioi eurokoa izan zen, guztizkoaren % 4,2. Gainerako % 1a adingabe, gazte, familia eta gizarteratze-premiak dituzten pertsonentzako eguneko arretari zegokion: 16,24 milioi euro.

2018. eta 2019. urteen artean, gastuaren bilakaera ezberdina izan zen eguneko arreta-zentro motaren arabera. Aldi horretan, gizarteratze-premiak zituzten pertsonen eguneko arreta emateko zentroek izan zuten bilakaera positiboena. Esku-hartze eremu horretan gastuaren dinamika berriro ere positiboa izan zen 2017-2018 aldian. Kasu horretan, 2016-2017 aldian -% 5,92ko murrizketa egon zen termino konstanteetan; 2017. eta 2018. urte artean, ordea, gastuak % 12,73 egin zuen gora termino konstanteetan, eta 2012. eta 2016. urteen arteko linea positiboa berreskuratu zen. Hazkunde-erritmoa areagotu egin zen 2018-2019 aldian: % 24,03 egin zuen gora termino nominaletan, eta % 22,61, termino konstanteetan.

2018-2019 aldian, modu esanguratsuan egin zuen gora desgaitasun edo gaixotasun bat duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan izandako gastuak ere: % 4,73 egin zuen gora (% 3,54, zifra konstanteetan). Hortaz, gastuaren sustapen handia izan zen 2017-2018 aldiko zifrekin alderatuta: % 1,77 (% 0,79, zifra konstanteetan). Bilakaera hori oso ezberdina zen 2015. eta 2017. urteetan zifra konstanteetan izandako beherakadekin alderatuta (-% 0,27, 2015-2016 aldian; eta -% 3,81, 2016-2017 aldian). Aldaketa hori bat zetorren 2015era arte izandako joera nagusiarekin. Zehazki, 2012tik 2015era % 8,59 egin zuen gora zifra konstanteetan. Hala ere, 2019ko gastuaren zifra nominalak % 3,6 baino ez zuen gainditu 2016koa.

2017. eta 2018. urteen artean bultzada esanguratsua izan zuen beste eremuetako bat adinekoentzako eguneko laguntza-zentroena izan zen. Kasu horretan, hazkunde nominala % 5,77ra iritsi zen, eta 2015ekoaren gainera kokatu zen lehen aldiz, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren multzoari zegokionarekin alderatuta. Termino konstanteetan, 2015-2016 aldian % 1,24 egin zuen gora; 2016-2017 aldian, % 1,75; eta 2017-2018 aldian, % 4,75. 2018. eta 2019. urteen artean, mantendu egin zen hazkundera, baina maila apalagoetan: % 2,23 (% 1,06, prezio konstanteetan). Beraz, hurbilago egon zen 2015-2016 aldian erregistratutakotik. Edonola ere,



2019an mantendu egin zen zentro horietan 2012tik aurrera ohikoa izan zen gastuaren goranzko joera argia.

Bestalde, gaixotasuna edo desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko beste zentroetan (hertsiki laguntza-zentroak ez direnak), beheranzkoa izaten jarraitu zuen gastuaren joerak. Multzo horretan daude eguneko zentro okupazionalak<sup>3</sup>. Halako zentroetan, beheranzko joera ikusi zen jada 2017-2018 aldian: -% 2,08 (-% 3,02, zifra konstanteetan). Aldaketa bat izan zen 2015. eta 2017. urteen artean behatutakoari dagokionez. Urte horietan, garrantzitsuak izan ziren gastuaren hazkunde-erritmoak: 2015-2016 aldian, % 4,90; 2016-2017 aldian, % 12,63, prezio konstanteetan. 2018. eta 2019. urteen artean, areagotu egin zen 2017an hautemandako aldaketa eta behera egin zuen: -% 11,72 (-% 12,73, prezio konstanteetan). Horren ondorioz, 2019an, halako zentroetan egindako gastua gero eta gehiago urrundu zen 2014an egindako gastutik.

Beheranzko joera adingabe, gazte eta familientzako eguneko zentroetara ere zabaldu zen 2018. eta 2019. urteen artean, eta kontrastea handia izan zen 2012tik 2018ra bitartean izandako goranzko joerarekin. Zentro horietan, 2017-2018 aldian, urtetik urterako hazkunde-tasek argi gainditu zuten % 10eko proportzioa (% 17,13 eta % 16,01 prezio konstanteetan). 2018-2019 aldian, berriz, gastua -% 13,10 murriztu zen (-% 14,09, termino konstanteetan), eta 2017ko mailara hurbildu zen (4,34 milioi euro 2019an; 2017an, aldiz, 4,26 milioi).

Gastuari dagokionez, espezializatutako zentro, zerbitzu edo programa nagusien artean, hirugarren mota garrantzitsua etxeko laguntza izan zen, zeinean 93,13 milioi gastatu baitziren 2019an. Zifra hori 2016an gastatutako 81,53 milioien gainetik egon zen, baita 2018ko 85,95 milioien, 2017ko 88,54 milioien edo 2012ko 88,54 milioien gainetik ere. Etxeko laguntzako gastuaren pisua % 6,9tik % 5,8ra jaitsi zen 2012tik 2016ra bitartean, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiari dagokion gastu osoari dagokionez. 2017an % 6,0 gora egin ondoren, proportzioa % 5,6ra jaitsi zen 2018an. 2012tik izandako proportziorik txikiena izan zen une horretan. 2018. eta 2019. urteen artean gastuak izandako gorakada berriak % 5,9n jarri zuen proportzio berria, baina, oraindik, 2017ko % 6koaren azpitik.

### 3.2.2 *Gastuaren aldeak lurralde historikoen arabera*

2019an, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusira bideratutako gastu arruntean desberdintasun garrantzitsu batzuk mantendu ziren lurralde historikoen artean, 9. taulan jasotako biztanleko gastuetan ikus daitekeenez. Gastu handiena Arabako lurralde historikoan izan zen berriz ere: 852,94 euro biztanleko. Ondoren, Gipuzkoa izan zen (738,58 euro biztanleko) eta, azkenik, Bizkaia (673,45 euro).

Ikusten diren alde horiek azaldu daitezke, neurri batean, kontuan hartzen bada 2012-2015 aldian gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian gastu arruntaren hazkunderik txikiena Bizkaian izan zela. Joera hori mantendu egin zen 2015-2016 aldian: % 4,84ko gehikuntza nominala izan zuen, Araban eta Gipuzkoan izandakoaren azpitik (% 5,05 eta % 5,53, hurrenez hurren).

Hala eta guztiz ere, 2015-2016 aldiko datuek erakusten dute lurraldeen emaitzak gero eta antzekoagoak zirela, eta joera hori 2016-2017 aldian sendotu zela, behintzat Bizkaian eta Araban.

<sup>3</sup> Zehaztu behar da kasu honetan, zentro okupazionalen eta enplegu-zentroen arteko jardueraren alboratze-/konbinazio-dinamikak baldintzatzen duela bilakaera; horren ondorioz, benetako egitura-dinamikak islatzen ez dituzten aldaketa handiak gerta daitezke (zentro bat enplegu-zentro bereziko plazak soilik eskaintzen hastea, adibidez).

Hala, 2016. eta 2017. urteen artean, Bizkaiko gastuaren gorakadak (% 3,67) Arabakoa (% 3,14) gainditu zuen. Bizkaiko lurraldea 2016-2017 aldiko hazkundearen moteltzea jasaten ari bazen ere, gastuaren hazkundean zegoen tarreak Arabaren aldekoa izateari utzi zion, aurreko aldiarekin alderatuta (2015-2016 aldian ehuneko 0,21 puntu negatibo izatetik 2016-2017 aldian 0,54 puntu positibo izatera aldatu zen). Norabide-aldaketa hori 2017. eta 2018. urteen artean sendotu zen, Bizkaiak % 7,91ko gehikuntza nominala izan baitzuen, Arabakoa (% 4,86) aise gaindituta.

Edonola ere, 2016-2017 aldian hazkundearen erritmoak behera egin eta gero, aurkeztutako zifrek erakusten dute gastuetan goranzko joera berreskuratzen ari zela bi lurraldeetan. Araban, 2017-2018 aldiko % 4,86ko igoerak 2016-2017 aldiko % 3,14 gainditu zuen, eta 2015-2016 aldiko % 5,05era hurbildu zen. Bizkaian are argiagoa izan zen suspertze hori: 2017. eta 2018. urteen artean, % 7,91 egin zuen gora, eta horrek 2016-2017 aldiko % 3,67ko eta 2015-2016 aldiko % 4,84ko kopuruak gainditu zituen.

2017-2018 aldian, deigarriena zen Bizkaia zela nabarmenki gastua gehien handitu zuen lurraldea. Beraz, Bizkaiak izan zuen gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian egindako gastuaren igoera handiena ere EAEn. Zehazki, 2015etik 2018ra % 17,29 egin zuen gora, Araban izandako % 13,62ko balioaren gainetik. Dena den, 2014-2015 aldian Araban hazkunde handi eta bereizgarria egon zen (+% 3,12, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, behera egin zuen). Datu horri hazkunde egonkorra gehitu behar zaio, baita 2017-2018 aldiko igoera ere. Horri esker, Arabako hazkunde-dinamika eta Bizkaikoa ez ziren hain ezberdinak izan.

2015. eta 2018. urteen artean, Gipuzkoa izan zen gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko gastua gutxien handitu zuen lurraldea: % 11,88. 2017-2018 aldiko gastuaren –% 3,09ko beherakadaren ondorioa zen, eta kontraste handia zuen aurreko urteetan izandako bilakaerarekin. Ildo horretan, 2016. eta 2017. urteen artean, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian egindako gastuaren hazkunde-erritmoa moteltzen ari zen Araban eta Bizkaian; Gipuzkoan, ordea, gora ari zen. Lurralde hori 2014-2015 aldian –% 2,69ko hazkunde negatiboa izatetik 2015-2016 aldian % 5,53ko hazkundera izatera pasatu zen, eta 2016-2017 aldian % 9,40ra iritsi zen.

Arabak eta Gipuzkoak per capita gastuari dagokionez Bizkaiarekin zituzten aldeak 2018-2019 aldian izandako dinamikarekin lotzen ziren ere. Aldi horretan, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko gastuak egonkortzeko joera izan zuen Bizkaian, eta hazkunde nominala % 0,55ekoa baino ez zen izan. Gainera, beherakada nabarmena izan zen 2017-2018 aldiko % 7,91eko hazkunderarekin alderatuta. 2018-2019 aldian, Gipuzkoan eta Araban, berriz, gastuak gora egin zuen modu nabarmenean (% 5,76 eta % 5,74, hurrenez hurren). Arabaren kasuan, hazkunde horrek gastua handitzeko erritmoak areagotzeko joera zuen (2016-2017 aldian, % 3,14; 2017-2018 aldian, % 4,86, eta 2018-2019 aldian, % 5,74). Gipuzkoan, 2016-2017 aldiko % 9,40ra iritsi ez bazen ere, 2018-2019 aldiko % 5,76ko hazkunderak gastuaren goranzko joera berreskuratze aukera eman zion, 2017-2018 aldiko –% 3,09ko murrizketa izan ondoren.

Hala ere, ikusitako dinamikek lotura estua zuten urteko bariazioekin eta doikuntzekin, eta ezin ziren ezkutatu lurraldeen arabera nahiko antzekoak ziren epe ertaineko dinamikak. Hala, ikus daiteke 2016-2019 aldian gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian izandako gastuaren hazkundera tarte estu batean kokatzen zela: gehienekoa, Araban, % 14,36koa, baina Bizkaia (% 12,49) eta Gipuzkoa (% 12,12) ez dira asko urruntzen.



**9. taula. Gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta (erdigunea), lurralde historikoen arabera. 2016-2019**  
(Gastu nominala -euroak milioitan-, % bertikalak, % BPGd, biztanleko gastua eurotan eta urte arteko bariazioa gastuaren %-tan)

	2016				2017				2018				2019				Urte arteko bariazioa %-tan			
	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua /biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua /biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua /biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua /biz.	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2016/2019
Lurralde historikoa																				
EAE	1.401,25	100	1,97	645,18	1.478,49	100	2,01	679,51	1.530,89	100	1,99	702,10	1.579,10	100	1,99	721,70	5,51	3,54	3,15	12,69
Araba	244,61	17,5	2,11	758,86	252,28	17,1	2,12	779,64	264,55	17,3	2,15	812,72	279,74	17,7	2,22	852,94	3,14	4,86	5,74	14,36
Gipuzkoa	472,44	33,7	2,01	664,75	516,85	35,0	2,12	725,10	500,86	32,7	1,95	701,22	529,71	33,5	1,98	738,58	9,40	-3,09	5,76	12,12
Bizkaia	684,21	48,8	1,89	600,79	709,35	48,0	1,90	622,55	765,47	50,0	1,97	671,08	769,66	48,7	1,92	673,45	3,67	7,91	0,55	12,49

Iturria: EOE, BJKPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

**10. taula. Gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta, gastu motaren eta lurralde historikoen arabera. 2019**  
(BPGd-aren %-a eta bariazioa 2018-2019 gastuaren %-tan)

Gastu mota	BPGd % 2019				Bariazioa 2018/2019 aldian %-tan			
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE
<b>GIZARTE-ZERBITZUAK: ERDIGUNEA</b>	<b>2,22</b>	<b>1,98</b>	<b>1,92</b>	<b>1,99</b>	<b>5,74</b>	<b>5,76</b>	<b>0,55</b>	<b>3,15</b>
Egitura orokorra	0,10	0,05	0,05	0,06	-5,85	63,15	-59,78	-34,00
Egitura espezifikoa	0,21	0,17	0,19	0,19	5,29	2,56	7,41	5,48
<b>EGITURAREN GASTUA GUZTIRA</b>	<b>0,31</b>	<b>0,23</b>	<b>0,24</b>	<b>0,25</b>	<b>1,56</b>	<b>12,23</b>	<b>-19,22</b>	<b>-7,32</b>
Adinekoentzako zentro/zerbitzuak	1,06	0,82	0,87	0,88	6,21	1,82	3,88	3,66
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako zentro/zerbitzuak	0,30	0,29	0,26	0,28	6,36	6,85	-2,38	2,13
Haur/gazte/familientzako zentro/zerbitzuak	0,16	0,13	0,13	0,14	3,94	13,71	11,97	10,96
Bazterketa-egoeran daudenentzako zentro/zerbitzuak	0,06	0,08	0,07	0,07	4,39	16,39	8,74	11,03
<b>ZENTRO ETA ZERBITZUETAKO GASTUA GUZTIRA</b>	<b>1,57</b>	<b>1,33</b>	<b>1,33</b>	<b>1,37</b>	<b>5,94</b>	<b>4,83</b>	<b>3,54</b>	<b>4,39</b>
Mendekotasunaren arloko programak	0,17	0,12	0,12	0,13	16,30	12,16	5,82	9,84
Familien arloko programak eta beste batzuk	0,05	0,08	0,06	0,06	13,56	21,28	3,39	11,59
<b>PROGRAMEN GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>0,23</b>	<b>0,20</b>	<b>0,18</b>	<b>0,19</b>	<b>15,65</b>	<b>15,59</b>	<b>5,04</b>	<b>10,41</b>
Mendekotasunen arloko prestazioak	0,11	0,22	0,17	0,18	-3,01	-2,18	8,00	2,32
Tratu txarren biktima direnentzako prestazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	14,28	0,42	12,81	10,25
<b>PRESTAZIOEN GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>0,11</b>	<b>0,23</b>	<b>0,17</b>	<b>0,18</b>	<b>-2,78</b>	<b>-2,17</b>	<b>8,04</b>	<b>2,38</b>

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Edonola ere, Arabak pisua berreskuratu zuen Euskadiko gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian egindako gastu arruntaren banaketan. 2016. eta 2017. urteen artean % 17,5etik % 17,1era pasatu ondoren, gastua % 17,3ra iritsi zen 2018an, eta % 17,7ra, 2019an. Gehieneko proportzioa izan zen 2012tik.

Bizkaiaren kasuan, 2012an gastuaren % 49,5 izatetik, partaidetza % 48,8ra eta % 49ra jaitsi zen 2014-2016 aldian, eta % 48ra, 2017an. 2018an, brastakoan % 50era gora egin ondoren, Bizkaiak gastuan zuen pisua % 48,7ra jaitsi zen 2019an, eta 2016ko kopuruetatik hurbil kokatu zen (% 48,8). Gipuzkoari dagokionez, gastuan zuen partaidetzak gora egin zuen 2012ko % 33,2tik 2014ko % 34,3ra. 2015ean eta 2016an, apur bat beherago kokatu zen, % 33,6n eta % 33,7n. 2017an igoera garrantzitsua izan ondoren, % 35era, eta 2018an % 32,7ra jaitsi ondoren, 2019an Gipuzkoa 2015ean eta 2016an izandako mailetara hurbildu zen: % 33,5.

Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian egindako gastuak barne-produktu gordinean hartzen zuen ehunekoa aintzat hartuta, Araba beste herrialdeen gainetik kokatu zen argi eta garbi. 2014. eta 2015. urteen artean lurralde horretan gastuan izandako joera jarraituaren aurrean (2015ean, % 2,08), hortik aurrera etengabeko goranzko joera bat izan zuen eta 2019an % 2,22ra iritsi zen.

Gipuzkoan, defizita doitzeko eta gastua/BPGd erlazioa % 2,08ra (2014) eta % 2,12ra (2017) eramán zuten gastu-partida batzuk (bereziki, diru-sarrerak bermatzeko laguntzena) likidatzen joateko prozesuaren ondorioz, 2018an beherantz doitu zen BPGdaren % 1,95ean kokatu arte, hau da, 2015ean erregistratutakotik hurbil. Hala ere, gastuan izandako goranzko joerak gorantz kokatzen zuen berriro ere adierazlea: % 1,98, 2019an, hau da, 2012, 2013, 2015 eta 2018ko mailen gainetik, eta 2016ko % 2,01etik asko urrundu gabe.

2014an izandako % 1,93ko balioa kenduta, Bizkaiaren gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian egindako gastua % 1,87ren inguruan mantendu zen 2012tik 2015era bitartean. Hortik aurrera, goranzko prozesu argia izan zuen, 2018ko % 1,97ra iritsi arte. Hala ere, gastu arruntaren egonkortzeak beheranzko doikuntza nabarmena ekarri zuen 2019an: gastua/BPGd erlazioa % 1,92 izan zen urte horretan. Hala ere, 2018ko salbuespen garrantzitsua kenduta, lurralde horretan 2012tik izandako erregistro altuenetako bat izan zen.

Datuek biztanleko BPGdaren eta gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian biztanleko dagoen gastu-mailaren artean dagoen erlazioa islatzen zuten oraindik ere. Hala, Araban biztanleko izandako BPGd altuenak biztanleko 852,94 euroko gastua ekarri zuen, Gipuzkoako eta Bizkaiko gastuaren gainetik. Gipuzkoak Bizkaiak baino gastu handiagoa izan zuen biztanleko (738,58 euro Gipuzkoak, eta 673,45, Bizkaiak). Hala ere, Arabaren aldeko gastu sozialaren diferentziala Euskadiko per capita BPGdan zuen lidergoak adierazten zuena baino handiagoa zen<sup>4</sup>.

BPGdari lotuta, gastuan lurraldeen arteko alderik handienak erakutsi dituzten zentro, zerbitzu edo programen analisiak datu osagarriak eskaintzen ditu, 2018an oraindik ere aipagarriak zirenak. Gai horiek aztertu daitezke 10. taulan jasotako informaziotik abiatuta.

Arabako egoera aztertzean, 2019an gastu diferentziala atzematen da lurralde horretan, adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuei dagokienez, eta, neurri txikiagoan, gizarte-zerbitzuen egitura espezifikoarekin lotutakoei dagokienez (oinarriko gizarte-zerbitzuak, gizarte-larrialdikoak eta zerbitzu espezializatuak) eta haur, gazte eta familientzako zentro eta zerbitzuei dagokienez. Eremu horietan, lurraldeko gastuaren eta BPGdaren

---

<sup>4</sup> Eustaten datuen arabera, per capita BPGda 38.577 euro ingurukoa zen Araban 2019an; gero, Gipuzkoa (37.188 euro), eta nahiko urrun geratzen zen Bizkaia (35.002 euro).





arteko erlazioa % 1,43 izan zen Araban, hau da, Bizkaiko 1,19ko eta Gipuzkoako % 1,13ko balioen gainetik, ehuneko 0,24 eta 0,30 puntu gainetik, hurrenez hurren.

Alde horiek, neurri handi batean, 2012. eta 2016. urteen bitartean Araban adinekoentzako zentro eta zerbitzuen arloko gastuan izandako hazkunde diferentziala islatzen zuten, eta dinamika hori mantendu zen 2015era arte haur, gazte eta familientzako zentro eta zerbitzuetan. 2012-2013 aldian gastua nabarmen murriztu zen, batez ere, gizarte-zerbitzuen egitura espezifikuari zegokion alderdian (oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, gizarte-larrialdietan eta zerbitzu espezializatuetan), eta horrek zertxobait konpentsatu zituen diferentziak, baina Araban gastu mota hori 2015-2016 aldian biziki igo zenez (zehazki, % 9,51; Gipuzkoan, % 1,91; eta Bizkaian, % 2,41), 2016an finkatu egin ziren gastuaren zati horretako diferentziak. Urte horretan, aztertutako jardun-eremuetan, gastua BPGdaren % 1,35 izan zen Araban; % 1,15, Gipuzkoan, eta % 1,08, Bizkaian.

Hala ere, interesgarria da ikustea nola adierazitako jardun-eremuetan detektatu zen Bizkaia 2016-2018 aldian izandako gastuaren ahalegin handiena: BPGdaren gaineko gastua 2016ko % 1,08tik 2018ko % 1,16ra pasatu zen. Igoera garrantzitsu hori erreferentziako epe horretan aztertutako eremu ezberdinetan eman zen. Hala ere, hobekuntzarik nagusiena oinarrizko gizarte-zerbitzuen, gizarte-larrialdiko zerbitzuen eta zerbitzu espezializatuen egitura espezifikuari zegokion. Izan ere, Bizkaian, 2016an gastua/BPGd erlazioa % 0,13 izatetik 2018an % 0,18 izatera pasatu zen. Garrantzitsua da haur eta familientzako zerbitzuen arloko gastuak izandako igoera ere (2016ko % 0,10etik 2018ko % 0,12ra).

Epe horretan, Gipuzkoak Bizkaian izandako joera izan zuen ere, hau da, asko igo zuen gastua/BPGd erlazioa oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, gizarte-larrialdikoetan eta zerbitzu espezializatuetan: 2016ko % 0,13tik 2018ko % 0,18ra. Haur eta familientzako zerbitzuei lotutako gastua/BPGd erlazioa mantentzeari dagokionez, ordea, Gipuzkoan behera egin zuen aldi horretan gastua/BPGd erlazioak adinekoentzako zentro eta zerbitzuetan (% 0,89tik % 0,85era).

Hori dela eta, 2018an Bizkaia Gipuzkoaren gainetik zegoen jardun-eremu horietan gastua/BPGd erlazioan: % 1,16, Bizkaia, eta % 1,15, Gipuzkoa. Biak Arabaren azpitik (% 1,38).

2018. eta 2019. urteen artean, Arabako gastua/BPGd erlazioak gora egin zuen, % 1,38tik % 1,43ra. Nahiz eta haur eta familientzako zentro eta zerbitzuen arloko gastuak ere gora egin (% 0,15etik % 0,16ra), hazkunde handi hori adinekoentzako zentro eta zerbitzuetan gastua/BPGd erlazioak gora egitearekin (% 1,02tik % 1,06ra) lotzen zen batez ere. Aztertutako eremuetan gastua/BPGd erlazioak izandako igoera nabarmena izan zen Bizkaian ere, % 1,16tik % 1,19a, orokorrean, modu orekatuan banatuta aztertutako bi eremuetan eta gizarte-zerbitzuen egitura espezifikorenean. Haietako bakoitzean ehuneko 0,1 puntu egin zuen gora BPGdaren gaineko gastuak.

Araba eta Bizkaiarekin alderatuta, Gipuzkoan behera egin zuen BPGdaren gaineko gastuak hiru eremuetan, 2018ko % 1,15etik 2019ko % 1,13ra. Jaitsiera hori lotuta zegoen, batez ere, adinekoentzako zentro eta zerbitzuekin (% 0,85etik % 0,82ra); haur eta familientzako zentro eta zerbitzuetan, berriz, ehuneko 0,1 puntu egin zuen gora, eta nolabait konpentsatu zuen gizarte-zerbitzuen egitura espezifikoa izandako neurri bereko jaitsiera.

Hala ere, 2019an, Gipuzkoak oraindik ere konpentsatu zuen gizarte-zerbitzuen egitura espezifikoa eta adinekoentzako eta haur eta familientzako zentro eta zerbitzuetan izandako BPGdaren gaineko gastu konparatu txikiagoa mendekotasunerako prestazio ekonomikoetan izandako BPGdaren gaineko gastu askoz handiagoarekin: % 0,22, Bizkaiko % 0,17rekin eta Arabako % 0,11rekin alderatuta. 2018. eta 2019. urteen artean, Araban eta Gipuzkoa prestazio

horiek behera egin zuten (–% 3,01 eta –% 2,18); Bizkaiak, berriz, goranzko joera argiari eutsi zion (% 8,0). Izan ere, 2016. eta 2019. urteen artean, Bizkaia prestazio horietan gastua handitzeko ahalegin diferentzial handiagoagatik nabarmendu zen.

Mendekotasunerako prestazioetan izandako gastua orain arte aztertutako hiru eremuei batuta, Bizkaiko eta Gipuzkoako BPGdaren gaineko gastua % 1,36ko balioan orekatu zen 2019an. Arabako % 1,54rekin duten aldea ehuneko 0,19 puntura mugatu zen kostaldeko bi lurraldeetan.

Gainerako zentro, zerbitzu eta programetan (desgaitasuna/gaixotasuna, bazterketa, mendekotasunaren arloko programa espezifikoak, familiak eta beste batzuk, tratu txarren biktimenzako prestazioak), egitura orokorrari zegokion zatia alde batera utzita, 2019an gastuaren eta barne-produktu gordinaren arteko erlazioak antzekoa izaten jarraitzen zuen EAeko hiru lurraldeetan: Araban, % 0,58; Gipuzkoan, % 0,57, eta Bizkaian % 0,52. Hala ere, aldea handitu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean: Bizkaian 2018an mantendu egin zen gastu/BPGd erlazioa zentro, zerbitzu eta programetan; Araban eta Gipuzkoan, berriz, ehuneko 0,3-0,4 puntu egin zuen gora.

Halaber, esan behar da Bizkaiak 2019an gastua/BPGd erlazioa txikiagoa izatea lotuta zegoela lurralde horretan sistemaren egitura orokorreko gastuan egindako doikuntza argiarekin<sup>5</sup>. Partida hori barne-produktu gordinaren % 0,14tik % 0,06ra murriztu zen 2016tik 2017ra, eta 2018an berriro igo zen, % 0,12ra. Sistemaren finantza-normalizazioaren ondorioz, egitura orokorrean egindako beheranzko doikuntza berriro egin zen 2019an, eta barne-produktu gordinaren % 0,05era murriztu zen. Urte horretan, antzeko mailetan egon zen Gipuzkoan. Egitura espezifikoaren arloko gastua/BPGd erlazioa, berriz, egonkor mantendu zen Araban, % 0,10-0,11 arteko zifren inguruan, 2016tik 2019ra bitartean.

Egitura orokorrari dagokion zatia kentzen bada, Araba izan zen 2019an BPGdaren gaineko gasturik handiena (% 2,12) izan zuen lurralde historikoa; Gipuzkoak % 1,93 izan zuen, eta Bizkaiak, % 1,87. Dinamika berriena oso ezberdina izan zen lurralde batetik bestera. Alde batetik, Gipuzkoaren egonkortasuna nabarmendu behar da, gastua/BPGd erlazioa % 1,93-1,94 ingurukoa izan baitzen. Eta, bestetik, Bizkaiaren epe ertainerako goranzko joera argi-argia, 2016ko % 1,77tik 2019ko 1,87ra.

Arabako kasua bereziagoa da, aipatutako bi dinamikak baitzituen. Hala, % 2,00-2,03ren inguruan egonkortu zuen gastua 2016. eta 2018. urteen artean, eta goranzko joera deigarria izan zuen 2019an, gastua/BPGd erlazioan % 2,12ra iritsita, egitura orokorra sartu gabe.

Bizkaiaren egoera nabarmen hobetu arren, gastu soziala/BPGd adierazlean –egitura orokorra sartu gabe–, BPGdaren ehuneko 0,25 puntuko alde garrantzitsua izan zuen 2019an Arabari dagokionez. Alde bera zuen 2016an. Gipuzkoari dagokionez, aldea BPGdaren 0,06 puntukoa izan zen, eta 2016ko 0,16 puntuen azpitik egon zen. Bestalde, handitu egin zen Gipuzkoa eta Arabaren arteko aldea. Gastua/BPGd erlazioa, egitura orokorra sartu gabe, % 1,93n egonkortu zen 2016tik 2019ra, eta kontraste handia zen Araban izandako igoerarekin, % 2,02tik % 2,12ra. Bi lurralde horien arteko aldea, beraz, 2016an ehuneko 0,09 puntukoa izatetik 2019an 0,19 puntukoa izatera pasatu zen.

---

<sup>5</sup> Hein batean, egitura orokorraren barruan ezartzen diren lurraldeko erakunde publiko edo pribatuaren defizit/superabit faktoreari zor zaio hori.



### 3.3. Gizarte-prestazioetako gastua

#### 3.3.1 Prestazio motak

Eduki ekonomikoko gizarte-prestazioek –transferentziak egiten zaizkie pertsoneri eta familiei– 2019an, guztira, 597,19 milioi euroko gastua eragin zuten, transferentzia publikoak (591,31 milioi euro) nahiz hirugarren sektoreko erakundeek eginikoak (5,89 milioi) barne.

Egindako gastua diru-sarrerak bermatzeko sistemara bideratzen jarraitu zen nagusiki, honako hauetara, hain zuzen: diru sarrerak bermatzeko errenta (DSBE), etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) eta gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL). DSBE/EPO/GLL sistemak 455,60 milioi euroko gastua izan zuten 2019an, autonomia-erkidegoan garatzen diren pertsona eta familientzako transferentzietako gastu osoaren % 76,3. Proportzio hori nabarmen murriztu zen 2017ko eta 2018ko % 78,5-78,6ko mailekin alderatuta. 2012tik ordura arte, 2012ko % 74,7ko balioa baino ez zuten gainditzen.

Gastuaren zati zentrala DSBEri zegokion: 2019an 346,71 milioi izan ziren, gastu osoaren % 58,1. Proporziorik txikiena zen 2012tik, eta nabarmena zen beheranzko joera, 2017ko % 60,2ko balioarekin erkatuta. Bestalde, EPO gastua % 12,7 izan zen 2019an, eta 75,78 milioi euroko gastua egin zen. Arlo honetan ere behera egiten ari zen 2016ko % 13,5 erreferentziazat hartuta. Soilik gainditu zuen 2012ko % 12,3. GLLei zegokien pisuak, ordea, gora jarraitu zuen, eta 2019an % 5,5era iritsi zen, 2014-2016 aldiko % 4,3-4,4 argi gaindituta. Kasu horretan, gastu osoa 33,12 milioi eurokoa izan zen 2019an.

Prestazio horietan eginiko gastuak gora jarraitu zuen 2015-2016 aldian termino nominaletan; zehazki, % 1,20 egin zuen gora, baina prezio konstanteetan jada ikusi zen –% 0,31ko beherakada. Dinamika hori areagotu egin zen 2016tik 2017ra, aldi horretan lehenengo aldiz beherakada bat izan baitzen termino nominaletan. Horiek horrela, DSBE/EPO/GLL sistemako gastu nominalak –% 1,16 egin zuen behera aldi horretan; eta –% 2,22, prezio konstanteetan. 2017tik 2018ra, gastuaren beheranzko joera sendotu egin zen: termino nominaletan –% 5,71ra iritsi zen, eta prezio konstanteetan –% 6,62ra. Joera areagotu egin zen 2018an eta 2019an, –% 6,36ko murrizketa nominalarekin (–% 7,43, prezio konstanteetan).

Beherakada horrek, besteak beste, ekonomiaren eta enpleguaren hobekuntza islatzen zuen; hortaz, pertsona gutxiagok behar izan zituen prestazioek. Neurri handi batean DSBEren bilakaerari lotu zitzaion beherakada. Kasu horretan, % 0,75eko gehikuntza nominalaz gainera, 2015-2016 aldian –% 0,76ko beherakada izan zen prezio konstanteetan. Beherakada hori, 2016-2017 aldian, –% 2,54ra iritsi zen termino konstanteetan, eta 2017-2018 aldian, –% 6,99ra (–% 6,09 termino nominaletan). 2018-2019 aldian, beheranzko joerak apur bat gora egin zuen, eta –% 7,70 egin zuen behera gastuak prezio konstanteetan (–% 6,63, termino nominaletan).

2015-2016 aldian oraindik ere gora (% 1,23) jarraitzen zuen arren, 2016-2017 aldian beheranzko joera EPOra zabaldu zen, eta DSBEen are gehiago murriztu zen gastua: –% 2,99, prezio nominaletan, eta –% 4,03, termino konstanteetan. 2017-2019 aldian, sendotu egin zen joera hori: 2017-2018 aldian beherakada nominala –% 6,81ekoa izan zen (–% 7,71koa, prezio konstanteetan), eta 2018-2019 aldian –% 7,85era iritsi zen (–% 8,91, termino konstanteetan)<sup>6</sup>.

<sup>6</sup> Etxebizitzarako eskubide subjektiboaren gaineko arautegia garatu izana, tartean dela etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren aplikazioan egindako aurrerapena, aipagarria da, horrek azaltzen duelako gehiago murriztu izana EPO gastua DSBE gastua baino.

11. taula.

Gizarte-prestazioak (familiantzako transferentziak) 2015-2018 (Gastu nominala eurotan, % bertikalak eta bariazioa 2016-2019, nominala eta 2019ko prezioetan)

Prestazio-mota	Gastua				% bertikalak				Bariazioa 2018-2019 aldian	
	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	Nominala	2019ko prezioak
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%	%	%	%	%-tan	%-tan
<b>GIZARTE-PRESTAZIOAK GUZTIRA</b>	<b>672.142.270</b>	<b>656.543.647</b>	<b>619.594.114</b>	<b>597.193.289</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-3,62</b>	<b>-4,72</b>
LISMI	571.052	462.833	430.242	414.018	0,1	0,1	0,1	0,1	-3,77	-4,87
KGP/GOF	61.327.170	62.667.680	65.626.973	68.846.340	9,1	9,5	10,6	11,5	4,91	3,71
<b>LISMI/KGP/GOF GUZTIRA</b>	<b>61.898.222</b>	<b>63.130.513</b>	<b>66.057.215</b>	<b>69.260.358</b>	<b>9,2</b>	<b>9,6</b>	<b>10,7</b>	<b>11,6</b>	<b>4,85</b>	<b>3,65</b>
DBE	401.369.381	395.414.968	371.326.395	346.709.547	59,7	60,2	59,9	58,1	-6,63	-7,70
EPO	90.964.126	88.247.164	82.236.397	75.777.106	13,5	13,4	13,3	12,7	-7,85	-8,91
GLL	29.759.950	32.382.214	32.995.578	33.117.161	4,4	4,9	5,3	5,5	0,37	-0,78
<b>DBE/EPO/GLL GUZTIRA</b>	<b>522.093.457</b>	<b>516.044.346</b>	<b>486.558.370</b>	<b>455.603.814</b>	<b>77,7</b>	<b>78,6</b>	<b>78,5</b>	<b>76,3</b>	<b>-6,36</b>	<b>-7,43</b>
Familia eta seme-alabentzako prestazio ekonomikoak	26.502.437	25.835.404	24.308.001	26.668.458	3,9	3,9	3,9	4,5	9,71	8,46
Familia eta lana kontziliatzea	29.316.925	23.911.838	23.088.957	21.013.886	4,4	3,6	3,7	3,5	-8,99	-10,03
<b>FAMILIA ARLOKO PRESTAZIOAK GUZTIRA</b>	<b>55.819.362</b>	<b>49.747.242</b>	<b>47.396.958</b>	<b>47.682.344</b>	<b>8,3</b>	<b>7,6</b>	<b>7,6</b>	<b>8,0</b>	<b>0,60</b>	<b>-0,55</b>
Gizarte-larrialdiko laguntzak	2.063.577	8.938.408	8.640.655	8.798.048	0,3	1,4	1,4	1,5	1,82	0,66
Beste prestazio ekonomiko batzuk	27.983.628	13.847.982	5.716.076	9.962.777	4,2	2,1	0,9	1,7	74,29	72,30
<b>BESTE PRESTAZIO BATZUK GUZTIRA</b>	<b>30.047.205</b>	<b>22.786.390</b>	<b>14.356.731</b>	<b>18.760.825</b>	<b>4,5</b>	<b>3,5</b>	<b>2,3</b>	<b>3,1</b>	<b>30,68</b>	<b>29,18</b>
<b>PRESTAZIO PUBLIKOEN GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>669.858.246</b>	<b>651.708.491</b>	<b>614.369.274</b>	<b>591.307.341</b>	<b>99,7</b>	<b>99,3</b>	<b>99,2</b>	<b>99,0</b>	<b>-3,75</b>	<b>-4,85</b>
Familiantzako transferentzia pribatuak	2.284.024	4.835.156	5.224.840	5.885.948	0,3	0,7	0,8	1,0	12,65	11,36
<b>FAMILIANTZAKO TRANSFERENTZIA PRIBATUETAKO GASTUA GUZTIRA</b>	<b>2.284.024</b>	<b>4.835.156</b>	<b>5.224.840</b>	<b>5.885.948</b>	<b>0,3</b>	<b>0,7</b>	<b>0,8</b>	<b>1,0</b>	<b>12,65</b>	<b>11,36</b>

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



GLL gastuak baino ez zuen mantendu goranzko joera 2016. eta 2018. urteen artean, bai termino nominaletan, bai prezio konstanteetan. Prestazio horietan egindako gastuaren igoera 2016. eta 2017. urteen artean areagotu zen lehen aldiz (% 8,81, termino nominaletan eta % 7,64, prezio konstanteetan), eta, aldi horretan, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko gastuaren igoeraren gainera kokatu zen eta 2015-2016 aldiko igoerak (aldi horretan % 1,04ko igoera eskasa izan zuten prezio konstanteetan) baino askoz ere handiagoa izan zen. 2017tik 2018ra, GLLen gorakada nabarmen baretu zen, baina oraindik positiboa zen, bai prezio nominaletan, baita prezio konstanteetan ere (% 1,82 eta % 0,92, hurrenez hurren). 2018-2019 aldian, igoera positiboa izan zen oraindik termino korranteetan (% 0,37), baina 2016az geroztik, lehen beherakada izan zuen prezio konstanteetan (-% 0,78).

EAEko DSBE/EPO/GLL prestazio-sistemaren gastuaren joerak aldaketa ageri zuen barnebanaketan. Alde batetik, eta partida horietako gastua soilik kontuan hartzen badugu, DSBEren gastuaren pisu erlatiboa era jarraituan murriztu zen: 2012ko % 79,3tik 2019ko % 76,1era. EPOri dagokionez, 2012ko % 16,5etik 2016ko % 17,4ra iritsi ondoren, partaidetza hori murriztu egin zen urte horretatik aurrera, eta 2019an % 16,6 izan zen, hau da 2012ko eta 2013ko % 16,5etik hurbil kokatu zen. GLLen pisuak, ordea, gora egin zuen: prestazio horiek 2012an % 4,2 baino ez ziren izan, baina 2013tik 2016ra bitartean % 5,3 eta % 5,7 arteko mailalara iritsi zen. GLLek prestazio-sistemako gastu osoan zuten pisuaren goranzko joera areagotu egin zen orduetik aurrera: % 6,3, 2017an; % 6,8, 2018an, eta % 7,3ko maximoa, 2019an.

LISMI, GOF eta, funtsean, kotizatu gabeko pentsioen (KGP) gastua bigarren tokian agertzen da, DSBE/EPO/GLL sisteman egindako gastutik urrun bazegoen ere. 2019an transferentzia pertsonaletara eta familiakoetara bideratutako gastu osoaren % 11,6 zen (69,26 milioi), 2015eko % 9tik izandako goranzko joerari eutsita. Halaber, proportzio horrek 2018ko % 10,7 gaintu zuen, zeina 2013an lortutako % 9,7ko maximoaren gainera kokatu baitzen. Prestazio horietan egindako gastuak % 4,85eko igoera izan zuen 2018. eta 2019. urteen artean, termino nominaletan, eta % 3,65ekoa, prezio konstanteetan, hau da, 2017. eta 2018. urteen artean izandakotik hurbil (% 4,64 eta % 3,63). Prezio konstanteetan 2017-2019 aldian izandako % 3,65eko igoerak era deigarrian gaintu zuen 2015-2016 aldiko % 1,23, baita 2016-2017 aldiko % 0,90 ere.

Barne-desberdintasun handiak atzematen dira aztertutako prestazioen dinamikei dagokienez. Batetik, LISMI prestazioetako gastua nabarmen jaitsi zen 2018-2019 aldian, eta beherakada -% 4,87koa izan zen prezio konstanteetan. Horrek sendotu egin zuen gastu horrek prestazio horietan izandako pisu galera (2015etik 2016ra, beherakada -% 12,30ekoa izan zen prezio konstanteetan; 2016tik 2017ra, -% 19,82koa, eta 2017tik 2018ra, -% 7,93koa). KGP/GOF partidako gastuak, ordea, goranzko joera argia izan zuen: 2015-2016 aldian % 1,38ko igoera izan zuen prezio konstanteetan; 2016-2017 aldian, % 1,09koa; 2017-2018 aldian, % 3,72ra iritsi zen, eta 2018-2019 aldian, % 3,71an mantendu zen.

Hirugarren gastu-arlo garrantzitsua familientzako prestazioena da. 2019an, gastu hori 47,68 milioi eurora iritsi zen, hau da, transferentzietan izandako gastuaren % 8 izan zen. Bizitza pertsonala eta familiakoa uztartzeko gastua 21,01 milioi eurokoa izan zen (gastu osoaren % 3,5), eta familiei eta seme-alabei zuzendutako prestazio ekonomikoena, 26,67 milioikoa (gastu osoaren % 4,5).

2018-2019 aldian gehiago egonkortu zen familientzako prestazioen bilakaera, eta % 0,60 egin zuen gora termino nominaletan. Baina -% 0,55 behera egin zuen prezio konstanteetan. Hala ere, zifra horiek urrun zeuden 2017. eta 2018. urteen artean izandakotatik (-% 4,72, termino korranteetan; -% 5,64 prezio konstanteetan). DSBE/EPO/GLL sisteman egindako gastuaren beherakadaren testuinguruan, hautemandako egonkortzeak azaltzen zuen zergatik eten zen

prestazioetan guztira egindako gastuan gero eta pisu gutxiago izateko joera. Hala, 2015ean, 2013arekin alderatuta izandako berreskuratzearen ondoren, lortutako % 8,8tik 2016an % 8,3 izatera pasatu zen, eta 2017an eta 2018an, % 7,6 (oraindik ere 2014ko % 7,4 baino apur bat gorago). 2019an, proportzioak gora egin zuen lehen aldiz 2015etik, eta % 8,0ra iritsi zen.

Hala ere, egonkortze horrek 2018. eta 2019. urteen artean izandako gastu moten bilakaera ezberdina ezkutitzen zuen. Familia eta bizitza pertsonala uztartzeko laguntzen kasuan, mantendu egin zen gastuaren beheranzko joera, eta 2017-2018 aldian  $-\% 4,37$  izan zen, prezio konstanteetan, eta 2018-2019 aldian, berriz,  $-\% 10,03$ . Baina seme-alabentzako prestazioen bilakaeran erabat aldatu zen joera. 2015etik 2018ra bitartean etengabe behera egin ondoren, 2018-2019 aldian gastuak modu nabarmenean egin zuen gora: % 9,71, termino korranteetan (% 8,46, prezio konstanteetan).

Gainerako prestazio publikoek, gizarte-larrialdiko laguntzek eta beste prestazio ekonomiko batzuek 18,76 milioi euroko gastua eragin zuten<sup>7</sup>. Kasu horretan, 2016-2017 aldiko dinamikak erabat eten zuen 2012-2016 aldiko ezaugarri nagusia izan zen gastuaren igoera deigarriko joera. Hala, 2016-2017 aldian beherakada nominala  $-\% 24,16$ koa izan zen partida horretan ( $-\% 24,98$  prezio konstanteetan), hau da, 2015-2016 aldiko aurrerapenaren oso bestelakoa ( $+\% 4,26$ , termino konstanteetan) Joera hori oso lotuta zegoen Gipuzkoan diru-sarrerak bermatzeko laguntzetako gastuak izandako bilakaerarekin, eta joera sendotu egin zen 2017. eta 2018. urteen artean, gastua  $-\% 36,99$  murriztuta ( $-\% 37,60$  prezio konstanteetan). 2018. eta 2019. urteen artean, prestazioen arloko gastuak gora egin zuen berriro, % 30,68 (% 29,18, prezio konstanteetan). Hala ere, 2019an izandako 18,76 milioi euroko gastua oso urrun egon zen prestazio hauetan 2016an izandako 30,05 milioi euroko gastutik.

Prestazio hauen kasuan, prestazioetan guztira egindako gastuan izandako partaidetzak 2012ko % 2,6tik 2016ko % 4,5era egin zuen gora. Baina, gero, 2017an behera egin zuen, bat-batean, % 3,5era, eta 2018an % 2,3 baino ez zen izan. 2019an % 3,1era iritsi arren, prestazioetan orotara egindako gastuan zuten partaidetza-ehunekoa 2016ko mailetatik behera egon zen oraindik, baita 2017koetatik behera ere.

Gobernuz kanpoko erakundeek pertsonen eta familiei egindako transferentzien zenbatekoa 5,89 milioi euro izan zen, guztira. Prestazio hauetan egindako gastuak gorantz jarraitzen zuen 2016ko emaitzekin alderatuta, eta maila gorena lortu zuen 2019an, termino nominaletan. Prestazioetan egindako gastu osoan zuten ekarpenak lehen aldiz gainditu arren 2012ko % 0,9, ekarpen hori oraindik ere txikia izan zen 2019an (% 1 baino ez).

### **3.3.2 Gastuaren aldeak lurralde historikoen arabera**

Prestazioetan izandako gastuaren datuak lurralde historikoen arabera aztertuz gero —12. taulan jaso dira—, oraindik ere agerikoak dira interes nabarmeneko aldeak. Araudi komunari lotuta egon arren, eta pobrezia-errealitate desberdinek baldintzatu arren, 2019an deigarria izaten jarraitu zuen DSBE eta EPO gastuak lurraldeen arabera zuen eragin desberdinak.

---

<sup>7</sup> Diru-partiden definizioan izaten diren ausazko aldaketak direla medio, gizarte-larrialdiko laguntzen eta prestazioen atal honetan sartzen diren gainerako gizarte-prestazioen bilakaera tentu handiz aztertu behar da. Hori dela eta, txostenean aplikatu dugun trataera oinarritzen da beste prestazio batzuetan (gehienak gizarte-urgentzia edo -larrialdiari lotutakoak) egin den gastuaren hurbilketa bateratuan.





12. taula.

**Gizarte-prestazioetako gastua (familiantzako transferentziak) lurralde historikoen arabera. 2019  
(Gastu nominala eurotan, BPGd-aren %-a eta urte arteko bariazioa 2018-2019 gastuaren %-tan)**

	BPGd % 2019				Bariazioa 2018/2019 aldian %-tan			
	Araba.	Gipuzkoa	Bizkaia	Euskal Autonomia Erkidegoa	Araba.	Gipuzkoa	Bizkaia	Euskal Autonomia Erkidegoa
<b>GIZARTE-PRESTAZIOAK GUZTIRA</b>	<b>0,79</b>	<b>0,56</b>	<b>0,86</b>	<b>0,75</b>	<b>-4,83</b>	<b>-0,58</b>	<b>-4,53</b>	<b>-3,62</b>
LISMI	0,00	0,00	0,00	0,00	-5,12	22,32	-15,06	-3,77
KGP/GOF	0,07	0,08	0,10	0,09	7,18	3,30	5,22	4,91
<b>LISMI/KGP/GOF GUZTIRA</b>	<b>0,07</b>	<b>0,08</b>	<b>0,10</b>	<b>0,09</b>	<b>7,08</b>	<b>3,41</b>	<b>5,09</b>	<b>4,85</b>
DBE	0,45	0,29	0,53	0,44	-5,97	-6,54	-6,84	-6,63
EPO	0,10	0,07	0,11	0,10	-5,30	-7,79	-8,56	-7,85
GLL	0,04	0,04	0,05	0,04	-6,17	2,67	1,25	0,37
<b>DBE/EPO/GLL GUZTIRA</b>	<b>0,59</b>	<b>0,39</b>	<b>0,69</b>	<b>0,57</b>	<b>-5,87</b>	<b>-6,00</b>	<b>-6,63</b>	<b>-6,36</b>
Familia eta seme-alabentzako prestazio ekonomikoak	0,04	0,04	0,03	0,03	-11,27	24,28	9,61	9,71
Familia eta lana kontziliatzea	0,03	0,02	0,03	0,03	-14,66	-13,03	-3,67	-8,99
<b>FAMILIA ARLOKO PRESTAZIOAK GUZTIRA</b>	<b>0,07</b>	<b>0,06</b>	<b>0,06</b>	<b>0,06</b>	<b>-12,91</b>	<b>5,81</b>	<b>3,19</b>	<b>0,60</b>
Gizarte-larrialdiko laguntzak	0,04	0,01	0,00	0,01	18,70	-31,97	5,34	1,82
Beste prestazio ekonomiko batzuk	0,01	0,02	0,01	0,01	-20,01	169,35	12,67	74,29
<b>BESTE PRESTAZIO BATZUK GUZTIRA</b>	<b>0,05</b>	<b>0,03</b>	<b>0,01</b>	<b>0,02</b>	<b>11,96</b>	<b>67,90</b>	<b>9,80</b>	<b>30,68</b>
<b>PRESTAZIO PUBLIKOEN GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>0,78</b>	<b>0,56</b>	<b>0,85</b>	<b>0,74</b>	<b>-4,48</b>	<b>-1,19</b>	<b>-4,63</b>	<b>-3,75</b>
Familiantzako transferentzia pribatuak	0,00	0,00	0,01	0,01	-43,53	725,42	3,66	12,65
<b>FAMILIENTZAKO TRANSFERENTZIA PRIBATUEN GASTUA GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,01</b>	<b>0,01</b>	<b>-43,53</b>	<b>725,42</b>	<b>3,66</b>	<b>12,65</b>

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika 2019an, berriro ere Bizkaiak egin zuen gasturik handiena bi partida horietan, lurraldeko barne-produktu gordinaren % 0,64; ondoren, Araba zettorren, % 0,55eko gastuarekin. Gipuzkoa oso urrun geratu zen, barne-produktu gordinaren gaineko % 0,36ko gastua baino ez baitzuen egin. Hiru lurraldeetan nabarmen jaitsi zen prestazio hauen arloko gastua 2018. eta 2019. urteen artean. DSBERi dagokionez, Bizkaian izan zen beherakada nominalik handiena (-% 6,84), gero Gipuzkoan (-% 6,54) eta, azkenik, Araban (-% 5,97). EPOri dagokionez, beherakadarik handiena Bizkaikoa izan zen ere: -% 8,56 (Arabak, -% 7,79, eta Gipuzkoan, -% 5,30).

2015. eta 2019. urteen artean, joera horiek direla eta, Bizkaian, DSBE/EPOren barne-produktu gordinaren gaineko ekarpenak gehiago egin zuen behera (ehuneko -0,180 puntu, 2016ko % 0,82tik 2019ko % 0,64ra). Araban, barne-produktu gordinaren gaineko beherakada -0,175 puntukoa izan zen (% 0,72tik % 0,55era), eta Gipuzkoan, -0,127 puntukoa (% 0,49tik % 0,36ra). 2012arekin alderatuta, Gipuzkoa izan zen 2019an gastu-maila BPGdaren gaintik mantendu zuen lurralde bakarra (ehuneko +0,014 puntu, 2012ko % 0,34 eta 2019ko % 0,36 arteko mailen artean). 2012tik 2019ra bitartean, murrizketarik handiena Bizkaian izan zen (ehuneko -0,164 puntu, % 0,81etik % 0,64ra), Araban izandakotik nabarmen gorago (ehuneko -0,051, 2012ko % 0,60tik 2019ko % 0,55era egin zuen Araban).

Aurreko ekitaldi ekonomikoetan, Gipuzkoan DSBE/EPO laguntzetan egindako gastu txikiagoa lotuta zegoen lurralde horretan beste prestazio batzuetan egiten zen esfortzu diferentzialarekin: esaterako, beste prestazio horietan egindako gastuak barne-produktu gordinaren % 0,06 hartzen zuen 2017an; Araban % 0,04 hartzen zuen, eta Bizkaian, % 0,01 baino ez.

2012tik 2015era izandako igoera handiaren ostean, 2016koa lausoagoa izan zen, eta, neurri handi batean, lotuta egon zen diru-sarrerak bermatzeko laguntzarekin(DSBL). 2016an eta 2017an, ordea, gastu nominalak beherakada handia izan zuen Gipuzkoako beste prestazio ekonomiko batzuetan (-% 30,61), eta 2017an eta 2018an areagotu egin zen (-% 65,48). Hori dela eta, Gipuzkoako BPGdaren gaineko gastua % 0,02 eskasa izan zen 2018an, eta Arabako urte bereko % 0,05 baino nabarmen txikiagoa izan zen. Arabako gastuak 2016tik 2017ra prestazio horietan izan zuen beherakada handia (-% 19,18) eta gero, gastu mota hori berreskuratu egin zen 2017tik 2018ra (+% 19,86).

Bizkaian, ekarpenak % 5,24 egin zuen gora 2016tik 2017ra, baina egonkortu egin zen 2017-2018 aldian, eta prestazio osagarri horietan egindako gastua % 0,39 baino ez zen handitu. Barne-produktu gordinaren gaineko gastua gehienez ere % 0,01 izan zen 2018an lurralde horretan.

2018. eta 2019. urteen artean, hiru lurraldeek gora egiteko joera bateratua izan zuten, eta gastuak % 67,90 egin zuen gora Gipuzkoan; % 11,96, Araban, eta % 9,80, Bizkaian. Horren ondorioz, Gipuzkoak handitu egin zuen gastua/BPGd erlazioa 2019an: % 0,03, Bizkaiko % 0,01eko balioaren gainetik. Hala ere, prestazio hauetan gastu handiena egin zuen lurraldea Araba izan zen oraindik ere (% 0,05).

Edonola ere, aurkeztutako datuek erakusten dute aldaketa garrantzitsuak izan zirela gastua/BPGd erlazioan, lurraldeen arabera, prestazio horiei dagokienez. Gipuzkoak gastura egin zuen ekarpenak bilakaera hau izan zuen: % 0,09, 2016an; % 0,02 baino ez 2018an, eta apur bat gorago, % 0,03, 2019an, baina oraindik 2016ko mailatik urrun. Urtetik urterako bariazio handiak izan arren, Araban maila egonkorak izan ziren 2016-2019 aldian, % 0,03 eta % 0,05 artean. Barne-produktu gordinarekiko erlazioan, Bizkaiko gastua egonkor mantendu zen, baina maila baxuetan: % 0,01 baino ez aldi osoan zehar.

2016ko gertaera nabarmena da berdindu egin zela lurraldeetan GLL laguntzetan egindako gastua: barne-produktu gordinaren % 0,04 lurralde guztietan. Berdinketa horrek lotuta zegoen Bizkaian eta Gipuzkoan gastuak % 4 eta % 5,7 gora egitearekin eta 2015etik 2016ra Araban GLL gastua nabarmen murriztu izanarekin (-% 6). Aldaketa deigarri horrek Araban 2012tik 2015era partida horri dagokion gastuan izandako goranzko joera diferentziala hautsi zuen (urte horietan % 109,8 egin zuen gora lurralde horretan; Gipuzkoan, % 70,9, eta Bizkaian, % 43,6 baino ez).

2016. eta 2017. urteen artean, Arabak goranzko joera berreskuratu zuen, eta gastuak % 6,14 egin zuen gora, eta Bizkaiko % 8,52ra hurbildu zen. Lurralde bietan, GLL laguntzetan egindako BPGdaren gaineko gastuak % 0,05 egin zuen gora. Bestalde, Gipuzkoan % 0,04 izan zen berriro, nahiz eta partida horrek 2016-2017 aldian lurralde horretan izan hazkunderik handiena (% 10,96).

2017-2018 aldian, Araban eta Bizkaian sendotu egin zen gastuaren goranzko joera, baina erritmo motelagoan, eta gorakada nominalak % 3,59 eta % 3,95 izan ziren, hurrenez hurren. BPGdaren gaineko gastua ere mantendu egin zen kasu bietan: % 0,05. Gipuzkoan, aldiz, GLLn egindako gastuak behera egin zuen aldi horretan (-% 2,82), eta BPGdari egindako ekarpena % 0,04 inguru izan zen.

2018. eta 2019. urteen artean, GLLn egindako gastuak apur bat gora egin zuen Gipuzkoan eta Bizkaian (% 2,67 eta % 1,25, hurrenez hurren), baina nabarmen behera egin zuen Araban (-% 6,17). Gastua/BPGd erlazioari dagokienez, Bizkaian eta Gipuzkoan 2018ko mailak mantendu ziren 2019an: % 0,05 eta % 0,04, hurrenez hurren. Araban, berriz, behera egin zuen, % 0,05etik % 0,04ra.





Aldeak txikiak izaten jarraitu zuten, bestalde, KGP eta GOF prestazioetan izandako gastuan, baina 2019an gastua handixeagoa izan zen Bizkaian: % 0,10; Gipuzkoan, berriz, % 0,08, eta Araban, % 0,07. Zenbateko horiek egonkor jarraitu zuten 2016ko kopuruekin erkatuta, nahiz eta prestazio horiek nabarmen igo 2017. eta 2018. urteen artean (Bizkaian, % 3,58; Gipuzkoan, % 5,84; Araban, % 7,19) eta 2018. eta 2019. urteen artean (% 3,30, Gipuzkoan; % 5,22, Bizkaian, eta % 7,18, Araban).

Familientzako prestazioen arloan ere antzeko balioak osatu ziren gastua/BPGd erlazioan, baina prestazio horietako gastuaren inpaktua handiagoa izan zen Araban (barne-produktu gordinaren % 0,07; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, % 0,06). Gipuzkoan eta Bizkaian familientzako prestazioetan egindako gastuak gora egin zuen 2018. eta 2019. urteen artean (% 5,81 eta % 3,19, hurrenez hurren), baina ez zuen eragin gastua/BPGd adierazlean gora egitea, eta, Bizkaian, 2017ko % 0,07tik % 0,06ra pasatu zen 2018tik aurrera. Araban, ordea, gastu hori nabarmen murriztu zen 2018-2019 aldian (-% 12,91), eta antzeko beherakada izan zuen familia eta bizitza pertsonala uztartzeko laguntzetan zein seme-alabentzako prestazioetan. Araban, gastua/BPGd erlazioak, beraz, behera egin zuen, 2018ko % 0,08tik 2019ko % 0,07ra.

Hurbilketa bateratu batean, prestazio-sisteman nagusi diren DSBE eta EPO prestazioetan Bizkaiak egindako ekarpen diferentzialak eragin zuen prestazioetan egindako BPGdaren gaineko gastua handiagoa izatea: BPGdaren % 0,86, guztira; Araban, % 0,79, eta Gipuzkoan, % 0,56.

2018ari dagokionez, gastua/BPGd erlazioak izan zuen beherakadarik handiena Bizkaian izan zen (ehuneko -0,069 puntu), 0,93tik 0,86ra. Ehuneko -0,056 puntutan egon zen Araban, eta % 0,84tik % 0,79ra egin zuen behera. Murrizketarik txikiena Gipuzkoan izan zen, % 0,59tik % 0,56ra (ehuneko -0,030 puntu). Gipuzkoan txikiagoa izan zen murrizketa gora egin zuelako lurralde horretan gizarte-larrialdietarako laguntzetan egindako gastuak.





## 4. Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastuaren finantzaketa

Txostenaren atal honetan, gizarte-zerbitzuetako eta haiekin lotutako gizarte-prestazioetako gastu arrunt osoaren finantzaketa-egitura aztertzen da. Azterketaren ardatza zentro/zerbitzu motak eta prestazio motak dira berriro ere, bai eta lurraldearen arabera alderdi osagarriak ere. Hurbilketak berariaz jasotzen du, gainera, erabiltzaileen partaidetza eta foru-aldundiek eta udalek finantzaketan duten eginkizuna.

### 4.1. Finantzaketaren alderdi orokorrak

Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusia eta eduki ekonomikoa duten gizarte-prestazioak multzo bakarrean aztertuta, 13. taulan egiazta daiteke foru-aldundiek jarraitzen dutela izaten sistemaren finantzatzaile nagusiak. 2019an, gastuaren finantzaketaren % 44,6 euren gain hartu zuten, eta proportzio horrek argi eta garbi gainditu zuen 2018an finantzaketa horrek lortutako gehienekoa, % 42,7.

Gainera, foru-aldundien finantza-ekarpenaren hazkunde-erritmoa suspertu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean, % 5,70eko balioarekin, hau da, 2015-2016 aldiko % 5,29ren ginetik, baita apur bat txikiagoak baina garrantzitsuak izan ziren 2016-2017 aldiko (% 3,69) eta 2017-2018 (% 3,76) aldiko mailen ginetik ere. Aldundien ekarpenaren hazkundera askoz handiagoa izan zen gizarte-zerbitzuen eta -prestazioen arloko gastu orokorrean izandako % 1,20ko batez besteko hazkundera baino.

13. taula.

Gizarte-zerbitzuetako eta -prestazioetako (publikoak eta pribatuak) gastu arrunta finantzabidearen arabera. 2016-2019

(Datu absolutuak -euroak milioitan-, % bertikalak eta bariazioa 2018-2019 aldian gastuaren %-tan)

	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	Bariazioa 2018-2019 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	
<b>Finantzabidea</b>									<b>%-tan</b>
<b>Gastu arrunta guztira</b>	<b>2.073,39</b>	<b>2.135,03</b>	<b>2.150,48</b>	<b>2.176,29</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>1,20</b>
Erkidegoz gaidiko finantzaketa	72,46	102,00	83,13	84,38	3,5	4,8	3,9	3,9	1,50
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	640,29	636,08	602,15	570,48	30,9	29,8	28,0	26,2	-5,26
Foru-finantzaketa	852,71	884,78	917,43	969,71	41,1	41,4	42,7	44,6	5,70
Udal-finantzaketa	178,07	171,09	190,88	202,13	8,6	8,0	8,9	9,3	5,89
Finantzaketa pribatua	329,87	341,07	356,90	349,59	15,9	16,0	16,6	16,1	-2,05
<b>Gizarte-zerbitzuak: erdigunea</b>	<b>1.401,25</b>	<b>1.478,49</b>	<b>1.530,89</b>	<b>1.579,10</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>3,15</b>
Erkidegoz gaidiko finantzaketa	72,46	102,00	83,13	84,38	5,2	6,9	5,4	5,3	1,50
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	68,77	77,22	74,27	73,55	4,9	5,2	4,9	4,7	-0,96
Foru-finantzaketa	774,01	810,96	847,67	893,24	55,2	54,9	55,4	56,6	5,38
Udal-finantzaketa	158,43	152,07	174,14	184,22	11,3	10,3	11,4	11,7	5,79
Finantzaketa pribatua	327,58	336,24	351,67	343,70	23,4	22,7	23,0	21,8	-2,27
<b>Gizarte-prestazioak</b>	<b>672,14</b>	<b>656,54</b>	<b>619,59</b>	<b>597,19</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-3,62</b>
Erkidegoz gaidiko finantzaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	0,00
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	571,52	558,86	527,88	496,93	85,0	85,1	85,2	83,2	-5,86
Foru-finantzaketa	78,70	73,82	69,76	76,47	11,7	11,2	11,3	12,8	9,62
Udal-finantzaketa	19,64	19,02	16,74	17,91	2,9	2,9	2,7	3,0	7,01
Finantzaketa pribatua	2,28	4,84	5,22	5,89	0,3	0,7	0,8	1,0	12,65

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Eusko Jaurlaritza izan zen bigarren finantzaketa-iturria, baina haren ekarpena beherantz egiten ari zen. Hala, 2016-2017 aldiaren erregistratutako  $-0,66\%$ ko beherakadaren ondoren, 2017-2018 aldiaren nabarmen murriztu zen ( $-5,33\%$ ) eta egonkor mantendu zen, nolabait, 2018-2019 aldiaren ( $-5,26\%$ ). Horren ondorioz, murriztu egin zen erakunde autonomikoen finantza-ekarpen erlatiboa, proportzio hauetan: 2014-2016 aldiaren  $30,8\%$  eta  $31,0\%$  artean kokatu zen; 2017an,  $29,8\%$  egin zuen behera; 2018an,  $28,0\%$ , eta 2019an,  $26,2\%$ .

Arlo publikoan, udalen ekarpena agertzen zen hirugarren postuan,  $9,3\%$ ko ekarpenarekin gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian eta gizarte-prestazioen sisteman izandako gastua finantzatzeko. 2012ko  $8,7\%$ tik 2015eko  $9,3\%$ ra igo ondoren, 2016ko datua aldaketa nabarmena da, udalen ekarpen erlatiboa bere mailarik baxuenera eraman baitzuen 2012az geroztik ( $8,6\%$ ). Joera hori ez zen batere aldatu, eta udalen arloan 2016-2017 aldiaren izandako gastuaren beherakada nominala ( $-3,92\%$ ) dela eta, 2017an udalen eta mankomunitateen ekarpen finantzarioa  $8\%$  baino ez zen izan.

Hala ere, 2017-2018 aldiaren dinamika hori nabarmen aldatu zen, eta udalen finantzaketak  $11,56\%$  egin zuen gora aldi horretan. Gehikuntzarik handiena izan zen halako erakundeetara dagokienez. Udalek pisua berreskuratu zuten finantzaketan 2018an, eta  $8,9\%$ ko ekarpena egin zuten; beraz, 2013ko edo 2014ko  $9\%$  oso hurbil geratu zen.

2018. eta 2019. urteen artean, hazkunde-erritmoa  $5,89\%$ ra murriztu bazen ere, aldi horretan EAEko udalek finantza-ekarpen erlatiboaren hazkunde konparatu handiena izan zuten erakundeak izaten jarraitu zuten, foru-aldundien  $5,70\%$ eko ekarpena aise gaindituta. Eraitza izan zen berriro gora egin zuela sistemari egindako ekarpen orokorrak,  $9,3\%$ ko ekarpenarekin, eta 2012tik aurrera izandako maila maximoetan kokatu zen, 2015ean erregistratutako proportzio berean.

2015-2017 aldiaren gorakada handiak izan eta 2017-2018 aldiaren behera egin ondoren, autonomia-erkidegoz gaindiko finantzaketak goranzko joera txiki bat izan zuen 2018. eta 2019. urteen artean:  $1,50\%$  egin zuen gora haren ekarpenak. Terminonomenetan, guztizko gastuaren finantzaketak izandako autonomia-erkidegoz gaindiko ekarpena (mendekotasunaren arloko sistemari dagokiona, batik batik) nabarmen areagotu zen 2015etik 2016ra ( $12,91\%$ ), eta bereziki 2016tik 2017ra ( $40,77\%$ ). Hala ere, ekarpen horrek  $-18,50\%$  egin zuen behera 2017. eta 2018. urteen artean, eta ez zen ia konpentsatu 2018-2019 aldiaren izandako  $1,50\%$ ko gorakadarekin<sup>8</sup>. Horren ondorioz, 2019ko 84,38 milioi euroko ekarpen finantzarioak ez zuen ia gainditu, terminonomenetan, 2013ko 81,12 milioi euroko kopurua.

Finantzaketan izandako partaidetza erlatiboak behera egin ondoren, 2013ko  $4,4\%$ tik 2014ko  $2,7\%$ ra, 2014az geroztik izandako goranzko joeraren ondorioz, autonomia-erkidegoz gaindiko erakundeek gizarte-zerbitzuen eta -prestazioen sistemari egindako ekarpen erlatiboa  $4,8\%$  iritsi zen 2017an. Proportzioa, ordea,  $3,9\%$ ra jaitsi zen 2018. eta 2019. urteen artean.

Sektore pribatuak egin zuen gastuaren gainerako  $16,1\%$  2019an, 2018ko  $16,6\%$  baino bost hamarren txikiagoa. 2018. eta 2019. urteen artean, erakunde publiko gehienei zegokien bilakaeratik oso urrun geratu zen eraitza hori, finantzaketak  $-2,05\%$  egin baitzuen behera.

2018-2019 aldiaren finantzaketa pribatuak behera egitea oso garrantzitsua izan zen, aurreko urteetan izandako goranzko prozesua nabarmen etetea ekarri baitzuen. Hala, 2015-2016 aldiaren gastuaren finantzaketa pribatuak  $2,59\%$  egin zuen gora terminonomenetan, eta 2016-2017

---

<sup>8</sup> 2015-2017 aldiaren, gastua handitzeko joera lotua zegoen, neurri batean, 2017an zenbait partida handiren atzerapenak iritsi izanarekin, batez ere AMASek zenbait foru-aldundiri egindako ekarpenetara dagokienez. Horrek eragina izan zuen, halaber, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian egindako gastuaren banaketan.



aldian areagotu egin zen, % 3,40ra iritsita. Finantzaketa pribatuaren hazkunde-erritmoaren goranzko dinamika hori 2017-2018 aldian sendotu zen: gehikuntza % 4,64koa izan zen, eta udal-gastuak baino ez zuen gainditu.

Aipatutako hausturaren ondorioak nabarmenak dira finantzaketa arloko partaidetza erlatiboari dagokionez ere. Sektore pribatuaren (erabiltzaileak barne) ekarpen erlatiboak 2013tik aurrera protagonismoa galdu ondoren (urte hartan proportzioa % 16,8koa izan zen, eta 2016an % 15,9ra iritsi zen, 2012tik ordura arte izandako proportziorik txikiena), 2017an gora egin zuen partaidetza pribatuak, % 16ra. Eta, 2018an, % 16,6ra. 2019ko % 16,1eko proportzioak 2015-2017 aldiko partaidetza-mailetara itzultzea ekarri zuen (% 15,9-16,1).

#### 4.2. Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren finantzaketa

Zerbitzu eta prestazio guztiak batera aztertzean ikusitakoarekin alderatuta, 13. taulak ere erakusten du foru-aldundien finantzaketa pisu handiagoa izan zuela gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian, eta pisu hori gero eta gehiago nagusitzen ari zela. Kasu honetan, foru-aldundiek gastuaren % 56,6 finantzatu zuten 2019an, eta 2012. urtetik izandako proportziorik handiena izan zen. Gainera, nabarmen egin zuen gora 2018ko % 55,4tik. 2018. eta 2019. urteen artean, % 5,38 igo zen foru-erakundeek gizarte-zerbitzuen nukleo nagusia finantzatzeko egindako ekarpen absolutua. Hazkunde-erritmoa oso handia izan zen, eta 2015-2016 aldiko % 5,65etik behera badago ere, hautsi egin zuen 2016-2017 alditik eta 2017-2018 alditik izandako nolabaiteko moteltzeko joera (% 4,77 eta % 4,53 izan zen igoera aldi horietan).

2019an, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren finantzaketa % 11,7 jarri zuten udalek. Gora egin zuen 2017ko % 10,3 balioarekin erkatuta, eta zifra horrek 2016ko eta 2018ko balioak (% 11,3-11,4) gainditu zituen. Hala ere, proportzio hori 2012-2015 aldian erregistratutako balioen azpitik egon zen (% 11,9 eta % 12,5 bitartekoak izan ziren).

Udalek gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiari egindako ekarpen absolutuak % 5,79 egin zuen gora 2018. eta 2019. urteen artean; beraz, gainditu egin zuen foru-erakundearen urtetik urterako hazkunde-tasa (% 5,38). 2017-2018 aldiko erregistroaren (% 14,51) azpitik geratu arren, finantza-ekarpenaren hazkunde handi horrek sendotu egin zuen 2015-2016 aldiko (-% 5,16) eta 2016-2017 aldiko (-% 4,01) beheranzko joerarekiko haustura.

2019an, gizarte-zerbitzuen nukleoan, ekarpen autonomikoa % 4,7 baino ez zen izan, autonomia-erkidegoz gaindiko erakundearen % 5,3ko ekarpenaren azpitik<sup>9</sup>. Kasu bietan proportzio horiek 2015eko zifretatik (% 3,9 eta % 4,8, hurrenez hurren) gorakoak izan ziren, baita 2014ko zifretatik gorakoak ere autonomia-erkidegoz gaindiko ekarpenari dagokionez (% 4 izan zen urte horretan). Hala eta guztiz ere, beherakada handia erakusten zuten 2017ko balioekin erkatuta (finantzaketa autonomikoa % 5,2 izan zen, eta autonomia-erkidegoz gaindiko, % 6,9). 2017-2018 aldian ekarpen absolutuak izandako beherakada handiaren ondorio zen: -% 18,50, autonomia-erkidegoz gaindiko erakundearen kasuan, eta -% 3,82, finantzaketa autonomikoaren kasuan. 2018. eta 2019. urteen artean, autonomia-erkidegoz gaindiko ekarpenak aurretiaz izandako beherakada handia ez zen ia konpentsatu ekarpenaren % 1,50eko igoerarekin. Finantzaketa autonomikoak, ordea, behera egin zuen berriro, -% 0,96.

Finantzaketa pribatuaren pisua % 21,8 izan zen 2019an, hau da, mailarik baxuetan kokatu zen 2012az geroztik. 2018an % 23,0ra iritsi ostean, proportzioa 2017ko % 22,7ko ekarpenaren azpitik

<sup>9</sup> Ikus 8. oharra

kokatu zen berriro. Proportzio horrek jada erakusten zuen beheranzko joera 2013ko % 24,2tik, eta, 2017an, balio hori txikiena izan zen 2012ko % 23,5tik.

2018. eta 2019. urteen artean ekarpen pribatuak gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren finantzaketan izandako pisuak haustura bat erakutsi zuen finantzaketaren bolumenean, 2015-2018 aldian hazkunde positiboak izan ondoren. Ekarpen pribatuaren hazkunde-erritmoa 2015-2016 aldiko % 3,38tik 2016-2017 aldiko % 2,64ra jaitsi ondoren, suspertze bat izan zuen 2017. eta 2018. urteen artean eta % 4,59 egin zuen gora 2017-2018 aldi horretan. Erreferentziako aldi horretan, ekarpen pribatua foru-aldundiei eta udalei zegokiena baino gutxiago hazi zenez 2017tik 2018ra, horrexegatik izan zuen finantzaketa pribatuaren pisuak suspertze mugatua termino erlatiboetan.

2018-2019 aldian, berriz, protagonismo horren galerak lotuta zegoen gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiari egindako finantza-ekarpenaren beherakadarekin (-% 2,27). Foru-erakundeetan eta udalen ekarpenak izandako % 5etik gorako hazkunderekin alderatuta, kontraste handia erakutsi zuen balio horrek.

#### **4.2.1 Arloa eta zentro/zerbitzu mota**

14. taulan ikus daitekeenez, gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean (sektoreko zerbitzu orokorrak eta defizita/superabita), foru-aldundien ekarpenak doikuntza handiko joera izan zuen finantzaketan. 2019an ekarpena negatiboa ere izan zen, eta horrek islatu zuen praktikan finantza-superabita zegoela egitura orokor horri lotutako foru-kontuetan. Ildo horretan, kontzeptu hori dela eta egindako ekarpena 2012. eta 2016. urteen artean 30 milioi eurotik gorakoa izatetik (38,49 milioikoa izan zen 2016an) 2017an 25,72 milioikoa izatera pasatu zen, eta 11,01 milioikoa, 2018an. Azkenik, 2019an zifra negatiboa izan zen, -22,23 milioi (kanpoko ekarpen positiboaren isla). Egitura orokorrari lotutako finantzaketaren beherakada handiak, zeina lotuta baitago ekarpen handien behararekin, datu aipagarria ziren azken urteetan foru-aldundien dinamika ekonomiko-finantzarioari zegokionez, eta 2019an finantza-aurrezki garbia izan zen emaitza.

2018. eta 2019. urteen artean, joera negatiboagoa izan zen udal-erakundeetan kasuan. Izan ere, 2012an 10,52 milioiko ekarpena egin ondoren, zifra hori 5,69 milioira murriztu zen 2013an, eta, gero, gora egin zuen, 9,22 milioira, 2015ean. Hortik aurrera, finantza-doikuntzako epe bat zabaldu zen, eta, 2016ko eta 2017ko 6,61 eta 6,67 milioiko ekarpena egin ondoren, egitura orokorrari egindako ekarpena 3,17 milioira murriztu zen 2018an. Egitura orokorraren finantzaketaren arloan udalek izandako ezegonkortasun handia berriro ikusi zen 2018. eta 2019. urteen artean, eta 2019an berriro egin zuen gora, 8,35 milioira (hala ere, 2012ko eta 2015eko erregistroen azpitik geratu zen).

Foru-erakundeetan dagoen defizitaren gero eta kontrol handiagoaren ondorioz, gizarte-zerbitzu autonomikoen egitura orokorraren finantzaketa izan zen arlo honetako gastuari lotutako erreferentzia nagusia. Hala, foru-aldundien -22,23 milioiko ekarpenarekin alderatuta, erakunde autonomikoek sistemaren egitura orokorrari egindako ekarpenak % 5,76 egin zuen gora 2018. eta 2019. urteen artean, eta azken urte horretan 45,26 milioi eurokoa izan zen. 2012-2019 aldiaren barruan, 2017an izandako 45,29 milioiko maximotik hurbil kokatu zen.

Erakunde autonomikoen ekarpen nagusi horri beste 14,25 milioi gehitu behar zaizkio 2019an, sistemako egitura orokorrari egindako finantza-ekarpen gisa, autonomia-erkidegoz gaindiko erakundeei lotuta, gizarte-zerbitzuetarako izaera orokorreko funtsei dagokienez. 2017ra arte ia maila nuluetan egon ondoren (maximoa 2015ean izan zen, 0,55 milioirekin), ekarpen horrek nabarmen gora egin zuen jada 2018an, 11,25 milioiko ekarpenarekin. Hala ere, 2019ko ekarpenak aurrerapen nabarmena ekarri zuen, % 26,7koa, hain zuzen.



Beste alde batetik, sendotu egin zen ekarpen pribatuak egitura orokorrean egiten zuen ekarpenaren beheranzko joera, eta 2016tik aurrera ekarpen garbi negatiboa izan zuen finantzaketan, zeinak erakunde horien 2016-2019 aldiko superabit-lerroa erakusten baitzuen.

**14. taula.**  
**Gizarte-zerbitzuen egiturako gastu arrunta finantzabidearen arabera. 2016-2019**  
**(Datu absolutuak -euroak milioitan-, % bertikalak eta bariazioa 2018-2019 aldian %-tan)**

	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	Bariazioa 2018- 2019 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	
<b>Gastu-sektorea eta finantzabidea</b>									
<b>EGITURA GUZTIRA</b>	<b>185,84</b>	<b>210,33</b>	<b>210,30</b>	<b>194,90</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-7,32</b>
Erkidegoz gaidiko finantzaketa	0,04	0,18	11,25	14,25	0,0	0,1	5,3	7,3	26,69
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	40,27	47,77	44,89	47,36	21,7	22,7	21,3	24,3	5,50
Foru-finantzaketa	89,86	108,60	99,14	72,16	48,4	51,6	47,1	37,0	-27,22
Udal-finantzaketa	53,43	53,85	54,98	61,75	28,8	25,6	26,1	31,7	12,30
Finantzaketa pribatua	2,24	-0,08	0,03	-0,62	1,2	0,0	0,0	-0,3	-2004,32
<b>Egitura orokorra (defizita/superabita)</b>	<b>81,94</b>	<b>77,54</b>	<b>68,19</b>	<b>45,00</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-34,00</b>
Erkidegoz gaidiko finantzaketa	0,03	0,18	11,25	14,25	0,0	0,2	16,5	31,7	26,69
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	35,44	45,29	42,79	45,26	43,3	58,4	62,8	100,6	5,76
Foru-finantzaketa	38,49	25,72	11,01	-22,23	47,0	33,2	16,1	-49,4	-302,00
Udal-finantzaketa	6,61	6,67	3,17	8,35	8,1	8,6	4,6	18,6	163,90
Finantzaketa pribatua	1,38	-0,31	-0,03	-0,62	1,7	-0,4	0,0	-1,4	2177,05
<b>Oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-larrialdiak eta espezializatuak</b>	<b>103,90</b>	<b>132,79</b>	<b>142,12</b>	<b>149,90</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>5,48</b>
Erkidegoz gaidiko finantzaketa	0,02	0,00	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	0,00
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	4,83	2,49	2,10	2,10	4,6	1,9	1,5	1,4	0,20
Foru-finantzaketa	51,38	82,88	88,14	94,39	49,4	62,4	62,0	63,0	7,10
Udal-finantzaketa	46,82	47,19	51,82	53,40	45,1	35,5	36,5	35,6	3,04
Finantzaketa pribatua	0,86	0,23	0,06	0,00	0,8	0,2	0,0	0,0	-92,38

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Oinarrizko gizarte-zerbitzuei, gizarte-larrialdikoei eta zerbitzu espezializatuak dagokienez, 14. taulak erakusten du foru-aldundien eta udalen finantza-partaidetza oraindik ere nagusia zela 2019an.

Foru-aldundien finantza-ekarpena aztertutako zerbitzuetan egindako gastuaren % 63 izan zen 2019an. 2017ko % 62,4tik eta 2018ko % 62tik hurbil badago ere, proportzio horrek oraindik ere islatzen zuen foru-erakundeek azken urteetan egindako ekarpen erlatiboaren gehikuntza nabaria, bai 2012ko % 56,1eko ekarpenari dagokionez, bai 2013-2016 aldiko % 48,0 eta % 49,9 arteko zifrei dagokienez. Izan ere, nahiz eta 2013tik aurrera gora egin foru-aldundiek oinarrizko gizarte-zerbitzuei eta zerbitzu espezializatuak egindako ekarpen absolutuak (2015-2016 aldiko % 4,46ko igoera erantsia gehituta), 2016-2017 aldiko % 61,32ko balioak aldaketa kualitatiboa erakusten zuen. Gastuaren linea hedakor horrek bere horretan jarraitu zuen 2017. eta 2019. urteen artean, eta 2017-2018 aldian foru-finantzaketak % 6,34 egin zuen gora; 2018-2019 aldian, berriz, % 7,10.

2019an, foru-aldundiek oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eta zerbitzu espezializatuak egiten zuten ekarpen absolutua 94,39 milioi eurokoa izan zen, 2017ko 82,88 milioiko eta 2018ko 88,14 milioi euroko kopuruen gainetik. 2017-2019 aldiko zifrak urrun zeuden 2016ko 51,38 milioietatik. Zifra hori oraindik ere baldintzatuta zegoen 2012. eta 2013. urteen arteko beherakadak eraginda

(2012ko 58,93 milioi eurotik 2013ko 42,49 milioi eurora; 2014an eta 2015ean berreskuratu egin zen, eta 49 milioira iritsi zen).

Udalei eta mankomunitateei dagokienez, udal-partaidetzak gora egin zuen zerbitzu horien finantzaketan: 2012ko % 38tik 2015eko % 47,3ra, hain zuzen ere. Baina 2016an proportzioa % 45,1era murriztu zen, eta 2017an, % 35,5era. 2018an apur bat suspertu zen, baina % 36,5era baino ez zen iritsi. 2019an, proportzioak behera egin zuen berriro, % 35,6ra, hau da, 2017ko erregistrotik hurbil kokatu zen.

Bilakaera hori, neurri handi batean, 2016-2017 aldiko dinamikari lotuta zegoen: aldi horretan foru-finantzaketa biziki handitu zen (+% 61,32) eta, aldi berean, udal-eremuan oinarrizko gizarte-zerbitzuetako, gizarte-larrialdietako eta zerbitzu espezializatuetao gastuari egindako ekarpenaren hazkundera gelditu egin zen. Hala, 2016tik 2017ra % 0,78 baino ez zen igo udalen ekarpen finantzarioa; aurretik, berriz, 2015-2016 aldian, -% 1,08 egin zuen behera. 2017-2018 aldian, ordea, berriro nabarmendu zen udalek halako zerbitzuetan egindako esfortzu finantzarioa eta % 9,82 egin zuen gora; foru-erakundeek ekarpenak izandako igoeraren gaintetik kokatu zen (% 6,34 egin zuen gora). Hori izan zen, hain zuzen ere, 2017. eta 2018. urteen artean oinarrizko gizarte-zerbitzuen, gizarte-larrialdien eta zerbitzu espezializatuen finantzaketa globalean udalen pisu erlatiboa berreskuratzearen oinarria.

2017-2018 aldian udalen ekarpenaren berreskuratze hori oso garrantzitsua izan zen, 2015etik lehenengo aldiz, udalek halako zerbitzuen finantzaketan emandako aurrerapauso handi bat erakusten zuelako, udal-gastua zeharo baldintzatu baitzuen administrazio publikoen aurreko krisialdiak. Izan ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, gizarte-larrialdietakoetan eta zerbitzu espezializatuetao udalek egindako ekarpenaren hazkunde neurritsuko joera mantendu egin zen 2012. eta 2015. urteen artean, 39,90 milioitik 47,33 milioira pasatuta. Gero, 2015. eta 2017. urteen artean, egonkortu egin zen, 2017an 47,19 milioi gastatu baitziren. Nahiz eta zifra hori 2012tik aurrerako ekarpen handienetako bigarrena izan termino nominaletan, oraindik ere erakusten zuen oinarrizko gizarte-zerbitzuen arloko udal-gastua kontrolatu behar zela. 2018an gastua berriro indartu zen, eta udal-ekarpena 51,82 milioikoa izan zen; beraz, lehenengo aldiz izan zen 2015eko 47,33 milioi euroko ekarpenetik gorakoa, eta 50 milioiko atalasea ere gaintu zen.

Gizarte-zerbitzuen oinarrizko egituraren arloko udal-finantzaketaren bilakaera positiboa izan zen oraindik 2018.eta 2019. urteen artean, eta maximo berri bat izan zuen 2019ko 53,40 milioi euroko ekarpenarekin. Hala ere, udal-ekarpenak aldi horretan izandako % 3,04ko igoera foru-erakundeek izandako % 7,10eko igoeraren azpitik geratu zen, eta, ondorioz, behera egin zuen udalek zerbitzuen finantzaketan zuten pisuak.

2016-2018 aldian autonomia-erkidegoaren ekarpenak nabarmen behera egin ondoren, egonkortzeko joera izan zuen 2018. eta 2019. urteen artean, baina, hala ere, administrazio hori bazterreko lekuan geratu zen oinarrizko zerbitzu horien finantzaketari dagokionez. Horiek horrela, 2016an erakunde autonomoek oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta zerbitzu espezializatuen gastuaren % 4,6 finantzatu ondoren, 2019an proportzioa % 1,4 baino ez zen izan. Dena den, joera hori koherentea da Euskadiko gizarte-zerbitzuen sisteman ezarritako eskumenen banaketaren ereduarekin.

Bestalde, finantzaketa pribatuak gizarte-zerbitzuen oinarrizko sektorea mantentzeko egindako ekarpena ia nulua izan zen 2019an.

15. taulak adinekoentzako, desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen finantzaketa-egitura aurkezten du. Taula horren arabera, foru-aldundiek gizarte-zerbitzuen sektore horretako gastuaren





% 56,9 finantzatu zuten. Proporziorik altuena zen 2012tik ordura arte. Hortaz, sendotu egin zen foru-aldundien protagonismoa suspertzeko joera argia, aipatutako proporzioak 2016ko % 54,1etik 2017ko % 52,7ra behera egin ondoren, eta 2018an gorantz egiten hasi ondoren (% 54,0).

2016-2017 aldian foru-ekarpen horren hazkunde-erritmoa murriztu egin zen; izatez, % 1,26 egin zuen gora, hau da, 2015-2016 aldian baino askoz gutxiago (% 5,29 egin zuen gora orduan). 2017-2018 aldian berriro igo zen zentro eta zerbitzu mota horretako gasturako ekarpena eta % 5,85era iritsi zen; hortaz, 2015-2016 aldikoa baino handiagoa izan zen igoera. Aldundien finantzaketaren berrekuratzea areagotu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean, eta % 9,29 egin zuen gora.

## 15. taula.

**Adinekoentzako eta Desgaitasuna/gaixotasunak nahiz mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen gastu arrunta, finantzabidearen arabera. 2016-2019**  
(Datu absolutuak -euroak milioitan-, % bertikalak eta bariazioa 2018-2019 aldian %-tan)

	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	Bariazioa 2018- 2019 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%-tan
<b>Gastu-sektorea eta finantzabidea</b>									
<b>MENDEKOTASUNAREN, ADINEKOEN ETA DESGAITASUNEN ARLOA GUZTIRA</b>	<b>1047,46</b>	<b>1088,97</b>	<b>1125,03</b>	<b>1166,90</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>3,72</b>
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	70,77	97,64	66,19	63,23	6,8	9,0	5,9	5,4	-4,46
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	19,13	19,40	19,66	15,06	1,8	1,8	1,7	1,3	-23,41
Foru-finantzaketa	566,74	573,90	607,47	663,90	54,1	52,7	54,0	56,9	9,29
Udal-finantzaketa	72,23	67,30	86,58	86,29	6,9	6,2	7,7	7,4	-0,34
Finantzaketa pribatua	318,59	330,72	345,14	338,42	30,4	30,4	30,7	29,0	-1,95
<b>Adinekoentzako zentro eta zerbitzuak</b>	<b>630,95</b>	<b>651,61</b>	<b>677,52</b>	<b>702,29</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>3,66</b>
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	38,52	54,70	44,69	37,98	6,1	8,4	6,6	5,4	-15,02
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	3,52	2,80	3,11	2,65	0,6	0,4	0,5	0,4	-14,91
Foru-finantzaketa	275,36	272,72	290,89	326,73	43,6	41,9	42,9	46,5	12,32
Udal-finantzaketa	34,25	31,05	32,74	32,28	5,4	4,8	4,8	4,6	-1,40
Finantzaketa pribatua	279,30	290,34	306,09	302,66	44,3	44,6	45,2	43,1	-1,12
<b>Desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentroak eta zerbitzuak</b>	<b>200,39</b>	<b>209,22</b>	<b>215,49</b>	<b>220,09</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>2,13</b>
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	16,62	19,75	3,86	8,07	8,3	9,4	1,8	3,7	108,99
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	9,00	10,85	10,71	5,75	4,5	5,2	5,0	2,6	-46,33
Foru-finantzaketa	146,45	149,86	173,21	184,18	73,1	71,6	80,4	83,7	6,34
Udal-finantzaketa	0,82	0,65	1,24	1,10	0,4	0,3	0,6	0,5	-10,57
Finantzaketa pribatua	27,52	28,11	26,47	20,98	13,7	13,4	12,3	9,5	-20,77
<b>Ettxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileen babesa</b>	<b>90,97</b>	<b>97,23</b>	<b>94,53</b>	<b>103,83</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>9,84</b>
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	3,42	7,30	3,08	3,33	3,8	7,5	3,3	3,2	8,12
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	6,61	5,76	5,84	6,67	7,3	5,9	6,2	6,4	14,07
Foru-finantzaketa	32,05	36,32	20,43	26,16	35,2	37,4	21,6	25,2	28,03
Udal-finantzaketa	37,13	35,58	52,59	52,89	40,8	36,6	55,6	50,9	0,57
Finantzaketa pribatua	11,77	12,27	12,58	14,78	12,9	12,6	13,3	14,2	17,52
<b>Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoak</b>	<b>125,14</b>	<b>130,90</b>	<b>137,50</b>	<b>140,69</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>2,32</b>
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	12,22	15,89	14,55	13,85	9,8	12,1	10,6	9,8	-4,81
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	0,00
Foru-finantzaketa	112,89	115,00	122,93	126,83	90,2	87,9	89,4	90,1	3,17
Udal-finantzaketa	0,03	0,02	0,01	0,01	0,0	0,0	0,0	0,0	0,00
Finantzaketa pribatua	0,00	0,00	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	0,00

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Adinekoentzako, desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen eremuan ere 2017-2018 aldian nabarmen igo zen udal-ekarpena, udalek eta mankomunitateek % 28,64 handitu baitzuten gastua. Horrela, hautsi egin zen 2015-2017 aldian izandako ekarpena murrizteko joera: 2015-2016 aldian -% 8,63 egin zuen behera udal-gastuak, eta, 2016-2017 aldian, -% 6,83. 2018. eta 2019. urteen artean, udalek gastu horretara egindako ekarpena egonkortu egin zen, baina beherantz oraindik: -% 0,34.

2015etik 2017ra izandako beherakadak direla eta, udalek sektore horretan egiten zuten ekarpena nabarmen murriztu zen 2017an. Hala, 2012tik 2015era nolabaiteko egonkortasuna erregistratu zen, eta partaidetza % 7,6 eta % 8,1 artekoa izan zen. Harrezkero, ordea, udalen ekarpena biziki murriztu zen: 2016an, % 6,9 izan zen, eta 2017an, % 6,2. 2018an % 7,7ra iritsi zen, eta udalen finantzaketaren pisua 2012. eta 2015. urte artean ohikoak ziren mailetan kokatu zen berriro. Hala ere, 2019an ekarpen absolutuan izandako beherakadak udal-erakundeek finantzaketan zuten partaidetza erlatiboaren beste beherakada bat ekarri zuen: % 7,4 izan zen urte horretan.

Bestalde, murriztu egin zen autonomia-erkidegoz gaindiko erakundeek adinekoen, mendekotasuna duten pertsonen edo desgaitasunak/gaixotasunak dituztenen sektoreari egindako ekarpena. Ekarpene hori % 37,97 handitu zen 2016tik 2017ra; beraz, 2015-2016 aldikoa (% 11,74) baino handiagoa ere izan zen. Hala ere, Estatuko Administrazio Orokorrek finantzaketa-arazoak izan zituenean, aurreikusi baina geroratu behar izan zituen finantzaketa-mailak doitzearekin zerikusitua handia izan zuen<sup>10</sup>. Horregatik, ez da harriztekoa 2017-2018 aldian autonomia-erkidegoz gaindiko ekarpenak berriro ere behera egitea, -% 32,22. Maila apalagoetan bada ere, beheranzko joera mantendu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean, eta autonomia-erkidegoz gaindiko erakundeek ekarpenak -% 4,46 egin zuen behera.

2014ko % 5,3etik aurrera goranzko joera indartsuarekin, autonomia-erkidegoz gaindiko administrazioek adinekoentzako, desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzako zerbitzuen arloko gastuaren % 9 bete zuten 2017an. Proporzio horrek 2012ko eta 2013ko % 8,2-8,4ko mailak gainditu zituen. 2018ko doikuntzak % 5,9n jarri zuen aztertutako proporzioa, eta 2012tik ordura arte izandako baliorik txikiena izan zen. Partaidetza horren beheranzko joera 2019ra arte mantendu zen, eta beste minimo bat ezarri zen: % 5,4.

Bestalde, ekarpen autonomikoa % 1,3koa izan zen 2019an; beraz, 2016tik 2018ra bitartean izandako % 1,7-1,8ko ekarpenaren azpitik egon zen. 2015ean eta 2016an ekarpen autonomikoa nabarmen igo ondoren (+% 23,01), hazkunde-erritmoa egonkortu egin zen 2016-2018 aldian (2016-2017 aldian, % 1,44; 2017-2018 aldian, % 1,34), eta beherakada handia izan zuen 2018-2019 aldian (-% 23,41).

2012tik 2014ra % 31 eta % 31,6 arteko balioetatik apur bat beherago egon arren, finantzaketa pribatuaren pisua garrantzitsua zen oraindik gizarte-zerbitzuen arlo honetan, eta gora egin zuen, 2016-2017 aldiko % 30,4tik 2018ko % 30,7ra. Hala ere, 2018. eta 2019. urteen artean, finantzaketa-mailetan izandako -% 1,95eko murrizketak % 29n jarri zuen partaidetza-ehunekoa 2019an. 2012tik ordura arte, % 30etik beherako lehen proporzioa izan zen.

2018. eta 2019. urteen artean, garrantzitsua izan zen finantzaketa pribatuak gizarte-zerbitzuen arlo horretan izan zuen beherakada, eta deigarria zen 2015etik 2018ra bitartean goranzko joera zuen ekarpenarekin alderatuta. Hala, finantzaketa pribatuaren bolumenaren igoerak bilakaera hau izan

---

<sup>10</sup> Ikus 8. oharra



zuen: 2015-2016 aldirian, % 2,80 egin zuen gora; 2016-2017 aldirian, % 3,81, eta 2017-2018 aldirian, % 4,36.

Sektorearen barruan izandako esku-hartze mota desberdinak aztertuta, ikusten da 2019an foru-aldundien finantzaketaren pisuak gailurra jo zuela mendekotasunerako prestazioetan, % 90,1eko ekarpenarekin. Kasu honetan, foru-erakundeek ekarpena % 11,66 igo zen 2015-2016 aldirian, baina 2016-2017 aldirian % 1,87 baino ez zen izan. Gero, 2017-2018 aldirian, handiagoa izan zen igoera, % 6,90ekoa, hain zuzen. 2018. eta 2019. urteen artean, hazkundera garrantzitsua izan arren, erritmoa moteldu egin zen: % 3,17 egin zuen gora.

Autonomia-erkidegoz gaindiko erakundeek ekarpenak, ordea, behera egin zuen 2017-2019 aldirian, eta, bereziki, AMASek egindako ekarpenak izan ziren. 2016-2017 aldirian, autonomia-erkidegoz gaindiko erakundeek ekarpena % 30,02 izan zen (beraz, 2015-2016 aldiriko % 17,25 baino handiagoa), baina 2017-2018 aldirian, ordea, -% 8,40 murriztu zen gastu hori, eta beherantz egin zuen 2018tik 2019ra bitartean ere, -% 4,81. Autonomia-erkidegoz gaindiko erakundeek prestazio horiek finantzaketa globalean egindako ekarpena % 12,1era iritsi zen 2017an, eta, beraz, nabarmena zen goranzko joera 2014-2015 aldiriko % 9,1-9,3 balioekin eta 2016ko % 9,8 balioarekin alderatuta. Baina 2018an % 10,6ra jaitsi zen, eta 2019an, % 9,8ra. Balio hori 2013ko % 14,1etik oso urrun dago, eta berriro kokatu zen 2014tik 2016ra bitartean izandako % 10etik beherako balioetan.

Bilakaera horrek erakusten du finantzaketa-krisialdirian autonomia-erkidegoz gaindiko erakundeek ekarpena biziki jaitsi zela mendekotasunaren arloari dagokionez: 2012an eta 2013an 13,20 eta 14,94 milioi euro izatetik, 2014an 9,72 milioi izatera pasatu zen; 2015ean, 10,42 milioira, eta 2016an, 12,22 milioira. Finantzaketaren benetako egoera erakusten ez bazuen ere, ordainketetan atzerapenak sartu baitziren, 2017ko 15,89 milioiko ekarpenak 2013ko 14,94 milioiko kopurua gainditu zuen termino nominaletan zein termino konstanteetan. Hala eta guztiz ere, 2018ko 14,55 milioiko ekarpenak eta 2019ko 13,85 milioikoak berriro kokatu zuten gastua 2013ko baliotik behera.

Foru-aldundiek finantzaketan parte-hartze handia izan zuten beste arlo bat desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuena izan zen. Kasu horretan, foru-finantzaketa sektorearen finantzaketa guztiaren % 73,1 izan zen 2016an, hau da, 2015eko proportzio bera, eta, 2012-2014 aldiriko % 68,4 eta % 69,7 bitarteko balioekin erkatuta, nabarmen handiagoa. Autonomia-erkidegoz gaindiko finantzaketa berreskuratzeko bidean, 2017an apur bat behera egin zuen proportzioak, eta % 71,6 izan zen. 2018an, aldiz, berriro igo, eta % 80,4ra iritsi zen. Joera hori areagotu egin zen 2019an, % 83,7 ko proportzioarekin. 2012tik izandako handiena izan zen.

Aldundiek desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuetarako egindako finantza-ekarpenak gorakada handia izan zuen 2017-2018 aldirian (% 15,58), 2016-2017 aldiriko % 2,33ko eta 2015-2016 aldiriko % 3,91ko balioak baino askoz handiagoa. 2017-2018 aldirian izandako igoera baino apalagoa bada ere, 2018. eta 2019. urteen artean hazkundera handia izan zen ere: % 6,34. Tarte horretan, hala ere, foru-aldundien partaidetza erlatiboak izandako gorakada sektore pribatuak halako zentro eta zerbitzuetarako egindako ekarpenak izandako beherakada esanguratsuekin lotzen zen.

Desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako arretaren arloan, autonomia-erkidegoz gaindiko erakundeek ekarpena % 9,4ra igo zen 2017an; beraz, 2012ko % 9,7tik hurbil egon zen. Baina 2018an, ordea, % 1,8ra jaitsi zen. Gero, apur bat suspertu zen 2019an, eta % 3,7 izan zen. Zenbateko absolutuetan, erkidegoz gaindiko ekarpena 2012ko 17,25 milioi eurotik 2014ko 12,80

milioira jaitzi zen. 2015-2016 aldirian % 19,53, eta 2016-2017 aldirian, % 18,88 igo ondoren, 2017ko 19,75 milioiko kopurua 2012tik aurrerako baliorik altuena izan zen. 2018an, ordea, behera egin zuen eta 3,86 milioi eurokoa izan zen ekarpena. 2019an, berriro egin zuen gora (8,07 milioikoa izan zen), baina, hala ere, ekarpena aurretik izandako mailetatik urrun egon zen: 2012. eta 2017. urteen artean, gutxienezko ekarpena 12,80 milioikoa izan zen.

2019an, sektorearen finantzaketarako izandako ekarpen autonomikoa % 2,6 baino ez zen izan, eta kontraste handia zuen 2012tik 2018ra bitartean izandako % 4,5 eta % 5,4 arteko balioekin eta 2018an izandako % 5,0eko balioarekin. Proporzio horrek, gainera, goranzko joera izan zuen 2017ra arte, eta 2016-2017 aldirian igoera deigarria izan zuen sektore horretan egindako ekarpen autonomikoak (+% 20,59), zeinak aldatu egin baitzuen 2015-2016 aldiko beheranzko joera (-% 2,99). 2017tik 2018ra, erakunde autonomikoen ekarpena -% 1,3 murriztu zen, eta 10,71 milioi eurokoa izan zen. Beherakada areagotu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean (-% 46,33), eta desgaitasunak/gaixotasunak dituztenentzako arretaren sektoreari egindako finantzaketa 5,75 milioikoa baino ez zen izan 2019an.

Bestalde, desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen finantzaketan udalek egindako ekarpena oraindik ere oso murriztua izan zen 2019an (% 0,5 baino ez).

Desgaitasunaren/gaixotasunaren arloan, finantzaketa pribatuak apur bat gora egin zuen 2016-2017 aldirian, zehazki, % 2,15. Baina, 2015-2016 aldirian -% 1,82 egin zuen behera sektorean egindako ekarpenak. 2017-2018 aldirian, ordea, ekarpena biziki murriztu zen berriro, zehazki, -% 5,81. 2018. eta 2019. urteen artean, erakunde pribatuek sektoreari egindako ekarpenaren beheranzko joera areagotu egin zen: -% 20,77.

Finantzaketa pribatuaren azken dinamikak indartu egin zuen finantzaketa horren ekarpen erlatiboaren beheranzko joera. 2012tik 2014ra bitartean % 15,2tik % 17,8ra igo ondoren, sektoreko gastuaren finantzaketak behera egin zuen: 2016an % 13,7 izan zen; 2017an, % 13,4, eta 2018an, % 12,3. Hala ere, 2012tik ordura arte lehen aldiz, proporzioa % 10eko atalasearen azpitik jarri zen 2019an: % 9,5. Zenbateko absolutuei erreparatuz gero, ekarpen pribatuaren 2019ko 20,98 milioi euroko kopurua 2015-2018 aldiko 26,47 eta 28,11 milioi arteko kopurutik urrun egon zen, eta 2012ko zenbatekotik hurbil. Eta nabarmenagoa izan zen aldea 2013-2014 aldirian izandako 30 milioi eurotik gorako ekarpenekin (maximoa 2014an izan zen, 35,46 milioi).

Adinekoentzako zentro eta zerbitzuei dagokienez, foru-erakundeek finantzaketa orokorrari egindako ekarpena % 46,5ekoa izan zen 2019an. Proporzio horrek goranzko joera argia islatzen zuen 2017ko % 41,9tik, eta, 2012tik une horretara arte lehen aldiz, 2014an lortutako % 44,7ko maximoa gainditu zen. 2017tik izandako bilakaerak kontraste handia du 2016. eta 2017. urteen artean foru-aldundiek adinekoen arretaren sektoreari egindako ekarpen erlatiboak izandako beherakadarekin: % 43,6tik % 41,9ra egin zuen behera.

2016-2017 aldirian ikusitako protagonismo-galera hori lotuta zegoen 2016. eta 2017. urteen artean foru-ekarpenak izandako beherakada absolutuarekin (-% 0,96ko murrizketa). Mendekotasunari, adineko pertsonei edo desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonei arreta emateko sektorean garai hartan foru-aldundiek egindako finantzaketa-murrizketa bakarra izan zen. Baina jada 2015-2016an aldirian, adineko pertsonentzako arretaren arloko gastua izan zen foru-gastuaren barruan gutxienez handitu zena (% 2,61; mendekotasunari, adineko pertsonei edo desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonei arreta emateko sektorean, guztira, % 5,29) Egoera aldatu egin zen 2017tik 2018ra, eta foru-erakundeek ekarpena biziki handitu zen; are gehiago, mendekotasunari, adineko pertsonei edo desgaitasunari bat dutenei arreta emateko sektorean aldundiek egindako ekarpen orokorra baino handiagoa izan zen (% 6,66; eta sektore orokorrekoa, % 5,85). Dinamika hori areagotu egin



zen 2018. eta 2019. urteen artean, eta % 12,32 egin zuen gora. Hortaz, berriro gairitu zuen mendekotasunari, adineko pertsonen edo desgaitasunen bat duten emateko sektoreari aldundiek egindako ekarpen orokorraren igoera (% 9,29koa izan zen).

Kasu horretan ere, foru-ekarpenaren igoerarekin batera, murriztu egin zen autonomia-erkidegoz gairitu erakundearen ekarpena. Zenbateko absolutuei begira, ekarpena 27,53 milioi eurotik 54,70 milioi eurora igo zen 2014tik 2017ra, eta 2012 eta 2013 urteetako 40 milioi inguruko zenbatekoen gairitu jarri zen. Aurrerapen handi hori lotuta zegoen autonomia-erkidegoz gairitu erakundearen ekarpenaren bolumen absolutuaren 2016- 2017 aldiko % 42,01eko gairituzarekin. Hala eta guztiz ere, 2017-2019 aldirian, ekarpenak etengabe egin zuen behera: 2017ko 54,70 milioi ekarpenetik 2018ko 44,69 milioi (–% 18,29) eta 2019ko 37,98 milioi (–% 15,02). Termino erlatiboetan, 2014ko % 4,6tik 2017ko % 8,4ra igo ondoren, autonomia-erkidegoz gairitu erakundearen adinekoentzako zentro eta zerbitzuen finantzaketan egindako ekarpenak behera egin zuen 2018ko % 6,6ra eta 2019ko % 5,4ra.

2017. eta 2018. urteen artean, udalen ekarpenak % 5,43 gora egin ondoren, udalek adinekoentzako zentro eta zerbitzuak finantzatzeko egindako ekarpena murriztu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean, erritmo motelean bada ere (–% 1,40). Bilakaera horrek udal-ekarpenaren epe luzeko beheranzko joera sendotu zuen, 2013ko 37,88 milioi euroko ekarpenetik 2019ko 32,28 milioi eurokora egin baitzuen behera. Bilakaera horrekin batera, beherakada ia etengabea izan zuen adinekoentzako zerbitzuen finantzaketaren barruan udalei eta mankomunitateei lotuta dagoen proportzioak. 2012-2013 aldirian izandako % 6,5-6,6ko ehunekoetatik, proportzio horrek 2014-2015 aldiko % 5,9-6,0ko mailetara egin zuen behera; eta, gero, 2016ko % 5,4kora, 2017 eta 2018ko % 4,8kora, eta, azkenik, 2019ko % 4,6ko minimora.

2016tik aurrera izandako dinamika 2015-2017 aldirian udalek adinekoentzako zentroak eta zerbitzuak mantentzeko egindako ekarpen absolutuaren beherakada handien ondorio izan zen (2015-2016 aldirian, –% 6,55; eta 2016-2017 aldirian, –% 9,35). Finantzaketa suspertu egin zen 2017-2018 aldirian, baina ez zen lortu joera hori iraultzea, eta udalen ekarpena 32,74 milioi eurokoa izan zen 2018an, hau da, 2015eko 36,65 milioi euroko kopurutik urrun. Motela izan arren, 2018-2019 aldiko –% 1,40ko jaitsiera (2019ko 32,28 milioi euroko kopurura) luzatu egin zuen udalek adinekoentzako zentroak eta zerbitzuak mantentzeko egindako ekarpenaren beheranzko joera.

Adinekoentzako zentroi eta zerbitzuei dagokienez, nabarmena da ekarpen pribatuaren (erabiltzaileak barne) pisua: 2019ko gastu osoaren % 43,1. 2015etik 2018ra bitartean % 44,2tik % 45,2ra igo ondoren, partaidetzak ehuneko ia bi puntutan egin zuen behera 2018-2019 aldirian, eta 2012tik izandako mailarik baxuenean kokatu zen 2019an. Dinamika horren oinarrian ekarpen pribatuaren goranzko joera esanguratsuaren haustura dago. Izan ere, 2015etik aurrera, goranzko hazkunde-erritmoak izan ditu: 2015-2016 aldirian, % 3,22; 2016-2017 aldirian, % 3,95; eta 2017-2018 aldirian, % 5,42.

Zenbateko kuantitatiboei dagokienez, adinekoentzako zentroak eta zerbitzuak mantentzeko ekarpen pribatuak era jarraituan egin zuen gora: 2012ko eta 2013ko 255 milioi eurotik gorako kopurutatik 2018ko 306,09 milioi kopurura (termino nominaletan, 2012tik ordura arte izandako maximoa). 2019ko zifra bigarren kopururik handiena izan zen urte horretatik: 302,66 milioi euro, eta –% 1,12 jaitsiera txikia 2018an sektorean egindako ekarpen pribatuarekin alderatuta. Hala ere, lehen haustura garrantzitsua izan zen 2013tik 2018ra bitartean ekarpen horrek izandako goranzko joera argiari dagokionez.

Mendekotasunari, adinekoei eta desgaitasuna/gaixotasuna duten emateko sektorean, foru-aldundien ekarpen erlatiborik urriena etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileen babesaren

arloari zegokion. Kasu horretan, 2019an, foru-aldundiek % 25,2ko ekarpena baino ez zioten egin finantzaketa osoari.

2012ko % 37,1etik aurrera beheranzko etengabeko joera izan eta gero, proportzioa % 31era iritsi zen 2015ean. Urte horretatik aurrera, igotzen hasi zen berriro, 2017ko % 37,4ra iritsi arte. Proportzio hori 2012koa baino handixeagoa zen. Foru-erakundeek ekarpena berreskuratzeko bide hori, ordea, aldatu egin zen 2018an, -% 43,74 behera egin zuenean. Aldaketa handia izan zen 2015-2017 aldiko gorakada handiekin erkatuta (2015-2016 aldian, % 14,96 izan zen; eta 2016-2017an, % 13,33). 2017ko 36,32 milioi euroko kopuruak 2012ko 35,75 milioi euroko kopurua gainditu zuen. Baina, gero, 2018an 20,43 milioi euroko kopurura iritsi zen, zifrarik txikiena 2015eko 27,88 milioi euroko kopurutik. Hala ere, 2018-2019 aldian ezaugarri nagusia izan zen foru-finantzaketaren nolabaiteko suspertzea. Gastuak % 28,03 egin zuen gora 2019an, 26,16 milioi eurora iritsita. Kopuru hori ez zen egon 2015ean erregistratutako kopurutik oso urrun.

Foru-ekarpenaren dinamika lotuta zegoen, neurri handi batean, udal-erakundeek etxeko laguntzako, telelaguntzako eta zaintzaileei laguntzeko programa hauen finantzaketan izandako partaidetzaren gorabeherekin. 2012-2013 aldian % 40,5etik % 37,5era jaitsi ondoren, udalek finantzaketa horretan egindako ekarpena % 46,4ra iritsi zen 2015ean. Harrezkero, programa horien finantzaketan izandako partaidetzak behera egin zuen, eta, horren ondorioz, 2017an % 36,6 izan zen; hortaz, foru-aldundien ekarpena baino txikiagoa izan zen lehen aldiz.

2018an, ordea, udalen ekarpen finantzarioa berriro nagusitu zen, % 55,6ko ekarpenarekin. 2018an, beraz, aldaketa handia izan zen udalek eta mankomunitateek programa horietan egiten zuten ekarpen absolutuan aurretiaz hautemandako murrizteko prozesuan. 2015etik 2016ra izan zen beherakadarik handiena, -% 11,21, baina murrizteko joerak 2016an eta 2017an ere jarraitu zuen; zehazki, -% 4,17 murriztu zen udalen finantza-ekarpena. Prozesu hori 2017-2018 aldian amaitu zen eta gora egin zuen udal-gastuak, zehazki, % 47,81. Sektorearen berrantolaketari lotutako aldaketa horrek etxeko laguntzan, telelaguntzan eta zaintzaileei laguntzeko programetan udalek egindako gastua 52,59 milioi euroan kokatu zuen 2018an, hau da, zifrarik handiena izan zen 2015. urteaz geroztik (41,82 milioi).

2018. eta 2019. urteen artean foru-finantzaketak izandako gorakada bateragarria zen aldi horretan udal-ekarpenak aztertutako gastua mantentzeko izandako bilakaera berezituarekin. Hala, foru-ekarpenaren bolumenean izandako % 28,03ko igoerarekin alderatuta, udalen ekarpena ozta-ozta iritsi zen 52,89 milioietara, eta ekarpena ia egonkortu egin zen (% 0,57 hazkunde nominala). Emaiza izan zen udalek ekarpenean zuten partaidetzak behera egin zuela 2018ko % 55,6tik 2019ko % 50,9ra. Hala ere, partaidetza hori nagusia izan zen oraindik ere.

Jarduera mota horren finantzaketa autonomikoari dagokionez, % 5,2koa izan zen 2012an eta 2013an; % 5,7koa, 2014an; % 6,8koa, 2015ean, eta % 7,3koa, 2016an. Ekarpene nabarmen jaitsi zen 2016. eta 2017. urteen artean (-% 12,89), funtsean zerbitzuen kudeaketan izandako kostuak murrizteko joeraren ondorioz. Horren eraginez, behera egin zuen programa horietako finantzaketaren partaidetzak. Adierazlea % 5,9ra erori zen 2017an, eta 2014ko % 5,7ko mailetatik hurbil kokatu zen. 2017-2018 aldian, ekarpen autonomikoak % 1,54 egin zuen gora. Horri esker, % 6,2koa izan zen finantzaketa autonomikoak etxeko laguntzan, telelaguntzan eta zaintzaileei laguntzeko programetan egindako ekarpena; zehazki, 5,84 milioi eurokoa. 2018. eta 2019. urteen artean, ekarpenaren suspertzea sendotu egin zen eta % 14,07 hazi zen, 6,67 milioi euroko ekarpenarekin, hau da, etxeko laguntzaren, telelaguntzaren eta zaintzaileei laguntzeko programen sektorean egindako ekarpen guztiaren % 6,4.



Edonola ere, 2018tik aurrera, Eusko Jaurlaritzaren ekarpena autonomia-erkidegoz gaindiko ekarpena baino handiagoa izan zen. 2013an, programa horien finantzaketaren % 10,5 hartu ondoren, autonomia-erkidegoz gaindiko ekarpena % 3 eta % 4 arteko mailetara erori zen 2014-2016 aldian, eta, 2017an, berriro egin zuen gora, zehazki, % 7,5era. Ekarpeneren pisu erlatiboa, ordea, % 3,3ra murriztu zen 2018an, eta % 3,2ra 2019an; beraz, 2013ko eta 2014ko kopuruetatik hurbil kokatu zen. Kopuru horren oinarria 2017-2018 aldiko -% 57,86ko beherakada izan zen (7,30 milioi eurotik 3,08 milioi eurora). Beherakada hori ozta-ozta konpentsatu zuen 2018. eta 2019. urteen artean ekarpenak izandako suspertzeak (% 8,12, eta 3,33 milioi euroko finantzaketa, guztira).

Ekarpen pribatua % 14,2koa izan zen 2019an aztertutako programetan: 2012tik aurrerako baliorik handiena eta 2015-2017 aldiko % 12,6-12,9 arteko eta 2018ko % 13,3 balioetatik gorakoa. Hortaz, goranzko joera erakutsi zuen ekarpenak: 2015-2016 aldian, finantzaketa pribatua % 3,97 izan zen, eta, 2016-2017 aldian, % 4,26. Nolanahi ere, finantzaketa pribatuaren goranzko abiadura zertxobait moteldu zen 2017tik 2018ra (% 2,50). 2018-2019 aldiak, edonola ere, suspertze nabarmena ekarri zuen, % 17,52 gora egin baitzuen, eta ekarpen pribatua maximora iritsi zen 2019an, 14,78 milioi euroko ekarpenarekin.

Esan behar da, hala ere, aintzat hartutako jarduketetan finantzaketa asko aldatzen dela programa mota batetik bestera. Telelaguntzaren arloan, Eusko Jaurlaritzak finantzaketaren zati nagusia hartu zuen 2019an: % 63,6. Hala ere, beheranzko joera zuen 2012ko % 88,5eko balioarekin erkatuta. Aldi berean, ekarpen pribatuaren pisuak gora egin zuen: 2012ko % 11,5etik 2019ko % 31,9ra.

Etxeko laguntzaren arloan, 2017an aldaketa garrantzitsu bat gertatu zen: udal-partaidetza ez zen nagusi izan zerbitzu horren kostuaren finantzaketan, 2012az geroztik lehenengo aldiz (% 39,7koa izan zen, eta foru-partaidetza, berriz, % 40,4koa). Udalen partaidetza horrek beheranzko joera islatzen zuen 2014ko eta 2015eko % 48,1eko eta % 50,7ko balioekin erkatuta, baita 2016ko % 45,1eko balioarekin erkatuta ere. Gizarte-zerbitzuen arloko gastua birbideratzearen ondorioz, doikuntza bat egin zen 2018an, eta udalerriek berriro hartu zuten zerbitzu hori finantzatzeko erantzukizun nagusia, gastuaren % 60,7 hartuta.

2018. eta 2019. urteen artean, ordea, udalek etxeko laguntzaren finantzaketan egindako ekarpenaren egonkortzeak beheranzko bidean jarri zuen berriro proportzio hori, foru-finantzaketaren % 27,8ko igoerarekin kontrastean. Udalen 2019ko 52,18 milioi euroko ekarpena (2018an, 52,19 milioi) ekarpen osoaren % 56,0 izan zen, foru-erakundeek ekarpenak hartutako % 27,7ren gainetik, baita autonomia-erkidegoz gaindiko erakundeek % 3,6ren gainetik eta ekarpen pribatuaren % 12,7ren gainetik.

Zaintzaileei laguntzeko programetan, zeinek zuzkidura txikiagoa baitzuten kuantitatiboki, 2019an finantzaketa autonomikoa nagusitu zen: % 52,7. Azpitik geratu ziren foru-erakundeek % 24,7ko ekarpena eta udalen % 22,6koa.

Azter dezagun orain, 16. taulan, adingabe, gazte, familia, emakume eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programen finantzaketak izandako bilakaera.

Haur, gazte edo familientzako programetan, aldundien finantzaketa erabakigarria izan zen: 2019ko gastuaren % 82,4. Ehuneko horrek argi erakusten zuen foru-erakundeek ekarpenaren suspertzea, 2014ko % 77,8tik. Proportzio horrek beheranzko joera jarraitua islatu zuen urte hartan, 2012ko % 79,5eko proportzioarekin alderatuta. 2019an, proportzio hori 2012koa baino ehuneko ia hiru puntu handiagoa izan zen.



Arlo horretan, gainera, ia ez zen egon ekarpen pribaturik; beraz, beste finantzaketa-iturri nagusia udalena izan zen: gastuaren % 14,2, 2019an. 2012tik 2016ra partaidetzak % 16,6tik % 17,4ra gora egin ondoren, beheranzko prozesu bat izan zuen toki-erakundeek ekarpen erlatiboak: 2017tik 2018ra, % 15, eta, 2019an, % 14,2 (proportziorik txikiena 2012az geroztik).

Finantzaketa autonomikoa, berriz, % 3,3 baino ez zen izan 2019an.

#### 16. taula.

**Haur, gazte, familia, emakume eta baztertutako pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programen gastu arrunta, finantzabidearen arabera. 2016-2019**

**(Datu absolutuak -euroak milioitan-, % bertikalak eta bariazioa 2018-2019 aldian %-tan)**

	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	Bariazioa 2018- 2019 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	
<b>Gastu-sektorea eta finantzabidea</b>					% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%-tan
<b>HAUR, GAZTE ETA FAMILIAK GUZTIRA (tratu txarrak barne)</b>	<b>121,98</b>	<b>131,53</b>	<b>143,54</b>	<b>159,55</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>11,15</b>
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,02	0,02	0,02	0,03	0,0	0,0	0,0	0,0	68,33
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	4,86	5,52	5,14	5,24	4,0	4,2	3,6	3,3	1,99
Foru-finantzaketa	95,82	106,39	116,87	131,39	78,6	80,9	81,4	82,4	12,42
Udal-finantzaketa	21,27	19,75	21,52	22,69	17,4	15,0	15,0	14,2	5,43
Finantzaketa pribatua	0,00	-0,15	-0,01	0,20	0,0	-0,1	0,0	0,1	-2713,73
<b>Adingabeen egoitza-zentroak</b>	<b>66,79</b>	<b>74,02</b>	<b>83,03</b>	<b>92,55</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>11,46</b>
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	0,09	0,68	0,08	0,06	0,1	0,9	0,1	0,1	-17,49
Foru-finantzaketa	65,02	73,59	83,04	92,50	97,3	99,4	100,0	99,9	11,38
Udal-finantzaketa	1,76	0,04	0,03	0,00	2,6	0,1	0,0	0,0	-100,00
Finantzaketa pribatua	-0,07	-0,29	-0,11	-0,01	-0,1	-0,4	-0,1	0,0	-89,77
<b>Tratu txarren arretako programak (tratu txarren biktimen prestazioak, harrera, adopzioa eta familiako beste esku-hartzeak barne). Beste ostatu-programa batzuk</b>	<b>55,19</b>	<b>57,51</b>	<b>60,51</b>	<b>67,00</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>10,74</b>
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,02	0,02	0,02	0,03	0,0	0,0	0,0	0,0	68,33
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	4,77	4,84	5,06	5,18	8,6	8,4	8,4	7,7	2,28
Foru-finantzaketa	30,81	32,80	33,83	38,89	55,8	57,0	55,9	58,0	14,98
Udal-finantzaketa	19,51	19,71	21,49	22,69	35,4	34,3	35,5	33,9	5,56
Finantzaketa pribatua	0,08	0,14	0,10	0,21	0,1	0,2	0,2	0,3	103,87
<b>BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA</b>	<b>45,96</b>	<b>47,65</b>	<b>52,01</b>	<b>57,75</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>11,03</b>
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	1,62	4,16	5,68	6,86	3,5	8,7	10,9	11,9	20,90
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	4,51	4,52	4,58	5,90	9,8	9,5	8,8	10,2	28,77
Foru-finantzaketa	21,58	22,07	24,19	25,79	47,0	46,3	46,5	44,7	6,62
Udal-finantzaketa	11,49	11,17	11,06	13,49	25,0	23,4	21,3	23,4	22,02
Finantzaketa pribatua	6,76	5,74	6,51	5,70	14,7	12,0	12,5	9,9	-12,35

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Ekarpen absolutua kontuan hartuta, haur, gazte eta familien sektorearen 2018-2019 aldiko dinamika foru-aldundien ekarpenak izandako hazkundeagatik nabarmendu zen bereziki, eta, apur bat gutxiago, udalen ekarpenaren gehikuntzagatik. Foru-ekarpenari dagokionez, 2019ko 131,39 milioiek % 12,42ko gehikuntza osatu zuten, 2018ko 116,87 milioiekin erkatuta. Beraz, mantendu egin zen 2016-2017 aldian eta 2017-2018 aldian izandako goranzko joera (% 11,02 eta % 9,86, hurrenez hurren), eta 2015-2016 aldian izandako hazkunde handiaren (% 5,04) gainetik kokatu zen .

2015-2016 aldian harrigarri handitu ondoren (% 8,42), udal-gastuak behera egin zuen 2016-2017 aldian (-% 7,16), eta 2016ko 21,27 milioi eurotik 2017ko 19,75 milioi eurora egin zuen behera. 2018an, ordea, udalek haur, gazte eta familien sektoreari egin zioten ekarpenak suspertze handia





izan zuen eta % 8,96 egin zuen gora. Hazkunde-erritmo motelagoarekin bada ere, goranzko joera mantendu zen 2018. eta 2019. urteen artean, eta % 5,43 egin zuen gora. Udalen ekarpena 22,69 milioi eurora iritsi zen 2019an, hau da, 2016ko 21,27 milioi euroko kopuruaren gainetik.

Bestalde, 2015-2016 aldiko beherakadaren ostean (-% 4,16), ekarpen autonomikoak gora egin zuen 2016-2017 aldian (% 13,51), nahiz eta ekarpenen zenbatekoak txikiagoak izan (2017an, 5,52 milioi). 2017-2018 aldiko ezaugarri nagusia EAeko erakunde erkideen finantzaketaren murrizketa izan zen; murrizketa, zehazki, -% 6,92koa izan zen, eta 5,14 milioi euro gastatu ziren. 2019an, ekarpenak apur bat gora egin zuen, % 1,99, 5,24 milioi euroekin.

Haur, gazte eta familien arloan egindako esku-hartze motak aztertzen baditugu, adingabeentzako egoitza-zentroetan sendotu egin zen foru-finantzaketaren pisua nagusia, eta 2018an gastuaren % 99,9 hartu zuen. Arlo horretan agerikoa da foru-gastuaren esfortzua: 2018-2019 aldian % 11,38 egin zuen gora, eta 2016-2017 aldiko % 13,18ko igoeraren eta 2017-2018 aldiko % 12,85eko igoeraren bideari eutsi zion. Kasu guztietan 2015-2016 aldiko % 3,60 baino handiagoa izan zen.

2015-2016 aldian egonkortu eta gero (aldi horretan % 0,84 baino ez zuen egin gora), 2016-2017 aldian udalek adingabeentzako egoitza-zentroei egindako ekarpenak -% 97,82 egin zuen behera, eta hortik aurrera ia desagertu egin zen. Udal-ekarpena ia nulua izan zen 2019an, aldundien aurrekontutik jasotako 92,50 milioi euroko ekarpenarekin alderatuta. Horixe da, hain zuzen ere, Euskadin gizarte-zerbitzuen sistemaren antolakuntza berregituratzeko prozesuaren ondorio deigarrienetakoa, foru-erakundeek bereganatu baitzuten zentro mota horren finantzaketa.

Hurrei, gazteei, familiei eta emakumeei arreta emateko egoitzakoak ez diren programetan, aldundien ekarpena % 58,0 izan zen 2019an, eta udalen eta erkidegoaren ekarpenaren gainetik egin zen (% 33,9 eta % 7,7, hurrenez hurren).

Arreta-arlo horretako joerarik deigarriena foru-gastuaren 2015etik aurrerako suspertzea izan zen: 2015etik 2016ra % 8,20 egin zuen gora, eta joera hori mantendu egin zen 2016. eta 2018. urteen artean ere, neurri handi batean, nahiz eta erritmoaren moteltzea agerikoa izan (2016-2017 aldian, % 6,46; 2017-2018 aldian, % 3,14). Moteltze horrekin batera, foru-ekarpenak zertxobait behera egin zuen gastu mota horretan, eta 2017tik 2018ra % 57,0tik % 55,9ra egin zuen behera. 2018. eta 2019. urteen artean foru-ekarpenak izan zuen hazkunde handiak (+% 14,98) gorakada ekarri zuen gastu osoan aldundiek zuten partaidetzan (% 58 izan da).

Udalek haur, gazte, emakume eta familientzako egoitzakoak ez diren programa horietan egindako ekarpenak goranzko joera izan zuen ere. Ekarpenak % 9,04 egin zuen gora 2017-2018 aldian. Horrela, 2016-2017 aldiko udal-ekarpenaren hazkundera moteltzeko joera hautsi zen (aldi horretan, gastuak % 1,03 baino ez zuen egin gora). Horrela, 2015-2016 aldiko hazkunde-mailalara itzuli zen, eta, % 9,16 gehituta ekarpena, 2017-2018 aldikoaren oso antzekoak izan ziren. Garrantzitsua izan arren, udal-ekarpenaren goranzko joerak indar apur bat galdu zuen 2018. eta 2019. urteen artean: % 5,56 egin zuen gora, foru-erakundeek izandako % 14,98ko igoeraren azpitik. Udalen partaidetza zerbitzuen finantzaketan % 35,5era iritsi zen 2018an, baina behera egin zuen 2019an, % 33,9ra.

Nolanahi ere, nabarmentzekoa da 2012tik ordura arte programa horietan aldundiek eta udalek egindako gastuaren maila maximoak lortu zirela berriro ere 2019an.

Finantzaketa autonomikoari dagokionez, -% 3,79 egin zuen behera 2015-2016 aldian, eta 2016-2017 aldian berriro apur bat gora (% 1,39). Gora egiteko joera sendotu egin zen 2017-2019 aldian, eta ekarpenak % 4,55 egin zuen gora 2017. eta 2018. urteen artean, eta % 2,28, 2018. eta 2019. urteen artean. Erakunde autonomikoek egoitzakoak ez diren programa horien % 7,7 finantzatu zuten 2019an, hau da, 2015eko % 9,7ko eta 2012ko % 9,9ko ekarpenaren azpitik.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonen arreta emateko sektorearen arloan, 2019an finantzaketaren zatirik handiena foru-aldundiena izan zen: % 44,7. Hortaz, ekarpen hauetatik gora egon zen: udal eta mankomunitateen % 23,4tik, autonomia-erkidegoz gaindiko erakundeen % 11,9tik eta erakunde autonomikoen % 10,2tik. Ekarpenera pribatuek gainerako % 9,9a hartu zuten.

2018-2019 aldira foru-ekarpenera % 6,62 gora egin bazuten ere, foru-aldundien kasuan aipatutako % 44,7ko ekarpenera bazterketaren sektorearen finantzaketan zuten partaidetza 2015tik izandako beheranzko joera berreskuratzea ekarri zuen. 2012 eta 2013ko % 48,5 inguruko proportzioetatik 2015eko % 49,2ra gora egin ondoren, aldundiek finantzaketan zuten pisua murriztu egin zen 2017 eta 2018an, % 46,5 ingurura, eta 2019an, % 44,7ko minimora.

Foru-aldundiek bazterketaren sektorearen finantzaketan zuten partaidetzaren beherazko joera hori azaltzeko, kontuan hartu behar da, batetik, foru-ekarpenera 2015-2017 aldira nolabait egonkortzen joan zela, eta 2015etik 2016ra % 0,52 baino ez zuela gora egin, eta 2016-2017 aldira, berriz, % 2,25. Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da 2017-2018 aldira foru-finantzaketaren gorakada txikiarekin batera ekarpenera ere handitu zela: 2017an 22,07 milioikoa izatetik 2018an, 24,19 milioikoa izatera pasatu zen, hau da, % 9,62 egin zuen gora. Foru-ekarpeneraren oinarritzko egonkortze-prozesu hori lotuta zegoen 2017-2018 aldira beste erakunde publiko batzuek eta sektore pribatuak egindako ekarpenera handiagoarekin. 2018tik 2019ra partaidetza izandako beherakada, bestalde, lotuta zegoen hazkunde-eritmoaren geldotzearekin (2017-2018 aldira % 9,62tik 2018-2019 aldira % 6,62ra; 25,79 milioi, azken urte horretan) eta beste eremu publiko batzuen ekarpenera izandako hazkunde handiagoekin.

Bazterketaren sektorearen finantzaketari egindako ekarpenera handitu zuten sektoreen artean, nabarmentzekoa da autonomia-erkidegoz gaindiko ekarpeneraren goranzko joera argia. Ekarpenera hori ia nulua izan zen 2014-2015 aldira, baina 2016an, ordea, 1,62 milioi eurokoa izan zen; 4,16 milioi eurokoa, 2017an; 5,68 milioi eurokoa, 2018an, eta 6,86 milioikoa, 2019an. Sektoreko finantzaketan egindako ekarpenera bilakaera hau izan zuen: 2012-2015 aldira, % 1etik beherakoa; 2016an, % 3,5; 2017an, % 8,7; 2018an, % 10,9, eta 2019an, % 11,9. 2018tik aurrera, autonomia-erkidegoz gaindiko ekarpenera finantzaketa autonomikoa baino handiagoa izan zen. Azken hori % 10,2koa izan zen 2019an.

Bazterketa-arloko ekarpenera autonomikoa 2015-2016 aldira % 3,19 egin zuen gora, baina geroago baretu egin zen, eta 2016-2017 aldira % 0,26 baino ez zuen gora egin; eta 2017-2018 aldira, % 1,31. Horrela, erakunde erkideen partaidetzaren epe luzeko murrizketa finkatu egin zen: 2012ko % 11,7tik 2018ko % 8,8ra. 2018. eta 2019. urteen artean, berriz, finantzaketa autonomikoa % 28,77 egin zuen gora. 5,90 milioi euroko ekarpenera esker, 2018an % 8,8ko partaidetza izatetik 2019an % 10,2koa izatera pasatu zen.

Udalek bazterketaren sektorearen finantzaketari egindako ekarpenera % 22,6koa izan zen 2012an; gero, 2013. eta 2015. urteen artean, % 26,1era eta % 27,1era iritsi zen Urte horretatik aurrera, beherakada erlatiboko prozesua hasi zen, eta udalen eta mankomunitateen ekarpenera % 23,4koa izan zen 2017an, eta % 21,3koa 2018an. Bazterketa-sektorean gero eta txikiagoa izan zen udalen ekarpenera: 2015-2016 aldira -% 2,76 egin zuen behera; 2016-2017 aldira, -% 2,83; eta 2017-2018 aldira, -% 0,98.

Hala ere, 2018. eta 2019. urteen artean, udalek bazterketaren sektoreari egindako ekarpenera % 22,02 egin zuen gora, 2018ko 11,06 milioi euroko ekarpenerarekin alderatuta. 2019an 13,49 milioikoa izan zen ekarpenera, handiena 2012tik. Finantzaketa horretan izandako partaidetza hori 2013-2016 aldira % 25eko edo hortik gorako zifra baino txikiagoa izan zen, baina 2017an erregistratutako % 23,4ra iritsi zen berriro.



Bazterketa-egoeran dauden biztanleen aldeko ekintzen finantzatzeko ekarpen pribatuak suspertze handia izan zuen 2015-2016 aldian: % 18,71 egin zuen gora. Baina 2016-2017 aldian kontrako prozesua izan zuen, eta  $-\% 15,10$  egin zuen behera gastu horretan. Ekarpene pribatua berriro suspertu zen 2017-2018 aldian, eta % 13,38 egin zuen gora. Baina beste beherakada garrantzitsu bat izan zuen 2018. eta 2019. urteen artean,  $-\% 12,35$ . Joera hori erakunde publikoen finantzaketak denbora-tarte horretan izan zuen igoeraren erabat kontrakoa da. Testuinguru horretan, finantzaketa pribatuaren pisu erlatiboak 2017ko % 12,0tik 2018ko % 12,5era gora egin ondoren, maila baxuenetara iritsi zen 2019an (% 9,9), eta, 2012tik lehen aldiz, % 10eko atalasearen azpitik kokatu zen. Hortaz, sektorearen finantzaketan zuen partaidetza 2012ko % 16,7tik urrun geratu zen. Gorakada puntual batzuk tartekatuta, bereziki 2015eko % 13,1 eta 2016ko % 14,7, ekarpen pribatuak sektore honetan izan duen beheranzko joera argi sendotu zen 2012. eta 2019. urteen artean.

### Erabiltzaileen ekarpenaren pisu espezifikoak

17. taulak erakusten duen bezala, erabiltzaileek arretaren finantzaketan duten partaidetzaren datuek alde nabarmenak zituzten oraindik zentro edo zerbitzu motaren arabera.

**17. taula.**  
**Erabiltzaileek gizarte-zerbitzu eta -zentroetako finantzaketan duten parte-hartzea zentro/zerbitzu motaren arabera. 2016tik 2019ra (finantzaketa osoaren %-a)**

	2016	2017	2018	2019
<b>Zerbitzu mota</b>	<b>%</b>	<b>%</b>	<b>%</b>	<b>%</b>
Adinekoentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	47,0	47,0	48,4	46,6
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	12,5	11,7	11,9	11,5
Adingabeentzako egoitza-zentroak	0,0	0,0	0,0	0,0
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak	0,3	0,1	0,1	0,1
Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu, harrera eta egoitza-zentroak	3,7	3,5	3,2	3,1
<b>EGOITZA-ZENTROAK</b>	<b>35,7</b>	<b>35,3</b>	<b>36,0</b>	<b>34,3</b>
Adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak.	23,0	24,1	24,8	22,9
Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak	7,4	10,8	10,6	10,6
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako beste eguneko zentroak	6,2	3,4	3,9	5,3
Adingabe/familiarentzako eguneko arreta	0,0	0,0	0,0	0,0
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	6,3	2,6	1,9	2,6
<b>EGUNEKO ZENTROAK</b>	<b>13,3</b>	<b>13,3</b>	<b>13,8</b>	<b>13,7</b>
<b>BESTE ZENTRO ETA ZERBITZU BATZUK</b>	<b>13,7</b>	<b>14,4</b>	<b>14,5</b>	<b>13,3</b>

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika  
Oharra: Ez dira sartu Tutoretza-fundazioak Beste zentro eta zerbitzuen multzoan.

2019an, erabiltzaileek adineko pertsonentzako egoitza-zentroen finantzaketan zuten partaidetzaren garrantzia nabarmentzen zen oraindik ere. Halako zentroetan, erabiltzaileen ekarpen ekonomikoak gastu osoaren % 46,6 finantzatu zuen 2019an.

Baina ez zen izan ordura arte adinekoentzako egoitzetan izandako proportziorik handiena. 2012ko eta 2013ko % 45,8-45,9ko ehunekoetatik abiatuta, proportzio hori % 47ra iritsi zen 2016-2017 aldian, eta % 48,4ra, 2018an. Partaidetzaren ehunekoak 2018. eta 2019. urteen artean izan zuen beherakada 2012tik erregistratutako lehen beherakada esanguratsua izan zen, izatez, eta 2014-2015 aldiko % 46,7-46,8 mailetara itzuli zen.

Egoitzen arlokoa bezain nabarmena ez bazen izan ere, 2019an erabiltzaileen partaidetza % 22,9 izan zen adinekoentzako eguneko laguntza-zentroetan. 2012. eta 2013. urteen artean % 21,2tik % 23,4ra pasatu ondoren, proportzioa % 22ra jaitsi zen 2014an. Harrezkero, 2016an % 23ra igo zen; 2017an, % 24,1era; eta 2018an gehieneko kopurua osatu zen, hots, % 24,8. Egoitza-zentroetan bezala, kasu honetan ere nabarmen behera egin zuen azken urtean partaidetza horrek, 2018ko % 24,8tik 2019ko % 22,5era, eta 2015eko % 22,6tik hurbil kokatu zen.

Erabiltzaileek finantzaketan egiten zuten ekarpena askoz txikiagoa izan ere eta, gainera, beheranzko joera zuen desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetan. 2015ean % 13,8 izan ondoren –2013ko % 13,5 baino handiagoa–, 2016an berriro murriztu zen % 12,5era; 2017an, % 11,7-11,9ra, eta 2019an, % 11,5era. Azken hau, proportziorik txikiena izan zen 2012az geroztik.

Beheranzko dinamika hori 2016ra arte ere izan zen desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan, eta minimora iritsi zen urte hartan % 7,4koa. 2017an, ordea, gora egin zuen erabiltzaileek finantzaketan zuten partaidetzak, eta % 10,8ra iritsi zen. Maila hori mantendu egin zen (apur bat beherantz bada ere) 2018an eta 2019an: % 10,6. Hori dela eta, 2019ko proportzioa oraindik ere 2014ko eta 2015eko % 10,2-10,3 mailetatik gora egon zen.

Erabiltzaileen ekarpenaren azken urteetako goranzko joera desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonentzako gainerako eguneko zentroetan ere ikusi zen. Kasu horretan, 2014ko % 2,4tik 2016ko % 6,2ra gora egin ondoren, ekarpena % 3,4ra jaitsi zen 2017an, baina gora egiten hasi zen 2018an, % 3,9ra. Joera hori mantendu egin zen 2018-2019 aldian eta % 5,3 izan zen ekarpena azken urte horretan.

2018-2019 aldiko goranzko joera hori bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroen erabiltzaileen kasuan ere eman zen, baina partaidetzaren gorakada motel batekin. Zehatzago esanda, erabiltzaile horien ekarpena 2013ko % 2,6tik 2016ko % 6,3ra handitu ondoren, 2017ko % 2,6ko partaidetzarekin 2013ko parametroetan kokatu zen berriro. Eta 2018an berriro egin zuen behera, % 1,9ra. Erabiltzaileen ekarpen-maila baxuena izan zen 2012az geroztik, baina 2019an apur bat gora egin zuen, % 2,6ra, eta 2013ko eta 2017ko mailen antzekoetan kokatu zen.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitzetan eta harrera-zentroetan, 2015. eta 2016. urteen artean izandako igoerak, % 3tik % 3,7ra, sendotu egin zuen 2014ko % 2,4 eta gero finantzaketan izandako nolabaiteko suspertzeko joera, eta gehiago hurbildu zen 2012ko eta 2013ko balioetara (% 3,7 eta % 3,9). 2017ko % 3,5 eta 2019ko % 3,1era jaitsi ondoren, partaidetzak, motel bada ere, behera egiteko joera berreskuratzea eragin zuen.

Beste egoitza-zentro edo eguneko zentro batzuetan, eta, bereziki, adingabe, gazte, familia eta emakumeen arloetan, oraindik ere ia nulua izan zen erabiltzaileen partaidetza 2019an.

Egoitza-zentroak eta eguneko zentroak ez diren beste zentro eta zerbitzu batzuetan, berriz, partaidetza % 13,7koa izan zen 2016an, eta 2017an eta 2018an % 14,4-14,5era egin zuen gora. 2019an, ordea, aldatu egin zen joera eta erabiltzaileen ekarpena % 13,3ra jaitsi da, 2016ko mailetatik hurbil.

Erabiltzaileek zentro eta zerbitzuen finantzaketan zuten partaidetza desberdina izan zen lurralde historikoaren eta zentro edo zerbitzu motaren arabera, 18. taulan ikus daitekeen bezala. Erabiltzaileek parte-hartzea handiagoa zuten arloak aintzat hartuta ere, alde nabarmenak izan ziren.



Adinentzako egoitza-zentroetan, 2019an Bizkaian handiagoa izan zen erabiltzaileen partaidetza-ehunekoa: % 50,7. Gipuzkoarena eta Arabarena, aldiz, % 44,8 eta % 38,3, hurrenez hurren.

Hiru lurraldeetan 2017-2018 aldian izandako hazkunde orokorrarekin alderatuta, Bizkaian, 2018-2019 aldian, nabarmen behera egin zuen ehunekoak, 2018ko % 54,6tik 2019ko % 50,7ra (2017ko % 52,7ko ehunekoaren azpitik). Beherakada motelagoa izan zen Araban: 2018ko % 38,7tik 2019ko % 38,3ra (2017an izandako erregistro bera). Gipuzkoan, aldiz, apur bat gora egin zuen, 2018ko % 43,7tik 2019ko % 44,8ra, jada 2017an ikusitako joeraren bidetik (% 42,8). Araban eta, bereziki, Gipuzkoan, 2019an erabiltzaileen partaidetza erlatiboak gainditu egin zuen 2012koa (% 37,0tik % 38,3ra eta % 39,3tik % 44,8ra, hurrenez hurren). Bizkaian, berriz, kontrakoa gertatu zen (2019an, % 50,7; 2012an, % 53,2).

### 18. taula.

#### Erabiltzaileek gizarte-zerbitzu eta -zentroetako finantzaketan duten parte-hartzea zentro/zerbitzu motaren arabera eta lurralde historikoen arabera. 2018 eta 2019 (finantzaketa osoaren %)

	2018				2019			
	EAE	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Zentro/Zerbitzu mota	%	%	%	%	%	%	%	%
Adinekoentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	∞	38,7	43,7	54,6	46,6	38,3	44,8	50,7
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	11,9	14,6	14,6	9,1	11,5	13,8	16,0	7,4
Adingabeentzako egoitza-zentroak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak	0,1	0,0	0,0	0,1	0,1	0,0	0,0	0,1
Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu, harrera eta egoitza-zentroak	3,2	2,3	2,1	4,5	3,1	1,9	1,4	5,3
<b>EGOITZA-ZENTROAK</b>	<b>36,0</b>	<b>30,0</b>	<b>32,0</b>	<b>40,7</b>	<b>34,3</b>	<b>29,5</b>	<b>32,0</b>	<b>37,4</b>
Adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak.	24,8	24,0	25,4	24,6	22,9	21,5	25,5	20,9
Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak	10,6	7,1	12,5	9,8	10,6	3,6	12,1	11,0
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako beste eguneko zentroak	3,9	3,4	1,3	5,5	5,3	2,7	1,4	9,6
Adingabe/familientzako eguneko arreta	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	1,9	0,0	1,1	2,5	2,6	0,0	2,5	2,8
<b>EGUNEKO ZENTROAK</b>	<b>13,8</b>	<b>13,4</b>	<b>15,6</b>	<b>12,5</b>	<b>13,7</b>	<b>12,1</b>	<b>15,6</b>	<b>12,8</b>
<b>BESTE ZENTRO ETA ZERBITZU BATZUK</b>	<b>14,5</b>	<b>41,4</b>	<b>2,6</b>	<b>7,1</b>	<b>13,3</b>	<b>31,5</b>	<b>3,5</b>	<b>7,8</b>

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika  
Oharra: Ez dira sartu Tutoretza-fundazioak Beste zentro eta zerbitzuen multzoan.

Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroen arloan, ordea, Bizkaiko erabiltzaileek izan zuten finantzaketa-partaidetzarik txikiena: % 7,4, 2019an. Kopuru txikia Arabako % 13,8ko eta Gipuzkoako % 16,0ko partaidetzarekin alderatuta.

Bai Araban bai Bizkaian, ehuneko horiek erakusten zuten 2015-2017 aldian izandako beheranzko joera, 2017. eta 2018. urteen artean etendakoa, berreskuratzen ari zela. Araban, 2015etik 2017ra % 15,1etik % 14,4ra jaitsi ondoren, partaidetzak apur bat gora egin zuen 2018an, % 14,6ra. Gero, 2019an, % 13,8ra jaitsi zen. Bizkaiak antzeko joera izan zuen: 2015-2017 aldian % 10,4tik % 8,7ra jaitsi zen; 2018an apur bat gora egin zuen, % 9,1era, eta, 2019an, behera, % 7,4ra. Orokorrean hartuta, beraz, 2016-2019 aldiak beheranzko joera ezarri zuen Araban eta Bizkaian, aztertutako zentroetako erabiltzaileen ekarpenari dagokionez.

Gipuzkoa izan zen lurralde bakarra non erabiltzaileek desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroen finantzaketarako egindako ekarpenak goranzko joera baitzuen 2019an. Joeraren aldaketa nabaria zen. Izan ere, 2015-2017 aldian hiru lurraldeetan ikusitako partaidetzaren beheranzko joera orokorra Gipuzkoan baino ez zen mantendu 2018an. Lurralde horretan erabiltzaileen partaidetzak behera egin zuen, etenik gabe, 2015eko % 18,6tik 2018ko

% 14,6ra. 2019ko gorakadak % 16ra eramán zuen, eta, 2018ko erregistroa gáinditzeaz gainera, 2016koa (% 15,4) ere gáinditu zuen.

2012arekin alderatuta, desgaitasuna edo gaixotasuna dutenentzako egoitzetan, Gipuzkoako erabiltzaileen partaidetza hurbildu egin zen, baina apur bat txikiagoa izan zen (% 16,0; 2012an, % 16,6 izan zen). Egoera nabariagoa izan zen Bizkaian: 2019an, % 7,4, 2012ko % 8,7tik urrun. Arabari dagokionez, 2018tik 2019ra izandako jaitsierak 2012ko mailetan kokatu zen (% 13,8tik).

Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitza-, harrera- eta egoitza-zentroetako erabiltzaileen partaidetza mugatu egin zen, eta beheranzko joera izan zuen bai Araban bai Gipuzkoan. Hala, Araban etengabe murriztu zen partaidetza hori, 2016ko % 3,3tik 2019ko % 1,9ra. Gipuzkoan ere beheranzko joera izan zuen: 2015eko % 2,7tik 2019ko % 1,4ra. Bizkaian, ordea, bilakaera aldakorragoa izan zen. 2015etik 2017ra % 3,4tik % 5,3ra igo ondoren, erabiltzaileen partaidetzak behera egin zuen, modu nabarmenean, eta 2018an % 4,5ekoa baino ez zen izan. Hala ere, 2019an, aipatu proportzioak berriz gora egin zuen, % 5,3ra.

Adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan, 2019ko ekarpen erlatiborik handiena Gipuzkoan izan zen berriro: % 25,5. Beste bi lurraldeen gáinetik: Bizkaian, % 21,5; Araban, % 20,9. Dena den, 2017tik aurrera, aldatu egin zen Gipuzkoako partaidetzaren goranzko joera: erabiltzaileen partaidetza 2015eko % 23,4tik 2017ko % 27,5era igo zen; gero, beherakada nabarmena izan zuen, 2018ko % 25,4ra, eta horretan egonkortu zen 2019ko % 25,5eko ekarpena. Araban joera-aldaketa hori lehenago ere ikusi zen, 2012ko % 20,8tik 2016ko % 27ra gora egin ondoren. Baina partaidetzaren murrizketa gogorragoa eta luzeagoa izan zen lurralde horretan, 2017ko % 25,1etik 2018ko % 24ra, eta, joera areagotuta, 2019ko % 21,5era.

Aitzitik, Bizkaian erabiltzaileek adineko pertsonentzako eguneko zentroetan egindako ekarpenak goranzko joera berreskuratu zuen 2017tik 2018ra. Hala, 2015etik 2017ra % 18,4 eta % 19,5 arteko mailetan egon ondoren –maila horretan egon zen lurraldea 2012an ere–, partaidetza horrek gora egin zuen bat-batean 2018an, % 24,6ra. Hala ere, joera nabarmen aldatu zen beherantz 2019an, eta % 20,9ra jaitsi zen. Ehuneko hori 2012ko edo 2015eko % 19,4ko ehunekotik gorakoa izan zen.

Desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroei dagokienez, Araba izan zen erabiltzaileen partaidetza erlatibo txikieneko lurraldeetako bat: 2019an, % 3,6, 2017ko % 8,5 edo 2018an % 7,1eko balioen azpitik argi eta garbi. Bizkaian, 2017ko % 10,1etik 2018ko % 9,8ra jaitsi ondoren, partaidetzak gora egin zuen 2019an, % 11,0ra. Gipuzkoari dagokionez, 2018ko % 12,5etik 2019ko % 12,1era jaitsi ondoren –2017ko maila bera zen–, erabiltzaileen ekarpenik handiena izan zuen lurraldea izan zen.

Halako zentroetan, Gipuzkoako erabiltzaileen % 12,1eko ekarpena ez zen oso urrun egon 2012ko % 12,6tik, baina nahiko urrun zegoen 2015ean lortutako % 15etik. Bizkaiko 2019ko % 11ko ehunekoak, aldiz, aise gáinditu zuen 2012ko % 5,0. Bizkaiko goranzko joerak hurbildu egin zituen bi lurraldeen egoerak. Araba nabarmen azpitik egon zen, erabiltzaileen ekarpena % 3,6 izan baitzen, hau da, 2012ko % 7,6ko ehunekoaren azpitik.

Desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonentzako gainerako eguneko zentroetan, erabiltzaileen partaidetzaren beheranzko joera sendotu zen 2017-2019 aldian Araban eta Gipuzkoan (% 5,4tik % 2,7tik eta % 4,8tik % 1,4ra, hurrenez hurren). Bizkaian, ordea, mantendu egin zen goranzko joera, 2017ko % 2,0tik, 2018ko % 5,5era eta 2019ko % 9,6ra. Bilakaera horrek mailarik altuenetan kokatzen zuen lurralde hori zentro mota horretako erabiltzaileen partaidetzari dagokionez.



Gizarteratzeko premiak dituzten pertsonentzako eguneko zentroetan, partaidetzaren zifrek behera egin zuten kasu guztietan 2016tik aurrera, eta 2018ko mailak oso txikiak izan ziren. 2018. eta 2019. urteen artean gora egin bazuen ere, erabiltzaileek halako zentroak finantzatzeko egindako ekarpenaren pisua oso txikia izan zen 2019an: % 0, Araban; % 2,5, Gipuzkoan, eta % 2,8, Bizkaian. Lurralde horretan proportzioa urrun egon zen 2016ko % 8,5etik.

Gainerako zentro eta zerbitzuetan, erabiltzaileen ekarpen erlatiboa oso garrantzitsua izan zen Araban, eta joera gorakoa izan zen 2018ra arte. Hala, 2012ko % 5,5etik, partaidetza 2015eko % 30,7ra igo zen. Gero, 2016ko % 37,4ra, 2017ko % 38,4ra, eta 2018ko % 41,4ra. Baina proportzioak behera egin zuen 2019an, % 31,5era.

2015-2016 aldian jaitsi ondoren, parte-hartze horrek berriz ere gora egin zuen 2019an beste lurraldeetan. Hala ere, 2019ko partaidetzaren zifrak Arabakoak baino askoz txikiagoak izan ziren: Gipuzkoa, % 3,5 (2015eko % 9,3tik urrun) eta Bizkaian, % 7,8 (2012ko % 14,2ko balioaren azpitik).

### **4.3. Gizarte-prestazioen finantzaketa**

19. taulan daude jasota EAEko gizarte-prestazioen finantzaketari buruzko oinarrizko datuak. Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiari eginiko ekarpen mugatuaren kasuan ez bezala, Eusko Jaurlaritza izan zen prestazio ekonomiko hauen finantzaketaren protagonista nagusia. 2013. eta 2018. urteen arteko % 84,7-85,2 eta 2012ko % 86,9ko balioen ekarpen egonkorrekin alderatuta, 2019ko % 83,2ko balioak jaitsiera nabarmena ekarri zuen.

Foru-aldundiek gizarte-zerbitzuen gastuaren % 12,8 hartu zuten 2019an. Aldaketa nabarmena zen ere. Hala, 2012an % 10,8n kokatu ondoren, partaidetzak gora egin zuen 2013. eta 2016. urteen artean, % 11,6-11,8 balioen artean, eta, gero, berriro egin zuen behera 2017-2018 aldian, % 11,2-11,3ra. 2019ko % 12,8ko balioak, beraz, aldaketa bat ekarri zuen aurretiaz izandako beheranzko joeran, eta foru-ekarpena mailarik altuenetan kokatu zen 2012tik ordura arte.

Udal-ekarpena oso murriztua izan zen 2019an (% 3,0), baina 2018ko % 2,7koa gainditu zuen. Izan ere, 2016. eta 2018. urteen artean udalek prestazioen finantzaketari egindako ekarpenean izandako jaitsierekin alderatuta (-% 3,17, 2016-2017 aldian; -% 12,01, 2017-2018 aldian), 2018-2019 aldian udalek finantzatutako kopuruak gora egin zuen, % 7,01, hau da, 2015-2016 aldian baino gehiago (% 6,02).

Sektore pribatuak gizarte-prestazio ekonomikoen gastuari egindako ekarpena oso txikia izan zen, % 1 baino ez 2019an, eta 2012tik aurrera izandako proportziorik altuena izan zen. Edonola ere, finantzaketa horrek gora egin zuen 2016tik 2019ra, eta 2012tik aurrerako baliorik handiena lortu zen termino nominaletan (2019an, 5,89 milioi; 2012an, berriz, 5,10 milioi).

**19. taula.**  
**Gizarte-prestazioetako gastu arrunta (familiantzako transferentziak) finantzabidearen arabera. 2016-2019 (Datu absolutuak, % bertikalak eta bariazioa 2018-2019 %-tan)**

	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	Bariazioa 2018- 2019 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%-tan
<b>Gastu mota</b>									
<b>LISMI/KGP/GOF</b>	<b>61.898.222</b>	<b>63.130.513</b>	<b>66.057.215</b>	<b>69.260.358</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>4,85</b>
Foru-finantzaketa	61.898.222	63.130.513	66.057.215	69.260.358	100	100	100	100	4,85
<b>DBE/EPO</b>	<b>492.333.507</b>	<b>483.662.132</b>	<b>453.562.792</b>	<b>422.486.653</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-6,85</b>
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	492.333.507	483.662.132	453.562.792	422.486.653	100	100	100	100	-6,85
<b>FAMILIA-PRESTAZIOAK</b>	<b>55.819.362</b>	<b>49.747.242</b>	<b>47.396.958</b>	<b>47.682.344</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>0,60</b>
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	55.722.125	49.683.788	47.332.057	47.621.403	100	99,9	99,9	99,9	0,61
Udal-finantzaketa	97.237	63.454	64.901	60.941	0,2	0,1	0,1	0,1	-6,10
<b>BESTE BATZUK (GLL eta GKE barne)</b>	<b>62.091.179</b>	<b>60.003.760</b>	<b>52.577.149</b>	<b>57.763.934</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>9,87</b>
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	23.461.453	25.517.497	26.980.576	26.818.910	37,8	42,5	51,3	46,4	-0,60
Foru-finantzaketa	16.798.131	10.692.673	3.700.014	7.209.973	27,1	17,8	7,0	12,5	94,86
Udal-finantzaketa	19.547.571	18.958.434	16.671.719	17.849.103	31,5	31,6	31,7	30,9	7,06
Finantzaketa pribatua	2.284.024	4.835.156	5.224.840	5.885.948	3,7	8,1	9,9	10,2	12,65
<b>GIZARTE-PRESTAZIOAK.</b>	<b>672.142.270</b>	<b>656.543.647</b>	<b>619.594.114</b>	<b>597.193.289</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-3,62</b>
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	571.517.085	558.863.417	527.875.425	496.926.966	85,0	85,1	85,2	83,2	-5,86
Foru-finantzaketa	78.696.353	73.823.186	69.757.229	76.470.331	11,7	11,2	11,3	12,8	9,62
Udal-finantzaketa	19.644.808	19.021.888	16.736.620	17.910.044	2,9	2,9	2,7	3,0	7,01
Finantzaketa pribatua	2.284.024	4.835.156	5.224.840	5.885.948	0,3	0,7	0,8	1,0	12,65

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Prestazioak xehetasun handiz aztertzen baditugu, foru-aldundiek oso-osorik finantzatu zituzten LISMI/GOF/KPG prestazioak 2019an. Eusko Jaurlaritzak, bestalde, DSBE eta EPO mantentzeko behar zen ekarpen guztia hartu zuen bere gain. Finantzaketa autonomikoa % 99,9koa izan zen familiantzako prestazioei dagokienez, eta udalena % 0,1ekoa baino ez zen izan.

Gainerako prestazioen (GLLak, gizarte-urgentziako laguntzak eta antzeko beste prestazio batzuk, bai eta erakunde pribatuen ekarpenak ere) azterketa bereziki interesgarria da, gizarte-larrialdi edo -urgentziekin lotutako alderdietan edo diru-sarrerak bermatzeko sistema orokorra osatzeko jardueretan oinarritzen baita hein handian.

Era askotako finantzaketa-iturriak badituzte ere, halako prestazioetan asko sinplifikatu zen partaidetza, eta bi finantzaketa-iturrik baino ez zuten izan % 15etik gorako ekarpena 2019an.

Oraindik ere administrazio autonomikoa izan zen finantzaketa-iturri nagusia 2019an, eta aztertutako prestazioetan egindako gastuaren % 46,4 hartu zuen bere gain. Prestazio horien finantzaketan izandako partaidetza autonomikoa goranzko joera izan zuen 2014ko % 34,4ko eta 2015eko % 35,3ko balioetatik, eta areagotu egin zen 2016tik aurrera, % 51,3ra iritsita 2018an, hau da, berriro gainditu zuen 2012ko % 43,9ko balioa. 2019ko % 46,4ko balioa 2012ko erregistroaren gainetik egon zen ere, eta 2013tik 2017ra bitartean izandakoak gainditu zituen ere, baina jaitsiera nabarmena zen 2018ko % 51,3ko balioarekin alderatuta.

Prozesu horren azpian prestazio horietan izandako ekarpen autonomikoa joera-aldaketa bat zegoen: -% 0,60 egin zuen behera 2018tik 2019ra, eta ez zeterren bat 2012tik aurrera gastuak izandako goranzko joerarekin eta 2015etik aurrera izandako hazkunde handiekin. Hala, prestazio horietan egindako ekarpenaren gehikuntza, GLLetan metatuta, % 7,04ra iritsi zen 2015-2016





aldian, eta % 8,76ra 2016-2017 aldian. 2017-2018 aldian hazkundera apur bat moteldu bazen ere, % 5,73ko izan zen.

Bigarren finantzaketa-iturri nagusia udalek eta mankomunitateek osatu zuten, eta prestazio osagarri hauen finantzaketaren % 30,9 hartu zuten administrazio horiek 2019an. 2014tik 2015era izandako beherakadaren ostean (% 30,2tik % 29,8ra), 2012tik aurrerako proportziorik handiena lortu zen 2018an, % 31,7, urte hartako % 21,2 baino askoz handiagoa izan baitzen. Hala ere, mailak nahiko egonkorak izan ziren 2016ko % 31,5eko eta 2017ko % 31,6ko balioei dagokienez. Ekarpenean autonomikoan bezala, 2019an behera egin zuen toki-erakundeek finantzaketan zuten partaidetzak.

Paradoxikoa bada ere, finantzaketari lotutako partaidetzaren beherakada udalek gizarte-larrialdiko edo -urgentziako prestazio osagarri horiei egindako ekarpenak aurretiaz izandako beheranzko joera argia hautsi zen garaian gertatu zen. Hala, 2015-2016 aldian udal-finantzaketak % 5,84 gora egin ondoren, 2016-2017 aldian lehenengo beherakada erregistratu zen, -% 3,01ekoa, eta areagotu egin zen 2017-2018 aldian, -% 12,06 egin baitzuen behera. 2018. eta 2019. urteen artean, ordea, gorantz egin zuen udalek prestazioen gastuari egindako ekarpenak, % 7,06.

Izatez, udalen ekarpenaren garrantzi erlatiboaren galera foru-aldundien finantzaketaren suspertzeari lotzen zitzaion, finantzaketa horrek gora egin baitzuen aurretiaz jaitsiera handiak izan ondoren. Aldundien kasuan, ekarpenak behera egin zuen jada 2015-2016 aldian, -% 1,27; baina geroago gehiago egin zuen behera: 2016-2017 aldian, -% 36,35; eta 2017-2018 aldian -% 65,40. Egoera hori islatu zen foru-erakundeek gizarte-prestazio osagarri horien finantzaketan zuten partehartzearen jaitsiera nabarmenean. Erreferentziako proportzioak bilakaera hau izan zuen: 2014ko % 28,4tik 2015-2016ko % 27tik apur bat goragoko balioetara, 2017ko % 17,8ra -2012ko % 21,5eko balioaren azpitik-, eta 2018an % 7 baino ez zen izan.

2019an egindako 7,21 milioi euroko ekarpena 2012az geroztik izandako bigarren erregistrorik baxuena bazen ere, % 94,86ko igoera zen 2018an egindako 3,70 milioi euroko ekarpenarekin alderatuta. Hala, aldundiek finantzaketan zuten partaidetzak gora egin zuen 2018ko % 7,0tik 2019ko % 12,5era.

Udalen ekarpenak 2018tik 2019ra izan zuen galera lotuta zegoen ere gizarte-larrialdiko edo -urgentziako prestazio ekonomikoen gastuan finantzaketa pribatuak izandako hazkunde erlatiboarekin. Hala, toki-erakundeek finantzaketako gastuak % 7,06 egin zuen gora; hirugarren sektoreko erakunde pribatuen gastuak, berriz, % 12,65 egin zuen gora aldi horretan. Ekarpenean autonomikoa behera egiten ari zen egoeran, hautemandako dinamikak islatzen zuen erakunde pribatuek gainerako prestazioen arloko gastua mantentzeko egindako finantza-ekarpenak goranzko joerari eusten ziola.

Dinamika horrek aldaketa kualitatibo azpimarragarria sendotu zuen, haien dimentsioa oraindik bigarren mailakoa bazen ere. Babesaren eremu pribatuan, aztertutako prestazioen finantzaketaren partaidetza nabarmen murriztu zen 2012tik (% 13,4) 2014ra (% 6,9). 2015ean, behin-behinean, zertxobait handitu zen, % 7,5era, baina 2016an berriro egin zuen behera eta % 3,7ko minimora iritsi zen. 2017an, ordea, erakunde pribatuen partaidetzak gora egin zuen, % 8,1era. Eta goranzko joera sendotu egin zen 2018an, % 9,9ra iritsita. Proportzio hori berriro gainditu zen 2019an, % 10,2ko balioarekin. Proportzio hori 2012an baino ez zen gainditu, urte horretan % 13,4koa izan baitzen.

#### 4.4. Foru-aldundien parte-hartze konparatua, lurralde historikoen arabera

20 taulan egiazta daitekeenez, Araba 2019an berriro izan zen biztanleko foru-gasturik handiena (edo foru-aldundiek kudeatutako gasturik handiena) izan zuen lurraldea, gizarte-zerbitzu eta -prestazioetan<sup>11</sup>. 538,55 euro gastatu zituen biztanleko, hau da, Gipuzkoak gastatuko 504,14 eurokoa baino handiagoa izan zen. Bizkaia atzean geratu zen, nabarmen, 451,41 euroekin.

2018. eta 2019. urteen artean, Arabak sendotu egin zuen bere kokapena biztanleko egindako gastuari zegokionez: % 3,1 egin zuen gora, Gipuzkoak baino gehiago, % 2,8 egin baitzuen gora. Bestalde, Bizkaiak murriztu egin zuen beste foru-aldundiekin zuen aldea, biztanleko gastuan hazkunde handiagoa izan baitzuen aztertutako aldirian: % 7,2.

**20. taula.**  
**Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako foru-gastu arrunta, lurralde historikoen arabera. 2018-2019**  
**(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2018-2019 aldirian %-tan)**

		2018	2019	2018	2019	Bariazioa 2018/2019 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
<b>Gastu mota eta lurralde historikoa</b>						
<b>Gastu arrunta guztira</b>	<b>EAE</b>	<b>1.000.563.241</b>	<b>1.054.095.626</b>	<b>458,88</b>	<b>481,76</b>	<b>5,0</b>
	Araba	169.984.145	176.626.784	522,20	538,55	3,1
	Gipuzkoa	350.136.082	361.570.122	490,20	504,14	2,8
	Bizkaia	480.443.014	515.898.720	421,20	451,41	7,2
<b>Gizarte-zerbitzuak: erdigunea</b>	<b>EAE</b>	<b>930.806.012</b>	<b>977.625.295</b>	<b>426,89</b>	<b>446,81</b>	<b>4,7</b>
	Araba	160.494.979	166.461.634	493,04	507,56	2,9
	Gipuzkoa	328.165.076	335.807.952	459,44	468,22	1,9
	Bizkaia	442.145.957	475.355.709	387,62	415,94	7,3
<b>Gizarte-prestazioak</b>	<b>EAE</b>	<b>69.757.229</b>	<b>76.470.331</b>	<b>31,99</b>	<b>34,95</b>	<b>9,2</b>
	Araba	9.489.166	10.165.150	29,15	30,99	6,3
	Gipuzkoa	21.971.006	25.762.170	30,76	35,92	16,8
	Bizkaia	38.297.057	40.543.011	33,57	35,48	5,7

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika  
Erkidegoz gairako erakundeek egindako barne

Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian, foru-gastua (edo batez ere foru-aldundiak kudeatutako gastua) biztanleko 507,56 eurokoa izan zen Araban 2019an, Gipuzkoako 468,22 euroko gastua baino 39,33 euro gehiago. Bizkaiko gastua oso atzetik egon zen, biztanleko 415,94 eurokoa izan baitzen.

Hala ere, 2018-2019 aldirian, Bizkaiak nabarmen murriztu zuen biztanleko egindako foru-gastuan beste lurralde historikoekin zuen aldea (Arabarekin -105,42 euroko aldea izatetik -91,62 eurokoa izatera pasatu zen; Gipuzkoaren kasuan, berriz, 71,82 eurokoa izatetik 52,28 eurokoa izatera).

<sup>11</sup> Txostenaren atal honetako zenbait taulatan ikusten dira batera foru-erakundeek gastua eta, haren ondoan, batez ere foru-aldundiek kudeatzen duten erkidegoz gairako erakundeek gastua. Helburua da erkidegoz gairako transferentzien atzerapenen kudeaketak gastuaren norabidean izan ditzakeen ondorioak kontrolatzea, arrazoi horrekin lotutako beharrek nabarmenak izan baitziren zenbait lurralde historikotan (ikusi 8. oharra). Gastu bateratua erakusten duten taulak 20.a eta 22.a dira. Gainerakoetan, eragin zuzenik jasaten ez dutenez, foru-erakundeek gastuan zentratu da hurbilketa, gastu hori zentsu hertsian hartuta.



Gizarte-ekintzaren arlo honetan Bizkaian biztanleko egindako gastuak 2018-2019 aldian % 7,3 gora egin zuelako izan zen hori. Balio hori Arabak izandako % 2,9ko igoeraren gainera zegoen, baita Gipuzkoako % 1,9ko igoeraren gainera ere.

Gizarte-prestazio ekonomikoen arloan, Gipuzkoa berriro izan zen biztanleko foru-gasturik handiena egin zuen lurraldea 2019an: 35,92 euro biztanleko. Beste bi lurraldeetan baino gehiago: Bizkaian, 35,48 euro, eta Araban, 30,99. 2018-2019 aldian, prestazioetan biztanleko egindako gastuak % 16,8 egin zuen gora Gipuzkoan, hau da, Araban eta Bizkaian izandako igoeraren bikoitza baino gehiago (% 6,3 eta % 5,7, hurrenez hurren).

Foru-gastuaren bilakaerari buruzko datuetan sakonduz, 21. taulak jasotzen du foru-erakundeek gizarte-zerbitzuen egituraren egindako gastu arruntaren bilakaera, lurralde historikoen arabera, 2018-2019 aldian.

**21. taula.**  
**Gizarte-zerbitzuen egiturako foru-gastu arrunta, lurralde historikoen arabera. 2018-2019**  
**(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2018-2019 aldian %-tan)**

		2018	2019	2018	2019	Bariazioa 2018/2019 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
<b>Gastu mota eta lurralde historikoa</b>						
<b>EGITURA ETA EMAITZA OROKORRA</b>	<b>EAE</b>	<b>11.006.808</b>	<b>-22.233.347</b>	<b>5,05</b>	<b>-10,16</b>	<b>-301,3</b>
	Araba	4.758.422	-1.316.478	14,62	-4,01	-127,5
	Gipuzkoa	-8.529.556	-14.309.270	-11,94	-19,95	67,1
	Bizkaia	14.777.942	-6.607.599	12,96	-5,78	-144,6
<b>Oinarrizko gizarte-zerbitzuak</b>	<b>EAE</b>	<b>10.151.561</b>	<b>10.402.836</b>	<b>4,66</b>	<b>4,75</b>	<b>2,1</b>
	Araba	3.697.703	4.053.043	11,36	12,36	8,8
	Gipuzkoa	1.135.201	497.668	1,59	0,69	-56,3
	Bizkaia	5.318.657	5.852.125	4,66	5,12	9,8
<b>Gizarte-larrialdietarako zerbitzuak</b>	<b>EAE</b>	<b>811.353</b>	<b>835.273</b>	<b>0,37</b>	<b>0,38</b>	<b>2,6</b>
	Araba	247.443	247.443	0,76	0,75	-0,7
	Gipuzkoa	563.910	587.830	0,79	0,82	3,8
	Bizkaia	0	0	0,00	0,00	0,0
<b>Zerbitzu tekniko espezializatuak</b>	<b>EAE</b>	<b>77.174.361</b>	<b>83.155.559</b>	<b>35,39</b>	<b>38,00</b>	<b>7,4</b>
	Araba	9.837.006	11.210.841	30,22	34,18	13,1
	Gipuzkoa	23.179.613	23.910.222	32,45	33,34	2,7
	Bizkaia	44.157.742	48.034.496	38,71	42,03	8,6
<b>EGITURA ESPEZIFIKOA</b>	<b>EAE</b>	<b>88.137.275</b>	<b>94.393.668</b>	<b>40,42</b>	<b>43,14</b>	<b>6,7</b>
	Araba	13.782.152	15.511.327	42,34	47,30	11,7
	Gipuzkoa	24.878.724	24.995.720	34,83	34,85	0,1
	Bizkaia	49.476.399	53.886.621	43,38	47,15	8,7
<b>EGITURA GUZTIRA</b>	<b>EAE</b>	<b>99.144.083</b>	<b>72.160.321</b>	<b>45,47</b>	<b>32,98</b>	<b>-27,5</b>
	Araba	18.540.574	14.194.849	56,96	43,28	-24,0
	Gipuzkoa	16.349.168	10.686.450	22,89	14,90	-34,9
	Bizkaia	64.254.341	47.279.022	56,33	41,37	-26,6

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Taula horretan egiazta daitekeen bezala, gizarte-zerbitzuen egituran, biztanle bakoitzeko foru-gastuak Araban eta Bizkaia jo zituen mailarik altuenak 2019an: 43,28 eta 41,37 euro, hurrenez hurren. Zifra askoz txikiagoa izan zen Gipuzkoan: 14,90 euro biztanleko.

Hala ere, gastu mota horren bilakaeran eragin handia izan zuen gizarte-zerbitzuen arloaren defizit/superabitean foru-aldundi bakoitzak egindako ekarpenean aldaketa nabarmenak izateak, batez ere gastuaren murrizketa edo hazkunde handiko garaietan; izan ere, halakoak izan ziren EAEn azken urteetan. Horren harira, esan behar da 2016tik aurrera foru-erakundeen egoera oso ezberdina izan zela lurralde historikoaren arabera.

Aldaketa deigarriena Gipuzkoan izan zen. Diru-sarrerak bermatzeko laguntza progresiboki kentzeko prozesuak edo mendekotasunaren estatu-finantzaketan izandako gorabeherek baldintzatuta, baita administrazio publikoen suspertze finantzarioak eraginda ere, 2016-2017 aldian Gipuzkoak bere gain hartu zituen behin-behineko gehikuntza handiak, gastuaren egitura horri lotuta (egitura eta emaitza orokorra): biztanleko 6,25 eurotik 31,83 eurora. Diru-sarrerak bermatzeko laguntza ia erabat kenduta eta finantzaketa-testuinguru normalizatuan, 2017-2018an Gipuzkoako ekarpen garbia positiboa izatetik negatiboa izatera pasatu zen gastu-kontzeptu honetan (azken emaitza garbi onak zituen kudeaketaren isla). Horrela, gastu-egitura horretan 2017ko biztanleko 31,83 euroko gastua 2018an -11,94 euro negatibo izan zen. Euste- eta doikuntza-joera, zeinak superabit finantzarioko emaitza praktikoa izan baitzuten, 2019an ere mantendu zen. Urte horretan biztanleko gastua -19,95 eurokoa izan zen Gipuzkoan, egitura orokorrean.

Emaitza negatiboko finantzaketa-doikuntzako prozesu hori (superabit finantzarioaren isla) 2018. eta 2019. urteen artean Araban eta Bizkaian egitura orokorrean izandako foru-gastuan ere ikusi zen. Hala, Araban egituran eta emaitza orokorrean biztanleko egindako gastuak gora egin zuen 2016tik 2017ra (4,14 eurotik 9,98 eurora), eta, gero, 2018an ere (14,62 euro), baina behera egin zuen 2019an (-4,01).

Bizkaian, bestalde, egiturari eta emaitza orokorrari lotutako gastua nabarmen murriztu zen 2016tik 2017ra. Horrela, kontzeptu horretan egindako gastua 2016an 28,72 eurokoa izan zen; eta 2017an, ordea, -0,17. Kudeaketa-ildo hori antzekoa izan zen Gipuzkoan 2017tik 2019ra. 2017an oinarritzko finantzaketaren normalizazioa sendotuta, 2017-2018 aldian Bizkaian partida hori neurritz handitzeko apustua egin zen: gastua biztanleko 12,96 eurokoa izan zen, hau da, hala, Arabako mailatik hurbil (14,62) Lurralde horrek, ordea, 2018-2019 aldian emaitza negatiboa izan zuen berriro egitura orokorrean biztanleko egindako gastuan: -5,78 euro 2019an. Kasu honetan ere Arabako kopurutik hurbil kokatu zen (-4,01).

Oinarritzko zerbitzuen eta zerbitzu espezializatuen sistema biltzen dituen egitura espezifikoa dagokionez, Arabako foru-erakundeak 2019an lehenengo postuan egon ziren biztanleko gastuan. Arabako gastua 47,30 eurokoa izan zen, beste bi lurraldeen gainetik: Bizkaian, 47,15 euro, eta Gipuzkoan, 34,85.

Egoera hori Araban 2017tik aurrera biztanleko egindako gastuaren hazkundeak izandako suspertze handiaren ondorio zen. 2016-2017 aldian Araban egitura espezifikoa egindako foru-gastuak -% 1,2 behera egin ondoren, 2017tik 2018ra gora egin zuen, % 3,7. Hazkunde-erritmoa ia hirukoiztu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean, % 11,7 egin baitzuen gora, eta beste lurralde historikoek baino hazkunde handiagoa izan zuen.



Bizkaian, 2017-2018 aldian % 2,8 egin zuen gora, eta horrek agerian utzi zuen orduan gastua egonkortzeko borondatea, 2016-2017 aldiko % 80,1eko igoera handiaren ostean. Araban bezala, hazkunde-erritmoa areagotu egin zen Bizkaian 2018-2019 aldian, eta % 8,7 hazi zen, baina Arabako kopuruaren (% 11,7) azpitik geratu zen.

Arabian eta Bizkaian gastuak izandako hazkunde handi horrekin alderatuta, Gipuzkoa egonkor mantendu zen gizarte-zerbitzuen egitura espezifikoa biztanleko egindako gastuan 2018-2019an aldian: % 0,1 egin zuen gora. Beraz, amaitu egin zen aurretiaz Gipuzkoan egitura espezifikoa biztanleko egindako gastuak izandako hazkunde diferentzialeko aroa. Hala, lurralde horretan, partida horrek foru-gastuaren hazkunderi handiena izan zuen 2017tik 2018ra: % 15,1. Eta 2016-2017 aldiko joerari eutsi zion (% 89,3ko), orduan Araban eta Bizkaian izandakoa baino handiagoa.

Arabako foru-erakundeek egitura espezifikoa biztanleko egindako ekarpen orokorra handiagoa izan arren, 2019an Bizkaia izan zen foru-egituraren zerbitzu tekniko espezializatuari lotuta foru-gastu handiena egin zuen lurraldea. Ildo horretan, Bizkaiko 42,03 euroak Gipuzkoako 34,18 euroen eta Arabako 33,34 euroen gainetik kokatu ziren.

2016-2017 aldian, administrazioen hobekuntza finantzarioari esker, baliabideak berriro bideratu ahal izan ziren zerbitzu espezializatuaren partida horretara kostaldeko bi lurraldeetan, eta % 85etik hurbil edo gorago zeuden gehikuntzak izan zituzten. Araba, berriz, -% 5,3 egin zuen behera. Beraz, 2017an, Bizkaia Araba gainditu zuen zerbitzu espezializatuaren egindako gastuan (36,73 euro, eta Araban, 30,11). 2017. eta 2018. urteen artean, era neurritsuagoan gauzatu bazen ere, gastuaren esfortzua mantendu egin zen eta % 5,4 egin zuen gora Bizkaian, eta % 12, berriz, Gipuzkoan. Araban egonkortu egin zen gastu-maila, % 0,4ko gorakada txikia baino ez baitzuen izan. Ondorio nagusia da 2018an, Bizkaia biztanleko egindako 38,71 euroko gastuaren atzetik, Gipuzkoan zerbitzu espezializatuaren biztanleko egindako gastua Arabakoa baino handiagoa izan zela (Gipuzkoakoa 32,45 eurokoa; Arabakoa, 30,22 eurokoa).

2018-2019 aldian, ordea, Araba izan zen gizarte-zerbitzu espezializatuaren foru-gastua gehien handitu zuen lurraldea: % 13,1 gehiago urte batetik bestera. Bizkaian, % 8,6, eta Gipuzkoan, % 2,7. Hazkunde horri esker, Araba 2017ko egoerara itzuli zen, eta Gipuzkoakoa baino gastu handiagoa egin zuen biztanleko: 34,18 euro Arabak; 33,34, Gipuzkoak.

Arabian gizarte-zerbitzuen egitura espezifikoa egindako foru-gastua handiagoa izatea lotuta zegoen, batez ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan egin zuen ekarpenarekin. Horrenbestez, Arabako foru-erakundeek halako zerbitzuen finantzaketari ekarpen garrantzitsua egitearen aldeko apustua mantentzen zuten, eta horrek azaltzen du zergatik gainditu zuen lurralde horrek Gipuzkoako foru-gastua eta zergatik konpentsatu ahal zuen Bizkaia gizarte-zerbitzu espezializatuari egindako ekarpen handiagoa, zerbitzu espezializatuaren egindako foru-gastuari lotuta zuen posizioa gorabehera. Ildo horretan, Araba oinarrizko gizarte-zerbitzuetan egindako foru-gastua biztanleko 12,36 eurokoa izan zen 2019an. Bizkaian, berriz, 5,12, eta Gipuzkoan, 0,69 baino ez.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuetan Araba biztanleko egindako foru-ekarpenaren hazkunderia handia izan zen 2018. eta 2019. urteen artean ere: % 8,8. Beraz, 2016-2017 aldiko % 4,5eko igoera baino askoz handiagoa izan zen, baina beherazko joerarekin 2017-2018ko % 14,3ko igoerarekin alderatuta. Hala ere, 2015etik 2016ra biztanleko gastuak % 14,6 gora egin ondoren, 2012tik 2015era bitartean izandako % 67,1eko igoeraren bidetik jarraitu zuen, eta 2018. eta 2019. urteen artean Araban biztanleko izandako gastuaren hazkunde nabarmenak sendotu egin zuen lurralde horrek oinarrizko gizarte-zerbitzuen arloko foru-gastuan zuen lidergoa. Zalantzarik gabe, egoera

hori lotuta zegoen lurraldeko biztanleen banaketa bereziarekin, inguruabar horrek foru-erakundeak halako gizarte-zerbitzuetan esku hartzea sustatzen baitzuen.

2018-2019 aldian, Bizkaia izan zen oinarrizko gizarte-zerbitzuetan biztanleko egindako foru-gastua gehien handitu zuen lurraldea: % 9,8, hau da, Arabak baino gehiago (% 8,8). Hala ere, Bizkaia oinarrizko gizarte-zerbitzuetan egin zuen foru-ekarpenaren bilakaera Arabakoa baino aldakorragoa izan zen. Hala, 2012tik 2015era % 41 gora egin ondoren, lurralde horretan oinarrizko zerbitzuetan biztanleko egindako gastuak –% 3,3 egin zuen behera 2015-2016 aldian. 2016tik 2017ra, ordea, berriro ere nabarmendu zen Bizkaian oinarrizko gizarte-zerbitzuen foru-finantzaketaren gorakada; zehazki, % 57,3 handitu zen biztanleko egindako gastua. 2017-2018 aldian, aldiz, eta berriro ere biztanleko balioak kontuan hartuta, gastu mota hori 5,58 eurotik 4,66 eurora murriztu zen, hau da, –% 14,9 egin zuen behera. Beherakada horren ondoren, berriro egin zuen gora 2018-2019 aldian, % 9,8, eta, 2019an, biztanleko gastua 5,12 eurokoa izan zen.

Gipuzkoari dagokionez, 2018an biztanleko egindako 1,59 euroko gastua 0,69 eurora murriztu zen 2019an, eta sendotu egin zen lurralde historiko horretan gizarte-zerbitzuei egindako foru-ekarpenaren izaera marjinala.

Adinekoen, desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen arretaren arloan, 22. taulako datuei erreparatuta, egiazta daiteke 2018. eta 2019. urteen artean Araba sendotu egin zela biztanleko foru-gasturik (edo funtsean foru-aldundiek kudeatutako gastua) handiena zuen lurralde gisa: 381,37 euro 2019an. Arabaren atzetik, Gipuzkoa izan zen (358,80 euro), eta urrunago, Bizkaia (301,64 euro).

2018tik 2019ra, Araba Gipuzkoatik urrundu zen arlo horretan biztanleko egindako foru-gastuari dagokionez, gastuaren goranzko hazkunde-erritmoa 2017. eta 2018. urteen artean % 3,3 izatetik 2018. eta 2019. urteen artean % 6,0 izatera pasatu baitzen. Igoera horrek nabarmen gaitzitu zuen Gipuzkoako % 1,5eko balioa. Azken lurralde horretan, hazkunde-erritmoak beherazko joera izan zuen 2016-2017 eta 2017-2018 aldiekin alderatuta (% 2,3 eta % 2,7, hurrenez hurren).

2017-2018 aldian, biztanleko gastuak –% 3,1 egin zuen behera Bizkaian; oso joera ezberdina zen aurreko urteetan lurralde horretan izandako bilakaerarekin alderatuta. Ildo horretan, 2012. eta 2015. urteen artean, Bizkaia nabarmen zuten arretaren eremu horretan biztanleko gastua gehien handitu zuen lurraldea zelako. 2015-2016 aldian Gipuzkoa baino apur bat beherago geratu ondoren (Bizkaia, % 5,1; Gipuzkoa, % 6,6; hala ere, Arabako % 3,2ko balioaren gainetik), 2016-2017 aldian Bizkaia berriro izan zen arreta-arlo horretan biztanleko foru-gastua gehien handitu zuen lurraldea, zehazki, % 9,6 (Gipuzkoak, % 2,3; Arabak, –% 0,3).

2018-2019 aldian, Bizkaia berriro hartu zuen ondoko lurraldeek biztanleko egindako foru-ekarpenei dagokionez zuen aldea txikitzeko esfortzua, eta % 13,1 egin zuen gora, Arabak izandako % 6,0ko balioa baino nabarmen handiagoa, eta, bereziki, Gipuzkoako % 1,5ekoa baino handiagoa. Adinekoen, desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen eta mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen arretaren arloan biztanleko egindako gastua alderatuz gero, 2018an Arabarekin zuen biztanleko –92,96 euroko aldea –79,73 eurora murriztu zen 2019an. Bestalde, Gipuzkoarekin zuen aldea –86,71 eurotik –57,16 eurora pasatu zen aldi horretan.

Adinekoen, desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen eta mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen sektoreari lotutako partidak aztertuz gero, 2019an egoitza-zentroetan Araban biztanleko egindako gastua beste lurraldeetako baino nabarmen handiagoa izan zen: 193,82 euro; Gipuzkoan, aldiz, 146,20 eta Bizkaian, 129,34. Kasu horretan, beste lurraldeekin alderatuta, Arabak biztanleko gastu nabarmen handiagoa izan zuen 2012tik 2018ra, eta joera horri eutsi zion



2018-2019 aldirian Gipuzkoarekin alderatuta (Arabako foru-gastuak % 5,7 egin zuen gora; Gipuzkoakoak, berriz, % 3,4). Hala ere, 2012tik lehen aldiz, 2018. eta 2019. urteen artean, biztanleko egindako gastua gehiago hazi zen Bizkaian: % 14,1.

Edonola ere, lurralde guztietan egin zuten gora hazkunde-mailek 2018tik 2019ra, eta hautsi egin zen 2018an edo 2017an hautemandako moteltze-joera. Hala, Araban urtetik urterako hazkunde-erritmoak 2016ko % 5,3tik 2017ko % 8,1era egin zuen gora; gero, % 4,1era egin zuen behera 2018an, eta berriro gora, % 5,7, 2018tik 2019ra. Gipuzkoan, lehenago hasi zen hazkunde-erritmoak moteltzeko joera. Hala, urtetik urterako hazkundeak 2016ko % 4,4tik 2017ko % 2,0ra egin zuen behera, eta 2018an, % 0,6ra. Gero, suspertu, eta gora egin zuen 2018. eta 2019. urteen artean, % 3,4.

Hala ere, suspertzerik handiena Bizkaian izan zen. Kasu horretan, 2018-2019 aldiko % 14,5eko hazkunde aldaketa deigarria izan zen aurreko urteetan izandako hazkunde-maila moderatuekin eta beheranzko joerarekin alderatuta: 2016-2017 aldirian, % 4,1, eta 2017-2018 aldirian, % 2.

Desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroetan Araba nabarmendu zen ere biztanleko egindako gastuan: 59,32 euro 2019an. Dena den, aldeak txikiagoak izan ziren beste lurraldeekin alderatuta: Gipuzkoan, 55,55 euro biztanleko, eta Bizkaian, 52,32.

Hala ere, 2018. eta 2019. urteen artean, Arabak handitu egin zuen beste lurraldeekin aurretiaz zuen aldea, aldi horretan biztanleko gastuaren hazkunde maximoa izan baitzuen: % 10,4. Bizkaian % 9,5 izan zen, eta Gipuzkoan, % 5,1. Araban eta Bizkaian nabarmen handitu zen urterik urterako hazkunde-erritmoa 2018-2019 aldirian, 2017-2018 aldirioarekin alderatuta: % 2,1 egin zuen gora barnealdeko herrialdean, eta nolabaiteko egonkortzea izan zuen Bizkaian (-% 0,2). Ez zen gauza bera gertatu Gipuzkoan. Lurralde horretan, 2018-2019 aldiko % 5,1eko balioa 2017-2018 aldiko % 8,6 balioaren azpitik egon zen oraindik.

Azken kasu horretan, aldaketa garrantzitsua zen 2012tik 2018ra Gipuzkoan desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroetan egindako foru-gastuak Arabakoak baino egiturazko hazkunde handiagoa izan zuen aldiaren amaiera ekarri baitzuen. Hori dela eta, bi lurraldeek biztanleko egindako gastua ia maila berean jarri zen 2018an.

Bizkaiari dagokionez, nahiz eta Arabaren azpitik geratu 2018-2019 aldiko hazkunde-mailan, nabarmen suspertu zen lurralde horretako hazkunde-erritmoa. 2017-2018 aldirian apur bat beherantz egonkortu ondoren (-% 0,2), 2018-2019ko % 9,5eko hazkundeak epe ertainerako hedapen-joera argia markatu zuen, 2015-2016 aldiko % 1,3rekin eta 2016-2017ko % 5,6rekin alderatuta. Azken aldi horretan, Bizkaiak izan zuen hazkunderik handiena biztanleko gastuan (Gipuzkoak, % 5,3; eta, Arabak, % 2,4).

Edonola ere, lurraldeen artean biztanleko gastuan izandako alde historiko txikienen testuinguruan, bilakaera horri esker, Bizkaia Arabako eta Gipuzkoako gastutik hurbilago kokatu ahal izan zen, adinekoentzako egoitza-zentroen kasuan baino gehiago.

Adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroein erreparatuz gero, 2019an Gipuzkoa izan zen berriro biztanleko foru-ekarpen handiena egin zuen lurraldea: 29,78 euro, Arabako 27,06 eta Bizkaiko 15,52 euroen gainetik.

2016-2017 aldirian bezala, Arabak izan zuen halako eguneko zentroetan biztanleko gastuaren hazkunderik handiena 2018-2019 aldirian: % 12,7, Bizkaiko % 4,5eko eta Gipuzkoakoa % 1,2ko



hazkundearen ginetik. Datu horrek gastuaren urtetik urterako hazkunde-erritmoaren joera haustea ekarri zuen Gipuzkoan (2016an, -% 1,2; 2017an, % 3,3, eta 2018an, % 7,2). Bizkaian eta Araban, berriz, berriro suspertu ziren goranzko hazkunde-erritmoak, 2017-2018 aldian moteldu ondoren. Hala, Bizkaian urtetik urterako hazkundeak 2017ko % 2,8tik 2018ko % 1,5era behera egin ondoren, tasa % 4,5era iritsi zen 2018-2019 aldian. Bariazioak handiagoak ziren Araban: hazkunde-erritmoak 2017ko % 8,6tik 2018ko % 3,8era behera egin ondoren, % 12,7ra egin zuen gora 2018-2019 aldian.

Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetarako foru-erakundeen gasturik handiena Gipuzkoak egin zuen berriro 2019an, biztanleko 17,08 euro gastatuta, Bizkaiko 14,02 euroko eta Arabaren 11,80 euroko gastuaren ginetik. Diferentzia horren zati bat 2016-2017 aldiko biztanleko gastuarekin lotuta zegoen: aldi horretan, Araban eta Bizkaian -% 12 inguruko beherakadak izan ziren (-% 11,4 eta -% 12,6) biztanleko gastuan; Gipuzkoan, berriz, % 17,9 egin zuen gora. 2017tik 2018ra, Gipuzkoako hazkundera egonkortu egin zen neurri handi batean: gastuak % 0,8 egin zuen gora biztanleko; eta Bizkaian, ordea, % 1,1; eta, apur bat urrunago, Araban, % 2,3

2018. eta 2019. urteen artean, Gipuzkoan hazkundera areagotu bazen ere (% 2,2), Araban eta Bizkaian aldi horretan izandakoaren azpitik egon zen (% 6,6 eta % 7,8, hurrenez hurren). Hortaz, bi lurralde horiek murriztu egin zuten biztanleko gastuan Gipuzkoarekin zuten aldea.

Desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako gainerako eguneko zentroetan (zentro okupazionalak barne), 2019an, biztanleko foru-ekarpena 24,46 eurokoa izan zen Araban, Gipuzkoako 12,56 euroen eta Bizkaiko 11,02 euroen ginetik, nabarmen. 2012tik 2015era beherakada izan ondoren, Araba izan zen urte horretatik aurrera biztanleko foru-gastuaren gehikuntzarik handiena izan zuen lurraldea, gastuaren mailakako gehikuntzekin: % 5,8, 2015etik 2016ra; % 7,6, 2016tik 2017ra, eta % 11,2, 2017tik 2018ra. Bizkaian gastu horrek goranzko joera izan zuen oraindik 2018-2019 aldian, baina aldi horretako % 6,7ko balioarekin 2015-2017 aldiko mailetatik hurbil zeudenetara itzuli zen.

2018-2019 aldian, ordea, Bizkaia izan zen halako zentroetan biztanleko egindako gastuan hazkunderik handiena izan zuena: % 27,5, eta 2018ko 9,85 euroko gastutik 2019ko 12,56 eurokora pasatu zen. Bilakaera horri esker, 2019an Bizkaiak gaintu egin zuen Gipuzkoak biztanleko izandako gastua. Azken lurralde horretan gastuaren hazkunde-erritmoak 2017-2018 aldiko % 7,0tik 2018-2019ko % 3,9ra egin zuen behera.

Dinamika horrek erakusten du 2016-2017 aldian jada ikusitako bilakaera dibergentea berreskuratu zela. Bizkaian, aldi horretan, gastu horrek % 5,1 egin zuen gora; Gipuzkoan, berriz, -% 2,6 egin zuen behera (2017-2018 aldian apur bat moteldu zen jaitsiera, Gipuzkoan gastuak % 7,0 gora egin baitzuen. Bizkaian gutxiago egin zuen gora: % 2,9 baino ez aldi horretan).





Etxeko laguntzaren arloan, gizarte-zerbitzuen antolaketa-sistema berriaren garapenari lotutako aldaketen testuinguruan, Araba izan zen, berriro ere, biztanleko gasturik handiena egin zuena: 17,85 euro; Bizkaian, 13,12 euro, eta Gipuzkoan, 11,60 euro.

Arabaren kasuan, datu horrek erakusten zuen esku-hartze sozialaren arlo horretan biztanleko egindako foru-gastuak izandako suspertze handia: 2018-2019 aldian % 12,7 egin zuen gora, eta, beraz, aldatu egin zen 2016-2018 aldiko bilakaera. Izan ere, etxeko laguntzan egindako foru-gastuak % 51,9 egin zuen behera 2016-2017 aldian, eta beste murrizketa bat izan zuen 2017. eta 2018. urteen arteko ekarpenean (-% 4,7). Hori dela eta, biztanleko gastua 2016ko 34,54 eurotik 2018ko 15,83 eurora jaitsi zen.

Bizkaian, 2017an biztanleko gastua % 23,70 euroko ezohiko kopurura iritsi ondoren, joera beheranzkoa izan zen lurralde honetan ere, 2016ko 10,13 euroko gastutik 2018ko 7,47 eurokora. Hala ere, Araban bezala, etxeko laguntzarako foru-ekarpenak nabarmen gora egin zuen Bizkaian 2018. eta 2019. urteen artean, % 75,6, eta etxeko laguntzan biztanleko izandako gastua 13,12 eurokoa izan zen.

Gipuzkoan, aldiz, 2018. eta 2019. urteen artean sendotu egin zen etxeko laguntzako programak mantentzeko foru-ekarpenak 2016tik aurrera izandako beheranzko joera. Hala, 2016ko biztanleko 16,93 euroko gastua 11,60 eurora murriztu zen 2019an, eta Gipuzkoa Bizkaiaren azpitik kokatu zen biztanleko egindako gastuan. Foru-ekarpenaren beheranzko joera areagotu egin zen, gainera, 2016-2017 aldian (-% 11,4) eta 2017-2018 aldian (-% 10,2), eta -% 13,8ra iritsi zen 2018-2019 aldian.

Mendekotasunen arloko prestazioetan, biztanleko foru-ekarpenik handiena (eta erkidegoz gaidikoa ere) Gipuzkoan egin zen (83,71 euro), Bizkaiaren (58,57 euro) eta Arabaren (41,81 euro) gainetik.

Gastuaren dimentsio horretan, ordea, azken urteetan biztanleko gastua gehien handitu zuen lurraldea Bizkaia izan zen: % 9,2, 2016-2017 aldian, eta % 7,8 eta % 7,9 artean 2017tik 2019ra. Bilakaera oso ezberdina izan zen Gipuzkoan, 2016tik 2018ra bitartean gastua askoz gutxiago hazi baitzen (2016-2017 aldian, % 1,5, eta 2017-2018 aldian, % 3,1). 2018-2019 aldian, berriz, polo negatiboan kokatu zen (-% 2,6 egin du behera biztanleko egindako gastuak). Araban, bestalde, biztanleko egindako gastuak beheranzko joera izan zuen 2016tik aurrera, apur bat txikiagoa 2018an (2016-2017 aldian, -% 1,1, eta 2017-2018 aldian, -% 0,2). Baina handiagoa 2018. eta 2019. urteen artean. Hala, Araban mendekotasunaren prestazioen arloan aldi horretan biztanleko egindako gastuak -% 3,7 egin zuen behera.

Zaintzaileentzako laguntzetan biztanleko egindako foru-gastua ia nulua izan zen Araban, eta txikia izan zen Bizkaian (0,13 euro biztanleko) zein Gipuzkoan (0,24 euro biztanleko).

2018. eta 2019. urteen artean, foru-ekarpenak gora egiten jarraitu zuen gainerako zentro eta zerbitzuetan. Zehazki, Gipuzkoan % 31,3 egin zuen gora. Hazkundera txikiagoa izan zen Araban; % 2,0. 2015-2018 aldian % 12tik gorako hazkundera izan ondoren, 2018-2019 aldian Bizkaian -% 6,1eko jaitsiera erregistratu zen. Biztanle bakoitzeko foru-gastua ezberdina izan zen hiru lurraldeetan 2019an: Gipuzkoan, 3,60 euro biztanleko, eta Bizkaian, 6,06 euro biztanleko. Araba bien artean egon zen: 5,25.

## 22. taula.

Desgaitasuna/gaixotasunak edo mendekotasun-arazoak dituzten nahiz adinekoak diren pertsonentzako zentro eta zerbitzuen foru-gastu arrunta, zentro/zerbitzu motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2018-2019 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2018-2019 aldian %-tan)

		2018	2019	2018	2019	2018/2019 aldi- ko bariazioa	Bariazioa 2017/ 2018 aldian
		Abs.	Abs.			Gastua/biz.	
<b>Zentro/zerbitzu mota eta lurralde historikoa</b>							
<b>Adineko pertsonentzako egoitza-zentroak</b>	<b>EAE</b>	<b>289.451.680</b>	<b>316.239.011</b>	<b>132,75</b>	<b>144,53</b>	<b>8,9</b>	
	Araba	59.694.675	63.566.980	183,38	193,82	5,7	
	Gipuzkoa	100.960.833	104.856.614	141,35	146,20	3,4	
	Bizkaia	128.796.172	147.815.417	112,91	129,34	14,5	
<b>Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak</b>	<b>EAE</b>	<b>109.753.622</b>	<b>119.091.229</b>	<b>50,34</b>	<b>54,43</b>	<b>8,1</b>	
<b>Gaixotasuna (atsedena barne)</b>	Araba	17.495.516	19.454.071	53,75	59,32	10,4	
	Gipuzkoa	37.771.105	39.842.418	52,88	55,55	5,1	
	Bizkaia	54.487.001	59.794.740	47,77	52,32	9,5	
<b>EGOITZA-ZENTROAK</b>	<b>EAE</b>	<b>399.205.302</b>	<b>435.330.240</b>	<b>183,08</b>	<b>198,96</b>	<b>8,7</b>	
	Araba	77.190.191	83.021.051	237,13	253,14	6,8	
	Gipuzkoa	138.731.938	144.699.032	194,23	201,76	3,9	
	Bizkaia	183.283.173	207.610.157	160,68	181,66	13,1	
<b>Adineko pertsonentzako eguneko zentroak</b>	<b>EAE</b>	<b>45.790.601</b>	<b>47.975.776</b>	<b>21,00</b>	<b>21,93</b>	<b>4,4</b>	
	Araba	7.814.147	8.876.057	24,01	27,06	12,7	
	Gipuzkoa	21.030.146	21.359.873	29,44	29,78	1,2	
	Bizkaia	16.946.308	17.739.846	14,86	15,52	4,5	
<b>Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak</b>	<b>EAE</b>	<b>30.385.684</b>	<b>32.145.384</b>	<b>13,94</b>	<b>14,69</b>	<b>5,4</b>	
	Araba	3.602.712	3.870.998	11,07	11,80	6,6	
	Gipuzkoa	11.944.818	12.251.987	16,72	17,08	2,2	
	Bizkaia	14.838.154	16.022.399	13,01	14,02	7,8	
<b>Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako beste eguneko zentroak</b>	<b>EAE</b>	<b>26.270.908</b>	<b>30.276.666</b>	<b>12,05</b>	<b>13,84</b>	<b>14,8</b>	
	Araba	7.463.934	8.021.494	22,93	24,46	6,7	
	Gipuzkoa	7.576.589	7.904.984	10,61	11,02	3,9	
	Bizkaia	11.230.385	14.350.188	9,85	12,56	27,5	
<b>EGUNEKO ZENTROAK</b>	<b>EAE</b>	<b>102.447.193</b>	<b>110.397.826</b>	<b>46,98</b>	<b>50,46</b>	<b>7,4</b>	
	Araba	18.880.793	20.768.549	58,00	63,33	9,2	
	Gipuzkoa	40.551.553	41.516.844	56,77	57,89	2,0	
	Bizkaia	43.014.847	48.112.433	37,71	42,10	11,6	
<b>ETXEKO LAGUNTZA</b>	<b>EAE</b>	<b>23.294.326</b>	<b>29.166.757</b>	<b>10,68</b>	<b>13,33</b>	<b>24,8</b>	
	Araba	5.154.343	5.854.782	15,83	17,85	12,7	
	Gipuzkoa	9.620.533	8.322.482	13,47	11,60	-13,8	
	Bizkaia	8.519.450	14.989.493	7,47	13,12	75,6	
<b>ZAINTZAILEENTZAKO BABESA</b>	<b>EAE</b>	<b>216.881</b>	<b>321.907</b>	<b>0,10</b>	<b>0,15</b>	<b>47,9</b>	
	Araba	26.842	0	0,08	0,00	-100,0	
	Gipuzkoa	174.989	169.867	0,24	0,24	-3,3	
	Bizkaia	15.050	152.040	0,01	0,13	908,3	
<b>MENDEKOTASUNEN ARLOKO PRESTAZIOAK</b>	<b>EAE</b>	<b>137.483.988</b>	<b>140.680.305</b>	<b>63,05</b>	<b>64,30</b>	<b>2,0</b>	
	Araba	14.138.787	13.711.947	43,43	41,81	-3,7	
	Gipuzkoa	61.368.271	60.034.888	85,92	83,71	-2,6	
	Bizkaia	61.976.930	66.933.470	54,33	58,57	7,8	
<b>BESTE ZENTRO/ZERBITZUAK</b>	<b>EAE</b>	<b>11.004.058</b>	<b>11.235.063</b>	<b>5,05</b>	<b>5,13</b>	<b>1,7</b>	
	Araba	1.674.754	1.720.600	5,14	5,25	2,0	
	Gipuzkoa	1.959.194	2.583.656	2,74	3,60	31,3	
	Bizkaia	7.370.110	6.930.807	6,46	6,06	-6,1	
<b>ADINEKOAK/DESGAITASUNA/MENDEKOTASUNA GUZTIRA</b>	<b>EAE</b>	<b>673.651.748</b>	<b>727.132.098</b>	<b>308,95</b>	<b>332,32</b>	<b>7,6</b>	
	Araba	117.065.710	125.076.929	359,63	381,37	6,0	
	Gipuzkoa	252.406.478	257.326.769	353,38	358,80	1,5	
	Bizkaia	304.179.560	344.728.400	266,67	301,64	13,1	

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika  
Erkidegoz gairako erakundearen ekarpena barne



## 23. taula.

Adingabe, gazte, familia, emakumeentzako eta baztertutako pertsonentzako zentro eta zerbitzuetako foru-gastu arrunta, zentro/zerbitzu motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2018-2019

(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2018-2019 aldian %-tan)

		2018	2019	2018	2019	Bariazioa 2018/2019 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/ biz.	Gastua/ biz.	
<b>Zentro/zerbitzu mota eta lurralde historikoa</b>						
<b>Adingabeen egoitza-zentroak</b>	<b>EAE</b>	<b>83.043.940</b>	<b>92.497.010</b>	<b>38,09</b>	<b>42,27</b>	<b>11,0</b>
	Araba	14.681.395	16.077.457	45,10	49,02	8,7
	Gipuzkoa	29.032.091	31.799.966	40,65	44,34	9,1
	Bizkaia	39.330.454	44.619.587	34,48	39,04	13,2
<b>Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak</b>	<b>EAE</b>	<b>5.018.804</b>	<b>6.502.952</b>	<b>2,30</b>	<b>2,97</b>	<b>29,1</b>
	Araba	841.912	954.798	2,59	2,91	12,6
	Gipuzkoa	1.406.872	2.343.365	1,97	3,27	65,9
	Bizkaia	2.770.020	3.204.789	2,43	2,80	15,5
<b>Ostatu, harrera eta egoitza-zentroak bazterketa-egoeran dauden pertsonentzat</b>	<b>EAE</b>	<b>18.171.097</b>	<b>17.555.823</b>	<b>8,33</b>	<b>8,02</b>	<b>-3,7</b>
	Araba	1.383.548	1.565.002	4,25	4,77	12,3
	Gipuzkoa	9.407.862	10.028.805	13,17	13,98	6,2
	Bizkaia	7.379.687	5.962.016	6,47	5,22	-19,4
<b>EGOITZA-ZENTROAK</b>	<b>EAE</b>	<b>106.233.841</b>	<b>116.555.785</b>	<b>48,72</b>	<b>53,27</b>	<b>9,3</b>
	Araba	16.906.855	18.597.257	51,94	56,70	9,2
	Gipuzkoa	39.846.825	44.172.136	55,79	61,59	10,4
	Bizkaia	49.480.161	53.786.392	43,38	47,06	8,5
<b>Adingabe/familientzako eguneko arreta</b>	<b>EAE</b>	<b>2.841.009</b>	<b>2.158.257</b>	<b>1,30</b>	<b>0,99</b>	<b>-24,3</b>
	Araba	1.260.371	360.644	3,87	1,10	-71,6
	Gipuzkoa	343.022	485.378	0,48	0,68	0,0
	Bizkaia	1.237.616	1.312.235	1,08	1,15	5,8
<b>Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak</b>	<b>EAE</b>	<b>5.741.326</b>	<b>7.927.240</b>	<b>2,63</b>	<b>3,62</b>	<b>37,6</b>
	Araba	276.953	304.139	0,85	0,93	9,0
	Gipuzkoa	879.888	1.043.026	1,23	1,45	18,1
	Bizkaia	4.584.485	6.580.075	4,02	5,76	43,3
<b>EGUNEKO ZENTROAK</b>	<b>EAE</b>	<b>8.582.335</b>	<b>10.085.497</b>	<b>3,94</b>	<b>4,61</b>	<b>17,1</b>
	Araba	1.537.324	664.783	4,72	2,03	-57,1
	Gipuzkoa	1.222.910	1.528.404	1,71	2,13	24,5
	Bizkaia	5.822.101	7.892.310	5,10	6,91	35,3
<b>FAMILIAKO ESKU-HARTZE ETA EKINTZAREN ARLOA</b>	<b>EAE</b>	<b>25.967.574</b>	<b>30.232.178</b>	<b>11,91</b>	<b>13,82</b>	<b>16,0</b>
	Araba	4.519.709	5.438.379	13,88	16,58	19,4
	Gipuzkoa	11.499.207	14.546.454	16,10	20,28	26,0
	Bizkaia	9.948.658	10.247.345	8,72	8,97	2,8
<b>ADINGABE, GAZTE, FAMILIA, EMAKUME, ETA BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA</b>	<b>EAE</b>	<b>141.063.750</b>	<b>157.183.956</b>	<b>64,69</b>	<b>71,84</b>	<b>11,0</b>
	Araba	22.963.888	25.010.710	70,55	76,26	8,1
	Gipuzkoa	52.568.942	60.247.199	73,60	84,00	14,1
	Bizkaia	65.530.920	71.926.047	57,45	62,94	9,5

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Osoko gastuaren barnean dago Beste Zentro eta Zerbitzuetako gastua, hondar-atala, grafikoen ageri ez dena.

23. taulan ikus daitezke adingabe, gazte, familia eta emakumeen arloko eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonen arloko foru-gastu arruntari buruzko datuak. Esku-hartzearen esparru horretan, 2019an, biztanleko foru-ekarpenik handiena Gipuzkoak egin zuen berriro, 84,00 eurekin, Arabako 76,26 eta Bizkaiko 62.94 euroen gainetik.

2016. eta 2018. urteen artean, Arabak eta Bizkaiak Gipuzkoaren aurrean galdutako espazioaren zati bat berreskuratu zuten, biztanleko gastuak izandako hazkunde handiaren ondorioz: 2016-2017 aldian, Araban, % 25,3; Bizkaian, % 7,6; Gipuzkoan, aldiz, % 5,2. 2017-2018 aldian, % 6,6 eta % 15,1, lehenengo bi lurraldeetan, eta % 4,5, Gipuzkoan. Hala ere, hurbiltzeko joera hori aldatu egin zen 2018-2019 aldian, eta Gipuzkoan askoz gehiago handitu zen adingabe, gazte, familia eta emakumeen arloko eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonen arloan biztanleko egindako gastua: % 14,1; Bizkaian, % 9,5 eta Araban % 8,1. Hala ere, lurralde guztietan hazkunde handiak izan ziren aldi horretan.

Zerbitzu mota garrantzitsuenak aztertuz gero, adingabekoentzako egoitza-zerbitzuetan Arabak izan zuen foru-gasturik handiena 2019an: 49,02 euro biztanleko, Gipuzkoako 44,34 eta Bizkaiko 39,04 euroko gastuaren gainetik.

2016tik 2017ra, bereziki deigarria izan zen Arabako gastu-mailen suspertzea adingabeko egoitza-zerbitzuen arloan: % 24,9, Bizkaiaren (% 14,7) eta Gipuzkoaren (% 6,2) gainetik. Hori dela eta, Araba berriro iritsi zen 2017ko lidergora biztanleko foru-gastuari zegokionez. Bizkaiko 2017-2018 aldiko % 20ko igoeratik beherakoa bazen ere, hazkunde handia izan zuenez eta Gipuzkoakoa baino handiagoa izan zenez (Arabakoa, % 10,9; eta Gipuzkoakoa, % 4,6), Arabak sendotu egin zuen posizio hori 2018an.

Arabian urtetik urterako hazkunde-tasen beheranzko joera mantendu egin zen, baina, 2018-2019 aldian, egoitza-zerbitzu hauetan biztanleko egindako gastua nabarmen handitu zen, eta % 8,7ra iritsi zen, hau da, hamarren batzuk baino ez Gipuzkoako % 9,1eko balioaren azpitik. Lurralde honetan, suspertu egin ziren hazkunde-erritmoak, 2017-2018 aldiko % 6,2ko eta 2018-2019 aldiko % 4,6ko balioak kontuan hartuta.

Bizkaia izan zen biztanleko foru-gastu txikiena zuena oraindik, baina 2018-2019 aldian gastu hau gehien handitu zuen lurraldea izan zen: % 13,2. Hortaz, hazkunde handiagorako joera sendotu zen Bizkaian, beste lurraldeekin alderatuta. Joera hori 2017. eta 2018. urteen artean ere ikusi zen. Bizkaian zentro mota horretan egin zen foru-gastua nahiko handitu zen 2015etik aurrera, baina, hala ere, lurralde horretan oraindik ere txikiagoa izan zen foru-gastua, 2012-2015 aldian gastua nabarmen murriztu baitzen. Aldi horretan, biztanleko gastuak -% 7,6 egin zuen behera. Aldi berean, Gipuzkoan egonkortu egin zen (% 0,4), eta nabarmen suspertu zen Araban, % 17,5eko igoerarekin.

Bestalde, Gipuzkoak jarraitu zuen izaten bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitzetan, harrera-zentroetan eta egoitza-zentroetan biztanleko foru-ekarpenik handiena egin zuen lurraldea. 2019an, lurralde historiko horretako 13,98 euroek nabarmen gainditu zituzten Bizkaiko 5,22 euroak eta Arabako 4,77 euroak. 2017tik 2018ra, Gipuzkoan berriro izan zen halako gastua gehien handitu zuen herrialdea: % 8,0; Bizkaian, % 3,0 eta Araban, % 1,8. Bizkaiak ez bezala, 2018-2019an aldian Gipuzkoak goranzko joera nabarmena izan zuen eta % 6,2 egin zuen gora. Baina Araba izan zen goranzko suspertze handiena izan uen lurraldea biztanleko gastuari dagokionez (% 12,3).

Emakumeentzako etxebizitzetako egoitza-zentrotan dagokienez, 2018. eta 2019. urteen artean hazkunde garrantzitsuak izan ziren EAeko lurralde guztietako gastuan: Araban, % 12,6; Bizkaian, % 15,5, eta, igoerarik deigarriena, Gipuzkoan, % 65,9. Azken lurralde hori jada nabarmendu zen



2017-2018 aldirian halako egoitza-zentroetan biztanleko egindako gastuak izandako hazkunde handiagatik: % 18,7; Araba, % 3,4, eta Bizkaian, berriz, -% 6,3 egin zuen behera. Hori dela eta, 2019an Gipuzkoa izan zen berriro emakumeentzako egoitza-zentroetan biztanleko gasturik handiena egin zuen lurraldea: 3,27 euro, Arabako 2,91 eta Bizkaiko 2,80 euroko gastuaren gainetik.

Gizarteratzeko premiei erantzuteko eguneko zentroetan, 2012. eta 2015. urteen artean lurralde guztietan % 10etik gorako igoera izan ondoren, 2015etik aurrera biztanleko gastuak bilakaera oso ezberdina izan zuen. 2015-2016 aldirian -% 6,0 behera egin ondoren, igoerarik deigarriena Bizkaian izan zuen, eta hazkunde-erritmo gero eta handiagoak izan zituen 2016tik aurrera: % 10,3, 2016-2017 aldirian; % 25,3, 2017-2018 aldirian, eta % 43,3, 2018-2019 aldirian.

Bilakaera bestelakoa izan zen Gipuzkoan 2016tik aurrera: -% 7,7, 2016-2017 aldirian, eta -% 4,1, 2017-2018 aldirian. Jaitsiera hori nolabait konpentsatu zen 2018-2019ko suspertzearekin: % 18,1 egin zuen gora. Joera oso aldakorra izan zen Araban ere, baina beti aldekoa. Urteik urtera, biztanleko gastuaren hazkunde-erritmoak 2016-2017 aldiriko % 7,4tik 2017-2018 aldiriko % 1,8ra behera egin zuen, baina, gero, berriro gora, nabarmen, 2018-2019 aldirian: % 9,0.

Ikusitako dinamikak sendotu egin zuen, edonola ere, Bizkaian gizarteratzeko premiei erantzuteko eguneko zentroetan biztanleko egindako gastu handiagoa: 5,76 euro biztanleko 2019an; Gipuzkoan, berriz, 1,45 euro eta Araban, 0,93 euro.

Adingabe, gazte edo familientzako eguneko arretak mailarik altuena lortu zuen Bizkaian 2019an: 1,15 euro biztanleko; Arabako 1,10 euroko eta Gipuzkoako 0,68 euroko gastuaren gainetik. Bizkaian, 2016tik aurrera, halako esku-hartzeetan egindako gastuak izan zuen bilakaera egonkorragoaren eta gorakoaren ondorioa izan zen.

Azkenik, familian esku hartzeko programetan eta ekintza-programetan, Gipuzkoa izan zen, berriz ere, gasturik handiena egin zuena: 20,28 euroko foru-ekarpena biztanleko. Ondoren zetozen Araba (16,58) eta Bizkaia (8,97).

2012. eta 2015. urteen artean hiru lurraldeetan ikusitako gastuaren gorakada indartsuen ostean –gehiago Araban eta Bizkaian–, arlo honetako esku-hartzean Gipuzkoak izan zuen gorakadarik handiena 2015-2016 aldirian. Goranzko joera mantendu egin zen Gipuzkoan 2016-2017 aldirian, % 5,6 egin baitzuen gora, baina Araban gehiago (% 6,5); Bizkaian, berriz, behera egin zuen (-% 2,3). 2017tik 2018ra, Bizkaia lehenengo postuetan egon zen familiaren arloko ekintzarako eta esku-hartzerako foru-gastuaren hazkundeari dagokionez: % 4,5 izan zen, Arabako % 4,3tik hurbil; Gipuzkoan, ordea, -% 2,1 behera egin zuen.

2018-2019 aldiriko berritasuna izan zen hiru lurralde historikoetan gora egin zuela biztanleko egindako gastuak. Bizkaian hazkundera moderatua izan zen (% 2,8), baina Araban % 19,4koa, eta Gipuzkoan, berriz, urteik urterako maximora iritsi zen, % 26ra.

Gizarte-prestazioen arloan, GLL, gizarte-urgentzia eta EAEko diru-sarrerak bermatzeko sistema orokorra (DSBE eta EPO) osatzeko antzeko zeregina duten beste batzuen antzeko babes-prestazioekin lotutakoa izan zen lurralde-politika desberdinekin gehien lotutako ekarpena. Arlo horiei dagozkien datuak 24. taulan bildu dira.

**24. taula.**  
**GLL, gizarte-urgentziatzko eta antzeko beste prestazioetako foru-gastu arrunta, lurralde historikoen arabera.**  
**2018-2019**

**(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2018-2019 aldian %-tan)**

Prestazio mota eta lurralde historikoa		2018	2019	2018	2019	Bariazioa 2018/2019 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	
<b>Beste gizarte-prestazio batzuk</b>	<b>EAE</b>	<b>3.700.014</b>	<b>7.209.973</b>	<b>1,70</b>	<b>3,30</b>	<b>94,2</b>
	Araba	684.054	736.802	2,10	2,25	6,9
	Gipuzkoa	2.158.753	5.274.776	3,02	7,35	143,3
	Bizkaia	857.207	1.198.395	0,75	1,05	39,5

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Kasu honetan, 2018an daturik esanguratsuen izan zen Gipuzkoako foru-gastua doitzeko prozesuaren amaiera. Gipuzkoako diru-sarrerak bermatzeko laguntza oinarritzko alderdietan sendotu eta gero, ondorioa izan zen prestazio horietan biztanleko egindako foru-gastuak behera egin zuela lurralde horretan, 2017ko 13,25 eurotik 2018ko 3,02 eurora. Hala ere, ekarpen horrek Arabako biztanleko 2,10 eurokoa eta Bizkaiko 0,75 eurokoa gainditu zituen, nahiz eta lurralde horietan 2017-2018 aldiko igoera % 10 handiagoa izan.

Hala ere, 2019ko joeraren ezaugarria izan zen Gipuzkoan suspertze deigarria egon zela gizarte-larrialdiko eta -urgentziako prestazioetan egindako foru-gastuan: biztanleko gastuak % 143,3 egin zuen gora, eta 2018an biztanleko 3,02 euro gastatetik 2019an 7,35 euro gastatzera pasatu zen. Hazkundera hain handia izan ez bazen ere, Araban ere egin zuen gora (% 6,9), eta Bizkaian askoz gehiago (% 39,5). Goranzko joera izan arren, Arabako eta Bizkaiko foru-ekarpena (2,25 eta 1,05 euro, hurrenez hurren) urrun egon zen Gipuzkoako ekarpenetik (7,35 euro biztanleko).

#### **4.5. Udal-erakundearen parte-hartzearen alderaketa, lurralde historikoen arabera**

25. taulan egiazta daitekeen bezala, udal-erakundeek, udalen edo mankomunitateen bidez, gizarte-zerbitzuetan eta -prestazioetan 92,38 euro gastatu zituzten biztanle bakoitzeko 2019an. Zifra horrek % 5,5eko gehikuntza ekarri 2018ko 87,54 euroko gastuarekin alderatuta.

2018-2019 aldiko hazkundera 2017-2018 aldian biztanleko gastuaren bilakaeran izandako % 11,3koa baino txikiagoa izan arren, sendotu egin zen gizarte-zerbitzu eta -prestazioen arloko udal-gastuak 2017tik aurrera izan zuen suspertze-prozesua, eta, gainera, hazkunde-maila altuekin. Ildo horretan, 2017-2018 aldiak aldaketa garrantzitsu bat sartu zuen aurreko urteetan izandako joeran. Hala, 2016-2017 aldian, ezaugarria izan zen -% 4,1eko beherakada biztanleko udal-gastuan; hau da, luzatu egin zen 2015-2016ko joera (-% 4,0).

2015-2017 aldiko beherakaden ostean, 2018an gastua 87,54 euro nominalakoa izan zen biztanle bakoitzeko, eta berriro gainditu zen 2015eko 85,39 euroko gastua. Balio hori jada 2012ko 74,28 euroak baino % 15 handiagoa izan zen. Gainera, 2017-2019 aldiko goranzko joerari esker, biztanleko 90,00 euroko gastuaren atalasea gainditu zen 2019an, 92,38 eurokoa izan baitzen.



**25. taula.**  
**Gizarte-zerbitzuetako eta -prestazioetako udal-gastu arrunta, udal-erri motaren arabera. 2018-2019 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2018-2019 aldirian %-tan)**

		2018	2019	2018	2019	Bariazioa 2018/2019 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
<b>Gastu eta udal-erri mota</b>						
<b>Gastu arrunta guztira</b>	<b>EAE</b>	<b>190.875.614</b>	<b>202.125.878</b>	<b>87,54</b>	<b>92,38</b>	<b>5,5</b>
	Gasteiz	43.299.086	47.145.072	177,59	191,53	7,8
	Arabako beste udal-erri nagusiak	1.093.442	1.085.145	37,95	37,73	-0,6
	Arabako gainerakoak	939.273	1.491.648	17,76	28,12	58,3
	Donostia	18.854.581	22.049.000	104,18	121,38	16,5
	Gipuzkoako beste udal-erri nagusiak	10.000.096	10.989.959	78,94	86,34	9,4
	Gipuzkoako gainerakoak	23.276.311	27.853.771	57,25	68,23	19,2
	Bilbo	34.865.672	37.633.714	101,71	109,58	7,7
	Bizkaiko beste udal-erri nagusiak	36.229.646	36.328.764	85,19	85,41	0,3
	Bizkaiko gainerako udal-erriak	22.317.507	17.548.805	59,90	46,91	-21,7
<b>Gizarte-zerbitzuak: erdigunea</b>	<b>EAE</b>	<b>174.138.994</b>	<b>184.215.834</b>	<b>79,86</b>	<b>84,19</b>	<b>5,4</b>
	Gasteiz	37.564.839	40.913.098	154,07	166,21	7,9
	Arabako beste udal-erri nagusiak	696.550	686.347	24,17	23,86	-1,3
	Arabako gainerakoak	905.145	1.435.726	17,11	27,06	58,1
	Donostia	17.100.049	20.280.167	94,48	111,64	18,2
	Gipuzkoako beste udal-erri nagusiak	9.063.025	9.895.483	71,54	77,74	8,7
	Gipuzkoako gainerakoak	21.194.572	25.240.232	52,13	61,82	18,6
	Bilbo	34.086.380	36.964.802	99,43	107,63	8,2
	Bizkaiko beste udal-erri nagusiak	33.019.434	33.293.354	77,64	78,28	0,8
	Bizkaiko gainerako udal-erriak	20.509.000	15.506.625	55,04	41,45	-24,7
<b>Gizarte-prestazioak</b>	<b>EAE</b>	<b>16.736.620</b>	<b>17.910.044</b>	<b>7,68</b>	<b>8,19</b>	<b>6,6</b>
	Gasteiz	5.734.247	6.231.974	23,52	25,32	7,6
	Arabako beste udal-erri nagusiak	396.892	398.798	13,77	13,86	0,7
	Arabako gainerakoak	34.128	55.922	0,65	1,05	63,4
	Donostia	1.754.532	1.768.833	9,69	9,74	0,4
	Gipuzkoako beste udal-erri nagusiak	937.071	1.094.476	7,40	8,60	16,2
	Gipuzkoako gainerakoak	2.081.739	2.613.539	5,12	6,40	25,0
	Bilbo	779.292	668.912	2,27	1,95	-14,3
	Bizkaiko beste udal-erri nagusiak	3.210.212	3.035.410	7,55	7,14	-5,5
	Bizkaiko gainerako udal-erriak	1.808.507	2.042.180	4,85	5,46	12,5

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

25. taulan erakusten diren udal-gastuen arteko diferentziak oso deigarriak dira, eta lurraldeko dinamika bereziak erakusten dituzte 2018-2019 aldirian.

2019an, udalen ekarpenik handiena gizarte-zerbitzu eta prestazioetan Gasteizek egin zuen berriz ere, biztanleko 191,53 euro gastatuta. Gastuak EAEko udal-errien batez besteko mailak gainditu zituen EAEko gainerako hiriburuetan ere, baina askoz txikiagoa izan zen: Donostian, 121,38 eurokoa izan zen biztanleko; eta Bilbon, 109,58 eurokoa.

2018-2019 aldiko datu garrantzitsu bat izan zen hiru hiriburuetan biztanleko gastuak igoera nabarmena izan zuela. Azpimarratzekoa da Donostian izandako hazkundera: % 16,5, 2018ko 104,18 euroko gastutik 2019ko 121,38 eurokora. Bilakaera ezberdina izan zen lehenago. Izan ere, gastuak -% 5,0 egin zuen behera biztanleko 2017-2018 aldian, eta, 2016-2017 aldiko % 2,9ko gorakadaren ostean, 2015-2016 aldiko beheranzko dinamikara (-% 6,6) itzultzea ekarri zuen.

Donostian 2018. eta 2019. urteen artean izandako hazkundera oso handia izan zen, eta 2012tik aurrera izandako biztanleko gasturik handiena gainditu zen 2019an. Izan ere, maximo hori 2015ean izan zen: 114,09 euro biztanleko. Termino nominaletan, 2019ko 121,38 euroko kopurua 2015eko kopuru horren gainetik kokatu zen, eta lehenengo aldiz gertatu zen hori.

2018. eta 2019. urteen artean, biztanleko gastuaren hazkundera askoz txikiago izan zen Gasteizen eta Bilbon, baina antzekoa haien artean (% 7,8 eta % 7,7, hurrenez hurren). Bilbok izandako bilakaera bereziki deigarria da, 2017tik aurrera sendotu egin baitzituen hazkunde-maila garrantzitsuak, eta 2017-2018 aldian % 8.8 egin zuen gora. Hortaz, 2012-2015 aldiko hazkunde-erritmoak berreskuratu ziren (% 4,8 aldi horretan), 2015-2016 aldian (-% 5,0) eta 2016-2017 aldian (-% 2,8) behera egin ondoren. Zifra absolutuetan, 2018an 101,71 euro nominaleko gastua egin zen biztanle bakoitzeko, eta, beraz, 2015eko 101,28 euroak gainditu ziren, 2017an gastua 93,51 eurora murriztu eta gero. Goranzko joera mantendu zenez, 2019an 109,58 eurokoa izan zen gastua.

Gasteizko gastuak, berriz, 2016tik 2017ra baino ez zuen egin behera (-% 2,7 aldi horretan), eta 2015-2016 aldian % 3,7 egin zuen gora. 2017-2018 aldiko igoera, ordea, apalagoa izan zen, % 2,8, baina, hala ere, udalerririk horretan 2017ko biztanleko gastu nominala 2015eko gastuaren gainetik kokatu zen (177,59 euro vs 171,14 euro.). Bilbon bezala, 2019an biztanleko gastatutako 191,53 euroko kopuruak sendotu egin zuen 2017tik aurrera izandako goranzko joera.

Hiriburuetatik kanpo, EAEko gainerako udalerririk nagusietan, biztanleko gastuaren bilakaera egonkortu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean, apur bat gora edo behera eginda. Hala, gastuak % 0,3 baino ez zuen gora egin Bizkaiko gainerako udalerririk nagusietan, eta Arabakoetan, berriz, -% 0,6 egin zuen behera. Salbuespen bakarra Gipuzkoako udalerririk nagusiak izan ziren, hazkunde nabarmena izan baitzuten 2018-2019 aldian biztanleko gastuan: % 9,4.

Gipuzkoan, gainerako udalerririk handiek Donostiak baino hobeto eutsi zioten 2015-2016 aldian biztanleko gastuak izandako beheranzko joerari (-% 1,7; eta hiriburuan, ordea, -% 6,6). Gainera, udalerririk horietan biztanleko gastuak % 6,2 egin zuen gora 2016tik 2017ra (% 2,9 Donostian), eta hazkunde-erritmoa areagotu egin zen hortik aurrera: % 7,1 egin zuen gora 2017tik 2018ra, eta % 9,4, 2018-2019 aldian.

Gipuzkoako udalerririk nagusirik horietako gastua -Donostia sartu gabe- 86,34 eurokoa izan zen 2019an, eta urte horretan izandako mailarik altuena izan zen, hiriburu handiak kenduta. Zifra hori EAEko biztanleko udal-gastu orokorraren % 93,5 izan zen, eta Donostiarena, berriz, % 71,1.

Gipuzkoako eta Bizkaiko gainerako udalerririk nagusietako gastuak 2018. eta 2019. urteen artean izan zuen bilakaera ezberdina zela eta, Gipuzkoakoek biztanleko egindako gastua bizkaitarren gastuaren gainetik kokatu zen, 2018an Bizkaikoak nabarmen gainetik jarri ondoren (85,19 euro biztanleko, Bizkaian; 78,94, Gipuzkoan). 2019an, aldiz, Gipuzkoako udalerririk 86,34 euroko gastua Bizkaiko gainerako udalerririk nagusien 85,41 eurokoaren gainetik egon zen.





Bizkaiko udalerri hauek funtsezko aldaketa bat izan zuten 2017. eta 2018. urteen artean. Udalerrri horietan 2015etik 2016ra antzeman zen gastuaren  $-9,6\%$ ko beheranzko joera gogorak bere horretan jarraitu zuen 2017ra arte, eta 2016-2017 aldiaren ere  $-9,5\%$  egin zuen behera. 2017tik 2018ra, ordea, egoera guztiz aldatu zen, eta udalerri horietan biztanle bakoitzeko gastuak  $25,4\%$  egin zuen gora. Zenbateko nominaletan gastu hori  $85,19$  eurokoa izan zen 2018an; beraz, 2017ko  $67,96$  euroko gastutik gora nabarmen, baita 2015eko  $83,04$  eurokotik gorakoa ere. Biztanleko gastua, beraz, EAEko batezbestekora ( $87,54$  euro) hurbiltzen ari zen.

Bizkaiko gainerako udalerri nagusietan 2017-2018 aldiaren gastuak gorakada handia izan ondoren, 2018-2019 aldiak 2018an lortutako mailak egonkortzea ekarri zuen, eta 2019an  $0,3\%$  baino ez zuen egin gora. Urte horretan, Bizkaiko udalerri nagusietan biztanleko egindako  $85,41$  euroko gastua EAEko biztanleko udal-gastu orokorraren  $92,5\%$ ean kokatu zen, eta Bilbori zegokionaren  $77,9\%$ .

2019an, Gipuzkoako udalerri nagusietan eta hiriburuan gastuak izandako goranzko joera gainerako udalerrietan ere ikusi zen. Joera ezberdina izan zen Bizkaiko halako udalerrietan. Izan ere, Gipuzkoako gainerako udalerrietan biztanleko egindako  $68,23$  euroko gastuak urte horretan Bizkaiko gainerako udalerriek izandako  $46,91$  eurokoa gainditu zuen modu nabarmenean.

Gastuaren alde hori 2018-2019 aldiko dinamikarekin lotuta zegoen batez ere: biztanleko gastuak  $19,2\%$  egin zuen gora Gipuzkoako gainerako udalerrietan (zifra absolutuetan,  $57,25$  eurotik  $68,23$  eurora). Dinamika horrek erabat aldatu zuen aurretiaz izandako hazkunde apaleko joera aldakorra: 2012tik 2015era,  $6,1\%$  egin zuen gora, eta 2016-2017 aldiaren,  $4,7\%$ , baina 2015-2016 aldiaren, egonkortu egin zen ( $-0,3\%$ ), eta 2017-2018 aldiaren,  $-2,3\%$  egin zuen behera. Beraz, biztanleko gastuak nolabaiteko egonkortasuna izan zuen epe luzera (2012ko  $52,89$  eta 2017ko  $58,59$  euroen artean). Joera hori soilik hautsi zen 2019an, goranzko joera argiarekin.

Bizkaiko gainerako udalerrietan, oso deigarria izan zen 2017-2018an lurralde horretako udalerri nagusietan izandako aldaketa ere. Hala, gastuaren  $64,1\%$ eko gorakadak erabat aldatu zuen 2015-2017 aldiko beheranzko joera (2015-2016 aldiaren,  $-12,1\%$ ; 2016-2017 aldiaren,  $-24,2\%$ ). Bizkaiko udalerri horietan, 2018an biztanleko egindako  $59,90$  euroko gastuak lehen aldiz gainditu zuen 2015eko  $54,77$  eurokoa, eta Gipuzkoako halako udalerrien gainetik kokatu ziren ( $57,25$  euro gastatu zituzten orduan). Hala ere, udalek gizarte-zerbitzu eta prestazioetan biztanleko egindako gastuak beherakada handia izan zuen 2018-2019 aldiaren Bizkaiko gainerako udalerrietan, zehazki  $-21,7\%$ , eta biztanleko gastua  $46,91$  eurokoa izan zen, hau da, 2016ko  $48,13$  euroen azpikoa.

2019ko gasturik txikiena udalburu ez diren Arabako udalerriek izan zuten. Udalerrri nagusietan (Gasteiz sartu gabe) biztanleko egin zen udal-gastua  $37,73$  eurokoa izan zen, 2018ko  $37,95$  eurokoa baino  $-0,6\%$  txikiagoa. 2012-2016 aldiaren gastuak goranzko joera izan ondoren (2012-2015 aldiaren  $37,8\%$  egin zuen gora; eta 2015-2016 aldiaren,  $11,4\%$ ), 2016. eta 2019. urteen artean biztanleko udal-gastua asko egonkortu zen. Aipatutako aldiaren, biztanleko gastuak ez zuen izan bariaziorik  $37,64$  eta  $37,95$  euroko gastuaren artean.

Arabako gainerako udalerrietan, biztanleko gastua  $28,12$  eurokoa izan zen. Beste zifrekin alderatuta, zifra hori oso txikia da, baina aurrerapen nabarmena izan zen 2017ko  $14,71$  euroko kopuruarekin alderatuta, eta urtetik urterako hazkundea  $20,7\%$ koa izan zen 2017-2018 aldiaren, eta  $58,3\%$ koa, 2018-2019-aldiaren. Izatez, 2019an berriro gainditu zen 2012ko  $24,13$  euroko gastua. 2015-2018 aldiaren, biztanleko gastua  $18$  eurotik beherakoa izan zen.

25. taulan jasota dagoen udal-gastuaren barneko egitura aztertzen badugu, egiaztatu ahal da 2019an biztanleko 84,19 euro gastatu zirela gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian, 2018ko 79,86 euroen gainetik. 2017-2018 aldian izandako % 14,3ko gehikuntzara iritsi ez bazen ere, zifra horrek sendotu egin zuen gastuan izandako goranzko joera, eta 2018-2019 aldian % 5,4ko hazkunde handia izan zuen. Beraz, sendotu egin zen 2015-2016 eta 2016-2017 aldietako beherakadei (–% 5,1 eta –% 4,2, hurrenez hurren) zegoenez 2017-2018 aldian izandako haustura. Izan ere, 2018an 2015eko 76,87 euroko gastua gainditu zen.

Udalen gastua batez ere jarduketa-esparru horretara bideratu zenez, lurraldeen arteko aldeak gorago aipatu direnen antzekoak izan ziren. Udal-ekarpenen mailarik handiena Gasteizkoa izan zen 2019an: 166,21 eurokoa. Balio horrek 2018an biztanleko egindako 154,07 euroko gastua baino % 7,9 handiagoa. Urtetik uretarako hazkunde-tasa horrek goranzko joera argia izan zuen, 2015etik aurrera gastuaren hazkunde-erritmoaren beheranzko joera nabarmenarekin alderatuta: 2015-2016 aldian, % 2,1; 2016-2017 aldian, % 1,9, eta 2018tik 2019ra, % 1,1.

2015-2016 aldian Donostian biztanleko gastuak –% 7,2 behera egin ondoren, 2016tik aurrera hazkunde-erritmoen goranzko joera sendotu zen: 2016-2017 aldian % 3,8 egin zuen gora; 2017-2018 aldian, % 7,1, eta 2018-2019 aldian, % 18,2. Azken urteko gorakada handiaren ostean, Gipuzkoako hiriburua biztanleko 111,64 euroko gastura iritsi zen gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian, eta, 2012tik lehen aldiz, Bilbok biztanleko egindako gastuaren gainetik kokatu zen.

Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian biztanleko 107,63 euroko gastua egin zuen Bilbok, eta, beraz, 2019an, hirugarren postua izan zuen rankingean. Hala ere, mantendu egin zen gastuan izandako hazkunde handia, eta % 8,2 egin zuen gora 2018ko 99,43 euroko gastuarekin alderatuta. 2017-2018 aldiko % 9,1etik hurbil kokatu zen. Hazkunde handi horrek argi eten zuen aurreko beheranzko joera: 2015-2016 aldian –% 5,8, eta 2016-2017 aldian, –% 1,9.

Bilbon ikusitakoarekin alderatuta, Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian biztanleko egindako gastuak hazkunde txikia izan zuen 2018. eta 2019. urteen artean: % 0,8. 2019an biztanleko egindako 78,28 euroko gastuarekin, ordea, Gipuzkoako gainerako udalerrri nagusietan urte horretan biztanleko egindako 77,74 euroko gastuaren gainetik kokatu ziren.

Bizkaiko gainerako udalerrri nagusien posizio hori lotuta zegoen 2017-2018 aldian izandako % 29,3ko gehikuntzarekin, horri esker Gipuzkoako udalerrri nagusien aurretik kokatu baitziren berriro. 2017an galdu zuten posizio hori, gastuak –% 13 behera egin baitzuen. Gipuzkoan, aldiz, % 7,5 egin zuen gora gainerako udalerrri nagusiek egindako gastuak. Gipuzkoako udalerrri horiek hazkunde-erritmo handiak izan zituzten 2016tik aurrera: % 7,5 egin zuen gora 2016tik 2017ra; 2017-2018 aldian, % 8,9, eta 2018-2019 aldian, % 8,7. Horren emaitza izan zen hazkunde nabarmenak izatea epe ertainera (2016ko 61.09 euroko gastutik 2019ko 77,74 eurokora). 2018. eta 2019. urteen artean Bizkaiko gainerako udalerrietan izandako egonkortzearekin zegoen alde handiak (% 8,7, Gipuzkoan; % 0,8, Bizkaian) 2019an Gipuzkoako eta Bizkaiko halako udalerriek gastu ia antzekoa izatea eragin zuen.

Kostaldeko bi lurraldeetako gainerako udalerrietan, 2018. eta 2019. urteen artean hazkunde handia izan zuen biztanleko gastuak Gipuzkoako gainerako udalerrietan (% 18,6), baina nabarmen behera egin zuen Bizkaiko halako udalerrietan (–% 24,7). Horren ondorioz, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian biztanleko egindako gastua nabarmen handiagoa izan zen Gipuzkoan; 61,82 euro; Bizkaian, 41,45 euro.



Gipuzkoako gainerako udalerrietan 2018-2019 aldian biztanleko gastuak izandako hazkunde handiek kontraste handia izan zuten gastuak aurretiaz izandako bilakaerarekin, biztanleko gastua ia egonkor mantendu baitzen 2017-2018 aldian (% 0,1). Dinamika egonkor hori jada aurreko urteetan erregistratu zen; zehazki, 2015etik 2016ra  $-%$  0,3 murriztu zen hazkundera, eta partzialki konpentsatu zen 2016-2017 aldiko  $%$  2,3ko suspertzearekin.

Bizkaiko gainerako udalerrietan biztanleko gastuak 2018-2019 aldian izandako beherakada handiak ere alde nabarmena izan zuen 2017-2018 aldian gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian biztanleko egindako gastuak izandako  $%$  76,4ko hazkunde garrantzitsuarekin. Aldi horretan izandako bilakaerak udalerririk horietan 2015-2017 aldian izandako beheranzko joera hautsi zuen ( $-%$  13, 2015-2016 aldian;  $-%$  28,1, 2016-2017 aldian). Hortaz, Bizkaiko udalerririk horietan urteko bariazio handiak izan ziren ezaugarri nagusia.

2019an, biztanleko udal-gastu txikiena Arabako udalerririk egin zuten berriro ere: 23,86 euro udalerririk nagusietan, Gasteiz sartu gabe, eta 27,06 euro, gainerakoetan. 2017tik 2019ra bitartean, azken udalerririk horietan gastuak nabarmen gora egin zuen ( $%$  20,6, 2017-2018 aldian;  $%$  58,1, 2018-2019 aldian), baina udalerririk nagusietan ekarpenak behera egin zuen ( $-%$  2,3, 2017-2018 aldian;  $-%$  1,3, 2018-2019 aldian). Udalerririk nagusietan, 2019an biztanle bakoitzeko 23,86 euroko gastua 2015eko 24,51 eurokoa baino txikiagoa izan zen.

25. taulan erakusten da ere udal-erakundeek udalen edo mankomunitateen bidez eduki ekonomikoko gizarte-prestazioetan egin zuten gastua 8,19 eurokoa baino ez zela izan 2019an. Zifra horrek  $%$  6,6ko hazkundera islatzen du 2018ko gastuarekin alderatuta, eta 2012-2016 aldiko etengabeko goranzko joera berreskuratu zuen. Hala ere, 2018-2019ko igoerak ez zuen lortu arintzea 2017-2018 aldiko  $-%$  12,2ko murrizketa, zeinak aurretiaz beste murrizketa bat izan baitzuen,  $-%$  3,3koa, 2016. eta 2017. urteen artean. Hortaz, 2019ko 8,19 euroko gastua 2016ko 9,05 euroko gastuaren azpitik egon zen oraindik.

Gizarte-prestazio ekonomikoetan 2019an biztanleko gasturik handiena egin zuen udalerririk Gasteiz izan zen: 25,32 euro. 2016tik 2017ra halako gastuan  $-%$  27,4ko murrizketa handia izan ondoren, gastuak gorantz egin zuen gerora: 2017-2018 aldian,  $%$  15,5, eta 2018-2019 aldian,  $%$  7,6. 2019an biztanleko egindako 25,32 euroko gastuak berriro gainditu zuen 2015eko 24,75 euroko gastua, baina 2016ko 28,04 euroko gastuaren azpitik egon zen oraindik.

2019an, Arabako hiriburuko gastuaren oso azpitik geratu zen Donostiak egindako gastua: 9,74 euro biztanleko, hau da,  $%$  0,4 baino ez zuen egin gora 2018ko 9,69 euroko gastuarekin alderatuta. 2015ean biztanleko gastua 22,45 eurokoa izan zuen udalerririk Arabako hiriburuarekiko duen distantzia hori lotuta zegoen 2017-2018 aldian izandako  $-%$  54,8ko jaitsierarekin (zifra absolutuetan, aldi horretan, biztanleko 21,46 euroko gastua izatetik 9,69 eurokoa izatera pasatu zen).

2019an, Gipuzkoako hiriburuak gizarte-prestazioetan biztanleko egin zuen gastua Arabako gainerako udalerririk nagusietan biztanleko egindako 13,86 euroko gastuaren azpitik egon zen. Azken udalerririk horietan, gastuak gorakada handia izan zuen 2015-2016 aldian ( $%$  46,8), baina, konparazioa eginda, 2016-2017 aldiko jaitsiera motela izan zen ( $-%$  4,0), eta 2017-2018 aldiko igoerak ( $+$   $%$  5,3) konpentsatu zuen. Horrek azaltzen du 2018ko 13,77 euroko kopurua 2015eko 9,29 eurokoa baino askoz ere handiagoa izatea. Hala ere, 2018. eta 2019. urteen artean, gastuaren bilakaeraren ezaugarria egonkortasuna izan zen:  $%$  0,7 egin zuen gora.

Arabako gainerako udalerrietan, ordea, 2018-2019 aldirian mantendu egin zen prestazioen arloko gastuan 2017-2018 aldirian izandako goranzko joera. Hala ere, udalerririk horietan biztanleko egindako udal-gastua oso murrizta izan zen oraindik (1,05 euro), eta zifrarik txikiena izan zen Euskadiko udalerririk guztiak hartuta.

Donostian 2018. eta 2019. urteen artean gastuak izandako egonkortzearekin alderatuta, Gipuzkoako gainerako udalerrietan aldiririk horietan ezaugarri nagusia izan zen gizarte-prestazioen arloko gastua nabarmen suspertu zela: % 16,2 egin zuen gora udalerririk nagusietan –hiriburua sartu gabe–, eta % 25,0, gainerako udalerrietan.

Gipuzkoako gainerako udalerririk nagusien kasuan, aldiririk horietan izandako % 16,2ko igoerak ez zeukan zerikusirik Bizkaian 2018. eta 2019. urteen artean biztanleko gastuak izandako –% 5,5eko jaitsierarekin. Azken lurralde honetan, mantendu egin zen 2017tik 2018tik izandako –% 4,8 beherakada, beraz. Hori dela eta, Gipuzkoako gainerako udalerririk nagusiak Bizkaikoen gainetik kokatu ziren berriro gizarte-prestazioen arloan 2019an biztanleko egindako gastuari zegokionez: 8,60 euro, Gipuzkoan; 7,14 euro, Bizkaian (2018an, 7,40 eta 7,55 euro hurrenez hurren). Hala, Gipuzkoan, 2019ko 8,60 euroko gastuak 2012-2018 aldiririk erregistroak gainditu zituen. Bizkaiko gainerako udalerririk nagusietan, berriz, 2019ko 7,14 euroko gastua 2018ko 7,93 euroko gastuaren azpitik geratu zen.

Gainerako udalerririk horietan, 2017-2018 aldirian izandako beherakada handiekin alderatuta, prestazioen arloan biztanleko egindako gastuak hazkunde nabarmena izan zuen 2018-2019 aldirian (% 12,5), baina Gipuzkoak izandako % 25eko hazkundearen erdia izan zen. Beraz, hobetu egin zen Gipuzkoako udalerririk horien posizioa, gizarte-prestazioen arloan 6,40 euroko gastua egin baitzuten biztanleko, eta, Bizkaiko udalerririk horietan, berriz, 5,46 eurokoa. Bai Gipuzkoan bai Bizkaian, halako udalerririk guztiek zuten ezaugarri bat izan zen 2018. eta 2019. urteen artean gastuak bilakaera hobea izan zuela lurraldeko hiriburu ez diren udalerririk nagusietan. Beraz, murriztu egin zen gastuan udalerririk handiago horiekiko zegoen distantzia.

Bilboko kasua berezia izan zen, 2016-2019 aldirian gizarte-prestazioen arloko biztanleko udal-gastua murriztu ondoren, haren biztanleko gastua 1,95 euroko baino ez baitzen izan 2018an. Kopuru hori, Gasteizen eta Donostian ikusitako kopuruetatik ez ezik, Euskadiko gainerako udalerririk horietako kopuruetatik ere aldiririk aldendu zen, salbuespen bakarra zirela Araban biztanleko gutxien dituzten udalerririk horiak.

26., 27. eta 28. tauletako datuek aukera ematen dute aztertzeko gizarte-zerbitzuen nukleo nagusia osatzen duten aldiririk horietako bakoitzean egindako udal-gastua. 26. taulan gizarte-zerbitzuen egiturarik buruzko datuak daude, eta egiaztatuta daiteke 2019an udal-egitura hori finantzatzeko biztanleko egindako gastua 28,22 eurokoa izan zela. Beraz, % 11,9 egin zuen gora, 2018ko 25,22 euroko gastuarekin alderatuta. Hori dela eta, areagotu egin zen 2016-2017 aldirian eta 2017-2018 aldirian hautemandako hazkundera suspertzeko joera (% 0,6ko eta % 1,9ko igoera, hurrenez hurren). Txikia izan arren, goranzko joera horrek zeharo aldiririk aldatu zuen 2015-2016 aldiririk beheranzko joera, gastuak % 5,5 egin baitzuen behera orduan. Hortaz, 2019an biztanleko egindako 28,22 euroko gastuak 2015eko 26,02 eurokoa gainditu zuen, termino nominaletan.



Aztertutako udal-eremuen posizioa eta dinamika oso ezberdina izan zen 2019an ere. Gastuarekiko konpromiso handiagoko posizioetan Gasteiz dugu, eta dimentsio honetan posizio esanguratsuenak zituen udalerrria izan zen: 49,18 euroko gastua egin zuen biztanleko.

Askoz beherago egon arren, Donostiako gastua oso garrantzitsua izan zen ere: 2019an, 41,15 euro biztanleko. Bilboko mailak ere esanguratsuak izan ziren. 2019an, EAeko erregistro orokorraren gainetik kokatu zen, biztanleko 29,61 euroko gastuarekin.

Hala ere, urte horretan Bilboko zifra Gipuzkoako gainerako udalerrri nagusietako biztanleko egindako 32,00 euroko gastuaren azpitik geratu zen. Gipuzkoako gainerako udalerrrien gastua Bizkaiko hiriburuko gastuaren azpitik geratu zen, baina EAeko erregistro orokorraren gainetik: 28,74 euro biztanleko.

EAeko batezbestekotik behera egon arren, 20 eurotik hurbil zeuden mailetan mantendu zen Bizkaiko udalerrri nagusiek biztanleko egindako udal-gastua (19,97 euro), baita Arabako udalerrriek (hiriburua kenduta) egindako gastua ere (19,11 euro, udalerrri nagusietan –Gasteiz sartu gabe–, eta 20,27 euro, gainerako udalerrietan. Atalase horretatik behera geratu ziren Bizkaiko gainerako udalerrriak: 16,23 euro biztanleko.

Bilakaera berrienean gastuaren igoera esanguratsuak izan ziren udalerrri edo udalerrri-talde batzuetan gizarte-zerbitzuen egituran biztanleko egindako gastuan. 2018. eta 2019. urteen artean, hazkunderik handiena Arabako udalerrri txikienek izan zuten, % 102,5ekoa. Igoera deigarria izan zen Gipuzkoako udalerrri guztietan, Donostian barne, eta Bizkaiko udalerrri nagusietan –hiriburua sartu gabe–, non % 18,5 eta % 22,4 artean egin baitzuen gora gastuak.

Arabako udalerrri txikienetan eta Donostian, goranzko joera hori 2017-2018 alditik izan zen, baina hazkunde-mailak txikiagoak izan ziren orduan (% 20,7 eta % 5,4, hurrenez hurren). Gipuzkoako gainerako udalerrri-taldeetan eta Bizkaiko udalerrri nagusietan –hiriburua sartu gabe–, 2018-2019 aldiko igoeraren aurretik, biztanleko gastuak behera egin zuen 2017. eta 2018. urteen artean. Edonola ere, kasu guztietan, 2012-2015 alditik biztanleko egindako gastuak mailarik altuena izan zuen 2019an.

**26. taula.**  
**Gizarte-zerbitzuen egiturako udal gastu arrunta, udal motaren arabera. 2018-2019**  
**(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2018-2019 aldian %-tan)**

		2018	2019	2018	2019	Bariazioa 2018/2019 aldian
Gastu eta udalerrri mota		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
<b>Oinarrizko gizarte-zerbitzuak (gizarte-urgentziak barne)</b>	<b>EAE</b>	<b>42.649.231</b>	<b>44.501.190</b>	<b>19,56</b>	<b>20,34</b>	<b>4,0</b>
	Gasteiz	6.651.176	6.190.844	27,28	25,15	-7,8
	Arabako beste udalerrri nagusiak	362.681	415.515	12,59	14,45	14,8
	Arabako gainerakoak	302.486	419.736	5,72	7,91	38,3
	Donostia	4.622.802	5.479.515	25,54	30,16	18,1
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	3.231.647	3.111.949	25,51	24,45	-4,2
	Gipuzkoako gainerakoak	10.534.711	10.760.501	25,91	26,36	1,7
	Bilbo	6.954.731	7.554.967	20,29	22,00	8,4
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	5.991.286	6.812.369	14,09	16,02	13,7
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	3.997.711	3.755.794	10,73	10,04	-6,4
<b>Zerbitzu tekniko espezializatuak</b>	<b>EAE</b>	<b>9.170.136</b>	<b>8.895.068</b>	<b>4,21</b>	<b>4,07</b>	<b>-3,3</b>
	Gasteiz	4.477.773	4.382.335	18,37	17,80	-3,1
	Arabako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,00	0,00	0,0
	Arabako gainerakoak	0	0	0,00	0,00	0,0
	Donostia	770.471	898.835	4,26	4,95	16,2
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	210.105	169.564	1,66	1,33	-19,7
	Gipuzkoako gainerakoak	287.172	240.313	0,71	0,59	-16,7
	Bilbo	2.209.319	2.137.960	6,44	6,23	-3,4
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	1.124.987	943.607	2,65	2,22	-16,1
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	90.309	122.454	0,24	0,33	35,1
<b>Egitura eta emaitza orokorra</b>	<b>EAE</b>	<b>3.165.216</b>	<b>8.352.937</b>	<b>1,45</b>	<b>3,82</b>	<b>163,0</b>
	Gasteiz	4.471.943	1.532.898	18,34	6,23	-66,0
	Arabako beste udalerrri nagusiak	158.266	134.141	5,49	4,66	-15,1
	Arabako gainerakoak	226.849	655.433	4,29	12,35	188,0
	Donostia	864.237	1.096.021	4,78	6,03	26,4
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	-130.408	792.223	-1,03	6,22	-704,6
	Gipuzkoako gainerakoak	-955.137	734.287	-2,35	1,80	-176,6
	Bilbo	74.462	476.814	0,22	1,39	539,2
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	-95.785	739.625	-0,23	1,74	-872,0
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	4.397.331	2.191.495	11,80	5,86	-50,4
<b>EGITURA GUZTIRA</b>	<b>EAE</b>	<b>54.984.583</b>	<b>61.749.195</b>	<b>25,22</b>	<b>28,22</b>	<b>11,9</b>
	Gasteiz	15.600.892	12.106.077	63,99	49,18	-23,1
	Arabako beste udalerrri nagusiak	520.947	549.656	18,08	19,11	5,7
	Arabako gainerakoak	529.335	1.075.169	10,01	20,27	102,5
	Donostia	6.257.510	7.474.371	34,57	41,15	19,0
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	3.311.344	4.073.736	26,14	32,00	22,4
	Gipuzkoako gainerakoak	9.866.746	11.735.101	24,27	28,74	18,5
	Bilbo	9.238.512	10.169.741	26,95	29,61	9,9
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	7.020.488	8.495.601	16,51	19,97	21,0
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	8.485.351	6.069.743	22,77	16,23	-28,8

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



Aztertutako udalerrri horien zifrak baino apur bat txikiagoak izan zituzten Bilbok eta Arabako udalerrri nagusiek –hiriburua sartu gabe–, baina, hala ere, 2018. eta 2019. urteen artean gizarte-zerbitzuen egituraren egindako gastuak hazkunde garrantzitsuak izan zituen: % 9,9 eta % 5,7, hurrenez hurren. Bilbon, goranzko joera 2016-2017 aldian hasi zen (% 7,5; eta 2017-2018 aldian, % 9,9), eta hazkunde jarraitua ekarri zuen, 2019an biztanleko gastuan maila maximoak lortu arte. Aipatutako Arabako udalerrietan, goranzko joeraren aurretik, jaitsiera nabarmena egon zen 2017. eta 2018. urteen artean (–% 15,7). Kasu horretan, 2019an biztanle bakoitzeko egindako 19,11 euroko gastua 2017ko 21,46 eurokoa baino txikiagoa izan zen.

Aipatutako udalerrri-talde gehienak ez bezala, 2018-2019 aldian biztanleko gastuaren bilakaera beheranzkoa izan zen Gasteizen (–% 23,1) eta nagusiak ez diren Bizkaiko gainerako udalerrietan (–% 28,8). Kasu bietan, 2017-2018 aldian izandako hazkunde handien (% 33,5koa, Gasteizen; % 45,7koa, nagusiak ez diren Bizkaiko udalerrietan) ostean etorri ziren jaitsierak.

Gasteizen kasuan, 2017ra arte nagusiak izan ziren mailetara bueltatzea ekarri zuen: urte hartan, biztanleko gastua 47,92 eurokoa izan zen, 2019ko 49,18 euroko gastua baino apur bat txikiagoa. Edonola ere, adierazlea 2018an lortutako 63,99 euroko gastutik urrun egon zen. Bizkaiko gainerako udalerrietan, 2019an biztanleko egindako 16,23 euroko gastua, 2018ko 22,77 euroko gastuaren azpitik geratzeaz gainera, 2012-2016 aldiko 17,56 eta 18,06 euroen arteko zifren azpitik geratu zen.

Garrantzitsua da esatea puntu honetan gizarte-zerbitzuen egituraren gertatutako gastuaren beherakada egitura eta emaitza orokorrek lotuta dagoela neurri batean, eta nolabaiteko lotura duela kudeaketa-prozesuetan defizita kontrolatzeko dinamika positiboarekin. Ildo horretan, egitura eta emaitza orokorrari (defizita barne) lotutako udal-gastuak murrizketak izan zituen aztertutako EAEko udalerrri gehienetan.

2018-2019 aldian, murrizketarik esanguratsuen Gasteizen izan zen, eta normalizazio finantzariarako prozesu garrantzitsu baten isla zen. Kasu horretan, 2017. eta 2018. urteen artean 6,46 euroko gastutik 18,34 eurokora gora egin ondoren, biztanleko gastuak behera egin zuen 2018. eta 2019. urteen artean: 6,23 euro 2019an, hau da, 2017ko mailatik hurbil. 2018. eta 2019. urteen artean, dinamika horrek nagusiak ez diren Bizkaiko gainerako udalerrien bilakaera ere azaltzen du: biztanleko gastua 11,80 eurokoa izatetik 5,86 eurokoa izatera pasatu zen. Modu apalagoan bada ere, joera hori Arabako gainerako udalerrri nagusietara ere zabaldu zen, eta egitura orokorrean biztanleko egindako gastua 5,49 eurokoa izatetik 4,66 eurokoa izatera pasatu zen.

Egitura orokorrean egindako gastuaren dinamika goranzkoa izan zen EAEko gainerako udalerrietan, eta datu horrek azaltzen du egitura orokorrean biztanleko egindako udal-gastuaren bilakaera orokorrean izandako aldaketa. Hala, biztanleko gastuak beheranzko joera izan zuen 2012ko 4,82 euroko gastutik 2015eko 4,24 eurokora, eta, gero, 2018an, minimora iritsi zen: 1,45 euro. Baina, 2019an, udal-gastuak gora egin zuen EAE osoan, 3,82 euroko gastura, hau da, % 163 egin zuen gora.

Gizarte-zerbitzuen egitura espezifikoaren bilakaera aztertzen badugu, 2018. eta 2019. urteen artean behera egin zuen zerbitzu tekniko espezializatuaren biztanleko egindako udal-gastuak: – % 3,3. 2017-2018 aldian % 17,7 gora egin ondoren, 2015etik 2017ra bitartean nagusi izandako beheranzko dinamika berreskuratu zen, beraz (–% 8,8, 2015etik 2016ra; –% 3,6, 2016tik 2017ra). 2019an, 4,07 euro gastatu ziren biztanleko, hau da, 2018an baino gutxiago (4,21 euro) eta 2015eko kopurutik hurbil (4,06 euro).

Zerbitzu espezializatuen arloko gastua murrizteko prozesuak ia lurralde osoari eragin zion eta ia ez zen egon salbuespen esanguratsurik. Bizkaiko gainerako udalerriez gainera, non gastu horrek inpaktu eskasa izan baitzuen, Donostian baino ez zuen izan gorakada nabarmena. Udalerririk horretan, zerbitzu espezializatuen arloko gastuak % 16,2 egin zuen gora 2018. eta 2019. urteen artean.

Gasteiz izan zen 2019an zerbitzu espezializatuetan biztanleko gasturik handiena izan zuena: 17,80euro biztanleko, hau da, gastu nabarmen handiagoa Bizkaikoa (6,23 euro) edo Donostiakoa (4,95 euro) baino. Hala ere, Donostiak aurrerapen argia izan zuen 2018ko 4,26 euroko gastuarekin alderatuta. Gastua askoz txikiagoa izan zen Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerririk nagusietan: biztanleko 2,22 eta 1,33 euro, hurrenez hurren. Eta zifrak askoz txikiagoak izan ziren gainerako udalerrietan: Gipuzkoan, 0,59 euro biztanleko, eta Bizkaian, 0,33 euro. Hiriburutik kanpo, Arabako udalerririk ez zuten izan gasturik partida honetan.

Bilakaera positiboagoa izan zen oinarrizko gizarte-zerbitzuen arloan 2018. eta 2019. urteen artean izandako gastuari dagokionez. Kasu horretan, biztanleko udal-gastuak gora egin zuen 2018ko 19,56 euroko gastutik 2019ko 20,34 eurokora (% 4,0ko igoera). 2017-2018 aldian % 8,0ko gehikuntza baino txikiagoa izan arren, hazkunde-erritmoa 2015-2016 aldiko % 0,8ko eta 2016-2017 aldiko % 1,5eko gehikuntzaren gaineratik egon zen. Eta 2019ko 20,34 euroko gastuak jada argi gainditu zuen 2015eko 17,72 eurokoa, eta erregistro maximoa izan zen 2012tik aurrera.

Bilakaera, ordea, ez zen berdina izan lurralde guztietan. 2018. eta 2019. urteen artean, hazkunderik handienak –% 14tik hurbil edo hortik gorakoak– Arabako udalerrietan izan ziren, Gasteiz sartu gabe (% 14,8 beste udalerririk nagusietan, eta % 38,3, Arabako gainerako udalerrietan), baita Donostian (% 18,1) eta Bizkaiko udalerririk nagusietan (% 13,7) ere, baina Bilbo sartu gabe.

Hazkundera apalagoa izan bazen ere, nabarmentzekoa da Bilbok biztanleko egindako gastuak izan zuen gorakada: % 8,4. Izan ere, Bilbon eta Bizkaiko beste udalerririk nagusietan baino ez zen mantendu halako gastuaren hazkundera 2017tik aurrera, non 2017. eta 2018. urteen artean % 8,8ko eta % 4,4ko gorakadak izan baitzituzten, hurrenez hurren. Gipuzkoako udalerririk txikietan ere gora egin zuen gastuak 2017-2019 aldian, baina hazkunde-erritmoak moteltzea argia izan zuen: 2017-2018 aldian, % 5,0 egin zuen gora, eta 2018-2019 aldian, % 1,7.

Arabako udalerririk nagusiak kenduta (hiriburua sartu gabe, non biztanleko gehieneko gastua 2017an egin baitzen), goranzko joera izan zuten gainerakoetan 2012tik aurrera izandako gehieneko gastuak 2019an lortu ziren.

Aipatutako udalerririk ez bezala, oinarrizko gizarte-zerbitzuen arloan biztanleko egindako udal-gastuak behera egin zuen Gasteizen (–% 7,8), Gipuzkoako udalerririk nagusietan –Donostia sartu gabe– (–% 4,2) eta Bizkaiko gainerako udalerririk nagusietan (–% 6,4). Azken kasu horretan izan ezik, non gehieneko gastua 2012an izan baitzen, beste bietan gehieneko gastuak 2018an lortu ziren (2012tik aurrera aztertuta).

Bilakaera hori garrantzitsua da, termino absolutuetan, Gasteizek 2019an lehenengo postuan egoteari utzi baitzion oinarrizko gizarte-zerbitzuen arloko gastuari dagokionez. Biztanleko gastua 2018an 27,28 eurokoa izatetik 2019an 25,15 eurokoa izatera pasatu ondoren, zifra hori gainditu egin zuten Donostiak urte horretan egindako 30,16 euroko gastuak eta Gipuzkoako beste udalerririk egindako 26,36 euroko gastuak. Gipuzkoako udalerririk nagusien gastua ere hurbildu zen 2019an Gasteizen mailara, biztanleko 24,45 euroko gastuarekin. Bilbo aipatutako mailetatik hurbil kokatu zen, beherago bada ere, biztanleko 22,00 euroko gastua eginda 2019an.





Zifra horien azpitik, Arabako eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan biztanleko gastua 10 eta 16 euro artekoa izan zen (14,45 eta 16,02 euro, hurrenez hurren), baita Bizkaiko udalerrri txikiena ere (10,04 euro). Arabako udalerrri txikienek 7,91 euro gastatu zituzten biztanleko oinarritzko gizarte-zerbitzuetan.

27. taulan daude jasota mendekotasunaren arretarekin eta adinekoen eta desgaitasuna/gaixotasunak dituzten pertsonen zaintzarekin lotutako jarduketetara bideratutako udal-gastuaren inguruko datu nagusiak.

Adineko pertsonen arretarekin hasita, egiaztatu ahal da 2019an kolektibo horretara bideratutako udal-gastua 14,75 eurokoa izan zela biztanleko, hau da, 2018ko 15,01 euroko gastuarekin alderatuta,  $-1,7\%$  egin zuen behera, 2017-2018 aldian  $5,2\%$  gora egin ondoren. Hala, 2018. eta 2019. urteen artean, 2015etik 2017ra bitartean izandako beheranzko joera berreskuratu zen: 2015-2016 aldian,  $-6,5\%$ , eta 2016-2017 aldian,  $-9,5\%$ . Bilakaera horren ondorioz, 2019ko 14,75 euroko gastua gehiago urrundu zen 2015ean biztanleko izandako 16,87 euroko gastutik edo 2012ko 16,69 eurokotik.

Adineko pertsonen aldeko udal-gastuaren eremuan, 2019an, biztanleko 12,22 euro zegozkien egoitza-zentroei, eta 2,53 euro, adineko pertsonentzako eguneko zentroei eta beste zentro eta zerbitzuei.

2018-2019 aldiko bilakaera aztertuta, ikusten da adinekoei bideratutako gastuan izandako beherakada orokorra lotuta zegoela egoitza-zentroetan egindako gastuak izandako  $-3,7\%$  murrizketarekin. 2017-2018 aldian  $2,5\%$  gora egin ondoren, 2015-2016 aldian eta 2016-2017 aldian izandako beheranzko joera nabarmena ( $-7,5\%$  eta  $-10,1\%$ ) berreskuratu zen. Hala, egoitza-zentroetan 2019an biztanle bakoitzeko egindako 12,22 euroko gastua 2015eko 14,89 euroko gastutik urrun geratu zen.

Gastuaren goranzko joera, aldiz, nabarmena izan zen adineko pertsonentzako eguneko zentroetan eta beste zentro edo zerbitzuetan. 2017-2018 aldiko  $23,3\%$  gehikuntza baino txikiagoa izan arren, 2018-2019ko aldiko  $9,2\%$  gehikuntza garrantzitsua izan zen. 2015-2016 aldiko  $0,8\%$  gehikuntzaren testuinguruan, bilakaera hori nahikoa izan zen 2016-2017 aldiko  $-5,6\%$  beherakada konpentsatzeko. Kasu horretan, 2019an biztanleko egindako 2,53 euroko gastua 2012ko eta 2015eko gastua baino handiagoa izan zen (1,98 eta 1,99 euro).

Udal-eremuan, 2019an berriro ere Gasteiz nabarmendu zen gastuaren arlo horretan: adineko pertsonen bideratutako gastua 46,40 eurokoa izan zen biztanleko; beraz, EAeko batezbestekoa baino ia hiru aldiz handiagoa; eta 2019ko 45,57 euroko gastua baino  $1,8\%$  handiagoa. Hala eta guztiz ere, 2017-2018 aldian  $5,2\%$  gora egin arren, 2016-2017 aldian  $-20,8\%$  behera egin ondoren, biztanleko gastua 2015eko 54,93 eurokoa baino txikiagoa izan zen oraindik ere.

EAeko batezbestekoaren gainetik egon ziren Bizkaiko herri nagusiak ere, Bilbo alde batera utzita, biztanleko 23,87 euroko gastuarekin. 2015-2016 aldiko eta 2016-2017 aldiko beherakada handien ostean ( $-8,4\%$  eta  $-6,4\%$ , hurrenez hurren), 2017. eta 2018. urteen artean gastuak  $18,2\%$  egin zuen gora, eta, apalago bada ere, gora jarraitu zuen 2018-2019 aldian ere:  $3,6\%$ . Hala, 2019an biztanleko izandako gastuak 2015eko 22,72 euroko gastua gainditu zuen.

Tarteko posizioetan, baina EAeko erregistro orokorretik eta Bizkaiko udalerrri horien gastutik behera, Donostia eta Bilbo zeuden: 2019an adineko pertsonengana bideratutako gastua 12,81 eta 10,83 eurokoa izan zen biztanleko, hurrenez hurren.

## 27. taula.

Desgaitasuna/gaixotasuna edo mendekotasun-arazoak dituzten nahiz adinekoak diren pertsonentzako zentro eta zerbitzuetako udal-gastu arrunta, zentro/zerbitzu eta udalerrri motaren arabera. 2018-2019  
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2018-2019 aldian %-tan)

		2018	2019	2018	2019	Bariazioa 2018/2019 aldian
Zentro/zerbitzu mota eta udalerrri mota		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
<b>Egoitza-zentroak</b>	<b>EAE</b>	<b>27.677.983</b>	<b>26.736.275</b>	<b>12,7</b>	<b>12,2</b>	<b>-3,7</b>
	Gasteiz	8.560.574	8.506.946	35,1	34,6	-1,6
	Arabako beste udalerrri nagusiak	1.982	0	0,1	0,0	-100,0
	Arabako gainerakoak	134.466	36.890	2,5	0,7	-72,7
	Donostia	2.472.206	2.352.059	13,7	12,9	-5,2
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	1.526.793	732.379	12,1	5,8	-52,3
	Gipuzkoako gainerakoak	1.692.282	952.205	4,2	2,3	-44,0
	Bilbo	3.181.391	3.572.949	9,3	10,4	12,1
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	8.137.329	8.630.497	19,1	20,3	6,0
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	1.970.960	1.952.350	5,3	5,2	-1,3
<b>Eguneko zentroak eta beste zentro/zerbitzu batzuk</b>	<b>EAE</b>	<b>5.061.281</b>	<b>5.545.826</b>	<b>2,3</b>	<b>2,5</b>	<b>9,2</b>
	Gasteiz	2.549.835	2.913.489	10,5	11,8	13,2
	Arabako beste udalerrri nagusiak	19.327	19.210	0,7	0,7	-0,4
	Arabako gainerakoak	184.241	233.449	3,5	4,4	26,3
	Donostia	-27.676	-25.534	-0,2	-0,1	-8,1
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,0	0,0	0,0
	Gipuzkoako gainerakoak	133.697	278.454	0,3	0,7	107,4
	Bilbo	152.827	145.809	0,4	0,4	-4,8
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	1.658.802	1.522.112	3,9	3,6	-8,3
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	390.228	458.837	1,0	1,2	17,1
<b>ADINEKO PERTSONAK</b>	<b>EAE</b>	<b>32.739.264</b>	<b>32.282.101</b>	<b>15,0</b>	<b>14,8</b>	<b>-1,7</b>
	Gasteiz	11.110.409	11.420.435	45,6	46,4	1,8
	Arabako beste udalerrri nagusiak	21.309	19.210	0,7	0,7	-9,7
	Arabako gainerakoak	318.707	270.339	6,0	5,1	-15,4
	Donostia	2.444.530	2.326.525	13,5	12,8	-5,2
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	1.526.793	732.379	12,1	5,8	-52,3
	Gipuzkoako gainerakoak	1.825.979	1.230.659	4,5	3,0	-32,9
	Bilbo	3.334.218	3.718.758	9,7	10,8	11,3
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	9.796.131	10.152.609	23,0	23,9	3,6
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	2.361.188	2.411.187	6,3	6,4	1,7



## 27. taula.

Desgaitasuna/gaixotasuna edo mendekotasun-arazoak dituzten nahiz adinekoak diren pertsonentzako zentro eta zerbitzuetako udal-gastu arrunta, zentro/zerbitzu eta udalerrri motaren arabera. 2016-2019  
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2016-2019 aldian %-tan)

Jarraipena

Zentro/zerbitzu mota eta udalerrri mota	2018		2019		Bariazioa 2018/2019 aldian
	Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	
<b>DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA</b>	<b>1.235.074</b>	<b>1.104.555</b>	<b>0,6</b>	<b>0,5</b>	<b>-10,9</b>
EAE					
Gasteiz	479.540	0	2,0	0,0	0,0
Arabako beste udalerrri nagusiak	920	850	0,0	0,0	-7,5
Arabako gainerakoak	0	0	0,0	0,0	0,0
Donostia	75.043	47.224	0,4	0,3	-37,3
Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,0	0,0	0,0
Gipuzkoako gainerakoak	60.200	75.120	0,1	0,2	24,3
Bilbo	70.375	368.826	0,2	1,1	423,1
Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	530.163	565.996	1,2	1,3	6,7
Bizkaiko gainerako udalerrriak	18.833	46.539	0,1	0,1	146,1
<b>ETXEKO LAGUNTZA (zaintzaileen babesa barne)</b>	<b>52.602.999</b>	<b>52.899.946</b>	<b>24,1</b>	<b>24,2</b>	<b>0,2</b>
EAE					
Gasteiz	9.205.105	10.564.157	37,8	42,9	13,7
Arabako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,0	0,0	
Arabako gainerakoak	30.727	34.599	0,6	0,7	12,3
Donostia	4.887.600	6.560.573	27,0	36,1	33,7
Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	2.563.865	2.773.848	20,2	21,8	7,7
Gipuzkoako gainerakoak	5.387.959	7.576.051	13,3	18,6	40,0
Bilbo	12.803.070	12.423.128	37,3	36,2	-3,1
Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	10.824.162	8.959.779	25,5	21,1	-17,2
Bizkaiko gainerako udalerrriak	6.900.511	4.007.811	18,5	10,7	-42,2
<b>ADINEKOAK/DESGAITASUNAK/MENDEKOTASUNA GUZTIRA</b>	<b>86.577.337</b>	<b>86.286.602</b>	<b>39,7</b>	<b>39,4</b>	<b>-0,7</b>
EAE					
Gasteiz	20.795.054	21.984.592	85,3	89,3	4,7
Arabako beste udalerrri nagusiak	22.229	20.060	0,8	0,7	-9,6
Arabako gainerakoak	349.434	304.938	6,6	5,7	-13,0
Donostia	7.407.173	8.934.322	40,9	49,2	20,2
Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	4.090.658	3.506.227	32,3	27,5	-14,7
Gipuzkoako gainerakoak	7.274.138	8.881.830	17,9	21,8	21,6
Bilbo	16.207.663	16.510.712	47,3	48,1	1,7
Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	21.150.456	19.678.384	49,7	46,3	-7,0
Bizkaiko gainerako udalerrriak	9.280.532	6.465.537	24,9	17,3	-30,6

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Hala ere, bilakaera oso ezberdina izan zen bi udalerrri horietan. Alde batetik, Donostian biztanleko gastuak  $-5,2\%$  egin zuen behera 2018ko 13,51 euroko gastuarekin alderatuta. Jaitsiera hori 2017. eta 2018. urteen artean izandako hazkunderaren egonkortzearen ( $0,7\%$ ) jarraipena izan zen, 2016-2017 aldian hazkunde handia izan ondoren ( $37,9\%$ ). Hala ere, suspertze hori baino lehen,  $-44,1\%$ eko jaitsiera handia izan zuen 2015-2016 aldian. Hortaz, Gipuzkoako hiriburuan 2019an biztanleko izandako 12,81 euroko gastua oso urrun egon zen 2015eko 17,40 euroko gastutik, edo 2012ko 17,96 eurokotik.

Bilbori dagokionez, adinekoen arloan biztanleko egindako gastua 9,73 eurokoa izan zen 2018an, hau da,  $0,7\%$  egin zuen gora 2017ko 9,66 euroko gastuarekin alderatuta. Baina 2019an gastua 10,83 eurokoa izan zen biztanleko, hau da, aurreko urtean baino  $11,3\%$  handiagoa. EAEko erregistro orokorretik urrun egon arren, kasu horretan baino ez zen izan etengabea igoera 2015etik 2019ra bitartean, eta, aurretik, hazkunde hauek izan zituen: 2015-2016 aldian,  $5,8\%$  egin zuen gora, eta 2016-2017 aldian,  $17,6\%$ . Hori dela eta, Bilbon adinekoen arloan 2019an biztanleko egindako gastuak nabarmen gainditu zuen 2015eko 7,76 euroko gastua.

Hiru hiriburuetan eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan adinekoen arloan egindako udal-gastuarekin alderatuta, Gipuzkoako gainerako udalerrietan egindako gastua oso txikia izan zen 2019an, 5,75 euro baino ez. Kasu horretan, Donostian izandako aldaketak handiagoak izan ziren eta abiapuntua ziren 2012. eta 2016. urteen artean adinekoen arloko gastuan izandako jaitsiera handiak. 2016-2017 aldian  $9,3\%$  gora egin ondoren, geroko moteltze-prozesua deigarria izan zen ere: biztanleko gastuak  $2,1\%$  egin zuen gora 2017. eta 2018. urteen artean. Udalerrri horietan, hala ere, 2018-2019 aldian gastuak gehiago egin zuen behera, eta biztanleko 12,05 euro gastatuzetik 5,75 euro gastatzera pasatu zen ( $-52,3\%$ ). Hortaz, gastua urrundu egin zen 2012an biztanleko egindako 18,89 euroko gastutik, eta 2015eko 15,21 eurokotik. Gainera, 2012tik lehenengo aldiz, biztanleko 10 euroko atalasearen azpitik geratu zen.

EAEko udalerrri txikietan, biztanleko udal-gastua 3,01 euro eta 6,34 euro bitartean kokatu zen. Antzekoa izan zen gastua Araban eta Bizkaian (5,10 eta 6,45 euro), eta txikiagoa, berriz, Gipuzkoan (3,01 euro). Dinamika deigarriena Gipuzkoakoa izan zen, biztanleko gastua nabarmen jaitsi baitzen 2016tik aurrera:  $-26,3\%$ , 2016-2017 aldian;  $-38,8\%$ , 2017-2018 aldian, eta  $-32,9\%$ , 2018-2019 aldian. Bilakaera horrek sendotu egin zuen 2012-2015 aldiko beheranzko joera, 2015-2016 aldiko gorakada handiaren ostean ( $+19,8\%$ ). 2019ko 3,01 euroko gastua, beraz, 2015eko 8,31 eurokoa baino askoz txikiagoa izan zen Gipuzkoako udalerrri horietan.

Halaber, 2018. eta 2019. urteen artean nabarmen murriztu zen adinekoen arloko udal-gastua Araban biztanle gutxien duten udalerrietan, eta biztanleko 6,03 euroko gastua egitetik 5,10 euro gastatzera pasatu ziren ( $-15,4\%$ , termino erlatiboetan). Kasu horretan, hala ere, aipatutako jaitsiera 2016. eta 2018. urteen artean gastuak izandako suspertze handiaren ostean etorri zen: 2016-2017 aldian  $15,7\%$  egin zuen gora, eta 2017-2018 aldian,  $19\%$ . Igoera horrek konpentsatu egin zuen 2015-2016 aldiko  $-19,5\%$ eko jaitsiera. Hala, 2018an biztanleko egindako 6,03 euroko gastutik urrun egon arren, 2019ko 5,10 euroko gastua ez zen asko urrundu 2015eko 5,44 eurokotik.

Arabako eta Gipuzkoako udalerrri txikienekin alderatuta, Bizkaiko gainerako udalerriek gorakada handia izan zuten 2017-2018 aldian ( $34\%$ ), eta, jarraian, apur bat txikiagoa,  $1,7\%$ koa, 2018ko biztanleko 6,34 euroko gastutik 2019ko 6,45 eurokora. Hortaz, zifra horrek 2015eko 6,29 euroko gastua gainditu zuen, baina 2012ko 7,43 euroko gastuaren azpitik egon zen oraindik.



Adinekoen arloan biztanleko egin zen gastuak behera egin zuen Arabako gainerako udalerrri nagusietan, eta mailarik baxuenetan egon ziren: 2017ko 1,49 euro gastutik 2018ko 0,74 eurokora pasatu zen, eta 2019ko 0,67 eurokora. Udalerrri horietan, Arabako hiriburua sartu gabe, are txikiagoa izan zen adineko pertsonentzako arretaren arloko gastu konparatua.

Adineko pertsonentzako arreta-zentroak aztertzen hasita, 2018-2019 aldian egoitza-zentroetan egindako gastuak  $-1,6\%$  egin zuen behera Gasteizen, baina 2019an eutsi egin zion bere posizioari eta halako zentroetan gasturik handiena egin zuen udal-erakundea izan zen: 34,56 euro biztanleko. Hala eta guztiz ere, 2018tik 2019ra bitartean gastuak behera egin zuenez ( $-1,6\%$ ), baita 2015etik 2017ra bitartean ere, 2019ko zenbatekoa 2015ean biztanleko izandako 45,87 euroko gastua baino askoz txikiagoa izan zen.

Halaber, Bizkaiko udalerrri nagusietan –Bilbo sartu gabe– egoitza-zentroetan egin zen udal-gastua deigarria izan zen 2019an: 20,29 euro biztanleko. Kasu horretan, 2017-2018 aldian  $13,2\%$  gora egin zuenez, eta 2018-2019 aldian  $6,0\%$ ko igoera handia izan zuenez, 2019ko gastua 2015eko 19,78 eurokoa baino handiagoa izan zen.

Donostian, egoitza-zentroetan biztanleko egindako gastua EAeko erregistro orokorraren gainetik mantendu zen: 12,95 euro. Hala ere, zifra hori 2018ko 13,66 euroko gastua baino  $-5,2\%$  txikiagoa izan zen, eta luzatu egin zuen 2017-2018ko beheranzko joera ( $-1,4\%$  egin zuen behera orduan). Hori dela eta, Donostian, biztanleko gastua 2015ean izandakoaren azpitik geratu zen: 12,95 euro 2019an; 17,83 euro, 2015ean.

Bestalde, Bilbo EAeko erregistro orokorretik urrun egon zen oraindik, biztanleko 10,40 euroko gastuarekin. Dena den, 2017tik 2018ra hazkundea moteldu arren ( $1,3\%$ ), udalerrri horretan gastuak goranzko joera izan zuen 2015etik 2017ra ( $4,4\%$ , 2015-2016 aldian, eta  $18,6\%$ , 2016tik 2017ra). Hazkunde-erritmoak goranzko joerari eutsi zion 2018. eta 2019. urteen artean, eta  $12,1\%$  egin zuen gora gastuak. 2015ean biztanleko egin zen 7,41 euroko gastua baino handiagoa izan zen 2019ko 10,40 euroko kopurua.

Gipuzkoako gainerako udalerrri nagusietan askoz txikiagoa izan zen egoitza-zentroen arloan biztanleko egin zen gastua: 5,75 euro biztanleko. Halako zentroetan metatu zen adinekoen arloan egindako gastuaren jaitziera guztia, zeina lehenago azaldu baita udalerrri horientzat, eta 2018. eta 2019. urteen artean gastuak izandako  $-52,3\%$ ko jaitzieraren ondorio zen.

Antzeko mailetan egon zen Bizkaiko gainerako udalerrietan 2019an biztanleko egin zen gastua: 5,22 euro. 2018ko gastua (5,29 euro)  $-1,3\%$  txikiagoa izan zen. Zifra 2,33 eurokoa izan zen Gipuzkoako gainerako udalerrietan, eta 0,70 eurokoa, Arabako gainerako udalerrietan. 2018. eta 2019. urteen artean jaitziera deigarriak izan zituzten ( $-44,0\%$  eta  $-72,7\%$ ). Minimoa Arabako udalerrri nagusietan –Gasteiz sartu gabe– izan zen, 2019an ez baitzuten ia gasturik izan arlo honetan.

Adinekoentzako eguneko zentroetan eta beste zerbitzu batzuetan, 2019an Gasteizen egin zen udal-ekarpena nabarmendu zen: 11,84 euro biztanleko. Kasu horretan, 2017-2018 aldiko  $6,1\%$ ko igoera areagotu egin zen 2018-2019 aldian,  $13,2\%$  egin baitzuen gora gastuak, 2018ko 10,46 euroko gastuarekin alderatuta. 2015-2016 aldiko gastua suspertzeko joeraren barruan, adierazitako igoerek sobera konpentsatu zuten 2016-2017 aldiko  $-7,1\%$ ko beherakada, eta Gasteizen 2015ean biztanleko izandako 9,06 euro gastua gainditu zen 2019an.

Arabako gainerako udalerrietan ere zerbitzu mota horretan biztanle bakoitzeko egin zen gastuak (4,40 euro) EAeko adierazle orokorra gainditu zuen, eta 2018. eta 2019. urteen artean gastuak  $26,3\%$  egin zuen gora, baina igoera horrek partzialki baino ez zuen konpentsatu 2017-2018 aldiko

–% 26,9ko beherakada. Hortaz, 2019ko 4,40 euroko gastua 2017ko 4,76 euroko gastuaren azpitik egon zen oraindik.

Ildo beretik, Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan ere, Bilbon izan ezik, adinekoentzako eguneko zentroetan eta beste zerbitzu batzuetan 2019an biztanleko egindako gastua EAEko adierazlearen gainetik egon zen: 3,58 euro biztanleko. Halako udalerrietan, 2017-2018 aldian nabarmen igo zen gastua (% 50,7), eta 2015eko maila gainditu ahal izan zen (3,90 euro 2019an, eta, 2015ean, 2,95 euro). Aldaketa garrantzitsua izan zen, udalerrri horietan 2012tik 2017ra beheranzko joera jarraitua izan baitzen gastu mota horretan. Hala ere, 2018. eta 2019. urteen artean berriro izan zuen biztanleko gastuak beherakada handia (–% 8,3, 2018ko 3,90 euroko gastutik 2019ko 3,58 euroko gastura).

Bestalde, 2019an mantendu egin zen Bilbok edo Donostiak halako jarduketetan izandako partaidetza urria (biztanleko 0,42 euro baino ez Bilbon, eta –0,14 euroko ekarpen garbi negatiboa, berriz, Gipuzkoako hiriburuan).

Etxeko laguntzari eta zaintzaileentzako arretari dagokienez, EAEko udalen ekarpena oso esanguratsua izan zen oraindik 2019an, eta adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuetara bideratutako 14,75 euroko gastua gainditu zuen. Programa horretan biztanleko egin zen gastua 24,18 eurora iritsi zen 2019an, hau da, 2018ko 24,12 euroko gastua baino % 0,2 handiagoa soilik, eta 2015ean biztanleko egin zen 19,24 euroko gastuaren gainetik mantendu zen. 2017-2018 aldian izandako % 47,5eko hazkunde handiaren ondorioa izan zen, eta kontrastatu egin zuen 2015etik aurrera gastuak izandako beheranzko joerarekin: 2015-2016 aldian biztanleko egin zen gastuak –% 11,1 egin zuen behera; eta 2016tik 2017ra, –% 4,4.

Arabako udalerrri nagusiak izan ziren salbuespen bakarra (Gasteiz alde batera utzita). Udalerrri horietan udal-ekarpena desagertu egin zen 2018-2019 aldian, baina etxeko laguntzan eta zaintzaileentzako arretan egindako udal-gastuak gora egin zuen 2017. eta 2018. urteen artean. 2018-2019 aldian, berriz, nabarmena izan zen lurraldeen arteko aldea. Alde batetik, gastuak nabarmen gora egin zuen Araban eta Gipuzkoan, eta urtetik urterako tasak % 10etik gorakoak izan ziren oro har, Gipuzkoako gainerako udalerrietan izan ezik, non % 7,7koa izan baitzen. Bizkaian, ordea, behera egin zuen gastuak: –% 3,1, Bilbon; –% 17,2, lurraldeko gainerako udalerrri handietan, eta –% 42,2, Bizkaiko gainerako udalerrietan.

2019an, Gasteiz izan zen berriro etxeko laguntzan eta zaintzaileentzako arretan biztanleko gasturik handiena egin zuen udalerrria. 2012an biztanleko egindako 9,12 euroko gastutik 2015eko 7,13 euroko gastura jaitsi ondoren, halako gastua suspertu egin zen 2015-2019an aldian, bereziki 2016. eta 2017. urteen artean, urte horretan 34,82 eurora igo baitzen. Hori dela eta, Arabako hiriburua lehenengo postuan kokatu zen biztanleko egindako gastuari dagokionez. 2017-2018 aldian, mantendu egin zen goranzko joera (% 8,4), eta areagotu egin zen 2018-2019 aldian, % 13,7koa izan baitzen. 2019an, etxeko laguntzan eta zaintzaileentzako arretan biztanleko egindako gastua 42,92 eurora iritsi zen.

Beste alde batetik, 2015. eta 2017. urteen artean, Bilbon asko jaitsi zen gastua partida honetan: 2015eko 38,71 euroko gastutik 2017ko 29,83 eurokora. 2017tik 2018ra, suspertze nabarmena izan zuen, % 25,2koa zehazki, eta etxeko laguntzan eta zaintzaileentzako arretan biztanleko egindako gastua 37,35 eurokoa izan zen, eta garai hartan Gasteizek izan zuen erregistrotik hurbil kokatu zen, baina 2015eko mailen azpitik oraindik. 2018-2019 aldian, berriz, gastuak –% 3,1 egin zuen behera Bilbon, eta Arabako hiriburuan izandako gastutik urrunduz (2019an, 36,17 euro Bilbon; 42,92, Gasteizen).



2017-2018 aldiko gastuak nabarmen gora egin zuen Donostian: % 20,7. Hortaz, 2015etik aurrerako gastuaren goranzko joerak jarraitu zuen, eta 2016tik 2017ra areagotu egin zen, % 22,8 egin baitzuen gora. Hala ere, kasu horretan, 2018-2019 aldirian asko suspertu zen etxeko laguntzaren eta zaintzaileentzako laguntzaren arloko gastua. Izan ere, % 33,7 egin zuen gora, eta biztanleko gastua 36,12 eurokoa izan zen, hau da, Bilboko 36,17 euroko gastutik hurbil (2018ko aldea gaindituta: 27,00 euro, Donostian; 37,35, Bilbon).

Gastua asko suspertzeko joera Gipuzkoako gainerako udalerrietan ere izan zen, eta jada 2016. 2017. urteen artean % 25,7 egin zuen gora gastuak. Gorakada hori bizkortu egin zen 2017tik 2018ra: % 53 egin zuen gora. 2018-2019 apur bat behera egin zuen, baina 2018. eta 2019. urteen artean mantendu egin zen goranzko joera: % 7,7. Udalerri horietan biztanleko egin zen gastua honela aldatu zen: 2015eko 10,17 euroko gastutik 2019ko 21,79 eurokora.

Bilakaera kontrakoa izan zen Bizkaiko udalerri nagusietan, Bilbon izan ezik. 2017. eta 2018. urteen artean, udalerri horietan izan zuen gorakadarik handiena etxeko laguntzaren eta zaintzaileentzako laguntzaren arloko gastuak: % 102,4 egin zuen gora, eta erabat aldatu zuen 2015etik 2017ra nagusi izan zen gastuaren beheranzko joera indartsua (2016tik 2017ra, -% 15,5; 2017tik 2018ra, -% 44,1). Bilakaera hori dela eta, 2018an biztanleko egindako gastua 25,45 eurokoa izan zen Bizkaiko udalerri nagusi horietan, Gipuzkoan halako udalerrietan egindako 20,24 euroko gastuaren gainetik.

2018-2019 aldiko bilakaera, ordea, erabat ezberdina izan zen, eta, Gipuzkoako udalerri nagusietan izandako % 7,7ko igoeraren aldean, Bizkaiko udalerri nagusietan -% 17,2 egin zuen behera biztanleko gastuak. Hala, 2019an, biztanleko gastua 21,07 eurokoa izan zen, eta, beraz, Gipuzkoako 21,79 euroko gastua baino txikiagoa izan zen.

Gipuzkoako eta Bizkaiko gainerako udalerrietan, gastua askoz txikiagoa izan zen, baina alde handiak izan ziren lurralde batetik bestera izandako bilakaeran. Gipuzkoan, halako udalerrietan gastua etengabe handitu zen, baita hazkunde-erritmoak ere: % 2,8, 2015-2016 aldirian; % 8,6, 2016-2017 aldirian; % 24,1, 2017-2018 aldirian, eta % 40,0, 2018-2019 aldirian. Bizkaian, aldiriz, 2017-2018 aldiko suspertze handia kenduta, joera beheranzkoa izan zen, eta 2018-2019 aldirian gastuak -% 42,2 egin zuen behera. Emaiza 2018an izandakoaren kontrakoa izan zen: orduan, Bizkaian biztanleko egindako gastua 18,52 eurokoa izan zen, eta Gipuzkoan, 13,25 eurokoa; 2019an, berriz, Gipuzkoako gainerako udalerrietan 18,56 euro gastatu zituzten, eta Bizkaiko udalerri horietan, 10,71 euro.

Ikus daitekeenez, joera horiek aldaketa kualitatibo bat ekarri zuten 2019an udalerri mota guztietan: etxeko laguntzaren eta zaintzaileentzako laguntzaren arloan egindako udal-gastu konparatua handiagoa izan zen 2018an Bizkaiko udalerri mota guztietan, eta, 2019an, berriz, gastu konparatua handiagoa izan zen Gipuzkoako udalerrietan (Bilbo eta Donostiaren kasuan, oinarritzko hurbiltze bat egon zen). Bestalde, Gipuzkoan udal-gastuak balio maximoak izan zituen 2019an partida horietan, baina Bizkaiko udalerrietako gastuak nabarmen egin zuen behera 2018ko datuekin alderatuta, eta, gainera, 2012. eta 2016. urteen arteko gastu-mailen azpitik kokatu zen (2012. eta 2015. urteen arteko mailen azpitik Bilbon). Lurralde horretako udalerrietan 2016-2017 aldirian eta 2018-2019 aldirian gastuak izandako beherakada handien ondorioa zen.

Arabari dagokionez, Gasteiz kenduta, 2019an sendotu egin zen 2018an etxeko laguntzaren eta zaintzaileentzako laguntzaren arloan izandako gastu ia nuluko egoera.

27. taulako datuek, bestalde, berretsi egiten dute oso bigarren mailakoa izan zela desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen zuzendutako biztanleko udal-gastua. 2017tik 2018ra gora egin

ondoren, gastu horrek –% 10,9 egin zuen behera 2018. eta 2019. urteen artean, eta oso maila apaletan kokatu zen Euskadin: biztanleko 0,50 euro baino ez 2019an (0,57 eurokoa izan zen 2018an).

Gastu horrek udalerrri batzuetan baino ez zuen izan presentzia nabarmena. Hala izan zen, adibidez, Bizkaiko udalerrri nagusietan, Bilbon izan ezik. Eremu horretan, gainera, gorako joera mantendu zuen 2015-2019 aldia osorik hartuta. 2019an, erreferentziako gastua 1,33 eurora iritsi zen udalerrri horietan, 2015eko 0,57 euroko gastuaren gainetik. Maila baxuetan mantendu ondoren –2015ean izan zen maximoa, 0,45 eurokoa–, 2018-2019 aldian gastu-mailak gora egin zuen Bilbon, 1,00 eurora, eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusien gastutik hurbil kokatuta zen.

2019an gastu horretan Bilbon eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan ikusitako joerarekin alderatuta, Donostian 0,26 euroko maximoa iritsi zen gastu hori. Gasteizen, 2017-2018 aldian, biztanle horientzako gastuak gora egin zuen, eta 2018an 1,97 eurokoa izan zen biztanleko, baina 2019an ia desagertu egin zen udalaren esku-hartzea gizarte-ekintzaren arlo honetan.

Guztira, udalek adineko pertsonen, desgaitasun/gaixotasunen bat dutenei eta mendeko pertsonen bideratzen dieten biztanleko gastua (etxeko laguntza barne) urteko 39,44 eurokoa izan zen 2019an, hau da, 2018ko gastua baino –% 0,7 gutxiago. Beherantz egonkoritu arren, 2012tik biztanleko izan den bigarren gastu-mailarik handiena izan zen, 2017-2018 aldiko % 28,4ko hazkunde handiari lotuta (2018an 39,71 eurokoa izan zen gastua). Hazkunde horrek 2015etik aurrera izandako beherakadak konpentsatu zituen. Izan ere, –% 8,6 egin zuen behera gastuak 2015-2016 aldian, eta –% 7,0, 2015-2016 aldian.

Hori dela eta, 2019ko 39,44 euroko gastua 2015eko 36,38 eurokoaren gainetik egon zen oraindik. Beraz, sendotu egin zen 2017ko egoerari zegokionez izandako aldaketa handia. Urte horretan, gastua 2015eko zifraren azpitik geratzeaz gainera, 2012ko 34,96 euroko gastuaren azpitik kokatu zen ere. Horrek 2017an agerian utzi zuen adineko pertsonen, desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen eta mendekotasuna dutenei zuzendutako udal-gastuaren beherakada orokorra 2015etik 2017ra, multzo osoaren ikuspegitik.

Ikuspegi orokor horretatik, adineko pertsonen, desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen eta mendekotasuna duten pertsonen arloan egindako jarduketetan biztanleko egin zen gasturik handiena berriro ere Gasteizkoa izan zen 2019an: 89,31 euro, 2018ko 85,29 eurokoa baino % 4,7 handiagoa. 2018-2019 aldian izandako hazkundeak sendotu egin zuen 2016-2017 aldiko % 25,6ko igoera eta 2017-2018 aldiko % 9,2koa, nahiz eta 2017tik aurrera izandako hazkunde-erritmoen jaitsiera areagotu. Hala, 2019an biztanleko egin zen 89,31 euroko gastuak nabarmen gainditu zuen 2015eko 62,08 euroko gastua.

2019an, Donostia bigarrena izan zen gastu horretan, 49,18 euroko gastuarekin, eta 2018ko 40,93 euroko gastua gainditu zuen, % 20,2ko gehikuntza baita. Beraz, udalerrri honetan 2016tik aurrera adinekoen, desgaitasuna/gaixotasun dutenen edo mendekotasuna duten pertsonen arloko gastuan izandako goranzko joera mantendu zen: 2016-2017 aldian % 19,8 egin zuen gora, eta 2017-2018 aldian, % 13,6.

Bilakaera horrek erabat konpentsatu zuen 2015-2016 aldiko beherakada (–% 13,9), eta 2019ko gastua 2015ekoa baino askoz ere gorago jarri zen (49,18 euro, orduko 34,92 euroren aurrean). Hala ere, bilakaera horren ezaugarriarik deigarriena da, 2018an ez bezala, 2019an Donostiak gainditu egin zuela Bilbok eta Bizkaiko beste udalerrri nagusiek biztanleko egindako gastua.

2019an, Bilbo Gasteiz eta Donostiaren atzetik kokatu zen gizarte-zerbitzuen jarduera-eremu honetan egindako gastuan. 2019an, 48,08 euroko gastua egin zuen biztanleko; kopuru hori Gipuzkoako hiriburuko gastutik hurbil egon zen, baina Bilbon egindako gastuaren bilakaerak ez





zuen izan Donostiakoak izandako hazkunde handia. Izan ere, 2017-2018 aldian % 19,1 gora egin ondoren, gastuaren hazkunde nabarmen moteldu zen Bilbon 2018-2019 aldian: % 1,7 egin zuen gora. Dena den, gastuaren goranzko joera mantentzeak aldaketa nabarmena ekarri zuen 2017. urtea baino lehen izandako beherakada handiei dagokienez. Eta 2019ko 48,08 gastuak nabarmen gainditu zuen 2015eko 46,92 euroko gastua, eta 2012ko 48,57 eurokora hurbildu zen.

Bilbon ez bezala, Bizkaiko beste udalerrri nagusietan, 2018-2019 aldian, murriztu egin zen adinekoei, desgaitasuna/gaixotasuna dutenei edo mendekotasuna duten pertsonen arreta emateko gastua. Hala, -% 7,0 egin zuen behera gastuak 2018tik 2019ra, 49,74 euroko gastutik 46,27 eurokora. Beherakada horrek kontraste handia izan zuen 2017-2018 aldiko % 50,9ko igoerarekin, eta 2015-2017 aldian izandako gastua nabarmen murrizteko joera berreskuratu zen. Hori dela eta, Bilborekin alderatuta, 2019ko gastua (46,27 euro) 2015eko gastuaren (49,93) azpitik kokatu zen, baina 2012ko 45,77 euroko gastuaren gainetik.

Bilakaeraren dinamika antzekoa izan zen Gipuzkoako gainerako udalerrri nagusietan. Biztanleko gastuak -% 16 behera egin ondoren 2015etik 2016ra, gastua suspertzeko aroa hasi zen, eta % 17,4 egin zuen gora 2016tik 2017ra, eta % 29, 2017tik 2018ra. Baina 2018-2019an berriro izan zen murrizketa handia, eta -% 14,7 egin zuen behera 2018ko 32,29 euroko gastuarekin alderatuta, 2019an 27,55 eurokoa izan baitzen gastua. Hortaz, Bizkaiko antzeko udalerrietan baino jaitziera erlatiboa nabarmenagoa izanda, Gipuzkoako udalerrri nagusietan -Donostia sartu gabe- gastua urrundu egin zen Bizkaiko halako udalerririk izandako gastutik (Gipuzkoan, 27,55 euro; Bizkaian, 46,27 euro).

Udalerrri txikiagoetan, Gipuzkoan biztanleko gastuaren bilakaera positiboa izan zen 2018. eta 2019. urteen artean: % 21,6 egin zuen gora 2018ko 17,89 euroko gastutik 2019ko 21,76 euroko gastura. Horri esker, hautsi egin zen 2017-2018 aldiko -% 1,6ko beherakada, eta aurretik izandako 2016-2017 aldiko -% 8,9koa, eta 2015-2016 aldiko % 11,6ko igoera konpentsatu zen. Hala, 2019an biztanleko egin den 21,76 euroko gastuari esker, berriro gainditu zen 2016ko 19,96 euroko gastua.

Bizkaiko gainerako udalerrietan, 2018. eta 2019. urteen artean gastuan izandako beherakadak balio maximoa izan zuen azken urte horretan, -% 30,6 egin baitzuen behera, 2018an biztanleko egindako 24,91 euroko gastutik 2019ko 17,28 euroko gastura. Bilakaera deigarria izan zen 2017-2018 aldian adinekoen, desgaitasuna/gaixotasuna dutenen edo mendekotasuna duten pertsonen arloko gastuan udalerrri horiek izan baitzuten hazkunderik handiena: % 175,1 egin zuen gora gastuak. Joera zen, beraz, 2015etik 2017ra bitartean izandako beherakada handietara itzultzea. Horren ondorioz, 2019an biztanleko egindako 17,28 euroko gastua asko urrundu zen 2015eko 25,99 euroko gastutik.

2019an, Gasteizen izan ezik, adinekoen, desgaitasuna/gaixotasuna dutenen edo mendekotasuna duten pertsonen arloko gastua mailarik baxuenetan kokatu zen Arabako udalerrietan. Gutxienekoa lurralde horretako udalerrri nagusietan izan da, 0,70 euro biztanleko. Arabako gainerako udalerrietan, berriz, biztanleko gastua 5,75 eurokoa izan zen. Kasu bietan, zifrek behera egin zuten 2018. eta 2019. urteen artean (-% 9,6 eta -% 13,0, hurrenez hurren). Datu horiek gorabehera, udalerrri txikienetan gastua 2015eko 5,44 euroen gainetik mantendu zen.

Ikuspegi orokor batetik, 2017-2018 aldiko ezaugarria izan zen, neurri handi batean, EAEn mendekotasunari arreta eskaintzeko eta adinekoak edo desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonak zaintzeko biztanleko egindako udal-gastua nabarmen suspertu zela, Gipuzkoako gainerako udalerrietan beherakada txikia (-% 1,6) izan arren eta Arabako udalerrri nagusien (Gasteiz izan ezik) egoera berezia izan arren.

2018-2019 aldian, gastuaren goranzko joera Gasteizen, Donostian eta Gipuzkoako udalerrri txikiagoetan baino ez zen mantendu, baina Bilbon hazkundera, txikia izan arren, positiboa izan zen ere (% 1,7). Azken udalerrri horretan izan ezik, non aurrerapena adinekoentzako egoitza-zentroekin eta desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen arretarekin lotzen baitzen, gainerako udal-eremuetako gastuak 2018-2019 aldian izan zuen hazkundera lotura zuzena zuen etxeko laguntzarekin, eta, neurri txikiagoan, adinekoentzako eguneko zentroekin, baina soilik Gasteizen eta Gipuzkoako udalerrri txikiagoetan.

Gastuaren beherakadak eragin zien taldeen artean, batetik, Gipuzkoako udalerrri nagusietan – Donostia sartu gabe– adinekoentzako egoitzen arloko gastuak izandako murrizketa nabarmentzen zen, eta, bestetik, etxeko laguntzaren arloko gastuak Bizkaiko udalerrietan izan zuen beherakada handia.

Mendekotasun-arazoak dituzten kolektiboan, adineko pertsonen edo desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen arretaren arloarekin alderatuta, adingabeak, gazteak, familiak, emakumeak eta bazterketa-egoeran dauden pertsonak babestera bideratutako udal-gastua askoz ere urriagoa izan zen, 28. taulan egiazta daitekeen bezala.

Aipatutako taulak erakusten duenez, adingabe, gazte, familia, emakume eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako udal-gastua biztanleko 16,54 eurokoa izan zen 2019an. Bilakaera aztertzen badugu, berriz, goranzko joera nabarmena izan zuen gastua da, % 10,7 gora egin baitzuen 2018ko 14,94 euroko gastuarekin alderatuta. Hortaz, batetik, areagotu egin zen 2017-2018 aldian gastuan izandako hazkunde-erritmoa (% 5,1 egin zuen gora udal-ekarpenak), eta, bestetik, sendotu egin zen 2012-2016 aldiko goranzko joera, zeinak eten gogorra izan baitzuen 2016-2017 aldiko –% 5,8ko beherakadaren ondorioz. Suspertze horri esker, 2019an gainditu egin zen 2016ko 15,09 euroko gastua.

Lurraldeka aztertuta, gastuaren goranzko joera ia udal-eremu guztietan eman zen 2018-2019 aldian, Arabako udalerrri nagusietan izan ezik (Gasteiz barne dela). Arabako hiriburuari dagokionez, bilakaera garrantzitsua izan zuen, Gasteiz eta Bilboren arteko dinamika konparatuari eragiten baitzion.



## 28. taula.

Adingabe, gazte, familia, emakume eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programen udal-gastu arrunta, zentro/zerbitzu eta udalerrri motaren arabera. 2018-2019  
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2018-2019 aldian %-tan)

Zentro/zerbitzu mota eta udalerrri mota	2018		2019		Bariazioa 2018/2019 aldian	
	Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.		
<b>Adingabeen egoitza-zentroak</b>	<b>EAE</b>	<b>26.283</b>	<b>0</b>	<b>0,01</b>	<b>0,00</b>	<b>-100,0</b>
	Gasteiz	26.283	0	0,11	0,00	-100,0
	Arabako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,00	0,00	0,0
	Arabako gainerakoak	0	0	0,00	0,00	0,0
	Donostia	0	0	0,00	0,00	0,0
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,00	0,00	0,0
	Gipuzkoako gainerakoak	0	0	0,00	0,00	0,0
	Bilbo	0	0	0,00	0,00	0,0
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	0	0	0,00	0,00	0,0
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	0	0	0,00	0,00	0,0
<b>Tratu txarren arreta (emakumeak)</b>	<b>EAE</b>	<b>1.551.945</b>	<b>1.638.454</b>	<b>0,71</b>	<b>0,75</b>	<b>5,2</b>
	Gasteiz	303.754	292.135	1,25	1,19	-4,7
	Arabako beste udalerrri nagusiak	5.094	2.202	0,18	0,08	-56,7
	Arabako gainerakoak	0	550	0,00	0,01	0,0
	Donostia	0	0	0,00	0,00	0,0
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	0	4.490	0,00	0,04	0,0
	Gipuzkoako gainerakoak	19.781	53.929	0,05	0,13	171,5
	Bilbo	339.166	335.513	0,99	0,98	-1,3
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	629.340	632.903	1,48	1,49	0,5
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	<b>19.942.515</b>	<b>21.050.291</b>	<b>9,15</b>	<b>9,62</b>	<b>5,2</b>
<b>Familietako esku-hartzea (harrera/adopzioa barne)</b>	<b>EAE</b>	<b>2.590.790</b>	<b>2.518.011</b>	<b>10,63</b>	<b>10,23</b>	<b>-3,7</b>
	Gasteiz	141.080	112.229	4,90	3,90	-20,3
	Arabako beste udalerrri nagusiak	23.703	48.303	0,45	0,91	103,2
	Arabako gainerakoak	1.293.983	1.527.566	7,15	8,41	17,6
	Donostia	789.102	906.160	6,23	7,12	14,3
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	3.809.440	4.281.577	9,37	10,49	11,9
	Gipuzkoako gainerakoak	5.382.864	5.518.062	15,70	16,07	2,3
	Bilbo	3.483.699	3.510.385	8,19	8,25	0,7
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	2.427.854	2.627.998	6,52	7,03	7,8
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	<b>21.520.743</b>	<b>22.688.745</b>	<b>9,87</b>	<b>10,37</b>	<b>5,1</b>
<b>HAURRAK, GAZTEAK, FAMILIAK, ETA EMAKUMEAK</b>	<b>EAE</b>	<b>2.920.827</b>	<b>2.810.146</b>	<b>11,98</b>	<b>11,42</b>	<b>-4,7</b>
	Gasteiz	146.174	114.431	5,07	3,98	-21,6
	Arabako beste udalerrri nagusiak	23.703	48.853	0,45	0,92	105,5
	Arabako gainerakoak	1.293.983	1.527.566	7,15	8,41	17,6
	Donostia	789.102	910.650	6,23	7,15	14,9
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	3.829.221	4.335.506	9,42	10,62	12,8
	Gipuzkoako gainerakoak	5.722.030	5.853.575	16,69	17,04	2,1
	Bilbo	4.113.039	4.143.288	9,67	9,74	0,7
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	2.682.664	2.944.730	7,20	7,87	9,3
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	<b>19.942.515</b>	<b>21.050.291</b>	<b>9,15</b>	<b>9,62</b>	<b>5,2</b>

## 28. taula.

Adingabe, gazte, familia, emakume eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programen udal-gastu arrunta, zentro/zerbitzu eta udalerrri motaren arabera. 2018-2019  
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2018-2019 aldian %-tan)

Jarraipena

		2018	2019	2018	2019	Bariazioa 2018/2019 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/bi z.	Gastua/bi z.	Gastua/biz.
<b>Zentro/zerbitzu mota eta udalerrri mota</b>						
<b>Egoitza- eta harrera-zentroak</b>	<b>EAE</b>	<b>8.263.333</b>	<b>10.540.047</b>	<b>3,79</b>	<b>4,82</b>	<b>27,1</b>
	Gasteiz	3.328.337	3.472.066	13,65	14,11	3,3
	Arabako beste udalerrri nagusiak	7.200	2.200	0,25	0,08	-69,4
	Arabako gainerakoak	2.673	6.766	0,05	0,13	152,3
	Donostia	1.692.584	1.958.636	9,35	10,78	15,3
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	476.749	905.592	3,76	7,11	89,0
	Gipuzkoako gainerakoak	224.236	285.536	0,55	0,70	26,8
	Bilbo	2.151.332	3.420.835	6,28	9,96	58,7
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	337.621	480.928	0,79	1,13	42,4
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	42.601	7.488	0,11	0,02	-82,5
<b>Beste egoitza-zentro eta -zerbitzuak</b>	<b>EAE</b>	<b>2.792.998</b>	<b>2.951.245</b>	<b>1,28</b>	<b>1,35</b>	<b>5,3</b>
	Gasteiz	766.271	540.217	3,14	2,19	-30,2
	Arabako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,00	0,00	0,0
	Arabako gainerakoak	0	0	0,00	0,00	0,0
	Donostia	448.799	385.272	2,48	2,12	-14,5
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	395.172	499.278	3,12	3,92	25,7
	Gipuzkoako gainerakoak	231	2.259	0,00	0,01	874,0
	Bilbo	766.843	1.009.939	2,24	2,94	31,5
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	397.830	495.153	0,94	1,16	24,4
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	17.852	19.127	0,05	0,05	6,7
<b>BAZTERKETA</b>	<b>EAE</b>	<b>11.056.331</b>	<b>13.491.292</b>	<b>5,07</b>	<b>6,17</b>	<b>21,6</b>
	Gasteiz	4.094.608	4.012.283	16,79	16,30	-2,9
	Arabako beste udalerrri nagusiak	7.200	2.200	0,25	0,08	-69,4
	Arabako gainerakoak	2.673	6.766	0,05	0,13	152,3
	Donostia	2.141.383	2.343.908	11,83	12,90	9,1
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	871.921	1.404.870	6,88	11,04	60,4
	Gipuzkoako gainerakoak	224.467	287.795	0,55	0,70	27,7
	Bilbo	2.918.175	4.430.774	8,51	12,90	51,6
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	735.451	976.081	1,73	2,29	32,7
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	60.453	26.615	0,16	0,07	-56,2
<b>ADINGABE, GAZTE, FAMILIA, EMAKUME, ETA BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA</b>	<b>EAE</b>	<b>32.577.074</b>	<b>36.180.037</b>	<b>14,94</b>	<b>16,54</b>	<b>10,7</b>
	Gasteiz	7.015.435	6.822.429	28,77	27,72	-3,7
	Arabako beste udalerrri nagusiak	153.374	116.631	5,32	4,05	-23,8
	Arabako gainerakoak	26.376	55.619	0,50	1,05	110,2
	Donostia	3.435.366	3.871.474	18,98	21,31	12,3
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	1.661.023	2.315.520	13,11	18,19	38,7
	Gipuzkoako gainerakoak	4.053.688	4.623.301	9,97	11,32	13,6
	Bilbo	8.640.205	10.284.349	25,20	29,95	18,8
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	4.848.490	5.119.369	11,40	12,04	5,6
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	2.743.117	2.971.345	7,36	7,94	7,9

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



Adingabe, gazte, familia, emakume eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako udal-gastuaren bilakaeran, Arabako hiriburua biztanleko gastuan 2016-2017 aldian izandako beherakada handienagatik nabarmendu zen (-% 34,7), 2012-2016 aldiko gastuaren goranzko joerarekin kontrastean. 2016-2017 aldian Gasteizek gastu horretan izandako beherakada handiaren ondorio nagusia izan zen 2017an udalerrri horrek sektore horretan biztanleko egindako udal-gastu handiena egiten zuen lurralde-eremua izateari utzi ziola, eta Bilbo jarri zela aurretik (26,93 euro biztanleko; Gasteizen, berriz, 26,27 euro).

Hala ere, Bilbon, 2012-2016 aldiko gastuaren igoeren ostean, arlo horretako gastuaren dinamika nabarmen aldatu zen 2016tik 2017ra. Igoera egonkortu egin zen (% 0,9), eta 2017-2018 aldian -% 6,4 egin zuen behera. Hori dela eta, 2018an, Bilboko 25,20 euroko gastua Gasteizko 28,77 euroko gastuaren azpitik jarri zen. Azken hiriburu horretan, aztertutako gastuak % 9,5 egin zuen gora 2017. eta 2018. urteen artean.

2018-2019 aldian, ordea, adingabe, gazte, familia, emakume eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako arretaren sektorean egindako udal-ekarpenaren bilakaera positiboagoa izan zen Bilbon: % 18,8 egin zuen gora; Gasteizen, berriz, -% 3,7 egin zuen behera. Hala, 2019an, Bilbon biztanleko egindako 29,95 euroko gastuak berriro gainditu zuen Arabako hiriburuko gastua (27,72 euro).

Bilboko 29,95 euroko gastu hori maila maximoa izan zen 2017ko 26,93 gastua izan zenetik. Gasteizen 2019an biztanleko egindako 27,72 euroko gastua, berriz, 2012tik izandako mailarik baxuenetakoa izan zen, 2017ko 26,27 euroko gastu ozta-ozta gainditu zuena.

Indar gutxiagorekin bada ere, Bilbon 2018-2019 aldian izandako gastuaren suspertze handia Donostian ere ikusi zen. 2012tik 2017ra igoera moderatuak izan zituen, 2015-2016 aldiko % 5,1ekoa kenduta. Baina, gero, 2017-2018 aldian, -% 2,2 egin zuen behera. Hala ere, 2018-2019an berriro gora egin zuen gastuak Donostian: % 12,3, 2018ko biztanleko 18,98 euroko gastutik 2019ko 21,31 eurokora. 2019ko erregistro horrek gainditu egin zuen 2017ko 19,41 euroko gastua.

EAEko hiriburuetan biztanleko egin zen gastua baino askoz ere txikiagoa izan arren, Gipuzkoako eta Bizkaiko udalerrri nagusietan -hiriburuak kenduta- adingabe, gazte, familia, emakume eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako arretaren sektorera bideratutako gastuak berriro nabarmen egin zuen gora 2018-2019 aldian.

Halako udalerrietan, aldi horretan, hazkunderik handiena Gipuzkoak izan zuen: % 38,7, 2018ko biztanleko 13,11 euroko gastutik 2019ko 18,19 euroko gastura. Hazkunde hori 2017-2018 aldiko % 9,3ko igoera baino handiagoa izan zen, eta erreferentziako udalerrriak Donostiako 21,31 euroko gastura hurbildu ziren 2019an.

Atzetik geratu zen Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietako hazkundera. Kasu horretan, gastuak % 5,6 egin zuen gora, 2018ko 11,40 euroko gastutik 2019ko 12,04 euroko gastura, 2016-2017 aldiko % 16,2ko eta 2017-2018 aldiko % 11,0ko igoeren azpitik. Hortaz, udalerrri horietan, 2019ko gastua urrun geratu zen Gipuzkoako antzeko udalerrietan izandako gastutik (12,04 eta 18,19 euro, hurrenez hurren).

Izatez, Bizkaian udalerrri nagusi horien gastua Gipuzkoako gainerako udalerriei zegokienetik hurbil kokatu zen 2019an. Gipuzkoako udalerrri horietan, biztanleko gastua 11,32 eurokoa izan zen, eta Bizkaiko udalerrri nagusiek -Bilbo sartu gabe- 2019an izandako 12,04 euroko gastutik hurbil egon

zen. Gipuzkoako udalerrri horietan urtetik urterako hazkunde-tasa altuak mantendu ziren: % 13,6, 2018tik 2019ra.

Azken urteetan beheranzko joera izan arren (2018-2019 aldian, % 13,6; 2017-2018 aldian, % 17,0; 2016-2017 aldian, % 23,8), Gipuzkoako udalerrri txikienen urtetik urterako hazkundera Bizkaiko gainerako udalerrietakoa baino handiagoa izan zen 2016tik aurrera. Zehazki, 2018. eta 2019. urteen artean, Gipuzkoan nagusien artean ez dauden udalerrietan izandako % 13,6ko hazkundeak Bizkaiko antzeko udalerrietan izandako % 7,9koa gainditu zuen. Hori dela eta, 2012an izandako antzeko mailetatik abiatuta (4,65 euro biztanleko, Gipuzkoan; 4,98, Bizkaian), biztanleko udal-ekarpena nabarmen handiagoa izan zen 2019an Gipuzkoako gainerako udalerrietan: 11,32 euro; Bizkaiko udalerrri horietan, berriz, 7,94 euro.

Adingabe, gazte, familia eta bazterketa-egoeran daudenentzako arretaren arloan biztanleko udal-gasturik txikiena Arabako udalerriek egin zuten –Gasteiz sartu gabe–: 2019an, 4,05 euro, gainerako udalerrri nagusietan, eta 1,05 euro baino ez beste udalerrietan.

Bilakaera bereziki deigarria izan zen udalerrri nagusietan –Gasteiz sartu gabe–. Kasu horretan, 2017an izandako kopuru txikietatik abiatuta (2016-2017 aldiko beherakada handiaren ondoren, biztanleko 4,65 euroko gastutik 1,41 eurokora), gastuak bider 2,77 egin zuen, eta biztanleko 5,32 eurokoa izan zen 2018an. 2019an, ordea, berriro egin zuen behera, biztanleko 4,05 eurora.

Haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babesteko gastuari soilik erreparatuz gero, 2019an udal-gastua familiako esku-hartzera bideratu zen batez ere: biztanleko 9,62 euro arlo horretan; genero-indarkeriaren eta tratu txarren biktimen arretara, berriz, 0,75 euro, eta adingabeentzako egoitzazentrotara, ekarpen ia nulua. Azken kasu horretan, 2019a baino lehen ikusi zen beheranzko joera argia. Hala, 2018an gastu hori marjinala izan zen Gasteizen: 0,11 euro biztanleko, 2016ko 7,30 euroko gastutik oso urrun. Dinamika hori zentro mota horren finantzaketa foru-erakundeek bere gain hartu izanaren ondorioa izan zen.

2015-2016 aldiko % 58,6 igoerarekin alderatuta, genero-indarkeriaren biktima izandako emakumeei arreta emateko arloan ere murriztu zen gastua 2016tik aurrera: 2016-2017 aldian, –% 24,9, eta 2017-2018 aldian, –% 19,0. Hala ere, 2018. eta 2019. urteen artean, suspertu egin zen udal-gastua, eta % 5,2 egin zuen gora, 2018an biztanleko egindako 0,71 euroko gastutik 2019ko 0,75 euroko gastura. Zifra hori berriro jarri zen 2015eko 0,74 euroko gastuaren gainetik. Baina adierazlea 2016an biztanleko egindako 1,17 euroko gastuaren azpitik geratu zen, baita 2017ko 0,88 euroko gastuaren azpitik ere.

Bestalde, sendotu egin zen familiako esku-hartzeen arloko udal-gastuaren goranzko joera. 2015-2016 eta 2016-2017 aldietako igoerak (% 4,7 eta % 4,4) gorantz sendotu ziren 2017. eta 2018. urteen artean, % 11,8koa izan baitzen igoera. Hazkunde-erritmoak behera egin arren, udal-gastuak nabarmen egin zuen gora 2018. eta 2019. urteen artean: % 5,2. Hortaz, biztanleko egindako 9,62 euroko gastua 2012tik aurrera izandako kopururik handiena izan zen.

Gizarte-zerbitzuen eremu honetan haur, gazte, familia eta emakumeen arloko jarduketetan, guztira, biztanleko udal-gastua 2018an 9,87 eurokoa izatetik 2019an 10,37 eurokoa izatera pasatu zen. Kopururik handiena izan zen 2012tik aurrera, eta lehen aldiz jarri zen biztanleko 10 euroko atalasearen gainetik. 2015-2016 aldiko % 8,5eko igoeraren antzekoa izan zen 2017-2018 aldiko % 8,7ko igoerak nolabait konpentsatu zuen 2016-2017 aldiko –% 7,3ko beherakada. Apur bat beherantz bada ere, sendotu egin zen 2018-2019 aldiko % 5,1eko gehikuntzarekin.

Udal-eremuei erreparatzen bazaie, haur, gazte, emakume eta familien arloan biztanleko gasturik handiena Bilbok egin zuen 2019an: 17,04 euro biztanleko, 2018ko 16,69 eurokoa baino % 2,1



handiagoa. Familiako esku-hartzeen arloan ere Bilbon egin zen gasturik handiena: 16,07 euro. Tratu txarrak jaso dituztenei arretea emateko gastua, berriz, 0,98 eurokoa izan zen biztanleko. Kasu guztietan 2015eko mailak gainditu ziren.

Gasteiz Bilbo baino apur bat beherago kokatu zen: 2019an, 11,42 euro biztanleko; kopuru horretatik, 10,23 euro familiako esku-hartzeetara bideratu zituen, eta 1,19 euro, tratu txarrak jasan zituztenei laguntzeko. 2016-2017 aldian beherakada handia (-% 52,6) izan eta gero, 2017-2018 aldian haur, gazte, emakume eta familien arloko gastuak % 15,5 egin zuen gora, 2017ko 10,37 euroko gastuarekin alderatuta. Goranzko joera hori aldatu egin zen 2018-2019 aldian, -% 4,7 egin baitzuen behera. 2019ko 11,42 euroko gastua gehiago urrundu zen 2016an biztanleko egin zen 21,86 euroko gastutik.

Gasteizen bilakaera horretan erabakigarria izan zen adingabeen egoitza-arretaren arloko gastuaren beherakada: 2016an 7,30 eurokoa izan zen, eta 2019an, berriz, ia nulua izan. Azalpena da foru-erakundeek euren gain hartu zutela kolektibo horretara bideratutako ekintza. Halaber, garrantzitsua zen tratu txarrak jaso zituzten pertsonen arretea emateko gastuaren beherakada: 2016ko biztanleko 5,46 euro gastutik 2019ko 1,19 eurokora. Zifra horrek behera egin zuen berriro, 2018ko 1,25 euroko gastuarekin alderatuta. Izatez, adierazlea 2015eko 2,17 euroko gastuaren azpitik ere kokatu zen.

Bestalde, Gasteizen familiako esku-hartzeen arloko gastuak 2017-2018 aldian izandako % 15,4ko igoerak mailarik altuenetan kokatu zuen gastu hori 2018an: 10,63 euro; eta 2015ean, 8,89. Hala ere, zifra horrek behera egin zuen 2019an, biztanleko 10,23 euro. Edonola ere, biztanleko 10 euroko atalasearen gainetik egon zen oraindik.

EAEko batezbestekotik behera, Donostian haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babesteko biztanleko egin zen gastua 8,41 eurokoa izan zen 2019an. Bizkaiko eta Gipuzkoako gainerako udalerrietan -nagusietan eta bestelakoetan- 7,15 eta 10,62 euro artekoa izan zen gastua. Udalerrien multzo horretan, gastuaren zati nagusia familiako esku-hartzeena izan zen: Gipuzkoako hiriburuan, 8,41 euro biztanle bakoitzeko; eta 7,12 eta 10,49 euro artekoa, gainerako udalerrietan.

Aztertutako sektore osoan, udalerri horiei zegokienez, 2018ko gasturik handiena Bizkaiko udalerri nagusietan (Bilbon izan ezik) izan zen: 9,67 euro. 2018-2019 aldian, ordea, gastua egonkortu egin zen, eta % 0,7 baino ez zuen egin gora, 2019an biztanleko 9,74 euroko gastura iritsita. 2019an gastuaren zatirik handiena familiako esku-hartzeetara bideratu bazen ere (8,25 euro), udalerri horietan garrantzitsua izan zen tratu txarren biktimei arretea emateko gastua ere: 1,49 euro. Zifrarik altuena izan zen udal-eremuetan 2019an. Kasu bietan, gastuaren egonkortzea izan zen dinamika nagusia, eta 2018. eta 2019. urteen artean % 0,5-0,7koa baino ez zen izan hazkundera.

Baina, 2018-2019 aldian, hazkundera Bilbokoa eta Bizkaiko beste udalerri nagusietakoa baino handiagoa izan zen lurraldeko beste udalerri batzuetan: % 9,3 egin zuen gora 2018tik 2019ra (biztanleko 7,20 euroko gastutik 7,87 eurokora). Kasu horretan, familiako esku-hartzearen arloan, urtetik urterako hazkundera % 7,8koa izan zen, eta, tratu txarren biktimei arretea emateko programetan, % 23,8koa (biztanleko 0,68 euroko gastutik 0,85 eurokora).

Hala ere, 2018-2019 aldiko hazkunde-maila garrantzitsuenak Gipuzkoako udalerrietan izan ziren, eta inpaktu erlatiboa handiagoa izan zen tamainak gora egin ahala: % 12,8 egin zuen gora lurraldeko udalerri txikienetan (9,42 eurotik 10,62 eurora); % 14,3, udalerri nagusietan, Donostia sartu gabe (6,23 eurotik 7,15 eurora), eta % 17,6, Donostian (7,15 eurotik 8,41 eurora).

Azpimarragarria da, aldi berean, familian esku hartzeko programetan Gipuzkoako gainerako udalerrietan, biztanle gutxien dituztenetan, izan zen goranzko bilakaera. Kasu horretan, 2016an

biztanle bakoitzeko 6,38 euroko gastua egitetik 2019an 10,49 euro gastatzera pasatu ziren; beraz, Donostiako 8,41 euroko gastua eta lurraldeko udalerrri nagusietako 7,12 eurokoa baino handiagoa izan zen. 2019an, udalerrri horiek familiako esku-hartzeen arloan egindako biztanleko gastua Gasteizko 10,23 euroko gastua gainditu zuen, eta Bilboko 16,07 euroko gastuaren azpitik baino ez zen egon. Ikusitako aurrerapen handia, neurri batean, 2015-2016 aldirian Gipuzkoako udalerrri handienek arlo horretan egindako ahalegin handiaren ondorioa zen, baina, batez ere, udalerrri horietako batzuetan 2015etik aurrera argi agertzen ziren ekintza mota horren aldeko aukeraren ondorioa zen, haien gastua hiriburuaren gastuaren mailara hurbildu baitzuten, lurraldeko gainerako udalerrri nagusien gainetik jarritz.

Gipuzkoako udal-eremu guztietan, tratu txarren arloko programei egindako ekarpena urria zen, eta 2019ko gehieneko ekarpena 0,13 eurokoa izan zen, Gipuzkoako gainerako herrietan.

Bizkaiko eta Gipuzkoako hiriburuak ez diren udalerrrietan haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babesteko 2019an egin zen gastua 2015eko gastua baino handiagoa izan zen, eta % 7tik gorako hazkunde esanguratsuak izan zituzten 2018-2019 aldirian, Bizkaiko udalerrri nagusietan izan ezik, non gastua egonkortu egin baitzen (joera horretan ez zen sartzen Bilbo). 2018-2019 aldirian gastuak izan zuen suspertze handiaren ondorioz, Donostian gauza bera gertatuta zen: 2019ko 8,41 euroko gastua berriro jarri zen 2017ko 7,83 euroko gastuaren gainetik, baita 2012ko 8,31 euroko gastuaren gainetik ere. Dinamika hori lotuta zegoen era eskusiboan 2018-2019 aldirian familiako esku-hartzeen arloko udal-gastuak izan zuen suspertzearekin.

Bestalde, 2017tik 2018ra 1,32 eurotik 5,07 eurora igo ondoren –2012tik aurrerako zenbatekorik handiena izan zen, familiako esku-hartzei lotuta, batik bat–, Arabako gainerako udalerrri nagusietako (Gasteiz izan ezik) gastuak behera egin zuen berriro 2019an, biztanleko 3,98 euroko gastura, eta, beste datuekin alderatuta, gastu txikia izaten jarraitzen zuen. Joera hori nabariagoa izan zen lurraldeko gainerako udalerrrietan, non 2019ko gastua 0,92 eurokoa baino ez baitzen izan biztanle bakoitzeko.

28. taulan ikus daitekeenez, 2019an bazterkeriari aurre egiteko udal-gastua 6,17 eurokoa izan zen biztanleko. 2012-2015 aldiko goranzko joeraren ondoren, gastuak behera egin zuen: 2015-2016 aldirian, –% 2,7; eta 2016-2017 aldirian, –% 3,0. Beherakadak 2017-2018 aldirian ere jarraitu zuen, baina txikiagoa izan zen: –% 1,2. 2018ko biztanleko 5,07 euroko gastua, beraz, 2015eko 5,44 eurokoaren azpitik kokatu zen. Hala ere, 2018-2019 aldirian, udalek bazterkeriaren sektoreari egindako ekarpenaren goranzko joera izan zen ezaugarri nagusia: % 21,6 egin zuen gora, eta 2019an 6,17 eurokoa izan zen, zifrarik altuena 2012tik.

Barneko banaketari dagokionez, egoitza-zentroetan eta harrera-zentroetan egin zen udal-gastua 4,82 eurokoa izan zen biztanle bakoitzeko. 2015eko 4,18 euroko kopurutik biztanleko gastuan behera egin ondoren etenik gabe, 2018ko 3,79 euroko gastura iritsi arte, 2018-2019 aldirian gastuak gora egin zuen, % 27,1, eta 2019ko gastua 4,82 eurokoa izan zen, hau da, kopururik handiena 2012tik. 2019an, gastua 1,35 eurokoa izan zen bazterkeriaren arloko gainerako zentro eta zerbitzuetan. Zifra hori 2015eko 1,26 euroko gastuaren gainetik egon zen ere. Modu apalagoan bada ere, gora egin zuen 2018ko 1,28 euroko gastuarekin alderatuta (+% 5,3).

Bazterkeriari aurka egiteko programetan, Gasteizen egindako gastua nabarmen altuagoa izan zen gainerakoekin alderatuta, herritar bakoitzeko 16,30 euro bideratu baitzituen programa horietara. 2012-2015 aldiko igoeraren ondoren, eta 2017-2018 aldirian % 5,6 handitu arren, 2019ko gastua 2015eko 20,00 eurokoa baino askoz ere txikiagoa izan zen, 2015-2016 aldirian eta 2016-2017 aldirian izandako beherakaden ondorioz: –% 8,3 eta –% 13,3, hurrenez hurren. Joera areagotu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean izandako –% 3,7ko beherakadarekin.





Gasteizen, zerbitzuen barneko dinamika oso ezberdina izan zen 2018an eta 2019an. Alde batetik, egoitza- eta harrera-zentroetan egindako gastua 13,65 eurokoa izatetik 14,11 eurokoa izatera pasatu zen, hau da, % 3,3 egin zuen gora. Baina 3,14 eurotik 2,19 eurora murriztu zen beste zentro eta zerbitzu batzuei egindako udal-ekarpena. Beraz, sendotu egin zen 2015etik aurrera ikusitako joera: orduan, 5,25 eurokoa izan zen gastua biztanleko halako zerbitzuetan.

2019an, Donostiako eta Bilboko biztanle bakoitzeko gastuak ere EAeko batezbestekotik gorakoak izan ziren: 12,90 euro biztanleko kasu bietan. Bi hiriburuetan hazkundera nabarmena izan zen 2018. eta 2019. urteen artean: % 9,1ekoa, Gipuzkoako hiriburuan, eta % 51,6koa, Bilbon (2018ko 8,51 euroko gastuarekin alderatuta). Gehikuntza bereziki deigarria izan zen Bilbon, egoitza- eta harrera-zentroetan biztanleko 6,28 euroko gastua izatetik 9,96 euroko gastua izatera pasatu baitzen (Donostian, 9,35 euroko gastutik 10,78 eurokora). Bilbon, gainerako zentro eta zerbitzuetan ere egin zuen gora gastuak (2,24 eurotik 2,94 eurora), baina Donostian, ordea, behera egin zuen 2018tik 2019ra (2,48 eurotik 2,12 eurora).

Gainerako eskualdeetan ia ez zen ezer gastatu bazterkeriari aurka egitera bideratutako programetan (biztanleko 2,30 euro, gehien jota). Salbuespen bakarra Gipuzkoako udalerrri nagusiak izan ziren (Donostia kanpo), biztanleko 11,04 euroko ekarpena egin baitzuten 2019an. 2017-2018 aldian, gastuak % 14,4 egin zuen gora, eta, aurretiaz, 2016-2017 aldian, % 2,3. Igoera areagotu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean: % 60,4 egin zuen gora, 2018ko 6,88 euroko gastuarekin alderatuta. 2019an biztanleko egindako 11,04 euroko gastua zifrarik altuena izan zen 2012tik. Goranzko joera orokorra izan arren zentro mota guztietan, hazkunderik handiena egoitza- eta harrera-zentroetan izan zen (3,76 eurotik 7,11 eurora 2018tik 2019ra).

29. taulak, azkenik, GLLen, gizarte-urgentzien eta antzeko prestazioen arloko gastuaren adierazleak aurkezten ditu. Prestazio horietan, 2019ko biztanleko gastua 8,16 eurokoa izan zen.

2012tik 2015era biztanleko gastuak % 130,3 gora egin ondoren, 2015-2016 aldian goranzko joerari eutsi zion, % 5,9ko igoerarekin. 2017an, ordea, prestazio horietan biztanleko egin zen gastuak behera egin zuen, lehen aldiz: -% 3,2. Joera hori areagotu egin zen 2017-2018 aldian: -% 12,2 egin zuen behera. 2016tik lehen aldiz, udalek prestazio hauetan egindako ekarpenak gora egin zuen 2018-2019 aldian: % 6,7, 2018ko 7,65 euroko gastuarekin alderatuta. Hala ere, 2019an biztanleko egindako 8,16 euroko udal-gastua 2015-2017 aldiko biztanleko 8,50 eta 9,00 euro arteko mailatik behera geratu zen.

2017-2018 aldian ikusi zen bezala, 2018-2019 aldian gastuak izandako bilakaeraren joerak ez ziren izan homogeenak lurralde osoan.

Alderik positiboenean, 2018-2019 aldian mantendu egin zen 2017-2018 aldiko goranzko joera Arabako Lurralde Historikoan, baina zenbait ñabardurekin udalerrien artean. Hala, 2017an gastu-mailak oso txikiak izan baziren ere, 2017-2019 aldian hazkunderik handiena lurraldeko udalerrri txikienetan izan zen: 2017. eta 2018. urteen artean % 67,5 egin zuen gora, eta 2018. eta 2019. urteen artean, % 57,8. Esanguratsuagoa izan zen Gasteizko gastuaren aurrerapena, gastuaren bolumen garrantzitsuenari eragiten baitzion. Kasu horretan, 2017. eta 2018. urteen artean % 15,5 egin zuen gora gastuak; 2018. eta 2019. urteen artean, ordea, moteldu egin zen, baina % 7,6 egin zuen gora. Moteltzeko joera nabarmenagoa izan zen Arabako gainerako udalerrri nagusietan: % 5,4 egin zuen gora 2017. eta 2018. urteen artean, eta % 0,7koa baino ez zen izan 2018. eta 2019. urteen artean.

Labur esanda, Araban 2017. eta 2019. urteen artean izandako aldaketak gastuaren suspertze handia ekarri zuen 2016-2017 aldiko beherakada handien ondoren (2015-2017 aldian, lurralde historikoko biztanle gutxiagoko herrietan).

Bestalde, 2017-2019 aldian orokorrean hazkundera positiboa izan zen, eta 2018-2019 aldian asko suspertu zen gizarte-larrialdiko eta -urgentziako prestazioen arloko gastua Gipuzkoako eta Bizkaiko udalerrri txikienetan, baita Gipuzkoako udalerrri nagusietan ere, Donostian izan ezik. Azken kasu horretan, udal-ekarpenak % 16,2 egin zuen gora 2018-2019 aldian, eta 2017-2018 aldiko – % 7,6ko jaitsiera konpentsatu zuen. 2018-2019 aldiko hazkundera handiagoa izan zen Gipuzkoako gainerako udalerrietan, non % 25 egin baitzuen gora, baina 2017-2018 aldian izandako –% 21,4ko jaitsiera handiaren eraginpean egon zen. Bestalde, Bizkaiko gainerako udalerrietan gastuak hazkunde nabarmena izan zuen 2018. eta 2019. urteen artean: % 13,3. Kasu honetan, 2017-2018 aldiko –% 8,8ko beherakada baino garrantzitsua izan zen.

#### 29. taula.

**GLLko, gizarte-urgentziako eta antzeko beste prestazioetako udal-gastu arrunta, udal motaren arabera. 2018-2019**

**(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2018-2019 aldian %-tan)**

Gastu eta udalerrri mota		2018	2019	2018	2019	Bariazioa 2018/2019 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
<b>Beste gizarte-prestazio batzuk</b>	<b>EAE</b>	<b>16.671.719</b>	<b>17.849.103</b>	<b>7,6</b>	<b>8,2</b>	<b>6,7</b>
	Gasteiz	5.734.247	6.231.974	23,5	25,3	7,6
	Arabako beste udalerrri nagusiak	386.892	388.798	13,4	13,5	0,7
	Arabako gainerakoak	25.766	40.795	0,5	0,8	57,8
	Donostia	1.754.532	1.768.833	9,7	9,7	0,4
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	937.071	1.094.476	7,4	8,6	16,2
	Gipuzkoako gainerakoak	2.081.739	2.613.539	5,1	6,4	25,0
	Bilbo	779.292	668.912	2,3	1,9	-14,3
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	3.197.317	3.022.626	7,5	7,1	-5,5
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	1.774.863	2.019.150	4,8	5,4	13,3

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Donostian, 2018-2019 aldian, ezaugarria izan zen udal-ekarpenaren egonkortzea, emaitza zeinu positibo arina izan baitzen: % 0,4. 2017-2018 aldian ekarpenak izandako –% 54,8ko beherakada handiaren ondorioak mantendu egin ziren, eta Donostia izan zen 2017-2018 aldiko beherakaden eragina gehien jasan zuen lurralde-eremua.

Bilbon eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan, 2017-2018 aldiko beherakadak txikiagoak izan baziren ere, egiturazkoak izan ziren, 2018-2019 aldian mantendu egin baitziren. Bilbon, 2017-2018 aldiko –% 3,7ko jaitsiera mantendu egin zen, eta 2018-2019an berriro egin zuen behera, –% 14,3. Bizkaiko beste udalerrri nagusietan, beherakada txikiagoa, baina egonkorragoa eta luzeagoa izan zen: 2017. eta 2018. urteen artean –% 4,9 egin zuen behera, eta 2018. eta 2019. urteen artean, –% 5,5.

Ikusitako askotariko bilakaera horiek gorabehera, prestazio horietan 2019an biztanleko egin zen udal-gasturik handiena Gasteizen izan zen, 2017-2019 aldiko goranzko joerari esker. Igoera berriaren ondorioz, prestazioetan egindako udal-gastua 25,32 eurokoa izan zen biztanleko



2019an. Zifra hori berriro kokatu zen 2015eko 24,75 euroko gastuaren gainetik, baina 2016ko 28,04 euroko gastuaren azpitik egon zen oraindik.

Arabako gainerako udalerrri nagusiak bigarren posizioan egon ziren, biztanleko 13,52 euroko gastuarekin. 2012. eta 2016. urteen artean gastuak izandako hazkunde handiaren testuinguruan, 2017-2019 aldiko igoerak 2016-2017 aldiko  $-4,1\%$ eko beherakada konpentsatu zuen. Hortaz, 2019ko gastua mailarik handienetakoa izan zen udalerrri horietan. 2019ko 13,52 euroko gastuak, beraz, 2016ko 13,29 euroko gastua gainditu zuen termino nominaletan.

Donostian erabat kontrakoa izan zen bilakaera. 2017an gasturik handiena izan zuen udalerrria izatetik (21,46 euro biztanleko), 2019an 9,74 eurokoa izatera pasatu zen, hau da, 2012koa baino txikiagoa (biztanleko 13,87 eurokoa izan zen orduan). Oso hurbil egon zen Gipuzkoako gainerako udalerrri nagusien udal-ekarpena: 8,60 euro 2019an, hau da, mailarik altuena 2012tik. Joera beheranzkoa izan zen 2017an biztanleko egindako 7,91 euroko gastutik Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan (Bilbo sartu gabe), baina, 7,11 euroko gastuarekin, biztanleko 7,11 eta 9,74 euro arteko tarteko multzoan kokatu ziren.

Apur bat beherago, 2019an biztanleko gastua 6,40 eurokoa izan zen Gipuzkoako beste herrietan, eta 5,40 eurokoa, Bizkaiko beste herrietan. 2018-2019 aldiko suspertze handiaren ondorioz, gastumaila hau 2012kotik gora kokatu zen Bizkaiko udalerrri hauetan. Gipuzkoako udalerrrien 6,40 euroko gastua, bestalde, berriro hurbildu zen 2017ko 6,52 euroko gastura.

Gizarte-larrialdiko eta -urgentziako prestazioetako eta beste prestazio batzuetako udal-gasturik txikiena berriro Bilbokoa izan zen 2019an (1,95 euro, 2016ko 3,29 euroen aldean beheraka ari da) eta harekin batera Arabako gainerako udalerrrietakoa (0,77 euro).





## 5. Gizarte-zerbitzuetako langileak

Atal honetan xehetasunez aztertzen da gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian diharduten langileen egitura, langile multzo horren ezaugarriak diren sektoreko alderdiak ez ezik, alderdi hertsiki profesionalak ere aintzat hartuz.

### 5.1. Alderdi orokorrak

30. taulan ikus daitekeen bezala, 2019ko abenduaren 15ean, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiak 20.504 langile propio zituen. Aurreko urteetan langileen kopurua etengabe hazi zen (2012-2015 aldian, % 8,3; 2015-2016 aldian, % 4,0; eta 2016-2017 aldian, % 4,2). Testuinguru horretan, 2017-2019 aldian mantendu egin zen enpleguaren goranzko joera nabarmena, baina apur bat moteldu zen urtetik urterako hazkunde-erritmoa. Hala, 2016-2017 aldiko % 4,2ko igoera eta gero, 2017-2018 aldian % 3,8koa izan zen, eta % 2,4koa 2018-2019 aldian.

Langileen urteko batez besteko kopuruak aztertuz gero, gizarte-zerbitzuetako langile propioen kopurua askoz txikiagoa izan zen 2019an: 20.088. Kasu horretan, zifrak nolabaiteko egonkortzea erakusten du okupazioan: % 0,1 baino ez zuen egin gora, 2018ko 20.066 langileekin alderatuta. Hortaz, hautsi egin zen aurreko urteetako goranzko joera: 2015-2016 aldian, % 3,0; 2016-2017 aldian, % 3,1, eta 2017-2018 aldian, % 3,5 igo zen.

**30. taula.**  
**Gizarte-zerbitzuen erdiguneak zituen langileen adierazleak**  
**(Datu absolutuak eta horren bariazioa 2016-2019 aldian %-tan)**

Adierazleak	2016	2017	2018	2019	Bariazioa 2018/2019 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%
Langileak abenduaren 15ean: Propioak	18.521	19.295	20.022	20.504	2,4
Urteko langileak batez beste: Propioak	18.794	19.385	20.066	20.088	0,1
Langileak guztira: Azpikontratatuak	7.041	7.863	7.752	8.452	9,0
Langileak guztira: Boluntarioak	2.911	3.167	3.224	3.702	14,8
Langileak abenduaren 15ean LOB: Propioak	15.352	15.912	16.422	16.738	1,9
LOBeko urteko langileak batez beste: Propioak	15.270	15.652	16.196	16.408	1,3
LOBeko Langileak guztira: Azpikontratatuak	5.644	5.861	5.802	6.456	11,3
LOBeko Langileak guztira: Boluntarioak	275	358	355	459	29,4
LOB GUZTIRA	21.188	21.872	22.353	23.323	4,3
Propioak %	72,1	71,6	72,5	70,4	
Azpikontratatuak %	26,6	26,8	26,0	27,7	
Boluntarioak %	1,3	1,6	1,6	2,0	

Iturria: EOE, BJKPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzeta (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

DOB<sup>12</sup> langileak aztertuta, 2019ko abenduaren 15ean, langile propioak 16.738 ziren, 2018an baino % 1,9 gehiago. Kasu honetan ere behera egin zuen hazkunde-erritmoak 2017-2018 aldiko % 3,2ko igoerarekin alderatuta, zeina 2015-2016 aldiko % 3,1 baino handiagoa izan baitzen, baina 2016-2017 aldiko % 3,6ko igoera baino txikixeagoa.

DOBen arabera hurbilketan, batez besteko urteko langile kopurua ere txikiagoa izan zen abenduaren 15ekoa baino, 16.408 enplegatu baitzeuden. 2018. eta 2019. urteen artean izandako hazkundera urtetik urterako % 1,3ra mugatu zen adierazle honetan, hau da, 2017-2018 aldiko

<sup>12</sup> DOB: Dediakzio osoaren baliokidetzeta (astean 35 ordu eta urtean 1.600 ordu).

% 3,5eko edo 2015-2016 aldiko % 3,4ko igoera baino txikiagoa, baina 2016-2017 aldiko % 2,5etik hurbilago.

Langile propioen egoerarekin alderatuta, 2018-2019 aldian suspertu egin zen langileen azpikontratazioa. Hala, zenbatespenen arabera, 2019an 8.452 langile azpikontratatu izan ziren, 2018an baino % 9,0 gehiago (7.752 langile izan ziren). Urtetik urterako hazkunde-tasa horrek 2017-2018 aldiko -% 1,4ko beherakadarekin kontrastatzen zuen, eta 2016-2017 aldiko % 11,7ko igoeraren bidea berreskuratu zuen, zeina 2015-2016 aldiko % 5,4ko igoera baino bi aldiz handiagoa izan baitzen jada.

Dedikazio osoaren baliokidetzaren arabera, 2019ko langile azpikontratatuak 6.456 izan ziren. Kasu horretan, 2018ko 5.802 langile kopurua baino % 11,3 handiagoa. Hemen ere joeraren aldaketa ikusten da, 2017-2018 aldiko % 1,0eko beherakadarekin alderatuta. Eta halako enpleguan 2017a baino lehen izandako hazkunde handiko dinamika berreskuratu zen. Hala ere, adierazle honetan, 2018-2019 aldian langile azpikontratatuaren arloan izandako % 11,3ko hazkundera 2015-2016 aldiko % 2,4koa eta 2016-2017 aldiko % 3,9koa baino askoz handiagoa izan zen.

2017. eta 2018. urteen artean ikusitakoarekin alderatuta, 2018. eta 2019. urteen artean langile propioen kopuruaren hazkundeak izandako moteltzea lotuta zegoen gizarte-zerbitzu nagusietan langileen azpikontratazioak izandako areagotzearekin.

Termino orokorretan, borondatezko langileek ere kopuru handia osatu zuten sektorean (3.702 pertsona, 2019an; beraz, 2018an baino % 14,8 gehiago), baina adierazgarritasuna txikiagoa izan zen DOBen arabera neurtuta. Ildo horretan, 459 pertsona baino ez ziren aritu dedikazio osoaren baliokidean, baina kopururik handiena izan zen 2012tik. Langile azpikontratatuarekin gertatu bezala, kasu honetan ere suspertze nabarmena izan zen, eta 2018. eta 2019. urteen artean % 29,4 egin zuen gora 2018ko 355 pertsonarekin alderatuta. 2017-2018 aldiko -% 0,9 beherakadaren ondoren, kasu honetan ere berreskuratzen zen 2016-2017ko % 30,4ko gorakadak markatutako goranzko dinamika argia.

Orotara, gizarte-zerbitzuen nukleoan, DOB enpleguari dagokionez, 2019an 23.323 langile egon zirela zenbatetsi da. Langile kopuru horrek etengabe gora egin zuen 2012-2015 aldian: % 8,2 egin zuen gora 2012an izandako enplegatu kopuruarekin alderatuta. 2015-2017 biurtekoan ere luzatu zen goranzko joera hori: % 3,1 egin zuen gora 2015. eta 2016. urteen artean, eta % 3,2, 2016. eta 2017. urteen artean. 2017-2018 aldian, goranzko joera mantendu egin zen, baina gora egiteko erritmoa nolabait moteldu zen: % 2,2 egin zuen gora. Langile azpikontratatuaren arloko dinamikan oinarrituta batez ere, 2018-2019 aldian nabarmena izan zen hazkunde-erritmoaren goranzko joera: 2019an 23.323 DOB langile izan ziren gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian, hau da, 2018an baino % 4,3 gehiago (22.353 izan ziren). 2015etik erregistratutako urteko hazkunde-erritmorik altuena izan zen.

Langileen multzoa orokorrean hartuta, DOB langile propioen pisu erlatiboak 2012an % 73,2 izatetik 2013an % 71,6 izatera egin zuen, eta ordudanik gora egin zuen etengabe, 2016an % 72,1era iritsi arte. 2016. eta 2017. urteen artean, ordea, beheranzko bideari ekin zion berriro % 71,6ko balioarekin, eta mailarik baxuenetan kokatu zen 2013tik.

2017-2018 aldiko dinamika gehiago hurbildu zen 2013-2016 aldiko dinamikara, eta langile propioen ehunekoak berriro egin zuen gora: % 72,5, 2018an. 2018. eta 2019. urteen artean, berriz, enplegua azpikontratazioaren bidez sustatu zenez, berriro hartu zuen beheranzko joera langile propioen ehunekoak. Hala, 2019ko % 70,4ko balioa txikiena izan zen 2012tik.



Azpikontrataturako langileen bilakaera erabat kontrakoa izan zen. Azpikontrataturako langileen kopurua handitu zen gehien 2012tik 2013ra bitartean, 2012an enplegatu guztien % 25,2 izatetik 2013an % 26,9 izatera igaro baitzen. Hala eta guztiz ere, harrezkero, apur bat behera egin zuen ehunekoak: 2016an, % 26,6. 2017an berriro gora egin ondoren % 26,8ko balioraino, 2017-2018 aldian berriro bueltatu zen 2015-2016 aldian erregistratu zen beheranzko joerara, eta proportzioa % 26koa izan zen 2018an. 2018-2019 aldian, ordea, 2012tik izandako hazkunderik handienetako bat izan zuen, 2012-2013 aldikoaren antzekoa, eta azpikontrataturako langileen pisu erlatiboak gora egin zuen, 2018ko % 26,0tik 2019ko % 27,7ra.

Borondatezko langileen pisuak ere goranzko joera izan zuen; hau izan zen bilakaera: % 1,3, 2016an; % 1,6, 2017an eta 2018an, eta % 2, 2019an.

## 5.2. Enpleguaren sektorekako banaketa

31. eta 32. taulek enpleguaren sektorekako banaketari buruzko informazioa ematen dute, arreta-sektorearen arabera, bai zifra orokorretan (31. taula) eta bai DOB zenbakietan (32. taula).

Gizarte-zerbitzuetako langileen barne-banaketa DOB kontuan hartuta aztertzean (gehiago doitzen baitzaio enpleguaren epe luzeko jarraipenari), ikus daiteke lanpostu gehienak adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuen inguruan biltzen zirela. Jarduera-eremu horretan 2019an guztira 14.102 DOB lanpostu bildu ziren, enplegu guztien % 60,5. Hala ere, proportzio horrek behera egin zuen 2017ko % 62,1eko balioarekin alderatuta, baita 2018ko % 60,9 alderatuta ere.

2017. eta 2018. urteen artean adinekoei arreta eskaintzeko enpleguaren partaidetza erlatiboak izandako murrizketa sektore horretan DOB lanpostuen igoeraren moteltzearen emaitza izan zen: % 0,3 baino ez zuten egin gora. Zifra hori 2017-2018 aldian gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiak DOP langileen kopuruak izandako % 2,2ko igoera baino nabarmen txikiagoa izan zen. Bestalde, sektore horretako enpleguaren hazkunde-eritmoaren funtsezko murrizketa bat erakusten zuen 2016-2017 aldiko % 3,7ko eta 2015-2016 aldiko % 2,9ko balioekin alderatuta. Izan ere, 2017-2018 aldiko dinamika oso ezberdina izan zen 2013. eta 2017. urteen artean enpleguak izandako goranzko joerarekin alderatuta (% 3ko edo hortik gorako balioak izan ziren).

2018. eta 2019. urteen artean, adinekoen arretan DOB enpleguak izan duen hazkundera areagotu egin zen eta 2015-2017 aldiko mailetara hurbildu zen % 3,6ko hazkunderarekin. Hala ere, 2018. eta 2019. urteen artean mantendu egin zen DOB enpleguaren pisu erlatiboaren galera, enpleguak gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian izandako hazkunde orokor handiagoaren ondorioz: % 4,3 egin zuen gora aldi horretan.

Gizarte-zerbitzuen arloko enpleguan eragin askoz txikiagoa izan arren, lanpostu ugari bildu zituen beste eremu bat izan zen desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonen arreta emateko sektorearena. Kasu horretan, DOB enpleguak 3.582 lanpostu izan zituen 2019an. 2015-2016 aldiko % 6,5eko igoera handiaren ostean, 2016-2017 aldian igoera moteldu eta % 2,7 baino ez zen izan. Gero, 2017-2018 aldian gora egin zuen berriro: % 3,3. Bilakaera horrekin alderatuta, 2018. eta 2019. urteen artean, gaixotasunen bat duten pertsonen arreta emateko DOB enpleguaren bolumena -% 1,0 murriztu zen, 2018ko 3.620 lanpostuekin erkatuta.

2015ean guztizkoaren % 15,6 izatetik 2016an % 16,1era pasatu ondoren, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonen arreta emateko sektorean langileek duten pisuak egonkor samar jarraitu zuen: 2017an, % 16, eta 2018an, % 16,2. 2018an hautemandako proportzioa % 16tik-16,2 artean kokatu zen berriro; zifra hori ohikoa izan zen 2012tik aurrera -2015eko % 15,6ko balioa

izan zen salbuespen bakarra-. 2018-2019 aldiak DOB enpleguak izandako jaitsiera txiki hori gizarte-zerbitzuen beste sektore batzuetan hazkunde handiarekin batera eman bazen ere, argi dago aztertutako langileen pisuak beheranzko joera hartu zuela: % 15,4 izan zen 2019an, 2015eko % 15,6ko balioaren azpitik ere.

Haurren, gazteen, emakumeen eta familien sektorean, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko DOB enpleguaren % 8,8 izan zen (2.051 DOB lanpostu 2019an). Lan-sektore hori, beraz, asko handitzen ari zen: DOB enpleguak % 11,5 egin zuen gora 2015-2016 aldiak; % 8,5, 2016-2017 aldiak; % 10,9, 2017-2018an, eta % 10,3, 2018-2019 aldiak. 2012. eta 2013. urteen artean, enplegu guztiaren % 6,6 eta % 6,9 artekoa izan ondoren, ehunekoak etengabe egin zuen gora, 2014-2015 aldiako % 6,7tik 2019ko % 8,8ra iritsi arte, hau da, 2018ko % 8,3ko balioa baino ehuneko 0,5 puntu gorago.

Bazterketa-sektorean, 1.074 DOB lanpostu izan ziren 2019an, enplegu guztiaren % 4,6. Esku-hartzearen arlo horretan, 2014-2015 aldiak enpleguak beherakada handia izan zuen (-% 5,1), eta DOB langileen kopurua 975etik 926ra aldatu zen. 2015. eta 2016. urteen artean egonkortu ondoren (% 0,1 baino ez zen igo), 2016-2017 aldiak enpleguaren bolumena berriro murriztu zen, -% 1,4, eta 2017an 914 enplegu baino ez ziren izan.

2017-2018 aldiak, ordea, nabarmen igo zen berriro bazterketa-egoeran dauden pertsonen emateko enplegua: % 5,7. Enpleguaren goranzko joera hori areagotu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean, eta % 11,1 egin zuen gora. 2018ko 966 lanpostuekin alderatuta, 2019ko 1.074 lanpostuek 2014ko kopuruaren (975 lanpostu) gainetik kokatzea lortu zuten lehen aldiz. Kopuru hori 2014-2015 aldiako jaitsiera baino lehenagokoa da.

Bestalde, 2017. eta 2019. urteen artean enpleguak izandako hazkunde handiak aldatu egin zuen bazterketari aurre egiteko sektoreak gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko enpleguan zuen partaidetzaren beheranzko joera. Hala, 2018ra arte, sektoreko enpleguaren pisuak behera egin zuen epe luzean, eta 2014ko 4,9tik 2017ko 4,2ra pasatu zen. Gero, 2018an gora egin zuen, % 4,3, eta igoera handiagoa izan zen 2019an: % 4,6. Hala ere, 2014koa (% 4,9) baino txikiagoa zen oraindik.

Azkenik, gizarte-zerbitzuen egiturari dagokion enpleguak 2.514 DOB lanpostu izan zituen 2019an, 2018ko 2.289 lanpostuak baino % 9,8 gehiago.

Hazkunde-maila horrek sendotu egin zuen 2017-2018 aldiak 2015-2017 aldiako bilakaerari dagokionez markatutako joera-aldaketa. Ildo horretan, 2016-2017 aldiak egonkortasuna izan zen nagusi gizarte-zerbitzuen egiturako enpleguan, eta beherakada -% 0,2koa baino ez zen izan, 2016ko 2.204 DOB lanpostuekin alderatuta, Hala ere, egonkortze horren aurretik, 2015-2016 aldiak, lanpostu horiek -% 4,4ko beherakada izan zuten, 2012-2015 aldiako goranzko joera argiaren kontrako bidean. 2017tik aurrera, goranzko joera berreskuratu zuen eta % 4,0 egin zuen gora DOB enpleguak 2017. eta 2018. urteen artean. Eta are gehiago 2018-2019 aldiak: % 9,8.

DOB enpleguak gizarte-zerbitzuen egiturari zuen pisuak 2015eko % 11,2tik 2017ko % 10,1era egin zuen behera. 2017-2018 aldiako igoera gorabehera, beste sektore batzuek ere hazkunde handia izan zuten garaian, proportzio hori % 10,2ra baino ez zen iritsi 2018an. 2018. eta 2019. urteen artean gizarte-zerbitzuek izandako erregistro orokorraren gainetik hazi zenez, partaidetza % 10,8koa izan zen 2019an, hau da, 2015eko % 11,2ko baliotik hurbilago egon zen.





31. taula.  
Gizarte-zerbitzuetako langileei buruzko adierazleak, arreta-sektorearen arabera. Datu orokorrak. 2016-2019  
(Datu absolutuak, guztizkoarekiko ehunekoa adierazle bakoitzeko, eta zifra absolutuen 2018-2019 aldiko bariazioa ehunekotan)

Arreta-sektorea		2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	2018/2019 aldiko bariazioa
		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	guztizkoaren %a	guztizkoaren %a	guztizkoaren %a	guztizkoaren %a	%
<b>EGITURA</b>	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	2.350	2.324	2.436	2.549	12,7	12,0	12,2	12,4	4,6
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	2.370	2.326	2.437	2.548	12,6	12,0	12,1	12,7	4,6
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	276	281	278	419	3,9	3,6	3,6	5,0	50,7
	Langileak, guztira: boluntarioak	1	4	4	4	0,0	0,1	0,1	0,1	0,0
<b>ADINEKOAK</b>	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	10.702	11.116	11.461	11.848	57,8	57,6	57,2	57,8	3,4
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	10.866	11.184	11.493	11.565	57,8	57,7	57,3	57,6	0,6
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	4.758	5.221	4.920	5.283	67,6	66,4	63,5	62,5	7,4
	Langileak, guztira: boluntarioak	555	629	675	697	19,1	19,9	20,9	18,8	3,3
<b>DESGAITASUNA GAIXOTASUNA</b>	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	3.968	4.214	4.384	4.318	21,4	21,8	21,9	21,1	-1,5
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	4.031	4.223	4.372	4.180	21,4	21,8	21,8	20,8	-4,4
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	546	612	676	678	7,8	7,8	8,7	8,0	0,3
	Langileak, guztira: boluntarioak	647	1.027	1.072	1.408	22,2	32,4	33,3	38,0	31,3
<b>HAURRAK, GAZTEAK, FAMILIAK ETA EMAKUMEAK</b>	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	413	455	511	503	2,2	2,4	2,6	2,5	-1,6
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	416	456	505	501	2,2	2,4	2,5	2,5	-0,8
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	1.245	1.474	1.647	1.814	17,7	18,7	21,2	21,5	10,1
	Langileak, guztira: boluntarioak	95	71	67	168	3,3	2,2	2,1	4,5	150,7
<b>BAZTERTUAK</b>	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	1.088	1.186	1.230	1.286	5,9	6,1	6,1	6,3	4,6
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	1.111	1.196	1.259	1.294	5,9	6,2	6,3	6,4	2,8
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	216	275	231	258	3,1	3,5	3,0	3,1	11,7
	Langileak, guztira: boluntarioak	1.613	1.436	1.406	1.425	55,4	45,3	43,6	38,5	1,4
<b>GUZTIRA</b>	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	18.521	19.295	20.022	20.504	100	100	100	100	2,4
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	18.794	19.385	20.066	20.088	100	100	100	100	0,1
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	7.041	7.863	7.752	8.452	100	100	100	100	9,0
	Langileak, guztira: boluntarioak	2.911	3.167	3.224	3.702	100	100	100	100	14,8

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.

## 32. taula.

Gizarte-zerbitzuetako langileei buruzko adierazleak, arreta-sektorearen arabera. LOB datuak. 2016-2019  
(Datu absolutuak, guztizkoarekiko ehunekoa adierazle bakoitzeko, eta zifra absolutuen 2018-2019 aldiko bariazioa ehunekotan)

Arreta-sektorea		2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	2018/2019
		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Guztizko-aren %a	Guztizko-aren %a	Guztizko-aren %a	Guztizko-aren %a	aldiko bariazioa %
<b>EGITURA</b>	Abenduaren 15eko langileak, LOB: berezkoak	2029	2031	2139	2223	13,2	12,8	13	13,3	3,9
	Urteko batez besteko langileak, LOB: berezkoak	2018	2006	2100	2188	13,2	12,8	13	13,3	4,2
	Langileak, guztira, LOB: azpikontratatuak	187	195	188	326	3,3	3,3	3,2	5	73
	Langileak, guztira, LOB: boluntarioak	0	0	0	0	0	0,1	0,1	0	0
	LOB, GUZTIRA	2204	2201	2289	2514	10,4	10,1	10,2	10,8	9,8
	Berezko LOB langileen %	91,5	91,1	91,8	87					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	8,5	8,8	8,2	13					
LOB boluntarioen %	0	0	0	0						
<b>ADINEKOAK</b>	Abenduaren 15eko langileak, LOB: berezkoak	9282	9651	9832	10094	60,5	60,7	59,9	60,3	2,7
	Urteko batez besteko langileak, LOB: berezkoak	9251	9525	9757	9960	60,6	60,9	60,2	60,7	2,1
	Langileak, guztira, LOB: azpikontratatuak	3787	3886	3699	3974	67,1	66,3	63,8	61,5	7,4
	Langileak, guztira, LOB: boluntarioak	58	164	163	168	21,2	45,7	45,9	36,7	3,4
	LOB, GUZTIRA	13096	13575	13618	14102	61,8	62,1	60,9	60,5	3,6
	Berezko LOB langileen %	70,6	70,2	71,6	70,6					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	28,9	28,6	27,2	28,2					
LOB boluntarioen %	0,4	1,2	1,2	1,2						
<b>DESGAITASUNA GAIKOTASUNA</b>	Abenduaren 15eko langileak, LOB: berezkoak	3032	3151	3260	3160	19,8	19,8	19,9	18,9	-3,1
	Urteko batez besteko langileak, LOB: berezkoak	2993	3070	3191	3059	19,6	19,6	19,7	18,6	-4,1
	Langileak, guztira, LOB: azpikontratatuak	369	376	368	369	6,5	6,4	6,3	5,7	0,3
	Langileak, guztira, LOB: boluntarioak	52	59	61	154	18,9	16,5	17,2	33,6	152,2
	LOB, GUZTIRA	3414	3505	3620	3582	16,1	16	16,2	15,4	-1
	Berezko LOB langileen %	87,7	87,6	88,2	85,4					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	10,8	10,7	10,2	10,3					
LOB boluntarioen %	1,5	1,7	1,7	4,3						
<b>HAURRAK, GAZTEAK, FAMILIAK, ETA EMAKUMEAK</b>	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	353	401	456	435	2,3	2,5	2,8	2,6	-4,6
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	353	401	447	429	2,3	2,6	2,8	2,6	-4,1
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	1167	1260	1399	1604	20,7	21,5	24,1	24,8	14,6
	Langileak, guztira: boluntarioak	26	16	13	19	9,6	4,4	3,7	4	39,7
	LOB, GUZTIRA	1546	1677	1859	2051	7,3	7,7	8,3	8,8	10,3
	Berezko LOB langileen %	22,8	23,9	24	20,9					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	75,5	75,1	75,2	78,2					
LOB boluntarioen %	1,7	0,9	0,7	0,9						
<b>BAZTERTUAK</b>	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	656	678	735	826	4,3	4,3	4,5	4,9	12,4
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	655	650	701	772	4,3	4,2	4,3	4,7	10,1
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	134	145	148	184	2,4	2,5	2,5	2,9	24,6
	Langileak, guztira: boluntarioak	138	120	117	118	50,3	33,4	33,1	25,6	0,3
	LOB, GUZTIRA	927	914	966	1074	4,4	4,2	4,3	4,6	11,1
	Berezko LOB langileen %	70,6	71,1	72,6	71,9					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	14,5	15,8	15,3	17,2					
LOB boluntarioen %	14,9	13,1	12,1	11						
<b>GUZTIRA</b>	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	15352	15912	16422	16738	100	100	100	100	1,9
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	15270	15652	16196	16408	100	100	100	100	1,3
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	5644	5861	5802	6456	100	100	100	100	11,3
	Langileak, guztira: boluntarioak	275	358	355	459	100	100	100	100	29,4
	LOB, GUZTIRA	21188	21872	22353	23323	100	100	100	100	4,3
	Berezko LOB langileen %	72,1	71,6	72,5	70,4					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	26,6	26,8	26	27,7					
LOB boluntarioen %	1,3	1,6	1,6	2						

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.

LOB: lanaldi osoaren baliokidea (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)



DOB enpleguaren bilakaerari dagokionez, 2018-2019 aldiak askotariko ildoak erakusten ditu. Batetik, haurren, gazteen, emakumeen eta familien sektorean enpleguak izandako igoera handia nabarmendu zen (% 10,9koa), baita bazterketaren sektorekoa ere (% 11,1ekoa). DOB enpleguaren bolumenaren hazkundera ere handia izan zen aldi horretan gizarte-zerbitzuen egitura ere (% 9,8).

Bestalde, adinekoei arreta emateko zentroetan eta zerbitzuetan, igoera nabarmentzeko modukoa bazen ere (% 3,6 egin zuen gora DOB enpleguak), hazkunde hori EAEko erregistro orokorraren azpitik geratu zen, sektore hedakorrenek izandako hazkundetik urrun. Alde negatiboan, 2018. eta 2019. urteen artean enpleguak oro har izandako goranzko joera ez zen eman desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonen arreta emateko sektorean, -% 1,0 egin baitzuen behera.

Langile propioen pisua nagusia zen ia jarduera-eremu guztietan, DOBen arabera neurtuta. 2019an, % 90etik hurbil edo hortik gora zeuden zifrekin, maximoa gizarte-zerbitzuen egitura (% 87,0) eta desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonen emandako arretan (% 85,4) izan zen. Mailak askoz txikiagoak izan arren, proportzioa altua izan zen ere bazterketa-egoeran dauden herritarrei emandako arretan (% 71,9) eta adineko pertsonen emandako arretan (% 70,6). Aitzitik, langile propioen ehuneko gutxiengoa izan zen haurren, gazteen, emakumeen eta familien sektorean: % 20,9 baino ez. Orokorrean, adierazi den bezala, gizarte-zerbitzuetako DOB enpleguaren % 70,4 langile propioek osatu zuten. Proportzioak behera egin zuen 2018ko % 72,5eko balioarekin alderatuta.

2018. eta 2019. urteen artean DOB enpleguan langile propioen pisu erlatiboak izandako jaitsiera orokorra izan zen gizarte-zerbitzuen sektore guztietan. Hala ere, eragin handiagoa izan zuen haietako batzuetan, bereziki sistemaren egitura -enplegu propioaren proportziorik altuena zuten sektoreen barruan-, ehuneko -4,7 puntu egin baitzuen behera (% 91,8tik % 87,0ra), eta desgaitasuna edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako arretan, zeinean ehuneko -2,8 puntu egin baitzuen behera (% 88,2tik % 85,4ra). 2018. eta 2019. urteen artean, langile propioen pisuaren murrizketa bereziki deigarria izan zen, edonola ere, haur, gazte, emakume eta familien sektorean. 2018an langile horiek pisu txikia izan zuten, % 24,0koa, baina 2019an are txikiagoa izan zen, % 20,9koa, hau da, ehuneko -3,1 puntu gutxiago.

2018. eta 2019. urteen artean, jaitsierak ez ziren hain handiak izan adinekoen sektorean eta bazterketa-egoeran daudenentzako arretaren sektorean, eta ehuneko -0,7 eta -1,0 puntuen artean egon zen (% 71,6tik % 70,6ra eta % 72,6tik % 71,9ra, hurrenez hurren).

33. taulan azpikontratutako langileen pisu erlatiboa xehetasun handiagoz aztertzen da, eta ikus daiteke 2019an era horretako langileak nagusi zirela haurrak, gazteak, emakumeak eta familiak artatzeko zerbitzuetan, DOB enpleguaren % 78,2 baitzen azpikontratatuak. Gutxiengoa izan arren, azpikontratutako enplegu horrek pisu aipagarria izan zuen adineko pertsonen arretan ere (% 28,2). Askoz beherago bada ere, % 15eko atalasearen gainetik egon zen oraindik bazterketari aurre egiteko sektorea (% 17,2). Atalase horretatik behera egon ziren gizarte-zerbitzuen egitura (% 13,0) eta gaixotasun edo desgaitasunen bat dutenentzako pertsonen arreta (% 10,3).

Esan bezala, 2019an, gizarte-zerbitzuetan oro har zegoen DOB enpleguaren % 27,7 azpikontratatuak zegoen, eta kopuru hori 2018ko % 26,0 baino handiagoa izan zen. 2012tik lehen aldiz, azpikontratutako enpleguaren pisuak gaititu egin zuen 2019an 2013-2018 aldiko modadun tartea adierazle horretan (% 26,0 eta % 26,9 balioen artekoa zen).

## 33. taula.

**Gizarte-zerbitzuetan azpikontratatuta dauden langileak zentro/zerbitzu motaren arabera  
(LOB enplegu zenbatetsi guztien %-a eta 2016-2019 aldiko enplegu azpikontratatuaren bariazio absolutua eta %  
tan)**

	LOBeko Langileak guztira: Azpikontratatuak				Bariazioa 2018/2019 aldian	
	2016	2017	2018	2019	Abs.	%
Zentro/Zerbitzu mota	%	%	%	%		
Zerbitzu orokorrak (publikoak)	17,7	21,6	20,5	31,1	135	96,2
Zerbitzu tekniko espezializatuak	3,0	0,2	0,2	0,6	3	283,0
Gizarte-larrialdietarako zerbitzuak	97,3	97,3	94,8	100,0	3	8,8
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	1,6	1,5	1,4	1,0	-3	-27,5
<b>EGITURA</b>	<b>8,5</b>	<b>8,8</b>	<b>8,2</b>	<b>13,0</b>	<b>138</b>	<b>73,0</b>
Egoitza-zentroak	25,9	25,8	24,4	25,5	228	7,4
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	83,7	80,3	80,2	79,6	0	-0,1
Eguneko laguntza-zentroak	63,1	60,8	59,9	59,3	40	6,6
Beste zentro/zerbitzuak	4,4	7,9	40,2	49,1	7	95,2
<b>ADINEKO PERTSONAK</b>	<b>28,9</b>	<b>28,6</b>	<b>27,2</b>	<b>28,2</b>	<b>275</b>	<b>7,4</b>
Egoitza-zentroak	13,9	13,9	12,5	12,7	22	8,4
Atsedeen- eta babes-zerbitzua	7,5	11,1	12,0	12,0	0	0,0
Eguneko laguntza-zentroak	9,5	9,3	8,5	8,2	-1	-0,9
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	0,3	0,7	0,2	0,6	1	75,4
Laneratze-zentroak	4,1	1,5	1,2	1,7	0	-13,3
Tutoretza/Tutoretza-fundazioak	0,1	0,1	15,6	0,0	-20	-99,8
Laguntza goiztiarra	54,1	58,4	60,1	64,1	-1	-6,8
<b>DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA</b>	<b>10,8</b>	<b>10,7</b>	<b>10,2</b>	<b>10,3</b>	<b>1</b>	<b>0,3</b>
Adingabeen egoitza-zentroak	77,6	78,0	77,5	80,6	153	12,0
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima ez direnentzat)	26,7	19,7	17,9	37,5	16	171,6
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima direnentzat)	84,0	84,4	79,1	84,9	28	72,2
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	40,7	40,5	47,4	42,0	2	7,0
Tratu txarrak jasan dituzten pertsonen arreta	100,0	100,0	100,0	100,0	5	10,6
<b>HAURRAK, GAZTEAK, EMAKUMEAK ETA FAMILIAK</b>	<b>75,5</b>	<b>75,1</b>	<b>75,2</b>	<b>78,2</b>	<b>205</b>	<b>14,6</b>
Ostatu eta egoitza-zentroak.	13,7	15,2	14,0	15,3	10	12,7
Gaueko harrera-zentroak	26,6	27,5	30,8	40,2	24	60,4
Eguneko zentroak	10,0	11,3	11,4	9,6	2	8,9
Jantoki sozialak	8,9	7,9	6,4	5,5	0	-2,1
<b>BAZTERKETA</b>	<b>14,5</b>	<b>15,8</b>	<b>15,3</b>	<b>17,2</b>	<b>36</b>	<b>24,6</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>26,6</b>	<b>26,8</b>	<b>26,0</b>	<b>27,7</b>	<b>654</b>	<b>11,3</b>

Iturria: EOE, BJGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika OHARRA: Ikus atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean

DOBen arabera neurtuta, azpikontratazioaren pisuaren goranzko dinamikaren barruan sektoreen arteko ezberdintasun garrantzitsu batzuk aipatu ahal dira. 2018. eta 2019. urteen artean azpikontratazioak hazkunderik handiena izan zuen sektoreetatik hasita, gizarte-zerbitzuen egitura orokorrari zegokiona nabarmendu behar da. Kasu horretan, azpikontratazioaren pisuak modu jarraituan egin zuen behera 2012ko % 7,5etik 2015eko % 11,6ra. Gorabehera batzuekin bada ere, azpikontratazioaren inpaktuak behera egin zuen urte horretatik aurrera: 2016. eta 2018. urteen artean % 9tik beherakoa izan zen, eta aldi horretako minimoa 2018an izan zen, % 8,2 (2012ko balioaren gainetik baino ez zen egon). 2018. eta 2019. urteen artean, ordea, indarra berreskuratu



zuen azpikontratazioak, eta sektoreko enpleguan izan zuen pisua % 13ra iritsi zen. Maximoa izan zen 2012tik ordura arte, eta 2018ko % 8,2ko balioa baino ehuneko 4,7 puntu handiagoa.

2018-2019 aldian azpikontratazioak hazkunderik handiena izan zuen bigarren sektorea haur, gazte, emakume eta familien sektorea izan zen. Lana antolatzeke era hori gehien erabili zuen sektorea izan zen. 2012ko % 75,2tik 2013ko % 77,6ra iritsi ondoren, etengabeko jaitsiera izan zuen proportzioak, 2017-2018 aldiko % 75,1 -75,2 balioetara iritsi arte. Beheranzko joera hori bat-batean hautsi zen 2019an, eta ehuneko 2,9 puntu gora egin zuen azpikontratutako enpleguaren pisuak, 2018ko % 75,2tik 2019ko % 78,2ra. Proportzio horrek 2013ko % 77,6 gainditu zuen.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako arretaren sektorean, azpikontratutako enpleguaren pisuak behera egin zuen, 2012-2014 aldiko % 15,7 eta % 15,9 arteko balioetatik 2015-2016ko aldiko % 14,5-14,6ko balioetara. 2017an gora egin zuen berriro, eta % 15,8ko balioarekin 2012-2014 aldiko mailetan kokatu zen, berriro behera egin aurretik: % 15,3 izan zen 2018an. Bilakaera gorabeheratsu horretan, 2018-2019 aldian azpikontratazioak gorakada handia izan zuen, % 17,2ra, 2018an baino ehuneko 1,9 gehiago, eta mailarik altuena izan zen 2012tik.

2018-2019 aldian, aipatutako hiru sektoreetan azpikontratazioak izandako bilakaeraren ezaugarria izan zen, beraz, hazi egin zela enpleguan zuen garrantzi erlatiboa eta 2019an partaidetza-mailarik altuenak lortu zirela. Alderdi horiei dagokienez, gizarte-zerbitzuen gainerako sektoreetatik bereizten ziren, azpikontratazioak enpleguan zuen pisu erlatiboa egonkortu edo apur bat handitu baitzen, eta, gainera, adierazle horretan izan zituzten erregistroak ez ziren iritsi 2019a baino lehen lortutako maila maximoetara.

Adinekoen arretaren arloan, azpikontratutako enpleguaren pisua 2012ko % 27,7tik 2013-2016 aldiko % 28,9 eta % 29,2 arteko balioetara pasatu zen, beherantz hasi baino lehen, 2017ko % 28,6ra iritsi arte. 2017-2018 aldian, azpikontratutako enpleguaren proportzioak beherakada garrantzitsua izan zuen, % 27,2ra, hau da, 2012ko % 27,7ko balioaren azpitik kokatu zen. 2018. eta 2019. urteen artean, azpikontratazioaren pisuak gora egin zuen berriro, % 28,2ra. Proportzio hori 2013-2017 aldiko erregistroen azpitik mantendu zen hala ere.

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonen emandako arretari dagokionez, azpikontratutako enpleguaren proportzioak gora egin zuen 2012tik 2013ra, % 9,9tik % 11,0ra. 2014. eta 2017. urteen artean, proportzioa egonkor mantendu zen, baina apur bat behera egin zuen, % 10,6 eta % 10,9ko balioen artean, 2018an % 10,2ra iritsi baino lehen. 2019an, proportzioa ia egonkor mantendu zen, ehuneko 0,1 puntu baino ez baitzuen egin gora, 2019ko % 10,3ra. Beraz, sektore horretan, azpikontratutako enpleguaren pisua 2013. eta 2017. urteen artean izandako mailen azpitik geratu zen ere.

Azpikontratutako enpleguak DOB enpleguan izandako eraginaren azterketa zehatzago bat eginez gero, zentro edo zerbitzuaren arabera, dibertsitate are handiagoa izan zen. Alde batetik, ondorioztatzen da 2019an enplegu mota horretako pisua ia nulua izan zela edo, edonola ere, % 5etik beherakoa izan zela enpleguaren arlo esanguratsu hauetan: gizarte-zerbitzuen egituraren, zerbitzu tekniko espezializatuaren eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, eta gaixotasun edo desgaitasunen bat duten pertsonentzako arretan, eguneko zentroetan eta zentro okupazionaletan, laneratzeko zentroetan eta tutoretza-fundazioetan. Nahiz eta % 5etik gorako zifrak izan, % 15etik hurbil edo hortik behera kokatu zen azpikontratazioaren pisua desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroetan eta eguneko laguntza-zentroetan, baita bazterketa-egoeran dauden pertsonak babesteko arloan, etxebizitza eta egoitza-zentroetan, eguneko zentroetan eta jantoki sozialetan ere.

2019an azpikontrataturako langileen proportzioa % 25 eta % 45 artekoa izan zen gizarte-zerbitzuen egitura publikoaren zerbitzu orokorretan (% 31,1), adinekoentzako etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan (% 25,5) eta indarkeriaren biktima ez diren emakumeentzat direnetakoetan (% 37,5), bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan (% 40,2) eta, azkenik, adingabeentzako eta senideentzako eguneko arretan (% 42,0).

Hala ere, DOB azpikontratazioaren bilakaera ezberdina izan zen zentro horietan. Batetik, adinekoentzako egoitza-zentroetan, 2019ko proportzioa azpikontrataturako DOB lanpostuen proportzio-parametro egonkorretan mantendu zen. Hala, 2019ko % 25,5eko balioa tarteko posizio batean mantendu zen 2012-2019 aldiko modadun tartearen barruan (% 24,4 eta % 26,6 artekoa da tarte hori).

Beste alde batetik, zerbitzu publiko orokorren kasuan, 2019ko % 31,1 balioak igoera nabarmena ekarri zuen 2018ko % 20,5eko balioari zegokionez, eta 2012tik ikusitako dinamikatik urundu zen, zeinean azpikontrataturako enpleguaren mailarik altuena 2015eko % 26,9 izan baitzen. Indarkeriaren biktima ez diren emakumeentzako etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan ere ezaugarria izan zen gorakada handia, 2018ko % 17,9tik 2019ko % 37,5era. Kasu horretan, bilakaera horrek 2017-2018 aldiko beheranzko dinamika haustea ekarri zuen, eta aldi horretan % 20tik beherako balioak izan ziren 2012tik lehen aldiz. Halaber, azpikontratazioaren aurreko mailak gainditzea ekarri zuen. Aurreko maximoa 2013ko % 30,9 izan zen.

2018. eta 2019. urteen artean nabarmen gora egin zuen azpikontratazioak bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera zentroetan (% 40,2, 2018ko % 30,8 baino nabarmen gorago), eta 2019an maximoak lortu ziren 2012ko aurrerako aldiaren barruan. Kasu horretan, ordea, goranzko joera jarraitua izan zen 2015eko % 25,5etik.

Azkenik, 2018. eta 2019. urteen artean, kontrako joera izan zuen azpikontratazioaren pisuak adingabe edo familientzako eguneko arretan, behera egin baitzuen % 47,4tik % 42,0ra. Kasu horretan, 2017-2018 aldian % 40,5etik % 47,4ra gora egin ondoren, berreskuratu egin zen azpikontratazioaren pisuaren beheranzko joera argia, 2014-2015 aldiko % 50etik gorako balioekin alderatuta. 2019ko % 42ko balioak 2016. eta 2017. urteen arteko % 40,5-40,7ko balioak baino ez zituen gainditu.

Beste zentro eta zerbitzu batzuetan, berriz, azpikontratazioa nagusi izan zen 2019an, eta DOB enplegu gehiena hartu zuen. Enpleguaren arloan garrantzi handiagoa zuten zentro eta zerbitzuen artean, hauek aipatu behar dira: gizarte-larrialdietako zerbitzuak (DOB enpleguaren % 100 azpikontrataturako dago); atsedeen eta laguntza emateko zerbitzuak eta adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak (% 79,6 eta % 59,3); desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako arreta goiztiarra (% 64,1); adingabeentzako egoitza-zentroak (% 80,6), eta genero-indarkeria eta tratatu txarrak jasan dituztenei arreta emateko zerbitzuak (% 84,9, egoitzako arretan, eta % 100, tratatu txarraren arloko beste programa batzuetan).

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako laguntza goiztiarrean, 2015eko % 33,5etik 2018ko % 64,1era iritsi arte izandako hazkunde jarraituak erakusten du eten egin zela 2012-2015 aldian izandako azpikontratazioaren garrantzia galtzeko prozesua. Aldi horretan, behera egin zuen behin eta berriro enplegua betetzeko aukera horrek, 2012ko % 61,2tik 2015eko % 33,5era.

Baina mantendu egin zen adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetako azpikontratazioaren beherakada arina –nahiz eta oraindik nagusi izan– (2016ko % 63,1etik 2019ko % 59,3ra). Genero-indarkeriaren biktima izandako emakumeentzako etxebizitza eta egoitza-zentroetan ere behera egin zuen ere 2018ra arte (2015-2017 aldiko % 84ko edo hortik gorako



balioetatik 2018ko % 79,1era). Gero, 2018-2019 aldiko bilakaerak goranzko joera berri bat ekarri zuen, eta 2019an % 84,9ra iritsi zen.

Gainerako zentroetan, azpikontrataturako enpleguaren pisua % 80tik hurbil edo hortik gora kokatu zen, eta azpikontratazioaren pisuan egonkor mantendu zen edo sendotu egin zen enplegua antolatzeko eredu hau. Hala, 2018. eta 2019. urteen artean, azpikontrataturako enpleguaren pisua areagotu egin zen gizarte-larrialdietako zerbitzuetan (% 94,8tik % 100era) eta adingabeentzako egoitza-zentroetan (% 77,5etik % 80,6ra). 2018. eta 2019. urteen artean izandako gehikuntza horiek indarkeriaren biktima izandako emakumeentzako etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan izandakoen antzekoak izan ziren (%79,1etik % 84,9ra 2018-2019 aldian). Joera horrek areagotu egin zuen azpikontrataturako langileen kopurua tratu txarrarekin lotutako arretan, eta % 100ekoa izan zen halako esku-hartze sozialerako egoitzakoak ez diren programetan.

32. taulari berriro erreparatzen badiogu, ikus daiteke, azpikontratazioan ez bezala, DOB enplegu orokorraren % 2 baino ez zutela osatu borondatezko langileek 2019an, nahiz eta etengabe gora egin 2014-2016 aldiko % 1,3-1,4ko balioarekin edo 2018ko % 1,6ko balioarekin alderatuta.

Aurrerapen horrekin batera, areagotu egin ziren sektoreen arteko ezberdintasunak. Alde batetik, halako enpleguak ez zuen presentziarik gizarte-zerbitzuen egituran. DOBen arabera neurtuta, boluntarioen pisua handiagoa izan zen haur, gazte, emakume eta familien sektorean (% 0,9) zein adinekoenean (% 1,2), baina inpaktu urria zuen.

Bestalde, sektore batzuetan pisu nabarmena izan zuten halako langileek. Hala zen desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen sektorean, non borondatezko DOB langileen pisuak gora egin baitzuen, 2016-2018 aldiko % 1,5-1,7tik 2019ko % 4,3ra.

Edonola ere, borondatezko langile gehien zituen sektorea bazterkeriari aurre egiteko ekintza izan zen oraindik ere. Esku-hartzearen sektore horretan DOB enpleguaren % 11,0 bete zuten langile boluntarioek 2019an. Proporzio hori 2012 eta 2015eko % 16,2 baino baxuagoa izan zen, hala ere. Gainera, 2015etik aurrera, beherezko joera izan zuen, eta ehuneko 5,2 puntu inguru galdu zituen partaidetzak 2015. eta 2019. urteen artean.

### **5.3. Enpleguaren banaketa profesionala**

GZEZEren datuek enpleguaren barne-egitura ikusten laguntzen digute, lanbide-talde handietan sailkatuta, baina soilik zentro eta zerbitzuetako langile propioei dagokienez. 34. taulak ematen du horri buruz eskuragarri dagoen informazioaren laburpen bat, DOB datuak kontuan hartuta.

Azalpen honetan aipamen berezia merezi du arretaren esparruko langile espezializatuak zirela nagusi 2018ko abenduaren 15ean, gizarte-zerbitzuetako 16.738 DOB enplegu propioen artean. 12.475 lanpostu espezializatuak enplegu guztiaren % 74,5 hartu zuten. 2014-2015 aldian egonkortu ondoren, enplegu horiek gizarte-zerbitzuetako enpleguan egindako ekarpenak gora egiten jarraitzen zuen 2012ko % 72ko emaitzarekin erkatuta. Hala ere, proporzio hori apur bat egonkortu zen 2017an (% 74,3-74,5). Joera hori lotuta zegoen enplegu horrek izandako gehikuntzak enplegu orokorrak izandakoen antzekoak izatearekin (2018-2019 aldian, % 2,0 eta % 1,9, hurrenez hurren, eta 2018. eta 2017. urteen artean, % 3,4 eta % 3,2, hurrenez hurren).

Langile espezializatuen barneko osagai nagusia zaintzen arloko langile laguntzaileak izan ziren, era horretako 7.701 lanpostu baitzeuden, hau da, 2019an DOB enplegu osoaren % 46,0, 2018an lortutako mailaren bidetik. Oraindik ere 2015eko % 45,4tik gorakoa izan arren, 2018-2019 aldiko proporzio horrek behera egin zuen 2016 eta 2017ko % 46,7-46,8tik. Beherakada hori lotuta

zegoen 2015. eta 2018. urteen artean langile horien kopuruaren hazkundera moteltzeko joera esanguratsurekin: 2015-2016 aldiko % 6,1tik 2016-2017 aldiko % 3,8ra eta 2017-2018 aldiko % 1,4ra. Bilakaera horretan aldaketa garrantzitsurik ekarri ez arren, eta hazkundera 2015-2017 aldiko erregistroen azpitik egon arren, halako enpleguak apur bat gora egin zuen 2018-2019 aldian eta % 2,0n kokatu zen.

Kualifikaziorik altueneko langileek 2.921 DOB lanpostu bete zituzten hezkuntzaren esparruan eta esparru soziosanitarioan 2019an. 2015-2016 aldian kopuru horrek % 0,3 baino ez zuen gora egin. Gero, 2016-2017 aldian, behera egin zuen, -% 4, baina 2017. eta 2018. urteen artean suspertze ikusgarria izan zuen, % 11,4koa. Hazkunde-erritmo hori apur bat moteldu zen 2018. eta 2019. urteen artean, baina sendotu egin zen goranzko joera: % 9,2 egin zuen gora. Goranzko dinamika nabari horrek langile mota horren kopururik handiena ekarri zuen 2016an izandako 2.501 lanpostuetatik. Zenbateko erlatiboetan, langile horiek enplegu osoaren % 17,5 hartu zuten 2019an; beraz, 2017ko % 15,1 baino gehiago, eta ia iritsi zen 2014ko % 17,7ko maila berera.

Gizarte-langileek 934 DOB lanpostu izan zituzten, hau da, guztizkoaren % 5,6. 2015-2016 aldian enpleguak % 5,8 gora egin ondoren, 2016-2017 aldian hazkundera moteldu egin zen eta % 2,8 handitu zen; 2017-2018 aldian, ordea, berriro suspertu zen. Aldi horretan, enpleguaren igoera % 6,6ra iritsi zen, gizarte-zerbitzuetako DOB lanpostu guztiei zegokien % 3,2 orokorra baino bi aldiz gehiago. Hala ere, 2019an, halako enpleguak -% 4,2 egin zuen behera 2018an izandako 974 lanpostuekin alderatuta. Urte horretan DOB enplegu guztien % 5,9 izan ziren.

Azkenik, langile espezializatuen barruan, monitoreek 920 DOB lanpostu bete zituzten 2019an, guztizkoaren % 5,5, beheranzko joera jarraituan 2017ko % 6,7ko balioarekin erkatuta, eta 2015eko maila berean kokatu zen. 2015-2016 aldian -% 3,3 behera egin ondoren, halako enpleguak % 35,7 egin zuen gora 2016-2017 aldian. 2017-2018 aldian beheranzko joera berreskuratu zuen, eta -% 3,1 egin zuen behera. Joera hori areagotu egin zen 2019an: -% 11,0 egin zuen behera 2018ko 1.033 DOB langileekin alderatuta.

Pertsonen zuzeneko arreta emateko langile ez-espezializatuen arloan, zuzendaritzako eta administrazioko langileek 1.981 DOB lanpostu hartu zituzten 2019an. Zenbateko horrek islatzen zuen egonkortu egin zela, % 0,3 baino ez baitzuen egin gora 2018ko datuekin alderatuta, eta aldaketa bat ekarri zuen 2017-2018 aldian izandako suspertze garrantzitsuarekin alderatuta: % 6,2 egin zuen gora enplegu mota horrek. Hazkunde horrek 2015-2017 aldiko egonkortasun-joera eten zuen: -% 0,1 egin zuen behera 2015-2016 aldian, eta 2016-2017 aldian igoera txikia izan zuen (% 0,4).

Edonola ere, hazkunde positibo arineko joera egonkorra izateak 2019an zuzendaritzako eta administrazioko lanpostuek maila maximoa lortzea eragin zuen. Hala ere, 2018-2019 aldiko egonkortzearen ondoren bereziki, epe luzeko joera zen enpleguak gora egitea beste lanpostu mota batzuetan; horrek esan nahi du zuzendaritzako eta administrazioko lanpostuen proportzioak behera egin zuela. Hala, 2017ko % 11,7tik 2018ko % 12,0ra gora egin bazuen ere, proportzio horrek behera egin zuen 2012ko % 13,4tik 2019ko % 11,8ra.

Administrariak ez diren langile orokorrek 2.271 DOB lanpostu hartu zituzten 2019an. Langile kopuru hori murriztu egin zen, 2013tik lehenengo aldiz, 2017. eta 2018. urteen artean, eta -% 0,6 egin zuen behera, 2017ko 2.216 lanpostuetatik 2018ko 2.203 lanpostuetara. Hortaz, 2019ko 2.271 lanpostuek goranzko joera berreskuratzea ekarri zuten, eta 2018tik 2019ra % 3,0 egin zuen gora. Kasu horretan, enplegu osoan zuen pisu erlatiboak beheranzko joera izan zuen 2012ko % 14,5etik edo 2015eko % 14,2tik. 2019ko % 13,6ko balioak apur bat moteldu zuen joera hori, gora egin





baitzuen 2018ko % 13,4tik, baina ez zuen erabat aldatu, eta DOB enpleguan zuen partaidetza erlatiboa 2017ko % 13,9tik behera egon zen oraindik ere.

Sektoreen arabera, langile espezializatuen (zuzendaritzakoak ez direnak) kopururik handiena desgaitasun edo gaixotasunen bat dutenei arreta emateko arloan osatu zen: DOB enpleguaren % 85,3, 2019an. Proporzioa % 82,6koa izan zen haurren, gazteen, emakumeen eta familien arloan; % 78,6, bazterketaren arloan; eta % 76,1, adineko pertsoneri arreta emateko arloan. Proporziorik txikiena, % 49,3koa, gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean osatu zen.

Langile espezializatuen motak aztertu ondoren, ondorioztatzen da adineko pertsoneri arreta emateko zaintzetako laguntzaileen kopurua oso handia izan zela 2019an: arlo horretako langileek DOB enpleguaren % 62,7 hartu zuten. Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako arretan ere kopuru handia osatu zen, baina proporzioa askoz txikiagoa izan zen: % 37,4. Gainerako arreta-eremuetan, kolektibo horren pisua oso txikia izan zen: % 7,3, baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonentzako arretaren sektorean; % 5,1 gizarte-zerbitzuen egiturari, eta % 3,9, haur, gazte, emakume eta familientzako arretan.

Hezitzaileek, langile soziosanitarioek edo espezializazio handiko langileek sektorerik txikienetan eskuratu zuten mailarik altuena, besteak beste haur, gazte, emakume eta familiei arreta emateko sektorean edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonak babestekoan. Bi kasu horietan, profesional horien pisua izan zen handiena: % 63,6 eta % 50,4, hurrenez hurren. Hala ere, bi kasuetan, proporzio horiek murrizteko joera zuten epe ertainera, beharakada nabarmenak izan baitzituzten 2016ko erregistroekin (% 75,5 eta % 61, hurrenez hurren) alderatuta.

Pisu erlatiboa askoz ere txikiagoa izan arren, hezitzaileek, langile soziosanitarioek edo espezializazio handiko langileek kopuru garrantzitsua osatu zuten desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako arretaren arloan ere, zehazki, DOB enpleguaren % 22,6 hartu zuten, eta proporzio hori % 11,9koa izan zen adineko pertsonentzako arretan. 2018ra arte, nabarmena zen kolektibo horrek desgaitasun edota gaixotasunen bat duten pertsonen sektorean zuen presentzia gero eta txikiagoa zela, 2014ko % 26,4tik 2018ko % 19,9ra. 2019ko % 22,6ko proporzioak adierazten du talde profesional horren pisuak gora egin zuela, baina proporzioa 2014ko erregistrotik urrun egon zen oraindik.

Bestalde, desgaitasun edota gaixotasunen bat duten pertsonen aldeko jarduera-eremuan izan zuten presentziarik handiena monitoreek, langileburuek edo lantegiko buruek: DOB enpleguaren % 23,0. 2012ko % 27,2tik 2014ko % 21,1era behera egin ostean, proporzio horrek gora egin zuen nabarmen, 2017ko % 29,8ra. Baina, urte horretatik aurrera, adierazle horrek beheranzko joera hartu zuen berriro, 2018ko 26,7ra eta 2019ko % 23,0ra iritsi baitzen. Azken hau 2012tik izandako proporziorik txikienetako bat izan zen.

Monitoreen, langileburuen edo lantegiko buruen lanpostuek, ordea, pisu erlatiboan gora egin zuten haur, gazte, emakume eta familien sektorean. Hala, profesional horien proporzioak gora egin zuen 2016ko % 3,7tik 2018ko % 6,2ra, eta 2019an % 10eko atalasea gainditu zuen, % 12,6ra iritsita. Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako arretaren sektorean ere 2019ko % 7,9ko balioak gainditu egin zuen 2016ko % 4,1ekoa, baina, kasu honetan, 2019ko erregistroak behera egin zuen 2018ko % 8,9ko balioarekin alderatuta.

34. taula.

Gizarte-zerbitzuetako langile propioen banaketa xehatua, arreta-sektorearen arabera. LOB  
(Datu absolutuak, guztiekiko %-a arreta-sektore bakoitzean eta langile-kopuruaren bariazioa 2016-2019 aldiaren %  
tan)

Arreta-sektorea		2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	Bariazioa 2018/201
		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%	%	%	%	%
EGITURA	<b>Langile propioak (abenduaren 15ean), LOB</b>	<b>2.029</b>	<b>2.031</b>	<b>2.139</b>	<b>2.223</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>3,9</b>
	<b>Administrazioa eta orokorrak, LOB</b>	<b>1.066</b>	<b>1.040</b>	<b>1.089</b>	<b>1.127</b>	<b>52,5</b>	<b>51,2</b>	<b>50,9</b>	<b>50,7</b>	<b>3,5</b>
	Zuzendaritza eta administrazioa	1.024	1.008	1.057	1.086	50,5	49,6	49,4	48,9	2,8
	Beste lanpostu orokor batzuk	42	32	33	41	2,1	1,6	1,5	1,9	25,7
	<b>Langile espezializatuak, LOB</b>	<b>963</b>	<b>992</b>	<b>1.050</b>	<b>1.096</b>	<b>47,5</b>	<b>48,8</b>	<b>49,1</b>	<b>49,3</b>	<b>4,4</b>
	Gizarte-laneko langileak	677	694	718	656	33,4	34,2	33,5	29,5	-8,6
	Hezkuntzako, osasuneko eta beste langile esp.	172	177	189	309	8,5	8,7	8,8	13,9	63,5
	Zaintzaren arloko langile laguntzaileak	111	116	140	113	5,4	5,7	6,5	5,1	-18,9
	Langile monitore/arduradun/tailer-buru.	4	4	4	18	0,2	0,2	0,2	0,8	350,0
ADINEKO PERTSONAK	<b>Langile propioak (abenduaren 15ean) LOB</b>	<b>9.282</b>	<b>9.651</b>	<b>9.832</b>	<b>10.094</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>2,7</b>
	<b>Administrazioa eta orokorrak LOB</b>	<b>2.253</b>	<b>2.340</b>	<b>2.382</b>	<b>2.416</b>	<b>24,3</b>	<b>24,2</b>	<b>24,2</b>	<b>23,9</b>	<b>1,5</b>
	Zuzendaritza eta administrazioa	549	560	578	556	5,9	5,8	5,9	5,5	-3,8
	Beste lanpostu orokor batzuk	1.704	1.780	1.804	1.860	18,4	18,4	18,3	18,4	3,1
	<b>Langile espezializatuak LOB</b>	<b>7.029</b>	<b>7.311</b>	<b>7.450</b>	<b>7.678</b>	<b>75,7</b>	<b>75,8</b>	<b>75,8</b>	<b>76,1</b>	<b>3,1</b>
	Gizarte-laneko langileak	87	86	97	89	0,9	0,9	1,0	0,9	-8,1
	Hezkuntzako, osasuneko eta beste langile esp.	1.037	1.040	1.103	1.205	11,2	10,8	11,2	11,9	9,2
	Zaintzaren arloko langile laguntzaileak	5.866	6.125	6.183	6.328	63,2	63,5	62,9	62,7	2,3
	Langile monitore/arduradun/tailer-buru.	39	60	66	56	0,4	0,6	0,7	0,6	-15,8
DESGAITASUNA/GAI XOTASUNA	<b>Langile propioak (abenduaren 15ean) LOB</b>	<b>3.032</b>	<b>3.151</b>	<b>3.260</b>	<b>3.160</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-3,1</b>
	<b>Administrazioa eta orokorrak LOB</b>	<b>478</b>	<b>486</b>	<b>457</b>	<b>455</b>	<b>15,8</b>	<b>15,4</b>	<b>14,0</b>	<b>14,4</b>	<b>-0,4</b>
	Zuzendaritza eta administrazioa	204	209	230	226	6,7	6,6	7,1	7,2	-1,7
	Beste lanpostu orokor batzuk	274	277	227	229	9,0	8,8	7,0	7,2	0,9
	<b>Langile espezializatuak LOB</b>	<b>2.544</b>	<b>2.655</b>	<b>2.789</b>	<b>2.694</b>	<b>83,9</b>	<b>84,3</b>	<b>85,6</b>	<b>85,3</b>	<b>-3,4</b>
	Gizarte-laneko langileak	57	61	68	70	1,9	1,9	2,1	2,2	3,0
	Hezkuntzako, osasuneko eta beste langile esp.	625	476	650	715	20,6	15,1	19,9	22,6	10,0
	Zaintzaren arloko langile laguntzaileak	1.159	1.180	1.203	1.183	38,2	37,5	36,9	37,4	-1,7
	Langile monitore/arduradun/tailer-buru.	703	939	869	726	23,2	29,8	26,7	23,0	-16,4
<b>EZB erabiltzaileak LOB</b>	<b>10</b>	<b>10</b>	<b>14</b>	<b>11</b>	<b>0,3</b>	<b>0,3</b>	<b>0,4</b>	<b>0,3</b>	<b>-19,8</b>	
HAURRAK, GAZTEAK, EMAKUMEAK ETA FAMILIAK	<b>Langile propioak (abenduaren 15ean) LOB</b>	<b>353</b>	<b>401</b>	<b>456</b>	<b>435</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-4,6</b>
	<b>Administrazioa eta orokorrak LOB</b>	<b>65</b>	<b>70</b>	<b>88</b>	<b>76</b>	<b>18,4</b>	<b>17,4</b>	<b>19,4</b>	<b>17,4</b>	<b>-14,3</b>
	Zuzendaritza eta administrazioa	16	18	29	26	4,6	4,4	6,3	6,1	-7,9
	Beste lanpostu orokor batzuk	49	52	60	49	13,9	13,0	13,1	11,3	-17,4
	<b>Langile espezializatuak LOB</b>	<b>288</b>	<b>331</b>	<b>367</b>	<b>359</b>	<b>81,6</b>	<b>82,6</b>	<b>80,6</b>	<b>82,6</b>	<b>-2,3</b>
	Gizarte-laneko langileak	7	12	10	11	1,9	2,9	2,1	2,6	16,2
	Hezkuntzako, osasuneko eta beste langile esp.	266	297	326	276	75,5	74,0	71,7	63,6	-15,4
	Zaintzaren arloko langile laguntzaileak	2	1	3	17	0,5	0,2	0,6	3,9	523,4
	Langile monitore/arduradun/tailer-buru.	13	22	28	55	3,7	5,5	6,2	12,6	93,0
BAZTERKETA	<b>Langile propioak (abenduaren 15ean), LOB</b>	<b>656</b>	<b>678</b>	<b>735</b>	<b>826</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>12,4</b>
	<b>Administrazioa eta orokorrak LOB</b>	<b>132</b>	<b>140</b>	<b>162</b>	<b>177</b>	<b>20,1</b>	<b>20,6</b>	<b>22,0</b>	<b>21,4</b>	<b>9,4</b>
	Zuzendaritza eta administrazioa	59	64	82	86	9,0	9,4	11,1	10,5	6,0
	Beste lanpostu orokor batzuk	73	76	80	91	11,1	11,2	10,9	11,0	12,9
	<b>Langile espezializatuak LOB</b>	<b>524</b>	<b>538</b>	<b>573</b>	<b>649</b>	<b>79,9</b>	<b>79,4</b>	<b>78,0</b>	<b>78,6</b>	<b>13,3</b>
	Gizarte-laneko langileak	62	62	82	107	9,4	9,1	11,1	13,0	30,9
	Hezkuntzako, osasuneko eta beste langile esp.	401	411	406	417	61,0	60,6	55,2	50,4	2,6
	Zaintzaren arloko langile laguntzaileak	35	25	20	60	5,3	3,7	2,7	7,3	198,9
	Langile monitore/arduradun/tailer-buru.	27	41	65	65	4,1	6,0	8,9	7,9	-0,1
GUZTIRA	<b>Langile propioak (abenduaren 15ean), LOB</b>	<b>15.352</b>	<b>15.912</b>	<b>16.422</b>	<b>16.738</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>1,9</b>
	<b>Administrazioa eta orokorrak LOB</b>	<b>3.994</b>	<b>4.075</b>	<b>4.178</b>	<b>4.252</b>	<b>26,0</b>	<b>25,6</b>	<b>25,4</b>	<b>25,4</b>	<b>1,8</b>
	Zuzendaritza eta administrazioa	1.852	1.859	1.975	1.981	12,1	11,7	12,0	11,8	0,3
	Beste lanpostu orokor batzuk	2.142	2.216	2.203	2.271	14,0	13,9	13,4	13,6	3,0
	<b>Langile espezializatuak LOB</b>	<b>11.348</b>	<b>11.827</b>	<b>12.230</b>	<b>12.475</b>	<b>73,9</b>	<b>74,3</b>	<b>74,5</b>	<b>74,5</b>	<b>2,0</b>
	Gizarte-laneko langileak	889	914	974	934	5,8	5,7	5,9	5,6	-4,2
	Hezkuntzako, osasuneko eta beste langile esp.	2.501	2.400	2.675	2.921	16,3	15,1	16,3	17,5	9,2
	Zaintzaren arloko langile laguntzaileak	7.173	7.447	7.548	7.701	46,7	46,8	46,0	46,0	2,0
	Langile monitore/arduradun/tailer-buru.	786	1.066	1.033	920	5,1	6,7	6,3	5,5	-11,0
<b>EZB erabiltzaileak LOB</b>	<b>10</b>	<b>10</b>	<b>14</b>	<b>11</b>	<b>0,1</b>	<b>0,1</b>	<b>0,1</b>	<b>0,1</b>	<b>-19,8</b>	

Iturria: EOE, BJKPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika LOB: Lanaldi osoaren baliokidea (asteen 35 ordu/urtean 1.600 ordu)



**35. taula.**  
**Langile propioen banaketa xehatua, zenbait zentro eta zerbitzu motatan, lanbide motaren arabera. LOB. 2019**  
**(Datu absolutuak eta guztizkoarekiko ehunekoa, adierazle eta zentro/zerbitzu mota bakoitzeko)**

Zentro edo zerbitzu mota	Administrazioa eta orokorra	Zuzendaritza eta administrazioa	Egitura orokorreko beste batzuk	Langile espezializatuak	Langileak Gizarte-lana	Langileak Hezitzaileak, langile sanitarioak eta beste langile espezializatu batzuk	Langileak Zaintzaren arlotako langile laguntzaileak	Langileak Monitoreak/arduradunak/taillerreko buruak	EZB erabiltzaileak
Zerbitzu orokor eta tekniko espezializatuak	<b>59,6</b>	56,7	2,9	<b>40,4</b>	14,4	16,0	8,5	1,4	<b>0,0</b>
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	<b>37,5</b>	37,2	0,3	<b>62,5</b>	51,8	10,7	0,0	0,0	<b>0,0</b>
Adinekoentzako egoitza-zentroak	<b>24,2</b>	5,5	18,7	<b>75,8</b>	0,8	12,0	62,5	0,5	<b>0,0</b>
Adinekoentzako eguneko laguntza-zentroak	<b>19,4</b>	5,3	14,1	<b>80,6</b>	2,3	10,1	67,1	1,1	<b>0,0</b>
Desgaitasuna dutenentzako egoitza-zentroak	<b>15,1</b>	5,2	9,8	<b>84,9</b>	1,2	15,9	51,2	16,6	<b>0,0</b>
Desgaitasuna dutenentzako eguneko laguntza-zentroak	<b>9,3</b>	5,6	3,6	<b>90,7</b>	1,4	39,4	23,5	26,3	<b>0,0</b>
Desgaitasuna dutenentzako eguneko zentroak eta okupazio-zentroak	<b>13,3</b>	10,4	2,8	<b>83,6</b>	0,5	22,0	2,0	59,1	<b>3,2</b>
Adingabeen egoitza-zentroak	<b>16,3</b>	3,7	12,6	<b>83,7</b>	0,1	63,5	4,5	15,5	<b>0,0</b>
Bazterketa-egoeran daudenentzako ostatu eta egoitza-zentroak	<b>17,3</b>	11,7	5,7	<b>82,7</b>	9,4	52,5	10,9	9,8	<b>0,0</b>
Bazterketa-egoeran daudenentzako gaueko harrera-zentroak	<b>61,5</b>	8,1	53,3	<b>38,5</b>	18,9	14,8	0,0	4,8	<b>0,0</b>
Bazterketa-egoeran daudenentzako eguneko zentroak	<b>12,0</b>	8,6	3,4	<b>88,0</b>	19,6	61,7	2,0	4,7	<b>0,0</b>

Iturria: EOE, BJGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Gizarte-langileei dagokienez, euren presentzia txikia izan ohi zen sektoreko DOB enpleguan. Salbuespen bakarra gizarte-zerbitzuen egituran izan zen, arlo horretan DOB enpleguaren zati handi bat osatu baitzuten 2019an. 2014tik 2017ra % 32,3tik % 34,2ra igo ostean, ehunekoak beheranzko joera hartu zuen: % 33,5 izan zen 2018an, eta % 29,5, 2019an.

Eremu horretatik kanpo, gizarte-langileek enpleguan zuten pisua % 15etik beherakoa izan zen beti. Hala eta guztiz ere, gizarte-langileek bazterketaren arloan osatutako % 13 aipatu behar da. Proportzio horrek gora egin zuen 2017ko % 9,1tik eta 2018ko % 11,1etik, eta 2012tik izandako proportziorik handiena lortu zuen 2019an.

Zuzendaritzako eta administrazioko langileei dagokienez, ikus daiteke azken multzo horrek paper erabakigarria zuela gizarte-zerbitzuen egituran; hala, DOB enpleguaren zatirik ia handiena osatu zuten: % 48,9 (baina etengabeko beheranzko joerarekin 2012ko % 53tik). Gainerako jardun-eremuetan, haien presentzia enpleguaren % 5,5 eta % 10,5 artekoa izan zen; azken kasu horretako erregistroa bazterketaren eremukoa da.

Langile orokorrak, hau da, espezializatuak edo administrariak ez direnak, adineko pertsonentzako arretan nagusitu ziren, eta % 18,4 osatu zuten; haurren, gazteen, emakumeen eta familien sektorean, % 11,3, eta bazterketaren eremuan, % 11,0. Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako arretan, % 7,2 osatu zuten, eta kasu horretan argia zen beheranzko joera, 2016ko % 9tik edo 2012ko % 9,3tik. Bestalde, gizarte-zerbitzuen egituran % 1,9 baino ez zuen hartu.

34. taula horretan bertan enplegua arreta-sektorearen eta lanbide motaren arabera aztertuz gero, enplegu-dinamika interesgarriak hauteman daitezke. Datu kuantitatiboak eta 2018. eta 2019. urteen artean izandako aldaketak konbinatzen baditugu, egiaztatu ahal da sortutako 677 DOB lanpostu berrien % 84,7tik % 43,9 hezitzaileei, langile soziosanitarioei eta beste langile espezializatuak zegokiela (297 DOB lanpostu). Langile horiei dagokienez, lanpostu berri gehien egitura orokorrean sortu ziren, 120 zehazki; gero, 101, adineko pertsonentzako arretan; 65, desgaitasun edo gaixotasunen bat dutenen arloan, eta 11, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako arretan.

Sektore/lanbide-eremu horietan enpleguaren sorreraren bilakaeraren ezaugarria izan zen 2013. eta 2014. urteen artean DOB enpleguak izan zuen hazkundearen antzekoa izan zela. Aldi horretan 301 lanpostu garbi sortu ziren, baina, hala ere, 2014. eta 2017. urteen artean galdutako 231 lanpostuek konpentsatu egin zuten hazkunde hori. Lanbide/sektore-eremu horretan, 2017-2018 aldian hasi zen berreskuratzen enplegua, 245 lanpostu berri sortuta, eta sendotu egin zen 2018. eta 2019. aldiko 297 lanpostu berriekin.

2018. eta 2019. urteen artean, enplegu berriaren sorrera garrantzitsua izan zen ere zaintzetako laguntzaileen arloan, 145 DOP lanpostu garbi sortu baitziren adinekoen sektorean; 40, bazterkeriari aurre egiteko sektorean, eta 14, haur, gazte, emakume eta familientzako arretan. Guztira, 199 lanpostu garbi ziren, lanpostu guztien % 29,4.

Kasu horretan, lanbide/sektore-eremu horiek ezberdintasunak izan zituzten enpleguaren sorrerari zegokionez. Adinekoen arloari dagokionez, zaintzako laguntzaileen lanpostuen sorrerak gora egin zuen pixkanaka 2012-2013ko 85 lanpostu berrietatik 2015-2016 aldiko 289 lanpostu berrietara. 2016-2017 aldian maila altuetan mantendu zen, 259 lanpostu berrirekin, baina 2017-2018 aldian behera egin zuen eta 58 lanpostu berri baino ez ziren sortu. Kuantitatiboki 2013-2017 aldian baino lanpostu berri gutxiago sortu baziren ere, 2018-2019 aldiko 145 lanpostu berriek lanbide- eta sektore-eremu horretan enpleguak gora egitea ekarri zuten, eta ezaugarri nagusia izan zen hazkunde jarraitua izan zuela 2012-2019 aldian.



2012. eta 2018. urteen artean, haur, gazte, emakume eta familiei harrera emateko sektorean eta bazterketa-egoeran dauden pertsonak babestekoan, zaintzako laguntzaileei lotutako enpleguaren bariazioa aldakorra izan zen, baina emaitza garbia zen 24 lanpostu galdu zirela. Testuinguru horretan, 2018-2019 aldiari lanbide-eremu horretan sortutako 54 lanpostu berriek aldaketa nabarmena ekarri zuten.

2018. eta 2019. urteen artean, enplegua sortu zen hirugarren eremua izan zen DOB langile orokorra (zuzendaritzakoak eta administraziokoak ez direnak). 78 lanpostu berri sortu ziren (guztizkoaren % 11,5), sektore guztietan banatuta, haur, gazte, emakume eta familien sektorean izan ezik. Lanbide-eremu horretan, lanpostu gehien sortu ziren sektorea adinekoena izan zen: 57 enplegu berri.

2013-2018 aldiari enplegua sortu zuen lanbide/sektore-eremu bat izan zen, baina urtetik urtera bariazio handiak izan zituen. Nahiz eta 2014-2015 aldiko 107 lanpostuetara ez iritsi, 2018. eta 2019. urteen artean sortutako 78 lanpostuak 2013-2014 eta 2016-2017 aldiari 60 eta 78 lanpostu berriren arteko tartean kokatu ziren. Bestalde, 2015. eta 2016. urteen artean egonkortu egin zen egoera (-2 lanpostu), edo gutxiago hazi zen 2017. eta 2018. urteen artean (37 lanpostu berri).

Adierazitako eremuekin alderatuta, lanbideen eta sektoreen konbinazio batzuetan enpleguaren bilakaera negatiboa izan zen, eta 2018-2019 aldiari 361 DOB lanpostu galdu ziren. Beherakada deigarriena monitore, langileburu edo lantegiko buruen kategorietan galdutako 153 DOB lanpostu garbiena izan zen, hau da, galdutako lanpostu guztien % 42,5, eta ia guztiak galdu ziren desgaitasun/gaixotasunaren sektorean (143 lanpostu).

Lanbide/sektore-eremu horretan, 2012-2014 aldiari 127 lanpostu galdu ziren, baina, ondoren, suspertze handia izan zuen 2014. eta 2017. urteen artean: 359 lanpostu berri sortu ziren. 2017. eta 2019. urteen artean, berreskuratu egin zen beheranzko joera: 64 lanpostu galdu ziren 2017. eta 2018. urteen artean, eta beherakada areagotu egin zen 2018-2019 aldiari galdutako 153 lanpostuekin.

2018. eta 2019. urteen artean galdutako lanpostuen % 46,0 (166 lanpostu) arlo hauetan galdu zen: gizarte-lanarekin edo adinekoen arretarekin lotutako langile espezializatuenean, egitura orokorreko edo desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen arretaren sektoreko zaintzako laguntzaileenean, edo hezitzaileen, osasun-langileen eta beste langile espezializatuen sektorean, haur, gazte, emakume eta familientzako arretan. Galdutako lanpostu gehienak egitura orokorrekoak ziren (88 lanpostu; 62, gizarte-langileenak), eta haur, gazte, emakume eta familientzako arretaren sektorekoak (50 lanpostu).

Talde horien ezaugarri deigarriena izan zen, orokorrean, goranzko etengabeko joera izan zutela 2012tik aurrera. Enplegu-sorrera nabarmena izan zen 2013. eta 2014. urteen artean (156 lanpostu) eta 2015-2016 aldiari (197 lanpostu). Gainera, 2016. eta 2018. urteen artean, indar gutxiagorekin bada ere, enplegua sortzeko joera areagotu egin zen: 73 lanpostu berri sortu ziren 2016. eta 2017. urteen artean, eta 111, 2017. eta 2018. urteen artean.

2018. eta 2019. urteen arteko galera (166 lanpostu), beraz, aldaketa bat izan zen 2012tik aurrerako aldiaren barruan. Lotuta zegoen, batez ere, haur, gazte, emakume eta familientzako arretan galdutako hezitzaile, osasun-langile eta beste langile espezializatuen lanpostuen galerarekin eta gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean enplegu espezializatuak izan zuen dinamika orokorrarekin. Lanbide-talde batzuek (gizarte-langileak eta zaintzetako laguntzaileak) pisua galdu zuten egitura horren barruan, oro har, baina, hala ere, egitura orokorraren barruan, enplegu

espezializatuaren joera goranzkoa izan zen beti 2012. eta 2019. urteen artean. Datu horrek beste era bateko aldaketak isla ditzake, hala nola zuzendaritzako eta administrazioko langileen kopuruak gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean izan zuten goranzko joerarekin lotutakoak.

35. taulak aurkezten du nola zeuden banatuta DOB langile propioak zentro eta zerbitzu mota nagusietan, eta, hortaz, ikus daiteke zer lanbide izan ziren nagusi 2019an, kasu bakoitzean.

Zerbitzu orokor teknikoetatik eta espezializatuetatik hasita, zuzendaritzako eta administrazioko langileei zegokien % 56,7 nabarmentzen da. Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroak ziren zuzeneko arretako langile ez-espezializatuak nagusi ziren beste eremu bat, nahiz eta nagusi izan zuzendaritzakoak edo administraziokoak ez ziren profesionalak (% 53,3). Bi kasuetan, agerikoa da arreta-eremuko langile espezializatu osagarri ugari zeudela gizarte-langileen, hezitzaileen, langile soziosanitarioen edo antzeko profil espezializatuak zituzten langileen artean (zerbitzu orokor eta tekniko espezializatuetan, % 30,5, eta gaueko harrera-zentroetan, % 33,7).

Gizarte-langile kopurua garrantzitsua zen ere bazterketaren sektorean, bai eguneko zentroetan (% 19,6), bai etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan (% 9,4).

Zuzendaritzako eta administrazioko langileen kopurua handia zen oinarrizko gizarte-zerbitzuetan ere (% 37,2). Kasu horretan, baina, gailentzen zen profila gizarte-langileena zen, DOB enpleguaren % 51,8 hartzen baitzuten.

Gainerako langile orokorrek presentzia esanguratsua zuten adineko pertsonentzako egoitzetan (% 18,7) eta adingabeentzako egoitzetan (% 12,6). Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako egoitzetan kopuru txikiagoa zuten (% 9,8). Proporzioa garrantzitsua zen adinekoentzako eguneko laguntza-zentroetan ere (% 14,1).

Hezitzaileek, langile soziosanitarioek edo antzeko langile espezializatuak kopuru nagusia osatu zuten adingabeentzako egoitza-zentroetan (% 63,5), bazterketa-egoeran daudenentzako egoitzetan (% 52,5) eta bazterketa-egoeran daudenentzako eguneko zentroetan (% 61,7). Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan ere nabaria zen lanbide-kategoria horren presentzia, baina pisu erlatiboa txikiagoa zen (% 39,4). Zentro mota horretan zaintzetako laguntzaileek ere kopuru handia osatu zuten (% 23,5).

Zaintzen arloko langile laguntzaileak gailendu ziren, era berean, adineko pertsonentzako edo desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroetan (% 62,5 eta % 51,2, hurrenez hurren). Haien kopurua garrantzitsua zen adinekoentzako eguneko laguntza-zentroetan ere (% 67,1).

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroetan garrantzitsua zen ere okupazio-jardueretarako monitoreen presentzia, egoitza-zentroetan (% 16,6) eta, batez ere, eguneko laguntza-zentroetan (% 26,3). Langileburuak eta lantegiko buruak sartzen dira multzo horretan, eta nagusi ziren eguneko okupazio-zentroetan edo desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako beste eguneko zentro mota batzuetan. DOB enpleguaren % 59,1 ziren langile horiek.

Adinekoentzako egoitza-zentroetan, langile horiek enpleguaren % 15,5 hartu zuten.



#### 5.4. Enpleguaren banaketa, lurralde historikoaren arabera

36. taulan ikus daitekeenez, 2019an, gizarte-zerbitzuen sektoreko DOB enpleguaren % 50,3 Bizkaian izan zen, 11.725 lanpostu guztira (azpikontrataturako langileak eta boluntarioak barne). Lurralde horretako DOB enpleguak gora egin zuen 2016tik 2017ra, % 3,5; beraz, 2015-2016 aldiko % 2 gainditu zuen. 2017. eta 2019. urteen artean, hazkunde-erritmoa garrantzitsua izan zen ere, baina apur bat behera egin zuen: 2017. eta 2018. urteen artean % 3,1 egin zuen gora, eta 2018. eta 2019. urteen artean, % 2,7.

36. taula.

Gizarte-zerbitzuetako LOB langile guztien adierazleak arreta-sektorearen eta lurralde historikoen arabera (Datu absolutuak, guztizkoarekiko %-a arreta-sektore bakoitzean eta langileen bariazioa 2016-2019 aldian %-tan)

Arreta-sektorea		LOBeko urteko langileak batez beste								Bariazioa 2018/2019 aldian
		2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	
		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%	%	%	%	
<b>EGITURA</b>	Araba	395	409	462	484	17,9	18,6	20,2	19,3	4,8
	Gipuzkoa	672	653	677	691	30,5	29,7	29,6	27,5	2,1
	Bizkaia	1.137	1.139	1.150	1.339	51,6	51,8	50,2	53,2	16,4
	<b>EAE</b>	<b>2.204</b>	<b>2.201</b>	<b>2.289</b>	<b>2.514</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>9,8</b>
<b>ADINEKO PERTSONAK</b>	Araba	2.072	2.133	2.154	2.421	15,8	15,7	15,8	17,2	12,4
	Gipuzkoa	4.230	4.440	4.310	4.486	32,3	32,7	31,6	31,8	4,1
	Bizkaia	6.794	7.002	7.155	7.195	51,9	51,6	52,5	51,0	0,6
	<b>EAE</b>	<b>13.096</b>	<b>13.575</b>	<b>13.618</b>	<b>14.102</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>3,6</b>
<b>DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA</b>	Araba	629	597	586	594	18,4	17,0	16,2	16,6	1,4
	Gipuzkoa	1.149	1.201	1.271	1.277	33,6	34,3	35,1	35,7	0,5
	Bizkaia	1.636	1.708	1.763	1.711	47,9	48,7	48,7	47,8	-2,9
	<b>EAE</b>	<b>3.414</b>	<b>3.505</b>	<b>3.620</b>	<b>3.582</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>-1,0</b>
<b>HAURRAK, GAZTEAK, EMAKUMEAK ETA FAMILIAK</b>	Araba	311	285	322	377	20,1	17,0	17,3	18,4	17,0
	Gipuzkoa	603	655	711	777	39,0	39,0	38,3	37,9	9,2
	Bizkaia	633	737	826	898	40,9	44,0	44,4	43,8	8,6
	<b>EAE</b>	<b>1.546</b>	<b>1.677</b>	<b>1.859</b>	<b>2.051</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>10,3</b>
<b>BAZTERKETA</b>	Araba	134	117	127	125	14,4	12,8	13,2	11,6	-1,7
	Gipuzkoa	294	307	311	366	31,7	33,5	32,2	34,1	17,6
	Bizkaia	500	491	528	583	53,9	53,7	54,6	54,3	10,4
	<b>EAE</b>	<b>927</b>	<b>914</b>	<b>966</b>	<b>1.074</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>11,1</b>
<b>GUZTIRA</b>	Araba	3.540	3.540	3.651	4.001	16,7	16,2	16,3	17,2	9,6
	Gipuzkoa	6.947	7.255	7.281	7.598	32,8	33,2	32,6	32,6	4,3
	Bizkaia	10.701	11.076	11.421	11.725	50,5	50,6	51,1	50,3	2,7
	<b>EAE</b>	<b>21.188</b>	<b>21.872</b>	<b>22.353</b>	<b>23.323</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>4,3</b>

Iturria: EOE, BJGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzen estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizareratzeko gastuaren estatistika LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzatza (asteen 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

2016-2017 aldian, Bizkaiko hazkundearen erritmo hori Gipuzkoan bakarrik gainditu zen, zeina, 2012-2016 aldian bezala, gizarte-zerbitzuen arloan enpleguaren hazkunderik handiena zuen lurraldea izan baitzen. Horiek horrela, 2016-2017 aldian enpleguak % 4,4 egin zuen gora; ia 2015-2016 aldian bezala (% 4,5). 2017tik 2018ra, Gipuzkoan enpleguaren igoera egonkortu egin bazen ere -% 0,4 baino ez zuen egin gora-, 2018. eta 2019. urteen artean lurralde horrek 2015-2017 aldiko hazkunde-erritmoak berreskuratu zituen, enpleguak % 4,3 egin baitzuen gora. Hortaz, 2019an, lurralde horretan 7.598 lanpostu izan ziren, enplegu guztien % 32,6.

2015etik 2016ra % 3,7 igo ondoren, DOB enplegua gelditu egin zen Araban 2016-2017 aldian (% 0,0), eta 2017-2018 aldian berriro egin zuen gora (% 3,1). 2018. eta 2019. urteen artean, nabarmen areagotu zen hazkunde-erritmoa, eta % 9,6ra iritsi zen. Arabako 4.001 lanpostuek EAEko guztizkoaren % 17,2 hartu zuten 2019an.

2019an, Bizkaiak EAeko DOB enpleguan zuen pisuak maximo konparatua lortu zuen bazterketaren arloan, % 54,3rekin. Proportzioa % 53,2 izan zen gizarte-zerbitzuen egituran, eta % 51, adinekoentzako arretan. % 47,8, desgaitasun edo gaixotasunen bat dutenentzako arretan. Eta minimoa, % 43,8, haur, gazte, emakume eta familien sektorean izan zen.

2018. eta 2019. urteen artean, Bizkaian hazkunderik handiena izan zuen DOB enplegua gizarte-zerbitzuen egiturakoa izan zen: % 16,4 egin zuen gora. 2012. eta 2018. urteen artean enpleguaren epe luzeko egonkortasun handiko bilakaera izan ondoren, aurrera egiteko jauzi garrantzitsua izan zen halako langileen kopurua indartzeari zegokionez. Hala, Bizkaiak gizarte-zerbitzuen egitura orokorreko enplegu guztiaren % 53,2 sortu zuen 2019an. Pisua nabarmen galdu ondoren 2018ko % 50,2ra iritsi arte, 2018-2019 goranzko joerak 2013ko partaidetza-mailaren (% 53,4) antzekoan kokatu zen Bizkaia.

Bizkaian, DOB enpleguak 2018. eta 2019. urteen artean izandako hazkundeak % 10eko mailak gainditu zituen bazterketaren eremuan ere. 2017tik aurrera izandako hazkunderako joera argiaren emaitza zen: 2017. eta 2018. urteen artean, % 7,5 egin zuen gora, eta 2018. eta 2019. urteen artean, % 10,4. Kontrastea handia izan zen 2015-2017 aldiko beherakadekin. 2018ko % 54,6ko maximoaren azpitik bada ere, Bizkaiak EAeko sektore horretako enpleguan zuen partaidetza hurbil kokatu zen 2019an, % 54,3ko balioarekin. 2012ko % 49,2tik 2015eko % 54,4ra gora egin ondoren, urte horretatik aurrera, lurralde horrek EAEn bazterketaren arloko enpleguan zuen pisua egonkor mantendu zen % 53,7 eta % 54,6 artean.

2018. eta 2019. urteen artean, Bizkaian enpleguak izan zuen hazkundea handia izan zen ere haur, gazte, emakume eta familien sektorean: % 8,6 egin zuen gora. Kasu horretan, enpleguaren joera hedakorra argia izan zen epe luzera, eta antzeko hazkundeak izan zituen 2015-2018 aldian: 2015etik 2016ra, % 7,8; 2016tik 2017ra, % 16,5; eta 2017tik 2018ra, % 12,1. Ondorioa izan zen gora egin zuela enpleguan zuen partaidetzak, 2012ko % 41,5etik 2018ko % 44,4ra. Baina, 2018. eta 2019. urteen artean enplegua asko hazi bazen ere, proportzio hori % 43,8ra egin zuen behera 2019an. Hala ere, 2017ko % 44,0tik hurbil egon zen.

Enpleguaren hazkunde handi horiekin alderatuta, adineko pertsonentzako arretaren sektorea egonkortu egin zen Bizkaian: % 0,6 baino ez zuen egin gora 2018. eta 2019. urteen artean. Hortaz, 2018tik aurrera, sendotu egin zen halako enpleguaren hazkunde-erritmoa moteltzeko joera: 2016tik 2017ra, % 3,1; eta 2017tik 2018ra, % 2,2. Bizkaiak EAeko enpleguan zuen partaidetza 2018ko % 52,5etik 2019ko % 51,0era murriztu zen adinekoentzako arretan. Proporziorik txikiena izan zen 2012tik.

Azkenik, 2015-2018 aldian, urtetik urtera % 2,7 eta % 4,3 arteko hazkundeak izan ondoren, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonen sektorean, Bizkaian DOB enpleguak -% 2,9 egin zuen behera 2018. eta 2019. urteen artean. Beraz, sendotu egin zen lurraldeak EAeko enpleguan zuen partaidetzaren epe luzeko beheranzko joera, 2013ko 50,3tik 2019ko 47,8ra behera egin ondoren.

Gipuzkoan, EAeko DOB enpleguan zuen partaidetzaren mailarik altuenak haur, gazte, emakume eta familien sektorean (% 37,9), desgaitasun eta gaixotasunen sektorean (% 35,7) eta bazterketa-egoeran daudenen sektorean (% 34,1) izan ziren. Proportzioa apur bat txikiagoa izan zen adinekoentzako arretan (% 31,8), eta balio minimoa gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean izan zen (% 27,5).

2018. eta 2019. urteen artean, DOB enpleguaren arloan, Gipuzkoan hazkunderik handiena izan zuen sektorea bazterketarena izan zen: % 17,6 egin zuen gora. 2012. eta 2015. urteen artean enpleguan beheranzko joera izan ondoren, 2015etik 2016ra % 9,7 egin zuen gora, baina, gero,





hazkundearen moteltze progresiboa etorri zen: 2016-2017 aldian % 4,4 egin zuen gora, eta 2017-2018 aldian, % 1,6. 2018-2019 aldiko hazkundera, beraz, ezohikoa izan zen lurralde horretan, eta sendotu egin zuen EAEko enpleguan zuen partaidetza, 2015eko % 28,9ko minimotik 2019ko % 34,1era iritsita. 2013ko % 34,3tik hurbil egon zen proportzio hori, baina 2012ko % 35,4 baino apur bat beherago.

Nabarmena da ere Gipuzkoan DOB enpleguak haur, gazte, emakume eta familientzako arretan 2018. eta 2019. urteen artean izan zuen hazkundera: % 9,2. Zifra horiek 2016tik 2018ra izandako % 8,6 baino apur bat handiagoak izan ziren, eta sendotu egin zuten sektore horretan, 2012tik aurrera, Gipuzkoan enpleguak izandako goranzko joera irmoa. 2012ko % 35,4tik 2016-2017 aldiko % 39ra gora egin ondoren, beste lurraldeekin alderatuta izan zuen hazkunde txikiagoaren ondorioa izan zen EAEko enpleguan partaidetzak behera egitea: 2019an, % 37,9 izan zen.

Gipuzkoako DOB enpleguak % 4,1 egin zuen gora 2018. eta 2019. urteen artean adinekoen arretaren arloan, zeinean, 2017-2018 aldian -% 2,9 behera egin ondoren, 2016-2017 aldiko % 5,0eko hazkunde-mailatik hurbil kokatu baitzen. EAEko enpleguan zuen partaidetzak gora egin arren, 2018ko % 31,6tik 2019ko % 31,8ra, Gipuzkoak adinekoen sektoreko enpleguari egindako ekarpena 2013tik 2017ra bitartean izandako % 32,3 eta % 32,7 balioen azpitik geratu zen.

Gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean, Gipuzkoan DOB enpleguak % 2,1 egin zuen gora 2018. eta 2019. urteen artean, hau da, 2017-2018 aldiko % 3,7tik behera. Beste lurraldeekin alderatuta izandako hazkunde txikiagoak areagotu egin zuen Gipuzkoak egitura orokor horretan EAEko enpleguan zuen partaidetzaren beheranzko joera, 2016ko % 30,5etik 2019ko % 27,5era. 2012tik erregistratutako kopururik txikiena izan zen.

Enpleguaren bilakaerarik txarrena desgaitasunaren eta gaixotasunaren sektorean izan zen: DOB enpleguak % 0,5 egin zuen gora 2018. eta 2019. urteen artean. Kontrastea argia zen 2016-2018 aldiko % 4,5 eta % 7,7 arteko gehikuntzekin. Bizkaian, 2018. eta 2019. urteen artean, enpleguak izandako beherakadaren aurrean, Gipuzkoak, ordea, sendotu egin zuen sektore horretan EAEko enpleguan zuen partaidetzaren goranzko joera. Hala, 2012-2016 aldian % 33,0 eta % 33,6 arteko ehunekoak izatetik, etengabe gora egiteko fase bat izan zuen, 2019ko % 35,7ra iritsi arte.

Arabian, EAEko DOB enpleguan izandako partaidetzarik handiena gizarte-zerbitzuen egiturean izan zen: % 19,3. Ehuneko horretatik asko urrundu gabe, proportzioa % 18,4koa izan zen haur, gazte, emakume eta familien sektorean; % 17,2, adinekoentzako arretan, eta % 16,6, desgaitasunen eta gaixotasunen sektorean. Partaidetzak bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako arretan baino ez zuen izan beherakada garrantzitsua: %11,6 izan zen.

2018. eta 2019. urteen artean, Araban hazkunderik handiena izan zuen DOB enplegua haur, gazte, emakume eta familientzako arretan izan zen: % 17,0 egin zuen gora. Hortaz, areagotu egin zen 2017-2018 aldiko % 12,9ko igoera, eta 2015-2016 aldiko % 9,6koa, nahiz eta 2012. eta 2014 urteen artean eta 2016-2017 aldian behera egin (-% 8,2). Izan ere, Arabak pisua galdu zuen sektore horretako enpleguan, 2012ko % 23,2tik 2017ko % 17,0ra. Gero, % 18,4ra egin zuen gora 2019an, baina 2012-2016 aldiko % 19,5eko minimoaren azpitik.

Arabian, 2018. eta 2019. urteen artean DOB enpleguak hazkunde handia izan zuen beste sektore bat izan zen adinekoentzako arretarena: % 12,4 egin zuen gora. Hala, eten egin zen hazkunde-erritmoen beheranzko joera: % 4,2 izan zen 2015. eta 2016. urteen artean; % 2,9, 2016. eta 2017. urteen artean, eta % 1,0 baino ez, 2017. eta 2018. urteen artean. Eten hori dela eta, 2012ko % 16,3tik 2013-2018 aldiko % 15,5 eta % 15,8 arteko mailalara behera egin ondoren, Arabak adinekoen sektorean EAEko DOB enpleguan zuen partaidetza % 17,2ra iritsi zen 2019an.

2018. eta 2019. urteen artean, DOB enpleguak hazkunde garrantzitsua izan zuen oraindik gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean: % 4,8, hau da, 2016-2017 aldiko % 3,4 baino handiagoa, baina 2017-2018 aldiko % 13,1 baino txikiagoa. Sektore honetan Bizkaian enpleguak izandako hazkunde handiaren aurrean, Arabak sektoreko enpleguan zuen partaidetzak behera egin zuen 2018. eta 2019. urteen artean, % 20,2tik % 19,3ra. Dena den, bigarren ehuneko handiena izan zen 2012tik, eta 2015eko % 19,1etik gora egon zen.

Desgaitasunen eta gaixotasunen sektorean, DOB enpleguak % 1,4 egin zuen gora Araban, 2018-2019 aldian. Hazkunde txikia izan arren, 2015-2016 aldiko % 15,2ko igoeraren ondoren, lehen urtea izan zen enpleguak suspertzea izan zuena, 2016-2018 aldiko jaitsierak eta gero (-% 5,0, 2016. eta 2017. urteen artean; -% 1,8, 2017. eta 2018. urteen artean). Beheranzko joera horren barruan, EAeko enpleguan zuen partaidetzak 2016ko % 18,4tik 2018ko % 16,2ra egin zuen behera. Proporziorik txikiena izan zen 2012tik. 2019ko % 16,6ko balioari esker, berriro hurbildu zen 2012-2017 aldian nagusi izan zen tartera, zeina % 16,7 eta % 17 artean egon baitzen, 2016an izan ezik (% 18,4ko maximora iritsi zen orduan).

2018-2019 aldian, bilakaerarik txarrena bazterketaren sektoreak izan zuen Araban. Kasu horretan, DOB enpleguak -% 1,7 egin zuen behera. Esku-hartzearen arlo horretan 2013-2014 aldian aurrerapen nabarmena izan ondoren, DOB enpleguak -% 13,5 egin zuen behera 2015. eta 2016. urteen artean, eta -% 12,7, 2016. eta 2017. urteen artean. 2017. eta 2018. urteen artean izandako % 8,8ko igoerak ez zuen ia aldatu 2015. eta 2019. urteen artean enpleguak izandako beheranzko dinamika. EAeko enpleguan zuen partaidetzari dagokionez, 2012ko % 15,4tik % 2015eko % 16,7ra gora egin ondoren, EAeko enpleguari lotutako partaidetza horrek goranzko joera izan zuen bazterketaren sektorean, 2019ko % 11,6ra iritsi arte.

Txostenaren beste apartatu batzuetan egiaztatu ahal izan den moduan, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko enpleguari buruzko datuek erakusten dute lanpostuetan zenbaterainokoa den azpikontratazioa. Hortaz, 37. taularen bitartez, komeni da aztertzea azpikontratazioak lurralde historiko bakoitzean zer pisu duen DOB enpleguan.

Datuen arabera, lanaren antolaera hori 2019an hedatuago egon zen oraindik Gipuzkoan: DOB enpleguaren % 32,6. 2018an behera egin ondoren (% 30,6 izan zen proportzioa orduan), 2018-2019 aldian % 11,2 egin zuen gora enplegu mota horrek, eta adierazlea 2013an eta 2017an nagusitu ziren % 33,2 eta % 33,9 arteko balioetara hurbildu zen berriro.

Tarteko posizio batean, enplegu azpikontratatuaren proportzioa % 26,8 izan zen Bizkaian. Ehuneko hori era jarraituan handitu ondoren 2012tik 2015era (% 22,6tik % 24ra), bazirudien 2016an izandako % 23,6ko proportzioa aldatzen hasi zela lurralde horretan azpikontratazioaren goranzko joera. Baina 2017ko % 24,3ko balioak adierazle horretan epe luzeko goranzko joera berreskuratzea ekarri zuen; 2018an, % 24,7 izan zen, eta 2019an, % 26,8 beraz. Lurralde horretan 2012tik aurrera azpikontratazioak izan zuen inpakturik handiena izan zen. Joera horren bidetik, Bizkaian % 11,3 egin zuen gora enplegu azpikontratatuak 2018. eta 2019. urteen artean.

Azpikontratazioaren ehunekorik txikiena Araban izan zen berriro 2019an: DOB enpleguaren % 20,9 azpikontratatu zen. 2012tik 2015era behera egin ondoren, % 24,4tik % 21,6ra, lurralde horretan 2016an gora egin zuen enplegu azpikontratatuaren pisuak, % 22,6ra. Urte horretatik aurrera, DOB enpleguaren zati azpikontratatu behera egiten hasi zen epe ertainera: 2017an, % 21,4 izan zen, eta 2018an, % 20,6. Baina % 20,9ra iritsi zen 2019an, halako enpleguak % 11,3ko hazkundera izan ondoren. Hala ere, Araba izan zen lurralde bakarra 2019ko erregistroa 2012koa baino txikiagoa izan zuena (2019an, % 20,9; 2012an, % 24,4; beraz, ehuneko -3,5



puntuako aldea dago). Bai Gipuzkoan bai Bizkaian, 2019ko azpikontratazioaren ehunekoak nabarmen gainditu zuen 2012koa (Gipuzkoan, % 32,6, 2019an, eta % 29,7, 2012an; Bizkaian, % 26,8 eta % 22,6).

Edonola ere, 2018-2019 aldian nabarmentzekoa da hiru lurralde historikoetan enplegu azpikontratuak izan zuen goranzko joera homogeneoa, % 11,2 eta %11,3 arteko bariazioekin.

### 37. taula.

**Gizarte-zerbitzuetan azpikontratatuta dauden langileak arreta-sektorearen eta lurralde historikoaren arabera (LOB enplegu zenbatetsi guztien %-a eta 2016-2019ko enplegu azpikontratatuaren bariazio absolutua eta %-etan)**

		LOBeko Langileak guztira: Azpikontratatuak				Bariazioa 2018/2019 aldian	
		2016	2017	2018	2019		
Arreta-sektorea		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%
<b>EGITURA</b>	Araba	5,7	5,4	4,7	5,7	6	28,0
	Gipuzkoa	11,8	10,1	9,4	8,5	-5	-8,0
	Bizkaia	7,4	9,4	9,0	17,9	136	132,6
	<b>EAE</b>	<b>8,5</b>	<b>8,8</b>	<b>8,2</b>	<b>13,0</b>	<b>138</b>	<b>73,0</b>
<b>ADINEKO PERTSONAK</b>	Araba	12,7	11,9	10,2	9,8	16	7,1
	Gipuzkoa	38,1	37,6	34,7	36,2	132	8,8
	Bizkaia	28,2	28,0	27,7	29,4	127	6,4
	<b>EAE</b>	<b>28,9</b>	<b>28,6</b>	<b>27,2</b>	<b>28,2</b>	<b>275</b>	<b>7,4</b>
<b>DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA</b>	Araba	31,0	33,6	31,8	32,9	9	4,9
	Gipuzkoa	10,6	9,9	9,1	9,8	9	7,7
	Bizkaia	3,2	3,3	3,7	2,8	-17	-26,1
	<b>EAE</b>	<b>10,8</b>	<b>10,7</b>	<b>10,2</b>	<b>10,3</b>	<b>1</b>	<b>0,3</b>
<b>HAURRAK, GAZTEAK, EMAKUMEAK ETA FAMILIAK</b>	Araba	79,0	73,7	77,3	81,0	56	22,7
	Gipuzkoa	76,0	75,9	70,4	76,7	95	18,9
	Bizkaia	73,3	75,0	78,6	78,3	53	8,2
	<b>EAE</b>	<b>75,5</b>	<b>75,1</b>	<b>75,2</b>	<b>78,2</b>	<b>205</b>	<b>14,6</b>
<b>BAZTERKETA</b>	Araba	54,9	59,2	59,2	58,4	-2	-3,1
	Gipuzkoa	14,9	19,0	16,9	19,5	19	35,8
	Bizkaia	3,4	3,5	3,8	6,8	20	99,2
	<b>EAE</b>	<b>14,5</b>	<b>15,8</b>	<b>15,3</b>	<b>17,2</b>	<b>36</b>	<b>24,6</b>
<b>GUZTIRA</b>	Araba	22,6	21,4	20,6	20,9	85	11,3
	Gipuzkoa	33,3	33,2	30,6	32,6	249	11,2
	Bizkaia	23,6	24,3	24,7	26,8	320	11,3
	<b>EAE</b>	<b>26,6</b>	<b>26,8</b>	<b>26,0</b>	<b>27,7</b>	<b>654</b>	<b>11,3</b>

Iturria: EOE, BJGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzatza (asteen 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

Azpikontratazioaren pisua lurralde historikoaren eta arreta-sektorearen arabera aztertzen badugu, ikusten da Gipuzkoan azpikontratazioak izan zuen pisu ezberdina lotuta zegoela, neurri handi batean, adineko pertsonentzako arreta-sektorean azpikontratazioak izan zuen pisuarekin: DOB enpleguaren % 36,2. Arreta-eremu horretan, Bizkaian % 29,4 izan zen azpikontratazioaren inpaktua, eta Araban, % 9,8 baino ez.

Azken urteetan, azpikontratazioaren eraginak, ordea, behera egin zuen hiru lurralde historikoetan. Kostaldeko bi lurraldeetan 2015ean hasi zen azpikontratazioaren beheranzko bidea. Gipuzkoan, beherakada 2015eko % 38,4tik 2018ko % 34,7ra izan zen (ehuneko -3,7 puntu). Bizkaian gutxiago egin zuen behera: 2016ko % 28,5etik 2018ko % 27,7ra (ehuneko -0,8 puntu). 2018. eta 2019.

urteen artean, ordea, enplegu azpikontratatuaren bolumenak gora egin zuen bi lurralde horietan: % 34,7tik % 36,2ra, Gipuzkoan, eta % 27,7tik % 29,4ra, Bizkaian. Azken kasu horretan, 2012tik izandako mailarik altuena izan zen. Ez zen gauza bera gertatu Gipuzkoan, non 2019ko erregistroa 2013tik 2017ra bitartean izandako % 37,6 eta % 39,5 arteko balioen azpitik geratu baitzen.

2018. eta 2019. urteen artean azpikontratazioaren beheranzko joera sendotu zuen lurralde bakarra Araba izan zen. Lurralde horretan, beheranzko joera hau izan zen: 2016ko % 12,7tik 2019ko % 9,8ra, hau da, ehuneko -2,9 puntu egin zuen behera. 2019ko erregistroa 2012tik izandako baxuena izan zen. Orduan, mailarik altuena izan zuen: % 15,2.

Interesgarria da datu hau: Araban 2018. eta 2019. urteen artean azpikontratazioak izan zuen beheranzko joera adinekoentzako arretan enplegu propioak izan zuen hazkunde konparatu handiagorekin lotzen zen batez ere. Izan ere, aldi horretan, enplegu azpikontratatuak % 7,1 egin zuen gora, hau da, Gipuzkoako % 8,8ko baliotik behera egon zen, baina Bizkaiko % 6,4ko balioaren gainetik.

Edonola ere, Araba izan zen oraindik desgaitasun/gaixotasunaren arretaren arloan eta bazterketaren aurkako lanaren arloan azpikontratazioa gehien erabili zuen lurraldea. Horrez gainera, 2019an enpleguaren antolaera horrek eragin handiena izan zuen lurralde horretan haur, gazte, emakume eta familientzako arretaren arloan.

Desgaitasunari edo gaixotasunari dagokionez, 2019an, DOB enpleguaren % 32,9 azpikontratatu zen Araban; Gipuzkoan, % 9,8, eta Bizkaian % 2,8 baino ez. 2018. eta 2019. urteen artean, gainera, Araban % 4,9 gora egin zuen enplegu mota horrek, baina Gipuzkoan gehiago egin zuen, % 7,7. Bi lurralde horietan, enplegu azpikontratatuaren proportzioak gora egin zuten (% 31,8tik % 32,9ra, Araban; % 9,1etik % 9,8ra, Gipuzkoan), baina Araban baino ez zen kokatu maila altuetan 2012tik aurrera izandako bilakaerarekin alderatuta.

Bazterketaren aurkako programetan, enpleguan azpikontratazioak 2018an izan zuen pisua % 58,4ra iritsi zen Araban. Gipuzkoan, % 19,5 izan zen, eta Bizkaian, % 6,8. Araban, 2017. eta 2018. urteen arteko % 59,2tik behera egin bazuen ere (2018. eta 2019. urteen artean enplegu azpikontratatuak -% 3,1 behera egitearen ondorioz), 2012tik aurrerako ehunekorik handiena metatu zen enplegu azpikontratatuan 2019an. Minimoa 2014ko % 46,3 izan zen.

Beste bi lurraldeetan, bazterketaren arloko enplegu azpikontratatuaren proportzioek gora egin zuten, eta enplegu mota horrek hazkunde nabarmena izan zuen 2018. eta 2019. urteen artean. Gipuzkoan, aztertutako enplegu horren pisuak gora egin zuen 2018ko % 16,9tik 2019ko % 19,5era, eta berriro jarri zen 2017ko % 19,0ko balioaren gainetik, eta 2014ko % 21,6ko balioaren azpitik baino ez zen egon. Bizkaian, hazkundera esanguratsua izan zen ere, 2018ko % 3,8tik 2019ko % 6,8ra, baina, alderaketa eginda, mailak oso baxuak izan ziren.

2019an, Arabak Bizkaiaren lekua hartu zuen haur, gazte, emakume eta familien sektorean azpikontratazio gehien izan zuen lurralde gisa. Hala ere, esan behar da dinamika bereziko sektorea izan zela. Kasu honetan, azpikontratazioa nagusi izan zen oraindik lurralde guztietan, eta ez zen egon alde handirik haien artean. 2019an, DOB enpleguaren azpikontratazioaren ehunekorik handiena Araban izan zen, % 81,0, beste bien gainetik: Bizkaian, % 78,3, eta Gipuzkoan, % 76,7.

Bestalde, kasu guztietan hazkunde handia izan zuen sektore horretako enplegu azpikontratatuak (% 22,7, Araban; % 18,9, Gipuzkoan, eta % 8,2 Bizkaian). Hori dela eta, Bizkaian salbu, 2018. eta 2019. urteen artean gora egin zuen enplegu azpikontratatuaren pisuak (% 77,3tik % 81era, Araban, eta % 70,4tik % 76,7ra, Gipuzkoan). Bizkaian, edonola ere, oso gutxi egin zuen behera 2018. eta 2019. urteen artean: % 78,6tik % 78,3ra.



2019an, gizarte-zerbitzuen egituran egindako kontratazioan baino ez zuen presentziarik handiena izan Bizkaiak. Sektore horretan enplegu azpikontratatuak gorakada handia izan zuenez (% 132,6, 2018. eta 2019. urteen artean), enplegu horren proportzioa % 17,9ra iritsi zen 2019an; zifrarik handiena zen 2012tik, eta 2018ko % 9,0 baino handiagoa. Hala, Gipuzkoako % 8,5eko balioaren gaineratik jarri zen. Lurralde horretan, behera egin zuen 2018ko % 9,4rekin alderatuta, eta enplegu mota horrek -% 8,0 egin zuen behera 2018. eta 2019. urteen artean.

Gizarte-zerbitzuen egituran, azpikontratazioaren ehunekorik txikiena Araban izan zen oraindik 2019an: % 5,7. Hala ere, gora egin zuen 2018ko % 4,7ko proportzioarekin alderatuta.





## 6. Kudeaketa-adierazle nagusiak, zentro eta zerbitzuen arabera

Txosteneko azken atal honetan, kudeaketaren errealitatea aztertzeko zenbait adierazle jaso dira, egoitza-zentro eta egoitzakoak ez diren zentro moten arabera.

### 6.1. Egoitza-zentroak

38. taulan ikus daitekeen bezala, EAEko gizarte-zerbitzuen sisteman zeuden egoitzako plaza guztien % 90,9 zeuden okupatuta, batez beste, 2019an, hau da, 2017. eta 2018. urteen arteko % 91,4 baino ehuneko 0,5 puntu txikiagoa izan zen balio hori. Aldaketa txikia izan zen, baina adierazle horretan 2012ko % 86,5etik izandako epe luzeko goranzko joera eten zuen.

**38. taula.**  
**Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak.**  
**2016-2019 okupazioaren %-a (erabiltzaileak/plazak)**

	2016	2017	2018	2019	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	2019ko okupazioa (%)	2019ko okupazioa (%)	2019ko okupazioa (%)
Zentro/Zerbitzu mota							
Egoitza-zentroak	91,1	92,0	91,6	90,2	89,6	92,1	89,4
<b>ADINEKO PERTSONAK (atsedena/babesa)</b>	<b>91,1</b>	<b>92,0</b>	<b>91,8</b>	<b>90,2</b>	<b>89,6</b>	<b>92,1</b>	<b>89,4</b>
Egoitza-zentroak	97,7	97,4	98,3	97,4	95,5	96,8	98,7
<b>DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA (atsedena/babesa)</b>	<b>97,7</b>	<b>97,4</b>	<b>98,3</b>	<b>97,5</b>	<b>95,5</b>	<b>96,9</b>	<b>98,7</b>
Egoitza-zentroak	95,2	94,6	99,2	98,0	85,4	102,1	99,3
<b>ADINGABEAK/FAMILIAK</b>	<b>95,2</b>	<b>94,6</b>	<b>99,2</b>	<b>98,0</b>	<b>85,4</b>	<b>102,1</b>	<b>99,3</b>
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak ez)	67,4	78,2	83,1	83,9	75,5	76,7	89,2
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	50,9	57,7	60,3	76,4	92,3	86,0	64,9
<b>EMAKUMEAK</b>	<b>58,2</b>	<b>67,4</b>	<b>69,5</b>	<b>79,8</b>	<b>85,1</b>	<b>82,5</b>	<b>76,5</b>
Ostatu/egoitza-zentroak	81,3	81,8	79,7	85,8	97,1	81,9	87,1
Gaueko harrera-zentroak	86,9	94,8	93,8	96,4	90,7	92,4	100,0
<b>BAZTERKETA</b>	<b>82,5</b>	<b>84,1</b>	<b>82,2</b>	<b>87,6</b>	<b>95,5</b>	<b>83,1</b>	<b>89,5</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>90,6</b>	<b>91,4</b>	<b>91,4</b>	<b>90,9</b>	<b>90,5</b>	<b>91,5</b>	<b>90,6</b>

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jardueraren erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak.

Okupazio-maila % 90etik gorakoa izan zen sektore nagusietan (adinekoak, desgaitasuna/gaixotasuna eta adingabeak/familiak). Adineko pertsonen dagokionez, ordea, lekuen okupazio-ehunekoak behera egin zuen, 2017ko % 92,0tik 2018ko % 91,8ra eta 2019ko % 90,2ra. Dinamika horrek aldaketa garrantzitsua ekarri zuen epe luzeko goranzko joerari dagokionez, 2012ko % 85,5etik etengabe gora egin baitzuen 2017ko % 92,0ra iritsi arte.

Okupazio-mailaren beherakada berriagoa eta txikiagoa izan zen desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eta adingabeentzako edo familientzako egoitza-zentroetan. Lehen kasuan, okupatutako plazen ehunekoak % 98,3tik % 97,5era egin zuen behera 2018. eta 2019. urteen artean. Beherakada horrek ez zuen eraginik izan oso egonkortuta zeuden okupazio-maila altuetan, eta 2019an 2013-2017 aldiko maila nagusietan (% 97,4-97,8 arteko balioak izan ziren orduan) kokatu zen berriro ere.

Adingabe edo familientzako zentroetan, okupazio-indizeak % 99,2tik % 98,0ra egin zuen behera 2018. eta 2019. urteen artean, baina goian mantendu zen oraindik. Kasu horretan, okupazioaren

adierazlearen bilakaerak aldaketa ugari izan zituen, baina beti egon zen % 94tik behera 2012. eta 2015. urteen artean; gero, % 95,2, 2016an, eta % 94,6, 2017an. 2018ko % 99,2ko balioak, ordea, aurrerapen argia ekarri zuen ia erabateko okupazioraino; hortaz, % 98ra behera egiteak ez zuen funtsezko aldaketarik ekarri. Izan ere, 2019ko okupazio-maila 2012tik izandako bigarren okupazio-mailarik altuena izan zen.

Sektore horietatik kanpo, bazterketa-arazoak dituzten pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan ere lekuen betetze-maila % 90eko atalasetik gorakoa izan zen. 2016an behera egin zuen: % 86,9 izan zen orduan, eta 2012tik aurrerako erregistrorik txikiena izan zen. Gainera, nabarmen murriztu zen 2015eko % 93ko balioarekin erkatuta. Gero, 2017ko % 94,8ko balioa 2012ko, 2013ko eta 2015eko % 93 eta % 95 arteko tasetara hurbildu zen berriro. 2018an % 93,8ra jaitsi ondoren, 2019an okupazioaren ehunekoak gora egin zuen % 96,4ra, eta 2012tik aurrera izandako mailarik altuena izan zen.

2018. eta 2019. urteen artean, zifrek gora egin zuten historikoki okupazio-mailarik baxuenak izan zituzten egoitza-zentroetan ere. Hala gertatu zen genero-indarkeriarik jasan ez duten emakumeentzako zentroetan. 2015ean % 76,7ra igo ondoren, 2016an berriro osatu ziren 2012-2014 aldi nagusi izan ziren mailak, hots, % 65,7 eta % 67,6 balioen artekoak. Okupazioak berriro gora egin zuen, ordea, 2017an, % 78,2ra; 2018an, % 83,1era, eta 2019an, % 83,9ra.

Bestalde, 2018an, bazterketa-egoeran daudenentzako etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan zertxobait murriztu zen plazen betetze-adierazlea. Zehatzago esanda, 2015ean % 78,1era igo ondoren, eta 2017an, % 81,8ra, halako zentroetako okupazioaren ehunekoak behera egin zuen 2018an, % 79,7ra jaitsi zen. Hala ere, 2019an berriro egin zuen gora, % 85,8ra.

Genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako egoitza-zentroetan osatu zen plazen betetze-mailarik baxuena 2019an: % 76,4, baina nabarmen gainditu zuen 2018ko % 60,3ko balioa.

2019an % 90etik beherako okupazio-mailak izan zituzten egoitza-zentroei buruz nabarmentzeko datu bat da, edonola ere, urte horretan okupazio-indizerik altuena izan zutela 2012tik ordura arte.

Lurraldearen arabera aztertuta, 2019an Gipuzkoak izan zuen okupazio-mailarik altuena: % 91,5. Okupazio-mailarik altuenak desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroetako % 96,9 eta adingabeentzako eta familientzako egoitza-zentroetako % 102,1 izan ziren. Azken kasu horretan, gehiegizko okupazioa izan zen, gutxi izan bazen ere. Proporzioa % 90tik gora egon zen ere adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan (% 92,1) eta bazterketa-egoeran daudenentzako gaueko harrera-zentroetan (% 92,4).

Gipuzkoako gainerako okupazio-mailak askoz txikiagoak izan ziren gainerako egoitza-zentroetan. Hala, genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako etxebizitzetan edo egoitza-zentroetako okupazio-maila % 86,0 izan zen, eta EAEko erregistro orokorraren gainetik egon zen. Proporzioa % 81,9koa izan zen bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitza eta egoitza zentroetan, eta % 76,7koa, genero-indarkeriaren edo tratu txarren biktima izan ez diren emakumeentzako etxebizitza edo egoitza-zentroetan.

Bizkaian, egoitza-zentroetako okupazio-tasa orokorra % 90,6 izan zen. Lurralde horretan, % 95etik gorako betetze-mailak izan ziren desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitzetan (% 98,7), adingabeentzako zentroetan (% 99,3) eta gaueko harrera-zentroetan (% 100,0). Tasa % 90etik behera izan zen adineko pertsonentzako egoitzetan (% 89,4), genero-indarkeriaren biktima izan ez diren emakumeentzako etxebizitza edo egoitza-zentroetan (% 89,2) eta bazterketa egoeran dauden pertsonentzako etxebizitza edo egoitza-zentroetan (% 87,1).





Bizkaia izan zen berriro EAEn okupazio-mailarik baxuenak izan zituen lurraldea indarkeriaren edo tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako etxebizitza edo egoitza-zentroetan (% 64,9).

Arabako okupazio-maila orokorra % 90,5ekoa izan zen. Lurralde horretan, okupazio-tasa % 90etik gorakoa izan zen 2019an desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako etxebizitza eta egoitza-zentroetan (% 95,5), genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako egoitza-zentroetan (% 92,3) eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitzetan (% 97,1). Halaber, % 90eko atalasea gainditu zen gaueko harrera-zentroetan (% 90,7).

Adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan maila horietatik hurbil egon zen okupazio-indizea: % 89,6. Adingabeentzako edo familientzako egoitza-zentroetan, % 85,4 izan zen tasa. Eta okupazio-tasarik baxuena genero-indarkeria jasan ez duten emakumeentzako etxebizitzetan edota egoitza-zentroetan izan zen: % 75,5.

39. taulan jaso dira erabiltzaile bakoitzeko gastu arruntari buruzko oinarrizko datuak. 2019an, batez besteko maila 33.679 eurokoa izan zen gizarte-zerbitzuen sistemako egoitza-zentro guztietarako. Balio hori 2018koa baino % 1,9 handiagoa izan zen, erabiltzaile bakoitzeko urte horretan izandako 33.056 euroko gastuarekin erkatuta. Gastu-igoera 2015-2016 aldiko % 1 baino handiagoa izan zen, eta 2016-2017 aldiko egonkortasuna hautsi zen (% 0,0). Baina 2017-2018 aldiko % 2,2ko balioaren azpitik egon zen.

**39. taula.**  
**Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2016-2019**  
**Gastu arrunta/erabiltzaileko**

Zentro/Zerbitzu mota	2016	2017	2018	2019	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE 2018/2019
	gastua/erabiltzaile	gastua/erabiltzaile	gastua/erabiltzaile	gastua/erabiltzaile	gastua/erabiltzaile 2019	gastua/erabiltzaile 2019	gastua/erabiltzaile 2019	
Egoitza-zentroak	30.759	31.246	32.283	33.528	37.421	34.683	31.709	3,9
<b>ADINEKO PERTSONAK (atsedena/babesa)</b>	<b>30.745</b>	<b>31.246</b>	<b>32.227</b>	<b>33.509</b>	<b>37.421</b>	<b>34.683</b>	<b>31.676</b>	<b>4,0</b>
Egoitza-zentroak	43.884	44.841	45.852	46.900	45.157	46.118	48.210	2,3
<b>DESGAITASUNA/ GAIXOTASUNA (atsedena/babesa)</b>	<b>43.934</b>	<b>44.858</b>	<b>45.914</b>	<b>46.906</b>	<b>45.258</b>	<b>45.872</b>	<b>48.350</b>	<b>2,2</b>
Egoitza-zentroak	66.995	66.086	55.083	58.279	80.791	81.601	44.764	5,8
<b>ADINGABEAK/FAMILIAK</b>	<b>66.995</b>	<b>66.086</b>	<b>55.083</b>	<b>58.279</b>	<b>80.791</b>	<b>81.601</b>	<b>44.764</b>	<b>5,8</b>
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak ez)	21.889	15.183	20.433	19.158	16.258	31.586	17.489	-6,2
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	34.619	35.635	31.487	25.311	14.247	43.136	24.105	-19,6
<b>EMAKUMEAK</b>	<b>28.088</b>	<b>24.375</b>	<b>26.141</b>	<b>22.417</b>	<b>15.014</b>	<b>39.111</b>	<b>20.418</b>	<b>-14,2</b>
Ostatu/egoitza-zentroak	15.816	13.544	14.005	12.275	11.326	14.123	10.978	-12,4
Gaueko harrera-zentroak	16.008	15.669	16.600	15.748	22.997	23.881	9.952	-5,1
<b>BAZTERKETA</b>	<b>15.860</b>	<b>13.963</b>	<b>14.512</b>	<b>12.909</b>	<b>13.994</b>	<b>15.444</b>	<b>10.765</b>	<b>-11,0</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>32.314</b>	<b>32.330</b>	<b>33.056</b>	<b>33.679</b>	<b>37.751</b>	<b>35.355</b>	<b>31.498</b>	<b>1,9</b>

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta

Egoitza-zentroetan, gasturik altuena adingabeentzako zerbitzuek izan zuten 2019an ere, erabiltzaileko 58.279 euro gastatu baitziren. 2015-2016 aldiko % 2,3ko igoeraren ondoren, zentro mota horietako gastuak -% 1,4 egin zuen behera 2016-2017 aldirian. Artatutako biztanleen kopurua asko handitu arren, erabiltzaile bakoitzeko egindako gastua askoz ere gehiago murriztu zen 2017tik 2018ra: 2017ko 66.086 euroekin alderatuta, -% 16,6 egin zuen behera. Hala ere, 2018. eta 2019. urteen artean, gastuak % 5,8 egin zuen gora, 2018ko 55.083 euroko gastuarekin alderatuta.

EAEko batezbesteko orokorraren ginetik egon zen erabiltzaileko egindako gastua desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentroetan (46.906 euro). Hortaz, 2018. eta 2019. urteen artean % 2,2 egin zuen gora, 2017-2018 aldirian baino gutxiago (% 2,4ko), baina 2016-2017 aldirian baino gehiago (% 2,1). Beraz, mantendu egin zen hazkunde moderatuko joera 2016tik aurrera, % 2,1-2,4 arteko tasekin, eta eten egin zen 2015-2016 aldiko egonkortzeko joera, % 0,1 baino ez baitzuen egin gora.

Adineko pertsonentzako egoitzetan, ordea, 2019ko 33.509 euroko gastua ez zen iritsi EAEko gastuaren erregistro orokorrera. Kasu horretan ere goranzko joera izan zuen adierazleak. Hala, 2015-2016 aldiko % 1,2ko eta 2016-2017 aldiko % 1,6ko balioekin alderatuta, hazkunde-tasa nabarmen areagotu zen 2017-2018 aldirian (% 3,1) eta 2018-2019 aldirian (% 4,0).

Genero-indarkeriaren biktima izandako emakumeentzako etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan 25.311 eurokoa izan zen erabiltzaileko gastua. 2015ean izandako jaitsiera handiaren ostean (23.890 eurokoa izan zen erabiltzaileko gastua), 2016an 34.619 eurokoa izan zen, eta 2012tik aurrerako gasturik handienetakoa izan zen; izan ere, 2015eko balioarekin alderatuta, % 44,9 egin zuen gora. 2017ko gastuak ildo horretatik jarraitu zuen, eta berriro egin zuen gora, baina gutxiago, % 2,9. Zentro horietan, 2017. eta 2018. urteen artean, erabiltzaileko gastuak -% 11,6 egin zuen behera, eta are gehiago 2018. eta 2019. urteen artean: -% 19,6.

Erabiltzaile bakoitzeko gastua askoz urriagoa izan zen gainerako egoitza-zentroetan. 2018an, genero-indarkeria jasan ez duten emakumeentzako egoitza-zentroetan 19.158 eurokoa izan zen erabiltzaileko gastua; 15.748 eurokoa, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan, eta 12.275 eurokoa, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan. 2017. eta 2018. urteen artean adierazleak izandako suspertze-joerarekin alderatuta (+% 34,6, +% 5,9 eta +% 3,4), 2018. eta 2019. urteen artean behera egin zuen erabiltzaileko gastuak (-% 6,2, -% 5,1 eta -% 12,4). 2018. eta 2019. urteen artean, beraz, berreskuratu egin zen 2015-2017 aldiko beheranzko joera.

Lurraldeka aztertuta, 2019an gastu handiagoa egin zen Araban, 37.751 eurokoa biztanleko. Gipuzkoan, 35.355 eurokoa, eta Bizkaian, 31.498 eurokoa. Hala ere, urte horretan, Arabako gastu handiago hori lotuta egon zen eskusiboki adineko pertsonentzako egoitza-zentroekin: erabiltzaileko 37.421 euro; Gipuzkoan, 34.683 euro eta Bizkaian, 31.676 euro.

Izan ere, egoitza-zentro gehienetan, 2019an erabiltzaileko egindako gastua handiagoa izan zen Gipuzkoan. Alderik handienak indarkeriaren biktima izandako emakumeentzako egoitza-zentroetan edo etxebizitzetan (Gipuzkoan, 43.136 euro; Bizkaian, 24.105 euro, eta Araban, 14.247 euro) eta indarkeriarik jasan ez duten emakumeentzako zentroetan (Arabian, 31.586 euro; Bizkaian, 17.489 euro, eta Gipuzkoan, 16.258) izan ziren.

Aldeak hain handiak ez izan arren, esanguratsuak izan ziren bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan: gaueko harrera-zentroetan, Gipuzkoan, 23.881 euro; Araban, berriz, 22.997 euro, eta Bizkaian, 9.952 euro. Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako



etxebizitza edo egoitza-zentroetan, berriz, Gipuzkoan 14.123 euro; Araban, 11.326, eta Bizkaian, 10.978. Gauza bera gertatu zen adingabeentzako edo familientzako egoitza-zentroetan, Arabari zegokionez gutxienez: Gipuzkoan, 81.601 eurokoa izan zen gastua, Arabakoa baino apur bat handiagoa (80.791 euro). Bizkaian, askoz txikiagoa izan zen erabiltzaileko gastua: 44.764 euro.

Bestalde, Bizkaia nabarmendu zen berriro desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitzetan erabiltzaileko gastu handiena izan zuelako: 48.210 euro; 46.118, Gipuzkoan eta 45.157, Araban.

40. taulan ikus daitezke erabiltzaileen urteko ekarpenari buruzko datuak<sup>13</sup>. Taula horretan ikus daitekeenez, egoitza-zentroak eta haiekin lotutako zerbitzuak mantentzeko, erabiltzaileek egiten dituzten ekarpenetan, aipagarria da adineko pertsonak ordaindu zituzten kuota altuak.

Adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan, erabiltzaileko batez besteko kuotak etengabe egin zuen gora 2013ko 13.569 euroetatik aurrera. 2014an 2012ko batez besteko ekarpena gainditu ondoren (14.044, 2014an; 13.744, 2012an), apur bat gora egin zuen 2017an 14.592 eurora iritsi arte. 2017. eta 2018. urteen artean, batez besteko kuotak hazkunderik handiena izan zuen 2012tik ordura arte: % 5,9, 2018ko 15.459 euroko kuotaraino. Goranzko joerari eutsiz, % 0,3 baino ez zuen gora egin 2018-2019 aldian, hots, egonkortu egin zen 2019ko 15.502 euroekin.

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroetan, batez besteko kuota 5.352 eurokoa izan zen 2019an, hau da, 2018ko 5.071 eurokoa baino % 5,5 handiagoa. Kasu horretan, ekarpenak beheranzko joera izan zuen 2015etik aurrera: 2015ean, 6.012 euro; -% 9,4 egin zuen behera 2015-2016 aldian, eta beherantz jarraitu zuen, motelago bada ere, 2016-2017 aldian (-% 5) eta 2017-2018 aldian (-% 1,9). Hortaz, 2018-2019 aldiko hazkunde handiak aldaketa nabarmena ekarri zuen erabiltzaileen batez besteko kuotan. Hala ere, ekarpena 2015eko maximoaren azpitik egon zen oraindik.

2019an, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitzetan edota egoitza-zentroetan askoz txikiagoa izan zen batez besteko kuota. Zehazki, erabiltzaileko batez besteko kuota 426 eurokoa izan zen, hots, 2017ko 543 euroko kuota baino txikiagoa. 2015-2016 aldiko 493 eurokoa baino txikiagoa izan zen ere.

2019ko lurraldekako datuek erakusten dutenez, erabiltzaileko ekarpenik altuena Bizkaian izan zen adinekoentzako eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan. Lehen kasuan, erabiltzaileko ekarpena 15.954 eurokoa izan zen; Gipuzkoan, berriz, 15.471 eurokoa eta Araban, 14.082 eurokoa. Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitza eta egoitza-zentroetan, Bizkaian ekarpena 720 eurokoa izan zen; Araban, 325 eurokoa eta Gipuzkoan, 92 eurokoa.

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitzetan, ordea, batez besteko kuotarik handiena 2019an Gipuzkoakoa izan zen. Lurralde historiko horretako 7.273 euroko batez besteko ekarpenak Bizkaiko 6.234 eta Arabako 3.519 eurokoak gainditu zituen.

---

<sup>13</sup> Kalkuluan sartzan dira erreferentziako zentro guztiak, erabiltzaileen kuotarik kobratzen ez dutenak barne.

**40. taula.**  
**Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2016-2019**  
**Urteko batez besteko kuota/erabiltzaileko**

Zentro/Zerbitzu mota	2016	2017	2018	2019	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE 2018-2019
	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	2019ko batez besteko kuota	2019ko batez besteko kuota	2019ko batez besteko kuota	
Egoitza-zentroak	14.373	14.592	15.490	15.518	14.082	15.471	15.983	0,2
<b>ADINEKO PERTSONAK (atsedena/babesa)</b>	<b>14.367</b>	<b>14.592</b>	<b>15.459</b>	<b>15.502</b>	<b>14.082</b>	<b>15.471</b>	<b>15.954</b>	<b>0,3</b>
Egoitza-zentroak	5.480	4.945	5.068	5.397	6.271	7.295	3.551	6,5
<b>DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA (atsedena/babesa)</b>	<b>5.446</b>	<b>5.171</b>	<b>5.071</b>	<b>5.352</b>	<b>6.234</b>	<b>7.273</b>	<b>3.519</b>	<b>5,5</b>
Ostatu/egoitza-zentroak	493	543	479	426	325	92	720	-11,2
Gaueko harrera-zentroak	0	0	0	0	0	0	0	0,0
<b>BAZTERKETA</b>	<b>378</b>	<b>436</b>	<b>386</b>	<b>348</b>	<b>251</b>	<b>79</b>	<b>571</b>	<b>-9,8</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.448</b>	<b>11.333</b>	<b>11.772</b>	<b>11.449</b>	<b>10.958</b>	<b>11.264</b>	<b>11.702</b>	<b>-2,7</b>

Iturria: EOE EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jarduera erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. Kuota -0- duten zentroak barne dira.

41. taulan daude ikusgai abenduaren 15ean egoitza-zentro eta -zerbitzuetan lanean ari ziren langile propioei buruzko datuak. Datu horien arabera, DOB kontuan hartuta, EAEko egoitzetan, 2019an, 46,5 langile zeuden 100 erabiltzaileko. Okupazio horrek epe luzeko gorako joera islatzen zuen aurreko urteetan, eta mantendu egin zen 2017tik 2018ra. Hala, 2012. eta 2013. urteen artean egonkortu ondoren (44,1 eta 43,9), 2013tik aurrera langileen kopuruak etengabe egin zuen gora: 100 erabiltzaileko 45,9 langile 2015ean; 46,4, 2016an; 46,7, 2017an, eta 46,8, 2018an.

Hala ere, zehaztu behar da 2017. eta 2018. urteen artean moteldu egin zela adierazle horren hazkunde-prozesua: 2015-2016 aldian, % 1,2 egin zuen gora; 2016-2017 aldian, % 0,6, eta 2017-2018 aldian, % 0,1 baino ez. 2018. eta 2019. urteen artean, bilakaera horrek -% 0,7 behera egin zuen DOP enplegu propioak 100 erabiltzaileko. Hala, adierazleak 46,8tik 46,5era egin zuen behera 2018-2019 aldian.

2019an, Arabak izan zuen langile gehien 100 erabiltzaileko: 56,8 DOB langile. Lurralde horretan, adierazle horrek nabarmen gora egin zuen 2016. eta 2017. urteen artean, 49,4tik 52,5era, baina egonkortu egin zen 2018an: 52,9 DOB langile 100 erabiltzaileko. Hori dela eta, nabarmentzekoa da 2019ko gorakada: 56,8ra iritsi zen.

2018an ez bezala, Gipuzkoa Arabaren atzetik kokatu zen 2019an: 44,8 langile 100 erabiltzaileko. Lurralde horretan, adierazleak astiro baina egonkor egin zuen gora 2016tik aurrera (43,2 langile).

Ez zen gauza behera gertatu Bizkaian, non 100 biztanleko izandako langileen ratioak modu nabarmenean eta etengabe egin baitzuen behera: 2016ko 47,5etik 2017ko 46,7ra, 2018ko 46,4ra eta 2019ko 44,3ra. Bilakaera horrek erakusten zuen moduan, 2018-2019 aldiko jaitsiera handiagoa izan zen (ehuneko -2,1 puntu). EAEko gainerako lurraldeetan adierazleak gora egin arren, Bizkaian izandako bilakaerak azaltzen zuen EAEn 100 erabiltzaileko langile propioen kopuruak zergatik egin zuen behera 2018-2019 aldian.



41. taula.  
Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2016-2019  
LOB langile propio okupatuak/100 erabiltzaileko

Zentro/Zerbitzu mota	2016	2017	2018	2019	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariaz ioa % -tan EAE 2018- 2019
	Langile okupatuak/era biltzaile	Langile okupatuak/era biltzaile	Langile okupatuak/era biltzaile	Langile okupatuak/era biltzaile	2019ko langile okupatuak/era biltzaile	2019ko langile okupatuak/era biltzaile	2019ko langile okupatuak/era biltzaile	
Egoitza-zentroak	47,9	49,1	49,8	51,1	67,3	45,6	49,1	2,5
<b>ADINEKO PERTSONAK (atsedena/babesa)</b>	<b>47,9</b>	<b>49,1</b>	<b>49,7</b>	<b>51,0</b>	<b>67,3</b>	<b>45,6</b>	<b>49,0</b>	<b>2,6</b>
Egoitza-zentroak	65,3	67,9	67,8	68,1	51,2	73,1	70,8	0,4
<b>DESGAITASUNA/GAIX OTASUNA (atsedena/babesa)</b>	<b>65,5</b>	<b>67,9</b>	<b>67,7</b>	<b>68,0</b>	<b>50,9</b>	<b>72,7</b>	<b>71,0</b>	<b>0,3</b>
Egoitza-zentroak	28,0	28,5	24,3	21,8	29,4	45,2	11,2	-10,4
<b>ADINGABEAK/FAMILI AK</b>	<b>28,0</b>	<b>28,5</b>	<b>24,3</b>	<b>21,8</b>	<b>29,4</b>	<b>45,2</b>	<b>11,2</b>	<b>-10,4</b>
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	26,5	25,5	29,4	20,9	1,5	0,0	32,0	-28,9
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	6,9	6,1	6,3	5,0	0,0	4,7	8,6	-21,4
<b>EMAKUMEAK</b>	<b>17,0</b>	<b>16,7</b>	<b>17,5</b>	<b>12,5</b>	<b>0,6</b>	<b>3,0</b>	<b>21,7</b>	<b>-28,7</b>
Ostatu/egoitza-zentroak	24,6	20,5	21,7	18,5	2,1	20,8	20,3	-14,7
Gaueko harrera- zentroak	15,2	15,0	15,5	14,3	27,2	22,9	6,8	-7,9
<b>BAZTERKETA</b>	<b>22,4</b>	<b>19,4</b>	<b>20,5</b>	<b>17,7</b>	<b>7,8</b>	<b>21,0</b>	<b>17,5</b>	<b>-13,5</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>46,4</b>	<b>46,7</b>	<b>46,8</b>	<b>46,5</b>	<b>56,8</b>	<b>44,8</b>	<b>44,3</b>	<b>-0,7</b>

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jardueraren erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzat (asteen 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

Jarduketa-esparru edo -sektore bakoitza aztertuta, 2019an erabiltzaileko langile-ratorik handiena desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentroetan izan zen: 68,0 DOB langile 100 biztanleko.

Kasu horretan, 2017. eta 2018. urteen artean, eten egin zen langileen ratioaren etengabeko goranzko joera: 2012an 61,1 langilekoa izan zen, eta 2017an, 67,9koa, baina 2018an apur bat behera egin zuen, 67,7ra. Adierazlearen beherakada  $-\% 0,2$ koa baino ez izan arren, adierazlearen hazkunde-erritmoaren joeraren aldaketarekin lotu zen: 2015-2016 aldian  $\% 1,7$  egin zuen gora; eta 2016-2017 aldian,  $\% 3,6$ . 2015-2017 aldian izandako goranzko joera argia etetea eragin zuen jaitsiera arin baina esanguratsua izan zen, beraz. 2018. eta 2019. urteen artean, mantendu egin zen adierazlearen nolabaiteko egonkortasuna, baina gorantz:  $\% 0,3$  egin zuen gora 2018an 100 erabiltzaileko izandako 67,7 langileetatik 2019ko 68,0 langileetara.

2019an, esanguratsuak izan ziren lurraldeen arteko aldeak desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroetan: Bizkaian izan zen maximoa, 72,7 langile 100 erabiltzaileko; Gipuzkoan, 71,0; eta Araban, 50,9. 2018. eta 2019. urteen artean Gipuzkoak izandako goranzko joerak (72,1etik 72,7ra) kontrastea ekarri zuen Bizkaiko jaitsierarekin (75,3etik 71,0era), eta horregatik gainditu zuen Gipuzkoak Bizkaia adierazle horretan 2019an..

Enpleguaren zifrak EAeko adierazle orokorraren gainera egon ziren adineko pertsonentzako egoitza-zerbitzuetan ere: 100 erabiltzaileko 51,0 langile izan ziren 2019an. Kasu horretan adierazleak  $\% 2,6$  egin zuen gora 2018ko 49,7ko ratioarekin alderatuta. 2016-2017 aldiko  $\% 2,5$ eko

hazkundearen antzekoa izan zen, eta 2015-2016 aldiko % 1,5koa eta 2017-2018 aldiko % 1,4koa baino handiagoa. 2012ko datuekin alderatuta (46,4 langile 100 erabiltzaileko), hazkundera ez zen izan desgaitasun/gaixotasunen sektorean izandakoa bezain indartsua.

Lurraldeka aztertuta, adineko pertsonentzako egoitzetan, langile-ratiorik handiena Araban izan zen, 100 erabiltzaileko 67,3 langile baitzeuden; beraz, alde handiz gainditu zituen Bizkaiko 49,0ko eta Gipuzkoako 45,6ko ratioak.

Gainerako sektoreetan, 100 erabiltzaileko izandako DOB langileen kopurua askoz txikiagoa izan zen adingabe edo familientzako egoitza-zentroetan, baina oraindik ere 21,8 langilekoa izan zen 2019an. Kasu horretan, 2015-2016 aldirian adierazleak % 2,6 egin zuen gora, eta, 2016-2017 aldirian, % 1,8; baina 2017-2018 aldirian, ordea, beherakada argia izan zuen, -% 14,8koa. Joera hori maila esanguratsuetan mantendu zen 2018. eta 2019. urteen artean, -% 10,4 egin baitzuen behera. 2017an gehieneko balioa osatu ondoren (28,5 langile erabiltzaile bakoitzeko), 2019ko 21,8ko balioak minimo bat ezarri zuen 2012tik aurrera, eta asko urrundu zen aurreko minimoetatik, hau da, 2013ko eta 2018ko 24,3 eta 24,5eko balioetatik.

Kasu horretan, Gipuzkoak izan zuen DOB langile propioen kopururik handiena 100 erabiltzaileko: 45,2; Araban, 29,4, eta Bizkaian, 11,2. Hala ere, 2016. eta 2018. urteen artean 41,3tik 54,2ra gora egin ondoren, oso esanguratsua izan zen Gipuzkoak izan zuen jaitsiera: 2019an, 45,2 DOB langile 100 erabiltzaileko.

Azken urteetan adingabeentzako zentroetan langileen eta erabiltzaileen arteko proportzioak izan zuen jaitsiera genero-indarkeria jasan ez duten emakumeentzako egoitza-zentroetan ere ikusi zen, baina soilik 2018. eta 2019. urteen artean. 2018an 29,4 langile zeuden 100 erabiltzaileko, eta gorakada garrantzitsua izan zen halako zentroetan 2017ko 25,5 langile-ratioarekin alderatuta, eta 2015etik aurrera etengabe behera egin ondoren (urte horretan 32,5 langile zenbatu ziren). 2018. eta 2019. urteen artean berreskuratu egin zen beheranzko dinamika hori, 20,9ko ratioarekin, eta minimoetan kokatuta zen 2012tik aurrera izandako balioekin alderatuta, baita 2012 eta 2013ko 22,2 eta 22,9ko mailak baino beherago ere. Dinamika horrek Bizkaian eragin zion batez ere, non adierazle horrek 35,4tik 32,0ra egin baitzuen behera 2018. eta 2019. urteen artean.

2019an, ratio hori 18,5 izan zen bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan, eta lehenago adierazitakoaren antzeko bilakaera izan zuen. Ere horretan nabarmena izan zen beheranzko joera 2017ra arte, 2015eko 26,2 langileko ratioarekin alderatuta. 2017an 20,5 langilera igo bazen ere, 2018ko 21,7ko ratioa 2012tik aurrera izandako erregistro txikienetako bat izan zen (urte hartan, 21,5eko ratioa osatu zen). Baina 2019ko erregistroak 100 erabiltzaileko 20 langileko atalasetik behera jarri zuen urte hartatik lehen aldiz.

100 erabiltzaileko enpleguaren ratioaren gehienekoa Gipuzkoan izan zen halako egoitzetan: 20,8 lanpostu 100 erabiltzaileko, eta Bizkaiko 20,3ko ratioaren gainetik jarri zen. Halako zentroetan, 2018. eta 2019. urteen artean, Gipuzkoan gora egin zuen ratioak (19,2tik 20,8ra); Bizkaian, ordea, nabarmen behera egin zuen (29,6tik 20,3ra).

Indarkeria edo tratu-txarrak jasan dituzten emakumeentzako egoitzak alde batera utzita, non 5,0 DOB lanpostu izan baitziren 100 erabiltzaileko (behera egin zuen 2018ko 6,3 ratioarekin alderatuta), ratorik txikiena bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan izan zen: 2019an, 14,3 DOB lanpostu 100 erabiltzaileko. Behera egin zuen ere 2018ko 15,5eko ratoritik. 2017. eta 2018. urteen artean 15,0etik 15,5era gora egin bazuen ere, 2019an sendotu egin zen epe luzeko beheranzko joera, 2013an 100 erabiltzaileko izandako 16,2 DOB lanpostuko ratoritik aurrera.



Gaueko harrera-zentroetan, 100 erabiltzaileko enplegu propioaren ratorik altuenak Arabak izan zituen 2019an: 27,2; Gipuzkoak, 22,9, eta Bizkaiak, 6,8. Datu horiek erakusten dute Bizkaian eta Gipuzkoan adierazleak behera egin zuela 2018arekin alderatuta (24,8tik 22,9ra, Gipuzkoan; 9,2tik 6,8ra, Bizkaian). Araban, berriz, goranzko joera argia islatzen dute (18,9tik 27,2ra).

Labur esanda, emakumeentzako eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen arretan, nabarmendu behar da egoitza-zentroetan, 2015etik 2017ra (edo urte horietako uneren batean) 100 erabiltzaileko DOB langile propioen ratioak behera egin ondoren, 2018-2019 aldian berreskuratu egin zela langile propioak/erabiltzaileak ratioaren beheranzko joera, eta oso ezberdina izan zela joera hori 2017. eta 2018. urteen artean izandako goranzko joera argiarekin alderatuta.

42. taulan, egoitza-zentroetako langile propioen batez besteko ordainsariari buruzko datuak agertzen dira (DOBen arabera neurtuta). 2019an, batez besteko soldata 37.684 eurokoa izan zen. Kopuru hori 2018ko 37.284 euroak baino % 1,1 handiagoa izan zen. 2016-2017 aldian -% 0,6 behera egin ondoren, sendotu egin zen batez besteko soldatak 2012tik aurrera izandako goranzko joera (urte horretan 34.607 eurokoa izan zen). Baina, 2017-2018 aldiko % 3,3ko igoerarekin alderatuta, 2018-2019 aldiko % 1,1eko igoera askoz txikiagoa izan zen, eta 2015-2016 aldiko % 0,8ra hurbildu zen.

**42. taula.**  
**Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2016-2019**  
**Batez besteko ordainsaria/LOB langile**

	2016	2017	20178	2019	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE 2018/2019
	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	2019ko batez besteko ordainsaria	2019ko batez besteko ordainsaria	2019ko batez besteko ordainsaria	
Zentro/Zerbitzu mota								
Egoitza-zentroak	34.076	33.904	35.319	35.611	36.246	37.058	34.614	0,8
<b>ADINEKO PERTSONAK (atsedena/babesa)</b>	<b>34.076</b>	<b>33.904</b>	<b>35.319</b>	<b>35.611</b>	<b>36.246</b>	<b>37.058</b>	<b>34.614</b>	<b>0,8</b>
Egoitza-zentroak	44.527	44.178	46.059	45.942	45.796	41.826	49.345	-0,3
<b>DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA (atsedena/babesa)</b>	<b>44.415</b>	<b>44.200</b>	<b>46.118</b>	<b>46.025</b>	<b>45.796</b>	<b>41.869</b>	<b>49.391</b>	<b>-0,2</b>
Egoitza-zentroak	55.363	50.982	46.604	52.094	56.710	29.018	85.726	11,8
<b>ADINGABEAK/FAMILIAK</b>	<b>55.363</b>	<b>50.982</b>	<b>46.604</b>	<b>52.094</b>	<b>56.710</b>	<b>29.018</b>	<b>85.726</b>	<b>11,8</b>
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak ez)	25.031	24.536	29.206	28.852			29.333	-1,2
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	31.072	33.844	30.973	28.083		42.052	24.279	-9,3
<b>EMAKUMEAK</b>	<b>26.226</b>	<b>26.052</b>	<b>29.536</b>	<b>28.689</b>		<b>42.052</b>	<b>28.441</b>	<b>-2,9</b>
Ostatu/egoitza-zentroak	34.713	35.451	32.946	33.783	31.424	32.365	35.018	2,5
Gaueko harrera-zentroak	50.434	51.495	52.397	52.643	56.486	50.384	52.493	0,5
<b>BAZTERKETA</b>	<b>37.192</b>	<b>37.895</b>	<b>35.824</b>	<b>36.554</b>	<b>51.393</b>	<b>35.022</b>	<b>36.422</b>	<b>2,0</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>36.289</b>	<b>36.079</b>	<b>37.284</b>	<b>37.684</b>	<b>37.921</b>	<b>37.491</b>	<b>37.705</b>	<b>1,1</b>

Iturria: EOE EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jarduera erregularra duten zentroentzat kalkulatuak dira adierazleak. LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzat (asteen 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

2019an, sendotu egin zen bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroetako ordainsaria, 52.643 euroekin. Gainera, besteekin alderatuta, handiagoa izan zen soldata hori. Kasu horretan, 2015. eta 2016. urteen arteko jaitsieraren ondoren, batez besteko ordainsariak 2012tik aurrera izan zuen goranzko joera berreskuratu zuen (44.087 eurokoa izan zen 2012an;

% 2,1 egin zuen gora 2016-2017 aldian, eta % 1,8, 2017-2018 aldian). 2018-2019 aldiko % 0,5eko igoera urriarekin hazkunde-erritmoaren beheranzko joera sendotu bazen ere, gaueko harrera-zentro horiek izan ziren langile propioen batez besteko ordainsaririk handiena izan zutenak 2019an, lehenago bezala.

Harrera-zentroen erregistrotik hurbil egon zen adingabe eta familientzako egoitza-zentroetako ordainsaria 2019an: 52.094 euro DOB lanpostu bakoitzeko. Erregistro horrek eten garrantzitsu bat ezarri zuen 2013tik 2018ra bitartean izandako beheranzko joeran. 2012tik 51.485 euroko soldatatik 2013ra 56.881 eurokora igo ondoren, ordutik aurrera DOB lanpostu bakoitzeko batez besteko ordainsaria pixkanaka murrizten joan zen, 2018ko 46.604 euroko soldatara iritsi arte. 2016tik aurrera, gainera, nabarmen areagotu zen beherakada. Baina 2018. eta 2019 urteen artean % 11,8 gora egin zuen langile propioen batez besteko ordainsariak.

DOB langile propioen soldata EAEko egoitza-zentroetako batezbestekoaren gaintik egon zen, modu nabarmenean, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroetan, non 46.025 eurokoa izan baitzen 2019an. Jarduera-eremu horretan, ordea, -% 0,2 egin zuen behera 2018ko 46.118 eurokoarekin alderatuta. 2017. eta 2018. urteen artean, berriz, igoera nabarmena izan zuen, % 4,3koa. Aldi horretan, lehen igoera esanguratsua osatu zen desgaitasuna edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroetako langileen batez besteko ordainsarietan, 2012tik aurrera aztertuta. 2018. eta 2019. urteen artean izandako bilakaerak 2015-2017 aldiko apur bat behera egiteko joera berreskuratu zuen: 2015-2016 aldian -% 0,1 egin zuen behera, eta 2016-2017 aldian, -% 0,5. Hala ere, 2017-2018 aldian izandako hazkunde handiaren ondoren, 2019ko erregistroa bigarren altuena izan zen, termino nominaletan, 2012tik aurrerako datuak kontuan hartuta.

Adineko pertsonentzako egoitza-zentroetako ordainsaria gizarte-zerbitzuen batezbesteko orokorretik beherakoa izan zen: 35.611 euro 2019an. Kasu horretan, 2016. eta 2017. urteen artean eten egin zen 2012ko 32.254 euroko eta 2016ko 34.076 euroko ordainsarien artean izandako goranzko joera apala. 2017an (33.904 euro) -% 0,5 egin zuen behera zifra horrek 2016koarekin alderatuta, eta aipatutako goranzko joeraren lehen etena izan zen. 2017. eta 2018. urteen artean, berriz, batez besteko ordainsariak % 4,2 egin zuen gora. Maila apalagoan bada ere, 2018. eta 2019. urteen artean mantendu egin zen langile propioen ordainsariaren goranzko joera: % 0,8 egin zuen gora. Hortaz, 2019an 2012ko mailaren gaintik kokatu zen batez besteko ordainsaria.

Batez besteko DOB ordainsaria apur bat txikiagoa izan zen bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitza eta egoitza-zentroetan: 33.783 euro, 2019an. 2012tik 2015era -% 1,2 egin zuen behera, baina, gero, 2015-2017 aldian gora egin zuen ordainsariak: 2015-2016 aldian, % 5,5, eta 2016-2017 aldian, % 2,1. 2017tik 2018ra, ordea, behera egin zuen, -% 7,1, 2017ko kopuruarekin alderatuta. 2018-2019 aldian batez besteko ordainsariak % 2,5 gora egin bazuen ere 2018ko 32.946 euroko ordainsariarekin alderatuta, halako egoitza-zentroetan 2016ko 34.713 euroko ordainsariaren azpitik mantendu zen 2019an.

2019an, 30.000 eurotik beherakoa izan zen DOB langileko batez besteko soldata emakumeentzako etxebizitzetan edota egoitza-zentroetan: 2019an, 28.852 eurokoa izan zen indarkeriaren biktima izan ez diren emakumeentzako zerbitzuetan, eta 28.083 eurokoa, indarkeriaren biktima izandako emakumeentzako zerbitzuetan. Azken zerbitzu horietan, 2016-2017 aldiko % 8,9ko igoeraren ondoren, 2017tik 2018ra batez besteko ordainsariak -% 8,5 egin zuen behera, eta -% 9,3, 2018-2019 aldian. 2019ko 28.083 euroko soldata txikiena izan zen 2015etik aurrera. Gainera, 2015. eta 2018. urteen artean, soldata hori 30.000 eurotik gorakoa izan zen beti.





Indarkeria jasan ez duten emakumeentzako etxebizitzetan, 2017-2018 aldian, ordea, % 19ko igoera izan zen, eta 2016-2017 aldian batez besteko ordainsarian izandako –% 2ko beherakada konpentsatu zuen. 2018-2019 aldiko beherakada ere txikiagoa izan zen: –% 1,2 egin zuen behera, 2018ko 29.206 euroetatik 2019ko 28.852 euroetara.

Lurraldeka aztertuta, gizarte-zerbitzuen egoitzetan, DOB langileen batez besteko ordainsaria antzekoa izan zen hiru lurraldeetan 2019an: 37.921 euro, Araban; 37.705, Gipuzkoan, eta 37.491, Bizkaian.

Egoitza motak aztertzen baditugu, ordea, 2019an Bizkaia izan zen egoitza-zentro gehienetan DOB lanpostuko ordainsaririk handiena izan zuen lurraldea. Aldea bereziki deigarria izan zen adinekoen egoitzetan. Esku hartzearen eremu horretan, Bizkaia nabarmendu zen, 85.726 euroko soldatarik DOB lanpostu bakoitzeko, eta beste bien gainetik kokatu zen: Araban, 56.710 euro, eta Gipuzkoan, 29.018.

Halaber, Bizkaiak izan zuen batez besteko ordainsaririk handiena desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroetan: 49.391 euro; Gipuzkoan, 45.796, eta Araban, 41.869. Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan ere Bizkaiak izan zuen ordainsaririk handiena: 35.018 euro, Gipuzkoako 32.365 eta Arabako 31.424 euroen gainetik.

Genero-indarkeriaren biktima izandako emakumeentzako etxebizitzetan, soldatarik handienak Gipuzkoan izan ziren, 42.052 euro DOB lanpostu bakoitzeko, Bizkaiko 24.279 euroen gainetik.

Halaber, Gipuzkoak izan zuen batez besteko soldatarik handiena DOB lanpostuko adinekoentzako egoitza-arretarako langileei dagokienez: 37.058 euro; Araban, berriz, 36.246 euro, eta Bizkaian 34.614 euro.

2019an, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan Araba izan zen DOB soldatarik onenak izan zituen lurraldea: 56.486 euro, Bizkaian eta Araban baino gehiago (52.493 eta 50.384 euro, hurrenez hurren).

## **6.2. Egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzuak**

43. taulan ikus daitekeen bezala, EAEko gizarte-zerbitzuen sisteman egoitzakoak ez ziren leku guztien % 91,5 egon zen beteta 2019an. 2016ko % 95,9tik 2018ko % 99,4ra gora egin ondoren, 2019ko erregistroak beherakada handia ekarri zuen gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzuen okupazio-mailetan.

Zentro eta zerbitzu adierazgarrienei erreparatuz gero, alde nabarmenak ikusten dira okupazio-mailetan. Batetik, % 95-100eko mailetatik hurbil egon ziren egoitzakoak ez diren adinekoentzako gainerako zentroetan (% 100), baita desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko zentroetan edo eguneko laguntza-zentroetan ere (suspertze- eta laguntza-zentroetan izan ezik): % 95,8koa izan zen eguneko laguntza-zentroetan; % 97,7koa, jarduera okupazionalak dituzten eguneko zentroetan, eta % 100ekoa, laneratze-zentroetan. Maila horietara iritsi zen adingabe eta familientzako eguneko arretan (% 99,4) eta bazterketa-egoeran daudenei egoitzakoa ez den arreta emateko zentroetan ere. Arretaren sektore horretan, okupazioa % 94,5ekoa izan zen eguneko zentroetan, eta % 103,5ekoa –gehiegizko okupazioa, neurri batean–, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako jantoki sozialetan.

**43. taula.**  
**Gizarte-zerbitzuetan egoitzakoak ez diren zentroak**  
**2016-2019 okupazioaren %-a (erabiltzaileak/plazak)**

Zentro/Zerbitzu mota	2016	2017	2018	2019	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	2019ko okupazioa (%)	2019ko okupazioa (%)	2019ko okupazioa (%)
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	86,1	100,0	101,1	72,8	65,0		78,8
Eguneko laguntza-zenetroak	85,7	84,3	84,6	83,3	85,4	85,3	80,5
Jantokiak	74,6	68,4	82,7	78,6	75,3		92,4
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	90,6	98,7	98,9	100,0	100,0	100,0	100,0
<b>ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA</b>	<b>84,8</b>	<b>82,9</b>	<b>85,1</b>	<b>82,9</b>	<b>81,2</b>	<b>85,6</b>	<b>81,9</b>
Eguneko zentroak	97,9	98,6	97,2	95,8	99,2	93,5	97,5
Suspertze- eta arreta-zenetroak	99,9	98,6	101,0	83,9	157,6	100,0	75,6
Eguneko zentroak eta enplegu-zenetroak	98,9	99,0	98,3	97,7	96,0	100,0	96,8
Laneratze-zenetroak	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<b>DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA</b>	<b>98,9</b>	<b>99,0</b>	<b>98,5</b>	<b>95,9</b>	<b>99,8</b>	<b>97,6</b>	<b>93,5</b>
Adingabeentzako/familiarentzako eguneko arreta	110,2	96,5	149,4	99,4	99,4	141,4	91,3
<b>ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA</b>	<b>110,2</b>	<b>96,5</b>	<b>149,4</b>	<b>99,4</b>	<b>99,4</b>	<b>141,4</b>	<b>91,3</b>
Eguneko zentroak	101,9	138,8	130,0	94,5	83,7	98,4	95,2
Jantoki sozialak	150,3	161,9	145,8	103,5	129,6		96,0
<b>BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA</b>	<b>116,0</b>	<b>147,4</b>	<b>135,7</b>	<b>98,0</b>	<b>112,6</b>	<b>89,8</b>	<b>95,5</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>95,9</b>	<b>98,8</b>	<b>99,4</b>	<b>91,5</b>	<b>91,7</b>	<b>93,1</b>	<b>90,4</b>

Iturria: EOE EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzen estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jardueraren erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. OHARRA: Ikus atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean

Zerbitzu horietako batzuetan, eta, bereziki, adinekoentzako edo desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako zerbitzuetan izandako % 100eko okupazio-mailak oso egonkorrak izan ziren azken urteetan, nahiz eta desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko zentroen apur behera egin (2017ko % 98,6tik 2019ko % 95,8ra).

Adingabeei edo familiarentzako arretan eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako arretan, ordea, okupazioaren beherakada handiagoa izan zen, eta, berez, 2016. eta 2018. urteen artean izandako gehiegizko okupazio-tasak atzean uztea ekarri zuen. Adibidez, adingabeentzako eguneko arretan, okupazio-tasak 2018ko % 149,4tik 2019ko % 99,4ra egin zuen behera.

Bazterketaren sektorean, berriz, gehiegizko okupazioak 2017-2018 aldiko % 130,0 eta % 138,8 arteko zifretatik 2019ko % 94,5 egin zuen behera eguneko zentroetan. Jantoki sozialetan beherakada handiagoa eta jarraituagoa izan zen: 2017an % 161,9koa izan zen okupazioa, eta 2018an, % 145,8koa, baina 2019an % 103,5era egin zuen behera, eta gehiegizko okupazioa gutxitu egin zen.

Gorago adierazitako zentro motekin alderatuta, egoitzakoak ez diren zerbitzuetan okupazio-tasa txikiagoak izan ziren 2019an. Urte horretan, adinekoentzako zerbitzuetan gertatu zen batez ere, non % 72,8koa izan baitzen zaintzaileei atsedena eta laguntza emateko zerbitzuetan; % 78,6koa, jantokietan, eta % 83,3koa, eguneko laguntza-zenetroetan. Desgaitasun/gaixotasunaren arloan, okupazio-tasa % 83,9koa izan zen suspertze- eta laguntza-zenetroetan.

Zerbitzu horien ezaugarri bat da 2018. eta 2019. urteen artean okupazio-tasek izandako beheranzko joera: adinekoei atsedeen eta laguntza emateko zerbitzuetan, % 101,1etik % 72,8ra egin zuen behera; talde horrentzako jantokietan, % 82,7tik % 78,6ra, eta desgaitasuna edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako suspertze- eta laguntza-zenetroetan, % 101,0etik % 83,9ra.



Joera hori adinekoentzako eguneko laguntza-zentroetan ere ikusi zen, batez ere 2016ko % 85,7 okupazioa hartzen bada erreferentziatzat, baina egoera egonkorragoa izan zuten azken urteetan: % 84,3-84,6koa, 2017. eta 2018. urteen artean, eta % 83,3koa, 2019an.

Lurraldeen arabera, egoitzakoak ez diren zerbitzuen batez besteko okupazio-tasa % 93,1era iritsi zen Gipuzkoan 2019an, Arabako % 91,7ko eta Bizkaia % 90,4ko okupazioaren gainetik.

Zentroak eta zerbitzuak lurraldearen arabera aztertzen baditugu, ez dago alde handirik, baina alderdi garrantzitsu batzuk aipa daitezke, esku-hartze esanguratsuenei buruz. Hala, adineko pertsonentzako egoitzakoak ez diren eguneko-zentroetan, okupazio-ehunekoak apur bat handiagoak izan ziren Araban eta Gipuzkoan (% 85,4 eta % 85,3), Bizkaian baino (% 80,5).

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan, Arabak izan zuen okupazio-tasarik altuena, % 99,2koa, eta atzetik egon ziren Bizkaia (% 97,5) eta Gipuzkoa (% 93,5).

Adingabe edo familientzako eguneko arretan, gehiegizko okupazioa nabarmena izan zen oraindik Gipuzkoan: % 141,4. Araban eta Bizkaian txikiagoa izan zen (% 99,4 eta % 91,3, hurrenez hurren).

Gipuzkoak izan zuen okupazio-tasarik altuena bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan ere: % 98,4. Bizkaiak, % 95,2, eta Arabak, % 83,7.

Gehiegizko okupazioa izan zuten eremuetan, aipatzekoa da Arabak desgaitasunen bat duten pertsonentzako suspertze- eta laguntza-zentroetan izandako % 157,6ko tasa, eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako jantoki sozialetan izandako % 129,6koa.

Erabiltzaile bakoitzeko gastu arruntari buruzko datuak 44. taulan jaso dira. 2019an, 11.469 eurokoa izan zen gizarte-zerbitzuen sistemako egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzu guztiak aintzat hartuta. Zenbateko horrek % 4,7 egin zuen gora 2018ko 10.949 euroko gastuarekin alderatuta, eta % 0,9, 2017ko datuarekin alderatuta. Hala, eten egin zen aurretik izandako beheranzko joera, zeina agerikoa izan baitzen oraindik 2016. eta 2017. urteen artean, eta 2019ko 11.469 euroko gastua 2016ko 11.162 eurokoa baino % 2,7 handiagoa izan zen.

2019an, Gipuzkoa izan zen egoitzakoak ez diren zerbitzuetan erabiltzaile bakoitzeko gasturik handiena egin zuen lurraldea: 12.822 euro; Araban, berriz, 11.358 euro, eta Bizkaian, 10.587 euro.

2019an, erabiltzaileko gastu handiena izan zuten zentroak adinekoentzako eta desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako laguntza-zentroak izan ziren, 17.709 eta 17.331 eurokoa, hurrenez hurren. Gastuak azken urteetan izan zuen dinamika, ordea, ezberdina izan zen bi zentro mota horietan. Hala, adinekoentzako eguneko zentroetan, gastuak % 1,3ko hazkunde txikia izan zuen 2018. eta 2019. artean. Baina gastuak % 6 egin zuen gora 2017tik 2018ra, eta, beraz, aurreko urteetako dinamika areagotu zuen (2015-2016 aldian, % 1,3; 2016-2017 aldian, % 3,4). Hortaz, % 11,0 egin zuen gora 2016an erabiltzaileko egindako 15.947 euroko gastutik 2019ko 17.709 euroko gastura.

Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan, berriz, 2015etik aurrera sendotu egin ziren gastu-beherakadak, 2012-2015 aldian ez bezala (aldi horretan 16.055 eurotik 16.975 eurora egin zuen gora). 2015etik 2016ra, erabiltzaile bakoitzeko gastuak -% 1,1 egin zuen behera, eta 2016-2017 aldian, -% 1,5. Beherakada 2017tik 2018ra zertxobait moteldu bazen ere, -% 0,6koa balioak 2018an 16.446 euroan jarri zuen erabiltzaile bakoitzeko gastua.

Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentro horietan. 2018. eta 2019. urteen artean gastuak izan zuen % 5,4ko igoera handia aurretik izandako beherakaden

eraginpean egon zen. 2019ko 17.331 euroko gastua 2016ko 16.794 eurokoa baino % 3,2 handiagoa izan arren, 2016. eta 2019. urteen artean erabiltzaileko gastua gutxiago hazi zen adinekoentzako eguneko laguntza-zentroekin alderatuta (% 11,0), eta, beraz, azken zentro horietan gastua handiagoa izan zen 2019an. Datu hori 2018an ere ikusi zen (17.485 euroko gastua adinekoentzako zentro horietan, eta 16.446 eurokoa, desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan). Aldaketa garrantzitsua izan zen, 2012. eta 2017. urteen artean, desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan erabiltzaileko egindako gastua beti egon baitzen adinekoentzako eguneko zentroetako gastuaren gainetik.

**44. taula.**  
**Gizarte-zerbitzuetan egoitzakoak ez diren zentroak.**  
**2016-2019 Gastu arrunta/erabiltzaileko**

	2016	2017	2018	2019	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	
Zentro/Zerbitzu mota	Gastua/erabiltzaile	Gastua/erabiltzaile	Gastua/erabiltzaile	Gastua/erabiltzaile	Gastua/era biltzaile 2019	gastua/era biltzaile 2019	gastua/era biltzaile 2019	Bariazioa %-tan EAE2018/2019
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	7.965	6.455	6.774	10.172	10.130		10.199	50,2
Eguneko laguntza-zentroak	15.947	16.489	17.485	17.709	21.781	17.921	15.612	1,3
Jantokiak	1.905	1.846	2.346	2.220	1.812		3.582	-5,3
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	3.764	3.753	3.633	4.641	3.355	2.293	7.703	27,7
<b>ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA</b>	<b>14.228</b>	<b>14.446</b>	<b>14.681</b>	<b>14.895</b>	<b>12.710</b>	<b>17.527</b>	<b>14.169</b>	<b>1,5</b>
Eguneko zentroak	16.794	16.549	16.446	17.331	31.134	15.944	16.865	5,4
Suspertze- eta arreta-zentroak	8.879	10.748	9.869	13.281	17.559	9.549	14.111	34,6
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	10.780	11.738	11.215	9.447	15.411	10.665	6.685	-15,8
Laneratze-zentroak	1.642	2.225	2.090	1.543	741	1.727	1.980	-26,2
<b>DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA</b>	<b>10.994</b>	<b>11.197</b>	<b>11.111</b>	<b>10.958</b>	<b>13.347</b>	<b>10.406</b>	<b>10.711</b>	<b>-1,4</b>
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	6.367	10.009	6.621	6.379	10.809	8.255	3.248	-3,7
<b>ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA</b>	<b>6.367</b>	<b>10.009</b>	<b>6.621</b>	<b>6.379</b>	<b>10.809</b>	<b>8.255</b>	<b>3.248</b>	<b>-3,7</b>
Eguneko zentroak	7.418	5.512	5.912	9.691	7.084	10.071	9.957	63,9
Jantoki sozialak	2.462	1.471	1.749	2.138	1.983	2.543	2.233	22,3
<b>BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA</b>	<b>5.552</b>	<b>3.859</b>	<b>4.278</b>	<b>6.618</b>	<b>3.386</b>	<b>9.924</b>	<b>7.061</b>	<b>54,7</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.162</b>	<b>10.856</b>	<b>10.949</b>	<b>11.469</b>	<b>11.358</b>	<b>12.822</b>	<b>10.587</b>	<b>4,7</b>

Iturria: EOE EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jardueraren erregularrak duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. OHARRA: Ikus atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean



Aipatutako eguneko laguntza-zentroetan, gastuaren mailarik altuenak Araban osatu ziren 2019an. Adineko pertsonentzako zentroetan Arabako 21.781 euroek Gipuzkoako 17.921 euroak gainditu zituzten, baita Bizkaiko 15.612 euroak ere. Aldea handiagoa izan zen desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan: 31.134 euro, Araban; 16.865, Bizkaian eta 15.944, Gipuzkoan.

Desgaitasunen eta gaixotasunen esparruan, erabiltzaileko gastua 13.281 eurokoa izan zen suspertze- eta laguntza-zentroetan, eta 9.447 eurokoa, berriz, eguneko zentroetan eta zentro okupazionaletan. Kasu bietan, 2017tik 2018ra erabiltzaile bakoitzeko gastuak behera egin zuen (–% 8,2 eta –% 4,5), eta aldaketa handia izan zen 2016-2017 aldiko igoerarekin erkatuta (eta 2015-2017 aldiko zenbatekoekin ere, eguneko zentroi eta zentro okupazionaleri dagokienez). 2018. eta 2019. urteen artean, beheranzko joera mantendu zen eguneko zentroetan eta okupazionaletan, eta –% 15,8 egin zuen behera, baina suspertze- eta laguntza-zentroetan goranzko joera argia izan zuen (% 34,6).

Eguneko laguntza-zentroetan bezala, erabiltzaileko gasturik handiena Arabak egin zuen 2019an halako zerbitzuetan: 17.559 euro, suspertze- eta laguntza-zentroetan; Bizkaian, 14.111 eta Gipuzkoan, 9.549. Eguneko eta okupazio-zentroetan, aldiz, 15.411 euro Araban; 10.665, Gipuzkoan, eta 6.685 Bizkaian.

Bestalde, egoitzakoak ez diren atsedeen eta laguntza emateko zerbitzuetan, erabiltzaileko gastua 10.172 eurokoa izan zen 2019an. Gastu horrek gora egin zuen 2017tik aurrera.

Eta antzeko mailetan, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan 9.691 eurokoa izan zen erabiltzaileko gastua 2019an. Zentro horietan, gastuak nabarmen gora egin zuen 2017tik aurrera, 2016tik 2017ra behera egin ondoren (7.418 eurotik 5.512 eurora). 2019an, gasturik handiena Gipuzkoan izan zen: 10.071 euro, Bizkaiko 9.957 eta Arabako 7.084 euroen gainera.

Gastu arrunta askoz txikiagoa izan zen adingabe/familientzako eguneko arretan 2019an: 6.379 euro, hau da, –% 3,7 gutxiago, 2018ko 6.621 euroko gastuarekin alderatuta. Jardun-eremu horretan, alde handiak izan ziren Araban erabiltzaileko egindako gastuaren (10.809 euro) eta Gipuzkoan (8.255) eta Bizkaian (3.248) egindakoaren artean.

Erabiltzaileko gastua askoz txikiagoa izan zen egoitzakoak ez diren beste zentro batzuetan, esaterako, gaixotasun edo desgaitasunen bat duten pertsonentzako laneratze-zentroetan, adinekoentzako egoitzakoak ez diren beste zentroetan eta jantoki mota desberdinetan. Jantokien kasuan, erabiltzaileko batez besteko gastua 2.220 eurokoa izan zen adineko pertsonen kasuan, eta 2.138 eurokoa, bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako jantokietan. Adineko pertsonen dagokienez, Bizkaian egin zen gasturik handiena (3.582 euro erabiltzaileko; eta, Araban, ordea, 1.812). Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako jantokietan, aldiz, Gipuzkoan egin zen gasturik handiena 2019an: 2.543 euro; Bizkaian, 2.233 eta Araban, 1.983.

45. taulan azaltzen da, gizarte-zerbitzuen sektorean egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzu nagusiak mantentzeko, erabiltzaileek egiten zuten urteko ekarpena.

Datuek erakusten dutenaren arabera, 2019an urteko batez besteko kuota 1.500 eurokoa izan zen erabiltzaile bakoitzeko<sup>14</sup>. 2017. eta 2018. urteen artean, igoera handia izan zuen (% 7,8), 1.387 eurotik 1.495 eurora. Aurretiaz, 2016. eta 2017. urteen artean, % 1,5 egin zuen gora. 2019an,

<sup>14</sup> Kalkuluan erreferentziako zentro guztiak sartu dira, erabiltzaileen kuotarik kobratzen ez dutenak barne.

berriz, egonkortu egin zen, % 0,3 baino ez baitzuen egin gora 2018arekin alderatuta. Biztanleko batez besteko ekarpenik handiena Gipuzkoan izan zen, 1.909 eurokoa; gero, Araban, 1.513 eurokoa, eta, azkenik, Bizkaian, 1.213 eurokoa.

Erabiltzaileek 2019an egin zuten ekarpenik handiena adineko pertsonen eguneko laguntza-zentroetan egin zen berriro, zehazki, 3.981 eurokoa. Zerbitzu horretan agerikoa zen erabiltzaileen batez besteko ekarpenaren goranzko joera aurreko aldietan: 2015-2016 aldian, % 2,2; 2016-2017 aldian, % 8,1 eta 2017-2018 aldian, % 10,1. Baina 2018. eta 2019. urteen artean batez besteko ekarpenak –% 7,7 egin zuen behera 2018ko 4.315 euroko ekarpenarekin alderatuta. Hala ere, 2019an erabiltzaileek urteko egindako batez besteko ekarpena 2018a baino lehen izandako edozein kopurutik gora mantendu zen. Aurretiaz izandako ekarpenik handiena 2017an izan zen, 3.920 eurokoa.

Lurraldeka aztertuta, eguneko laguntza-zentroak mantentzeko, erabiltzaileen batez besteko ekarpenik handiena Arabak izan zuen 2019an: 4.685 euro, Gipuzkoako 4.385 euroen eta Bizkaiko 3.247 euroen gainetik.

**45. taula.**  
**Gizarte-zerbitzuetan egoitzakoak ez diren zentroak. 2016-2019**  
**Urteko batez besteko kuota/erabiltzaileko**

	2016	2017	2018	2019	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE 2018/2019
	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	2019ko batez besteko kuota	2019ko batez besteko kuota	2019ko batez besteko kuota	
<b>Zentro/Zerbitzu mota</b>								
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	2.449	951	1.100	1.496	1.436		1.534	36,0
Eguneko laguntza-zentroak	3.628	3.920	4.315	3.981	4.685	4.385	3.247	-7,7
Jantokiak	1.474	1.407	1.562	1.277	1.295		1.220	-18,2
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	1.404	1.449	1.655	1.676	1.270	76	3.234	1,2
<b>ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA</b>	<b>3.355</b>	<b>3.548</b>	<b>3.775</b>	<b>3.473</b>	<b>3.105</b>	<b>4.276</b>	<b>3.029</b>	<b>-8,0</b>
Eguneko zentroak	1.237	1.727	1.718	1.818	1.126	1.921	1.811	5,8
Suspertze- eta arreta-zentroak	389	277	377	588	592	150	741	55,8
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	22	58	64	96	0	60	151	49,2
Laneratze-zentroak	0	0	0	0		0	0	0,0
<b>DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA</b>	<b>445</b>	<b>567</b>	<b>591</b>	<b>665</b>	<b>188</b>	<b>710</b>	<b>767</b>	<b>12,6</b>
Adingabeentzako/familiarentzako eguneko arreta	0	0	0	0	0	0	0	0,0
<b>ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0,0</b>
Eguneko zentroak	417	104	96	157	0	117	192	63,3
Jantoki sozialak	125	83	76	105	190		30	39,2
<b>BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA</b>	<b>307</b>	<b>96</b>	<b>88</b>	<b>136</b>	<b>137</b>	<b>160</b>	<b>131</b>	<b>54,3</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.367</b>	<b>1.387</b>	<b>1.495</b>	<b>1.500</b>	<b>1.513</b>	<b>1.909</b>	<b>1.213</b>	<b>0,3</b>

Iturria: EOE, BJKPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jarduera erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. Kuota -0- duten zentroak barne dira.

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan, erabiltzaileen urteko batez besteko ekarpena askoz txikiagoa izan zen: 1.818 eurokoa, 2019an. Zenbateko horrek erakusten du ekarpen horiek epe luzean goranzko joera zutela, nahiz eta 2015-2016 aldian behera egin eta 2017-2018 aldian beheranzko norabidean egonkortu (–% 0,5).



Goranzko joera hori sendotu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean, % 5,8ko igoerarekin, 2018ko 1.718 euroko gastuarekin alderatuta.

Lurraldeen ekarpenetan aldeak nabari ziren, berriro, eguneko zentro hauetan. Kasu horretan, Gipuzkoan izan zen ekarpenik handiena, 1921 eurokoa. Bizkaian, 1.811 eurokoa, eta Araba, 1.126 eurokoa.

Adineko pertsonen arretan, erabiltzaileko urteko kuota 1.496 eurokoa izan zen 2019an atsedean eta laguntza emateko zerbitzuetan; 1.277 eurokoa, jantokietan, eta 1.676 eurokoa, egoitzakoak ez diren beste laguntza-zentroetan. 2016-2017 aldian ekarpenak behera egin zuen (egoitzak ez diren beste zentro batzuetan izan ezik), baina, 2017-2018 aldian, ordea, erabiltzaileen ekarpenak igoera handia izan zuen hiru zentro mota horietan, eta % 11,1 eta % 15,6 artean egin zuen gora. 2018. eta 2019. urteen artean, joera hori sendotu egin zen atsedean edo laguntza emateko zerbitzuetan, % 36,0ko igoerarekin. Beste egoitza-zentroetan hazkundea txikiagoa izan zen (% 1,2). Adinekoentzako jantokietan, ordea, 2016-2017 aldiko beheranzko dinamika berreskuratu zen, erabiltzaileen batez besteko ekarpenak -% 18,2 egin baitzuen behera.

Gainerako zerbitzuetan erabiltzaileen ekarpena askoz ere txikiagoa izan zen 2019an. Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen arretaren arloan, eguneko laguntza-zentroak kenduta, urteko ekarpena 588 eurokoa baino ez zen izan suspertze- eta laguntza-zentroetan; 96 eurokoa, eguneko zentroetan eta okupazio-zentroetan, eta ez zen ekarpenik egon laneratze-zentroetan. Bide beretik, bazterketaren arloan, batez besteko ekarpena 157 eurokoa baino ez zen izan eguneko zentroetan, eta 105 eurokoa, jantoki sozialetan.

Hala ere, aipatutako zentro eta zerbitzu guztietan, 2018. eta 2019. urteen artean eten egin zen 2016. eta 2018. urteen artean erabiltzaileen ekarpenak izandako beherakada handien aldia. Zifra oso txikietatik abiatuta bada ere, aipatutako lau zentro eta zerbitzu motetan, 2018. eta 2019. urteen artean ekarpenak % 39,2 eta % 63,3 artean egin zuen gora.

46. taulan jasotzen dira EAEko gizarte-zerbitzuen sistemako egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzuetan abenduaren 15ean lanean ari ziren langile propioei buruzko datu nagusiak.

DOB enpleguaren arabera, egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzu horietan 13,1 langile egon ziren 100 erabiltzaileko 2019an, hau da, kopuru horrek -% 0,9 egin zuen behera 2018ko % 13,2ko balioarekin erkatuta. Beherakada oso txikia izan arren, 2016tik aurrera (13,4 langile) adierazleak izandako beheranzko joera gorabeheratsua sendotu egin zen. Dinamika hori bereziki nabaria izan zen 2016-2017 aldian, -% 4,2 egin baitzuen behera, eta soilik aldatu zen 2017tik 2018ra, % 3,1 gora egin zuenean. Hala ere, aipatutako jaitsiera hori 2018-2019 aldian izandako -% 0,9ko jaitsiera baino nabarmen handiagoa izan zen. 2016-2019 aldiko beheranzko joera hori ez zettorren bat 2013 eta 2015. urteen artean izandako igoerarekin.

Lurraldeka aztertuta, langile propioen tasarik handiena Gipuzkoak izan zuen berriro 2019an: 14,2 DOB langile 100 erabiltzaileko; atzetik zetozen Bizkaia (14,0) eta Araba (9,4).

**46. taula.**  
**Gizarte-zerbitzuetan egoitzakoak ez diren zentroak. 2016-2019**  
**LOB langile propio okupatuak/100 erabiltzaileko**

Zentro/Zerbitzu mota	2016	2017	2018	2019	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE 2018/2019
	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile	Langileak/ erabiltzaileko	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile 2019	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile 2019	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile 2019	
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	3,5	9,3	4,0	10,0	25,8			150,9
Eguneko laguntza-zentroak	10,3	11,0	10,8	11,5	15,8	16,6	4,4	7,0
Jantokiak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0		0,0	
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	9,1	7,0	6,1	9,3	10,7	0,0	14,1	51,9
<b>ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA</b>	<b>9,2</b>	<b>9,7</b>	<b>9,0</b>	<b>9,8</b>	<b>9,5</b>	<b>16,2</b>	<b>4,2</b>	<b>8,4</b>
Eguneko zentroak	26,5	25,2	26,5	26,3	16,9	24,0	29,6	-0,7
Suspertze- eta arreta-zentroak	22,8	24,2	23,5	29,1	16,5	23,0	32,7	24,1
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	15,1	17,1	18,3	12,2	18,5	10,1	11,5	-33,2
Laneratze-zentroak	3,0	3,0	3,3	1,7	1,6	1,2	3,1	-48,0
<b>DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA</b>	<b>17,7</b>	<b>17,5</b>	<b>18,8</b>	<b>16,5</b>	<b>13,2</b>	<b>13,8</b>	<b>19,8</b>	<b>-12,2</b>
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	5,4	5,6	5,0	5,0	3,0	0,0	7,6	-0,8
<b>ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA</b>	<b>5,4</b>	<b>5,6</b>	<b>5,0</b>	<b>5,0</b>	<b>3,0</b>	<b>0,0</b>	<b>7,6</b>	<b>-0,8</b>
Eguneko zentroak	12,7	9,5	10,3	17,7	6,2	11,4	21,2	71,5
Jantoki sozialak	2,6	1,6	1,9	2,3	2,3		2,3	24,3
<b>BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA</b>	<b>8,9</b>	<b>6,3</b>	<b>7,0</b>	<b>11,4</b>	<b>3,4</b>	<b>11,2</b>	<b>14,1</b>	<b>63,4</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>13,4</b>	<b>12,8</b>	<b>13,2</b>	<b>13,1</b>	<b>9,4</b>	<b>14,2</b>	<b>14,0</b>	<b>-0,9</b>

Iturria: EOE, BJGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jarduera erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzat (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

Langile propioen ratorik altuenak desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako arretan izan ziren, eguneko laguntza-zentroetan eta suspertze- eta arreta-zentroetan (26,3 eta 29,1 DOB langile 100 erabiltzaileko). Suspertze- eta arreta-zentroetan, 2018. eta 2019. urteen artean % 24,1 egin zuen gora ratioak, eta 2013tik aurrera izandako epe luzeko goranzko joera berreskuratu zen 100 erabiltzaileko DOB langileen adierazlean. Izan ere, maximoa lortu zen 2019an. Eguneko laguntza-zentroen kasuan, goranzko joera txikiagoa eta gorabeheratsuagoa izan zen. 2016. eta 2019. urteen artean, 100 erabiltzaileko 26,3 eta 26,5 DOB langile arteko ratioan mugitu zen, eta salbuespena 2017ko 25,2ko ratioa izan zen.

Aztertutako bi zentro edo zerbitzu mota horietan, DOB enplegu gehiena Bizkaian izan zen 2019an. Aldeak deigarriagoak izan ziren suspertze- eta arreta-zentroetan: Bizkaian, 32,7 langile 100 erabiltzaileko; Gipuzkoan, 23,0 eta Araban, 16,5. Aldeak nabarmenak izan ziren eguneko laguntza-zentroetan ere: 100 erabiltzaileko 29,6 langile, Bizkaian; 24,0, Gipuzkoan eta 16,9, Araban.

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko zentroetan eta zentro okupazionaletan, DOB enpleguaren adierazleak goranzko joera egonkorra izan zuen 2016. eta 2018. urteen artean, baina joera hori eten egin zen 2018. eta 2019. urteen artean: 100





erabiltzaileko 12,2 langile izan ziren. Kasu horretan, Arabak izan zituen 100 erabiltzaileko DOB langileen ratorik altuenak 2019an: 18,5; Bizkaian, 11,5, eta Gipuzkoan, 10,1<sup>15</sup>.

Aztertutako adierazlea antzekoa izan zen 2019an adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan: 100 erabiltzaileko 11,5 DOB langile. 2016. eta 2017. urteen artean gorakada handia izan ondoren (+% 6,4), 2017. eta 2018. urteen artean -% 1,7 egin zuen behera. Gero, 2018-2019 aldian berreskuratu egin ziren adierazle horren hazkunde-erritmo handiak: % 7,0 egin zuen gora 2018ko 10,8 DOB lanpostuekin alderatuta. Hortaz, halako zentroek 2012tik aurrera izandako langile/erabiltzaile ratorik altuena izan zuten.

2019an, lurraldeen arteko aldeak handiak izan ziren adinekoentzako eguneko zentro mota horretan: 16,6 DOB lanpostu Gipuzkoan; 15,8, Araban, eta 4,4 baino ez Bizkaian.

Adinekoen zaintzaileei atsedeen eta laguntza emateko zerbitzuetan, 10,0 DOB lanpostu izan ziren 2019an 100 erabiltzaileko. Hortaz, 2019an goranzko joera berreskuratu zen adierazle horretan, askoz txikiagoak izan ziren 2013-2016 aldiko eta 2018ko mailekin alderatuta, 100 erabiltzaileko 4,0 langilekoa izan baitzen ratorik altuena. Bilakaera hori Araban oso lotua egon zen zerbitzu horien dinamikarekin.

Adinekoentzako beste egoitza-zentroein dagokienez, 2015tik 2018ra bitartean izandako beherakaden ostean, 2018. eta 2019. urteen artean 100 erabiltzaileko langileen adierazlea 9,3ra iritsi zen.

Antzeko joera izan zuten bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan: 2015-2017 aldian beherakada handiak izan ondoren, 2017-2018 aldian gorakada txiki bat izan zuen 100 erabiltzaileko DOB lanpostuen kopuruak. Joeraren aldaketa hori areagotu egin zen 2018. eta 2019. urteen artean, adierazleak gorakada handia izan baitzuen.

Hala, 2016. eta 2017. urteen artean 12,7tik 9,5era behera egin ondoren, apur bat gora egin zuen 2018an, 10,3ra. Eta, gero, hazkunde handia izan zuen 2019an: 100 erabiltzaileko 17,7 DOB langile, mailarik altuena 2012tik aurrera. Kasu horretan, Bizkaiko 100 erabiltzaileko 21,2 lanpostuko ratioa Gipuzkoako 11,4 langileko eta Arabako 6,2 lanpostuko ratioen gainetik egon zen.

Adingabe eta familientzako eguneko arretan, berriz, 2018. eta 2019. urteen artean sendotu egin zen 2017-2018 aldian izandako beherakada: 100 erabiltzaileko 5,0 DOB langile 2018. eta 2019. urteen artean. 2013-2017 aldian, 5,4 eta 5,8 artekoa izan zen ratioa. Bizkaian, 7,6 langile izan ziren 100 erabiltzaileko halako zerbitzuetan.

Gainerako zerbitzuetan (desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako jantokiak eta laneratze-zentroak), langileen pisua oso txikia izan zen, oro har, 100 erabiltzaileko 1,7-2,3 DOB langile (adineko pertsonentzako jantokietan izan ezik, non DOB langileen kopurua 100 erabiltzaileko ia nulua izan baitzen).

47. taulan, egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzuetako langile propioen batez besteko soldatari buruzko datuak agertzen dira (DOBen arabera neurtuta). Taulan egiaztatu daitekeenez, batez besteko ordainsari hori 40.857 eurokoa izan zen 2019an, 2018ko 38.111 eurokoa baino % 7,2 handiagoa. Igoera hori baino askoz txikiagoa izan zen 2016-2017 aldikoa (% 1,7), eta 2017-2018 aldian -% 2,2 egin zuen behera. Datu guztiak hartuta, mailarik altuena izan zen 2012tik aurrera.

<sup>15</sup> Halako zentroetan, aldaketa handiak izan ziren urtetik urtera, eguneko zentroetan alderdi okupazionalak zuen pisuarekin lotu zitezkeen aldaketak, hain zuzen ere.

2019an, batez besteko ordainsaririk altuenak izan zituzten desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako arreta-zentroek, zehazki eguneko zentroek eta zentro okupazionalak (58.688 euro) eta laneratze-zentroek (45.221 euro). Kasu bietan, ordainsarien maila horiek lotuta zeuden 2018. eta 2019. urteen artean langile propioen soldatak izandako igoera handiarekin (% 24,7, eguneko zentroetan eta okupazioan; % 35,2, laneratze-zentroetan).

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako arreta-zentro horietan ordainsaria handiagoa izan zen Gipuzkoan: eguneko zentro eta zentro okupazioan, Gipuzkoan, 83.926 euro; Araban, berriz, 63.520, eta Bizkaian, 41.839. Besteetan, Gipuzkoan, 58.834 euro; Araban, 38.647, eta Bizkaian, 36.556.

Erabiltzaile gehien zituzten zentroetan, ordainsaria handia izan zen eguneko laguntza-zentroetan ere: 40.383 euro adinekoentzako zentroetan, eta 35.862 euro, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentroetan. 2018. eta 2019. urteen artean, batez besteko ordainsariak – % 1,8 egin zuen behera adinekoentzako arretan, baina % 8,3 egin zuen gora desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentroetan.

Adinekoentzako eguneko zentroetan, ekarpenik handiena Arabak egin zuen (56.726 euro), Gipuzkoako 35.695 euroen eta Bizkaiko 31.322 euroen gainera. Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentroetan, aldiz, batez besteko ordainsaririk handiena Gipuzkoak izan zuen (39.321 euro), Bizkaiko 33.951 euroen eta Arabako 29.847 euroen gainera.

**47. taula.**  
**Gizarte-zerbitzuetan egoitzakoak ez diren zentroak. 2016-2019**  
**Batez besteko ordainsaria/LOB langile**

Zentro/Zerbitzu mota	2016	2017	2018	2019	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE 2018/2019
	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	2019ko batez besteko ordainsaria	2019ko batez besteko ordainsaria	2019ko batez besteko ordainsaria	
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	51.932	53.190	58.748	32.253	32.253			-45,1
Eguneko laguntza-zentroak	38.779	37.776	41.127	40.383	56.726	35.695	31.322	-1,8
Jantokiak								
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	27.421	28.869	28.809	31.319	31.278		31.354	8,7
<b>ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA</b>	<b>38.579</b>	<b>37.684</b>	<b>40.964</b>	<b>39.963</b>	<b>53.985</b>	<b>35.695</b>	<b>31.325</b>	<b>-2,4</b>
Eguneko zentroak	34.460	35.583	33.122	35.862	29.847	39.321	33.951	8,3
Suspertze- eta arreta-zentroak	29.724	32.423	30.702	32.897	75.183	33.436	30.362	7,1
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	48.697	48.225	47.081	58.688	63.520	83.926	41.839	24,7
Laneratze-zentroak	33.437	43.473	33.435	45.221	38.647	58.834	36.556	35,2
<b>DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA</b>	<b>38.581</b>	<b>40.266</b>	<b>38.355</b>	<b>42.565</b>	<b>55.907</b>	<b>50.703</b>	<b>35.193</b>	<b>11,0</b>
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	30.574	29.828	21.428	35.654	29.164		37.143	66,4
<b>ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA</b>	<b>30.574</b>	<b>29.828</b>	<b>21.428</b>	<b>35.654</b>	<b>29.164</b>		<b>37.143</b>	<b>66,4</b>
Eguneko zentroak	36.514	33.784	31.618	35.014	43.374	41.324	33.652	10,7
Jantoki sozialak	37.358	30.621	35.435	34.162	32.636		35.120	-3,6
<b>BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA</b>	<b>36.605</b>	<b>33.453</b>	<b>32.015</b>	<b>34.944</b>	<b>38.066</b>	<b>41.324</b>	<b>33.743</b>	<b>9,1</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>38.315</b>	<b>38.969</b>	<b>38.111</b>	<b>40.857</b>	<b>53.602</b>	<b>44.330</b>	<b>34.622</b>	<b>7,2</b>

Iturria: EOE EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jarduera erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzat (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)



Adinekoentzako eta desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako gainerako zentro eta zerbitzuetan, batez besteko ordainsaria 32.897 eurokoa izan zen desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako suspertze- eta arreta-zentroetan; 32.253 eurokoa, zaintzaileei atsedean eta laguntza emateko zerbitzuetan, eta 31.319 eurokoa, adinekoentzako egoitzakoak ez diren gainerako zentroetan. 2018. eta 2019. urteen artean, hazkunde handiak izan zituzten langile propioen ordainsariak adinekoentzako egoitzakoak ez diren beste zentroetan (% 8,7) eta desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako suspertze- eta arreta-zentroetan (% 7,1); zaintzaileei atsedean eta laguntza emateko zerbitzuetan, berriz, behera egin zuen<sup>16</sup>.

Adingabe eta familiei edo bazterketa-egoeran dauden pertsonari arreta emateko egoitzakoak ez diren zerbitzuetan, DOB langileko ordainsaria 35.654 eurokoa izan zen eguneko zentroetan, adingabe edo familientzako eguneko arretan; 35.014 eurokoa, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan, eta 34.162 eurokoa, pertsona horientzako jantoki sozialetan. Jantoki sozialetan izan ezik, non ordainsariak -% 3,6 egin baitzuen behera, 2018. eta 2019. urteen artean gora egin zuen adingabe/familientzako eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gainerako zerbitzuetan.

Lurraldeka aztertuta, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan, Araban izan zuten soldatarik handiena, 43.374 eurokoa, Gipuzkoako eta Bizkaiko soldaten gainetik (41.324 eta 33.652 euro, hurrenez hurren). Gainerako zentroetan, batez besteko ordainsaririk handiena Bizkaian izan zen (37.143 euro, adingabe eta familientzako eguneko arretan, eta 35.120, jantoki sozialetan).

Edonola ere, ikuspegi orokorrago batetik aztertuta, 2018-2019 aldiko ezaugarri nagusia izan zen egoitzakoak ez diren gizarte-zerbitzuetako langile propioei zegokien DOB soldatak gora egin zuela, halako zentro eta zerbitzuek izan ohi zuten % 7,2ko igoeraren antzeko kopuruetan edo handiagoetan. Adinekoen zaintzaileei atsedean eta laguntza emateko zerbitzuek eta bazterketa-egoeran daudenentzako jantokiez gainera, 2018. eta 2019. urteen artean, salbuespen garrantzitsuena izan zen adinekoentzako eguneko laguntza-zentroetan langile propioen batez besteko ordainsariak izan zuen -% 1,8ko murrizketa.

---

<sup>16</sup> Hala ere, langile propioen ordainsariak zerbitzu horietan izandako bariazioak handiak izan daitezke egoitza-zentroein lotuta egon ohi diren zerbitzu hauek dituzten lekuen kopuruaren bariazioaren arabera.





## KONTZEPTUEN ETA DEFINIZIOEN ERANSKINA

### ALDERDI OROKORRAK

#### *Gizarte-zerbitzuak eta prestazio sozialak*

##### *Gizarte-zerbitzuak (erdigunea)*

Gizarte-zerbitzuen erdiguneak hauek hartzen ditu:

- a) Gizarte-zerbitzuen egitura orokorreko zerbitzuak, edo gizarte-zerbitzuen arloan eskumenak dituzten erakunde publikoetako zerbitzu nagusiak.
- b) Gizarte-zerbitzuen egitura espezifikoko zerbitzuak: oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-urgentzietako zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuetako zerbitzu tekniko espezializatuak.
- c) Egoitzako edo egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzu guztiak, honako kolektibo hauei gizarte-arreta ematera bideratuta daudenak: adineko pertsonak, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonak, adingabeak, gazteak eta familiak, arrisku-egoeran dauden emakumeak (genero-indarkeria, tratu txarrak edo beste gizarte-arazo batzuk direla eta), eta bazterkeria-egoeran dauden beste pertsona batzuk.
- d) Mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen zuzenduriko arreta-programa espezializatuak: etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileentzako laguntza.
- e) Familiei eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei arreta emateko programa espezializatuak: genero-indarkeria edo tratu txarren arazoak dituzten pertsonen arreta emateko zerbitzuak (SATEVI Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzua barne), familientzako harrera, adopzioa eta familian esku hatzeko programa guztiak (familian esku hartzeko programak, haur eta nerabeentzako gizarte-informazioaren telefonoa, familia-bitartekaritza eta Familia Topaguneak).
- f) Mendekotasun-kasuetarako prestazio ekonomikoak.
- g) Gizarte-zerbitzuen erdiguneko beste prestazio espezializatu batzuk, genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten pertsonentzako prestazio ekonomikoak barne.

Gizarte-zerbitzuen erdigunearen kontzeptu hori bat etorri ohi da praktikan gizarte-zerbitzuen zorroaren egitura osoarekin, nahiz eta modu absolutuan hala izan beharrik ez dagoen. Ildo horretatik, ez da ahaztu behar txosten honetan erabilitako kontzeptua estatistikoa dela, eta, ondorioz, denboran irauteko xedea duela. Funtsean zorroaren egituratik eratortzen den kontzeptu politiko-administratiboarekin bat badator ere, egitura honen definizioa izaera estatistikoa ez duten eta denboran gehiago alda daitezkeen erabakien mende dago.

Txosten honetan eta honi lotutako agiri estatistikoetan erabiltzen den gizarte-zerbitzuen kontzeptu estatistikoa gizarte-zerbitzuen erdigunearen baliokidea da.

### *Gizarte-prestazioak*

Gizarte-prestazioek gizarte-zerbitzuek kudeatzen dituzten prestazio ekonomiko guztiak hartzen dituzte barne, baita beste zerbitzu batzuek kudeatzen dituzten arren Gizarte Laguntzaren eratze-eta estatutu-kontzeptuaren barruan sar daitezkeen jarduketan berezko elementuren bat duten prestazioak ere. Kanpo gelditzen dira gizarte-zerbitzuen erdigunearen barruan kokatzen diren prestazioak (mendekotasun-prestazioak eta tratu txarren edo genero-indarkeriaren biktimetzako prestazio ekonomikoak), GLLak salbu.

Honako prestazio hauek hartu dira aintzat::

- a) Estatuko lege orokorretan zehazten diren baina Euskadin kudeatzen diren prestazio ekonomikoak: LISMI (Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko Legea) prestazioak eta kotizatu gabeko prestazioak (KGP). Oso antzekoak direnez, kotizatu gabeko prestazioetan Gizarte Ongizateko Funtseko pentsioak ere sartu dira.
- b) Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren prestazioak: Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE), Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL).
- c) Familiei laguntzeko familia-prestazioak: familia eta seme-alabentzako prestazio ekonomikoak, eta laneko eta familiako bizitza uztartzeko prestazioak.
- d) Beste prestazio ekonomiko batzuk, orain arte adierazi ez diren gizarte-urgentzia eta -larrialdien arloko gainerako laguntzak barne.

Aztertutako prestazioek, funtsean, adierazitako prestazio publikoak barne hartzen badituzte ere, erakunde pribatuek kudeatzen dituzten era horretako prestazioak ere sartu dira.

### **Zentroa edo zerbitzua**

Kokapen independente eta identifikagarria duen unitatea, azpiegitura materiala duena; bertan gizarte-ekintzaren esparruan artatzen den biztanleriaren sektore edo azpisektore bati edo gehiagori arreta emateko jarduketak gauzatzen dira.

### **Artatutako biztanleria mota. Hurbilketa orokorra**

Oro har, zentroak eta zerbitzuak artatzen duten kolektibo nagusiaren arabera sailkatzen dira, honako irizpide hau oinarri hartuta:

#### *Adinekoak*

Erretiroa hartzeko adina gainditu duten pertsonentzako zentroak. Adin hori izan ez arren antzeko profilak dituzten pertsonak ere artatzen dituzte, argi eta garbi lan-merkatutik kanpo gelditu direlako edo zahartzearen ondorioz euren gaitasun psikiko eta fisikoak murriztu egin direlako.

#### *Desgaituak/gaixoak*

Zahartzearekin zerikusirik ez duen gutxitasun edo desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorial baten edo antzeko ondorioak izan ditzakeen gaixotasun kroniko baten ondorioz gizarteratzeko aukera murriztuak dituzten pertsonen zuzendutako zentroak, batez ere buruko gaixotasunen esparruan.

Gaixotasun/desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroez eta egoitzakoak ez diren zentroez gain, esparru honetan sartzen dira pertsona heldu ezinduen tutoretza-zerbitzua eta Tutoretza Fundazioak, baita arreta goiztiarreko esku-hartze sozialaren zerbitzua ere.



### *Adingabeak/gazteak/familiak*

18 urtetik behera dituzten eta beharrizan-egoeran dauden, familia-bizitza egoki edo arduratsurik ez duten, helduengandik jokabide gatazkatsuak jasan dituzten eta familia-giro desegokietan agertzen diren beste arazo batzuk pairatzen dituzten gazteentzako zentroak. Hemen sartzen dira familia osoari arreta eskaintzen dieten zentroak.

Haur, gazte eta familientzako egoitza-zentroez eta egoitzakoak ez diren zentroez gain, arreta honetan sartu dira Familia Topaguneak, familientzako bitartekaritza-zerbitzuak eta haur eta gazteentzako gizarte-informaziorako telefonoa.

### *Emakumeak*

Beharrizan-egoeran dauden emakumeei zuzenduriko zentroak, batez ere egoera are gehiago larriagotzen duten baldintzak dituzten emakumeei zuzendurikoak, besteak beste familia-kargak dituzten eta bakarrik dauden emakumeak eta genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten emakumeak.

### *Baztertuak*

Bazterkeria-egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen zuzenduriko zentroak. Pertsona horiek pixkanaka sustraiak eta loturak apurtu dituzte, eta, ondorioz, norbanakoaren dimentsio sozial eta pertsonala eratzen duten elementuak galdu dituzte. Honako hauek artatzen dituzte era honetako zerbitzuek: iragaitzako bidaiariak, kartzelan dauden edo egon diren pertsonak, alkoholak edo drogek eragindako gizarte-arazoak dituzten pertsonak, gutxiengo etnikoetako kideak direla-eta gizarteratzeko arazoak dituzten pertsonak eta bazterkeria-egoeran egoteko arriskua duten beste talde batzuk.

Adierazitako sailkapena zentro eta zerbitzu espezializatuei aplikatzen zaie. Biztanleria osoari zuzenduriko jarduketak, besteak beste gizarte-zerbitzuen egitura orokorrari edo espezifikoiari dagozkionak, ez dira irizpide horien arabera ordenatzen.

### ***Artatutako biztanleria mota. Mendekotasuna babestea***

Zenbait kasutan, batez ere gastuari eta finantzaketari loturiko alderdiei dagokienez, mendekotasunari, adineko pertsonen arretari eta gaixotasun nahiz desgaitasun bat duten pertsonen arretari dagozkien arazoak elkarrekin lantzen dira. Kasu horretan, honako zentro, zerbitzu edo programa hauek sartzen dira:

- a) Adinekoentzako zentroak eta zerbitzuak.
- b) Desgaitasun/gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentroak eta zerbitzuak.
- c) Mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen zuzenduriko arreta-programa espezializatuak: etxeke laguntza, telelaguntza eta zaintzaileentzako laguntza.
- d) Mendekotasun-kasuetarako prestazio ekonomikoak.

## **Artatutako biztanleria mota. Haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babestea**

Zenbait kasutan, batez ere gastuari eta finantzaketari loturiko alderdiei dagokienez, haurrak, nerabe eta gazteak, familiak eta emakumeak babestetik eratorritako arazoak elkarrekin lantzen dira. Kasu horretan, honako zentro, zerbitzu edo programa hauek sartzen dira:

- a) Haur, gazte, familia eta emakumeei zuzenduriko zentroak eta zerbitzuak.
- b) Genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten pertsonak artatzeko programak, harrera- eta adopzio-programak eta familian esku hartzeko beste jarduketa batzuk.
- c) Genero-indarkeria edo tratu txarren biktimentzako prestazio ekonomikoa.

## **Egoitza-zentro eta -zerbitzuak**

Zentro hauetan etengabeko arreta eta laguntza integrala eskaintzen da, egoitza- eta mantenu-zerbitzuen bidez, baita beste zerbitzu batzuen bidez ere.

Talde honetan sartzen dira egoitza-zerbitzua eskaintzen duten zentro hauek guztiak: harrera- eta urgentzia-zentroak, egoitzak, etxebizitza komunitarioak, apartamentuak, ostatuak, gaueko zentroak, neguko zentroak, suspertze-zentroak barnetegi-erregimenean, etxe funtzionalak, eta atsedena- eta babes-zerbitzuak.

Artatzen diren pertsonen arabera, egoitza-zentroak honako talde edo azpitalde hauetan bana daitezke:

### **Adinekoak**

#### **Egoitza-zentroak**

Honako egoitza-zentro mota hauek hartzen ditu barne, hala egonaldi labur nola luzeetarako, adineko pertsona guztientzat:

Egoitza-zentroak, zentzurik zurrunean. Egoitza-zerbitzuak

Tutoretzapeko apartamentuak

Etxebizitza komunitarioak

Bestelako egoitza-zentro eta -zerbitzuak

#### **Atsedena- eta babes-zerbitzuak**

Batez ere egoitza-izaera duten aldi baterako zerbitzuak eskaintzen dituzten plazak hartzen dituzte barne, adineko pertsonak zaintzen dituztenei atsedena eta babesa eskaintzeko.





### *Desgaituak/gaixoak:*

#### Egoitza-zentroak

Honako egoitza-zentro mota hauek hartzen ditu barne, hala egonaldi labur nola luzeetarako, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsona guztientzat:

Egoitza-zentroak, zentzurik zurrunenean. Egoitza-zerbitzuak

Tutoretzapeko apartamentuak

Egonaldi laburretarako pisuak eta zentroak

#### Atsedena- eta babes-zerbitzuak

Batez ere egoitza-izaera duten aldi baterako zerbitzuak eskaintzen dituzten plazak hartzen dituzte barne, desgaitasunen edo gaixotasunen bat duten pertsonak zaintzen dituztenei atsedena eta babesa eskaintzeko.

### *Adingabeak/familiak*

#### Egoitza-zentroak

Adingabeentzako eta babesgabetasun-egoeran dauden gazteentzako egoitza-zentro hauek hartzen ditu barne, baita legea haustearen ondorioz kontrolpean dauden adingabeentzako egoitza-zentro hauek ere:

Adingabe edo gazteentzako zentroak:

Babesgabetasun-egoeran dauden adingabe edo gazteentzako egoitza-zentroak.

Jokabide-arazoak dituzten edo legea hautsi duten adingabe eta gazteentzako zentroak.

Gazteentzako bestelako egoitza-zentroak.

Urgentzietako egoitza-zerbitzuak eta familiei zuzendurikoak ere hemen sartzen dira.

### *Emakumeak*

Egonaldi labur eta luzeetarako egoitza- eta etxebizitza-zerbitzuak hartzen ditu barne, baita beharizan-egoeran dauden emakumeentzako, familia-kargak dituzten emakumeentzako eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako urgentziako harrera-zentroak ere.

Emakumeentzako etxebizitzak eta egoitza-zentroak (genero-indarkeriaren biktima ez direnentzat).

Gizarte-beharizan egoeran dauden, familia-kargak eduki eta bakarrik dauden, prostituzioari loturiko arazoak dituzten edo antzeko gizarte-arazoak dituzten emakumeentzako etxebizitza-zerbitzuak eta egoitza-zentroak (egoitzak, pisuak, harrera-zentroak eta epe laburrerako etxebizitzak) hartzen ditu barne.

Emakumeentzako etxebizitzak eta egoitza-zentroak (genero-indarkeriaren biktima direnentzat).

Genero-indarkeriaren edo tratatu txarren biktima izan diren emakumeentzako etxebizitza-zerbitzuak eta egoitza-zentroak (egoitzak, pisuak, harrera-zentroak eta epe laburrerako etxebizitzak) hartzen ditu barne.

### *Baztertuak*

Epe labur nahiz luzerako egoitza-zerbitzuak eta etxebizitzak hartzen ditu barne.

Etxebizitzak eta egoitza-zentroak.

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako honako egoitza-zentro hauek (egoitzak, pisuak, harrera-zentroak eta egonaldi laburretarako zentroak) hartzen ditu barne:

Preso dauden edo egon diren pertsonentzako etxebizitzak.

GIB duten pertsonentzako etxebizitzak.

Mendekotasun-arazoak dituzten eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitzak, tutoretzapeko pisuak eta komunitate terapeutikoak.

Bestelako bazterkeria-egoeretan dauden pertsonentzako egoitzak eta tutoretzapeko pisuak.

Bestelako bazterkeria-egoeretan dauden pertsonentzako harrera-zentroak, harrera-pisuak eta urgentzia-zentroak.

Etorkinentzako etxebizitzak.

Gaueko harrera-zentroak.

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera eskaintzen duten honako egoitza-zentro hauek (ostatuak, pisuak, harrera-zentroak eta egonaldi laburretarako zentroak) hartzen ditu barne:

Bestelako bazterkeria-egoeretan dauden pertsonentzako ostatuak.

Adikzioak dituzten pertsonentzako gaueko zentroak.

Bestelako bazterkeria-egoeraren batean dauden pertsonentzako gaueko zentroak, etorkinentzat barne.

Neguko zentroak.

Atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapen garrantzitsua

Atsedeen- eta babes-zerbitzuei dagokienez, beharrezkoa da adieraztea atsedeen-zerbitzu gehienak egoitza-arretaren sare orokorraren bidez eskaintzen direla, bai adineko pertsonen kasuan, bai desgaitasunen/gaixotasunen bat duten pertsonen kasuan. Hori dela eta, datuek ez dute atsedeen- eta babes-zerbitzuen eskaintza osoa islatzen, baizik eta soilik zerbitzu horretan berezitzen diren zentroyen datuak.

### ***Eguneko arretarako zentro eta zerbitzuak (egoitzakoak ez direnak)***

Zentro hauek eguneko arreta espezializatua eskaintzen diete gizarte-beharrizanak dituzten pertsoneri. Talde honetan sartzen dira eguneko arreta eskaintzen duten zentro hauek guztiak: eguneko laguntza-zentroak, jantokiak, suspertze- eta arreta-zentroak, zentro okupazionalak, gizarteratze- eta laneratze-zentroak eta atsedeen- eta babes-zerbitzuak.

Artatzen diren pertsonen arabera, egoitza-zentroak honako talde edo azpitalde hauetan bana daitezke:



### *Adinekoak*

Egoitza-zentroek, eguneko laguntza-zentroek, atseden- eta babes-zentroek eta jantokiak eskaintzen dituzten eguneko arreta-plazak hartzen dituzte barne.

#### Egoitza-zentroak

Adinekoentzako egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

#### Atsedен- eta babes-zerbitzuak

Adineko pertsonak zaintzen dituzten pertsonak atsedен hartzeko eta haiei babes emateko egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

#### Eguneko laguntza-zentroak

Egunean zehar adineko pertsonak artatzea xede duten zentroak hartzen dituzte barne.

#### Jantokiak

Adinekoentzako jantoki sozialak hartzen dituzte barne.

#### Egoitzakoak ez diren zentroak

Adinekoentzako gainerako laguntza-zentro guztiak hartzen dituzte barne.

### *Desgaituak/gaixoak:*

Egoitza-zentroek, eguneko laguntza-zentroek, atsedен- eta babes-zentroek, zentro okupazionalak, eta suspertze- eta arreta-zentroek eskaintzen dituzten eguneko arreta-plazak hartzen dituzte barne.

#### Egoitza-zentroak

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

#### Atsedен- eta babes-zerbitzua

Desgaitasunen edo gaixotasunen bat duten pertsonak zaintzen dituzten pertsonak atsedен hartzeko eta haiei babes emateko egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

#### Eguneko laguntza-zentroak

Desgaitasunen edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonak egunean zehar artatzea xede duten zentroak hartzen dituzte barne (laguntza-helburuekin).

#### Suspertze- eta arreta-zentroak

Desgaitasunen edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonak egunean zehar artatzea xede duten zentroak hartzen dituzte barne (suspertzeko eta arreta berezia emateko helburuekin).

#### Eguneko zentroak eta zentro okupazionalak

Aurreko kategorietan sartzen ez diren eguneko zentroak hartzen ditu barne, egoitza-egiturekin loturarik ez duten eguneko atsedeen-zentroak eta desgaitasunen edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentro okupazionalak barne. Zentro mistoen kasuan (okupazionalak eta enpleguan berezitzen diren zentroak), gizarte-zerbitzuen testuingurua aztertzerakoan, izaera okupazionala duten eta egoitzakoak ez diren plazak bakarrik hartu dira kontuan.

#### Laneratze-zentroak

Desgaitasunen edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonentzako gizarteratze- eta laneratze- zentroak hartzen dituzte barne, zentro okupazionalak izan ezik.

#### *Adingabeak/familiak*

Egoitza-zentroek eta eguneko zentroek eskaintzen dituzten eguneko arreta-plazak hartzen dituzte barne.

#### Adingabe/familien egoitza-zentroak

Babesgabetasun-egoeran dauden adingabe, gazte eta familientzako egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

#### Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta

Babesgabetasun-egoeran dauden adingabe, gazte eta familientzako eguneko zentroak hartzen dituzte barne.

#### *Baztertuak*

Etxebizitzek, egoitza-zentroek, eguneko zentroek, zentro okupazionalak, gizarteratze- eta laneratze- zentroek eta jantoki sozialek eskaintzen dituzten arreta-plazak hartzen dituzte barne.

#### Etxebizitzak eta egoitza-zentroak

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

#### Eguneko zentroak

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentro guztiak hartzen ditu barne, eguneko laguntza- zentroak eta zentro okupazionalak barne.

#### Jantoki sozialak

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako jantoki sozialak hartzen dituzte barne.

#### ***Erabiltzaileak***

Erabiltzaileak dira erreferentziako egunean (abendua 15) zentroak eskaintzen dituen prestazioak eta zerbitzuak zuzenean jasotzen ari ziren pertsonak.



## SISTEMAK ESKAINTZEN DITUEN PLAZEI BURUZKO ALDERDIAK

### *Plazak*

#### *Egoitzakoak*

Estatistikan aztertzen den urteko abenduaren 31n erabilgarri zegoen ohe kopurua, horiek okupatuta egon hala ez. Harrera-zentroetan, egoitza-zentroetan eta egoitzako suspertze-zentroetan biltzen dira.

#### *Egoitzakoak ez direnak*

Egoitzakoak ez diren zentroetan dagoen plaza kopurua, edo egoitzakoak ez diren zentroetan egoitzakoak ez diren zerbitzuak emateko erabiltzen direnak.

#### Plazei buruzko zehaztapena

Plazen banaketa artatutako biztanleria motaren arabera aztertzen dugunean, kontuan hartu beharra dago kasu batzuetan arreta mistoa izan daitekeela, hau da, biztanleria talde bati baino gehiagori zuzen dakiokoela. Arreta mistoa eskaintzen duten zentroetan, baina, artatutako biztanleriari buruzko informazioa ez da xehatuta agertzen; izan ere, GZEZEren inkestan biztanleria mota bat baino ezin da adierazi. Hori esanguratsua da adineko pertsonentzako egoitza-plazen kasuan; izan ere, arreta-sare horretan askotan desgaitasun/gaixotasunen bat duten pertsonentzako plazak ere egon ohi dira. Hala ere, plaza horiek adinekoentzako plaza gisa sailkatzen dira, zentro horien xede nagusia adinekoei zerbitzua ematea baita.

### *Plazen titulartasuna*

Egoitzako plazak eta egoitzakoak ez direnak sektore publikoak duen inplikazioaren arabera bereizten dira, bai titulartasunari dagokionez, bai finantzaketari dagokionez. Hona hemen aztertu diren kategoriak:

#### *Publikoak*

Administrazio publikoen (Europako administrazioa, Estatuko administrazio orokorra eta Gizarte Segurantza, Erkidegoko administrazioa, foru-administrazioa, udal-administrazioak eta mankomunitateak) titulartasunpeko zentroei dagozkien plazak.

#### *Itunpekoak*

Titulartasun publikoa ez duten baina zati batean edo osorik sektore publikoak finantzatzen dituen zentroetako plazak.

#### Bazterkeriaren esparruko itunpeko plazei buruzko zehaztapen garrantzitsua:

Itunpeko plaza hauei dagokienez, gogoan hartu beharra dago bazterkeriaren arretaren esparruan interpretazio-arazoak daudela itunpeko plazak zein diren zehazteko. Hori horrela da esparru honetan Administrazioek ez dituztelako itunpeko plazak aipatzen, baizik eta hitzarmenak; horren ondorioz, datuak biltzerakoan, elkarrizketari batzuek itunpeko plazak aipatu dituzte, baina beste batzuek ez (pribatuak). Hasiera batean, emandako datuek elkarrizketari horiek emandako informazio zuzena dute oinarri.

Hala ere, beharrezkoa da adieraztea bazterkeriaren esparruan jokabide horrek gutxietsi egiten duela ekintza publikoaren benetako pisua. Ildo horretatik, erakunde edo elkarte pribatuek bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden biztanleei eskaintzen dizkieten arreta-baliabide asko % 100ean finantzatuta daude, eta administrazioa da erabiltzailea sare horretan sartu behar dela erabakitzen duena (hala ere, batzuetan egoera mistoak egoten dira, eta erakundeek ere erabiltzaileak sarean sartzeari buruzko erabakiak hartzen dituzte). Kasu horietan, pribatu gisa sailkatutako plaza ugari egiatan itunpeko plazatzat har daitezke.

Ondorioz, beharrezkoa da egoera hori kontuan hartzea itunpeko jarduketak bazterkeriaren arretaren esparruan duen benetako eragina aztertzerakoan.

### *Pribatuak*

Sektore pribatuak oso-osorik finantzatzen dituen plazak (irabazi-asmorik gabeko jardueraren esparrua, elkarteak, elkarteen federazioak, fundazio pribatuak, ongintzako establezimenduak eta irabazi-asmorik gabeko gainerako erakundeak; guztiz pribatua den esparruan, berriz, pertsona fisikoak, sozietate anonimoak, sozietate mugatuak, lan-sozietate anonimoak, ondasun-erkidegoak, kooperatibak eta esparru honetan sar daitezkeen gainerako erakundeak).

## **GASTUARI BURUZKO ALDERDIAK**

### *Gastu arrunta*

Operazio arruntetara bideratutako gastua da. Informazioa eurotan eman da, berariaz bestela adierazitako kasuetan izan ezik. Hurbilketak erreferentzia egiten dio aztertutako urteko aldiari dagokion gastu nominalari, salbu eta beste erreferentzia bat zehazten denean (esate baterako, urte zehatz bati dagokion balio baliokidearen bitartez zenbatetsitako gastu arrunta, Eustatek ezarritako inflazioaren bariazioa kontuan hartuta).

Gastu arruntak honako kontzeptu hauek hartzen ditu barne:

#### *Erosketak*

Kapitala areagotzea ez dakarten ondasun arrunten gastuak, horien iraupena urtebete baino gutxiagokoa bada, ezin badira inbentarioan sartu eta errepikatu egiten badira.

#### *Kanpoko zerbitzuak*

Konponketa eta kontserbazioari loturiko gastuak, profesional independenteen zerbitzuak, hornidurak, garraioak, aseguruen sariak, banku-zerbitzuak eta abar.

#### *Langileen gastuak*

Soldatak eta ordainsariak, Gizarte Segurantza eta langileen beste gastu batzuk.

#### *Beste batzuk*

Zergak, finantza-gastuak, amortizaziorako zuzkidurak, izangaien bariazioak, higiezinek eragindako galerak eta ezohiko gastuak.

#### *Familiei egindako transferentziak*

Kontrapartidarik gabeko eragiketa arruntak finantzatzea xede duten kredituak, pertsona fisikoei emanak, beharizan-egoerak konpontzera bideratutako programen bitartez.

#### *Emitza*

Eustatek ezarritako metodologiaren arabera, gastu arruntak aztertutako zentro edo zerbitzuak erreferentziako urtean izandako emitza ere barne hartzen du, defizit edo superabit terminoetan.



Erakunde publikoen edo zerbitzu publiko orokorren kasuan, arreta zehatz bati lotuta ez daudenean, defizit edo superabit hori gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean integratuta dauden zentro eta zerbitzuei esleitzen zaie. Hori dela eta, Egitura eta Emaidza Orokorra epigrafearen azpian ageri da, batez ere finantzaketari buruzko atalean. Hurbilketa horrek azaltzen du, bestalde, diru-sarreraren dinamikak baldintzatutako urteen arteko zenbait alditan gorabehera handiak egotea egitura orokorrari dagokion gastuan.

### **Gastu arruntaren adierazleak**

Hauek dira gastu arruntaren adierazleak:

*Gastuaren ehunekoa BPGd-aren gainean*

Ehuneko horrek gastu arrunta irudikatzen du, Eustatek aztertu den lurralde-esparrurako zenbatetsitako BPGd-aren gainean. Ehuneko hori aldatu egin daiteke eragiketa batetik bestera, Eustatek aldi-aldi egiten dituen balioa eguneratzeko prozesuen mende baitago.

*Gastua biztanleko*

Kontuan hartutako gastu arrunta, zati Eustatek aztertu den lurralde-esparrurako ezarritako biztanleria.

Adierazle horiek urteka kalkulatzen dira.

## **FINANTZAKETARI BURUZKO ALDERDIAK**

### *Finantzaketa: administrazio-jatorria*

Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-prestazioen gastuaren finantzaketak, finantzaketa horren administrazio-jatorriaren arabera, honako administrazio hauek hartzen ditu aintzat:

*Erkidegoz gaindikoa*

Europako Administrazioaren, Estatuko Administrazio Orokorren eta Gizarte Segurantzaren finantza-ekarpenak hartzen ditu barne.

*Erkidegokoa*

Erkidegoko Administrazioaren finantza-ekarpenak hartzen ditu barne.

*Foru Aldundikoa*

Foru Administrazioaren finantza-ekarpenak hartzen ditu barne.

*Udalekoa*

Udal Administrazioaren finantza-ekarpenak hartzen ditu barne, baita Mankomunitateenak ere.

*Pribatua*

Erakundeek nahiz pertsonak egindako finantza-ekarpen pribatuak hartzen ditu barne, bereziki zentro, zerbitzu eta programetako erabiltzaileek egiten dituztenak.

## **Finantzaketa: izaera**

Gizarte-zerbitzu eta gizarte-prestazioen arloko gastuen finantzaketak honako partida hauek hartzen ditu kontuan, diru-sarreraren izaeraren arabera:

### *Salmentak*

Salmentek zentroa, zerbitzua edo programa ez beste iturri pribatu batzuetatik datozen diru-sarrerak biltzen dituzte, bukatutako produktuen salmentatik eratorritakoak.

### *Erabiltzaileen ekarpenak (prestazioak)*

Prestazioek familiek egindako ekarpenetatik eratorritako diru-sarrerak biltzen dituzte; ekarpen horren truke, zentroak zenbait zerbitzu eskaintzen dizkie (erabiltzaileen kuotak eta erabiltzaileei dagozkien beste diru-sarrera batzuk).

### *Diru-sarrera sozialak*

Diru-sarrera sozialak familiengandik datoz, erabiltzaileen ekarpenak ez beste kontzeptu batzuegatik. Diru-biltzeak, partikularren emaitzak eta bazkide ongileen ekarpenak hartzen ditu barne.

### *Dirulaguntzak eta hitzarmenak*

Dirulaguntzak onuradunak trukean ezer emateko beharrik gabe esleitzen diren ekarpenak dira; horien helburua da gutxieneko errentagarritasuna bermatzea edo ustiaketaren defizita konpentsatzea.

Itunek sinatutako hitzarmenetatik eratorritako diru-sarrerak hartzen dituzte barne. Oro har, hitzarmenak Administrazioarekin sinatzen dira, itunpeko erakunde edo zentroak zerbitzuren bat ematearen truke.

### *Erakundeari egindako ekarpenak*

Beste bide batzuetatik estaltzen ez den defizita konpentsatzera bideratutako ekarpenak biltzen ditu. Administrazio publikoaren mendeko zentroetan, ekarpen hori aurrekontuaren bidez egiten da, oro har.

### *Diru-sarrera finantzarioak*

Zentro, zerbitzu eta programen diru-sarrera finantzarioak hartzen ditu barne.

### *Beste diru-sarrera batzuk*

Aurreko kontzeptuetan sartu ez diren diru-sarrerak hartzen ditu barne, besteak beste alokairuetatik, higiezinek sortutako irabazietatik edo ezohiko diru-sarreretatik datozenak.

## **Finantzaketa-adierazleak**

### *Erabiltzaileen parte-hartzea finantzaketan*

EHuneko honek erabiltzaileek zentro edo zerbitzuaren finantzaketa osoari egin dioten ekarpena irudikatzen du. Kuotak eta erabiltzaileek egindako gainerako ekarpenak hartzen dira barne.





## LANGILEEI BURUZKO ALDERDIAK

### *Langile motak, zentroarekin duten loturaren arabera*

Zentroarekin duten loturaren arabera, langileak era honetan sailkatuta daude:

#### *Berezko langileak*

Berezko langileak dira enpresarekin duten kontratu-harremana gorabehera erreferentziako aldian lan bat egin dutenak, lan hori diru bidezko ordainsariaren bitartez ordainduta edo ordainsaririk jaso gabe.

Ondorio horietarako, GZEZEK erreferentziako urteko abenduaren 15ean zegoen egoerari buruzko informazioa eman du, baina baita urteko batez besteko langileei buruzko informazioa ere.

Langileen kategoria horrek ez ditu azpikontratatuak langileak barne hartzen.

#### *Azpikontratatuak langileak*

Langileen kategoria honetan beste enpresa baten mende dauden eta beste enpresa horrengandik ordainsaria eskuratzen duten langileak sartzen dira, baita erabiltzaileei zerbitzua zuzenean ematen dieten langileak ere (arreta zuzenerako langile azpikontratatuak).

Kasu honetan, GZEZEK ematen duen informazioak urteko langile kopuru osoari egiten dio erreferentzia.

#### *Langile boluntarioak*

Langile boluntarioak euren erabakiz denbora tarte bat laguntza-lanak egiteko erabiltzen duten pertsonak dira, lan horren truke kontratu-harreman baten bitartez kontraprestaziorik edo ordainsaririk jaso gabe. Hala, ordaindu gabeko borondatezko lankidetzak da.

Azpikontratatuak langileen kasuan bezalaxe, GZEZEK ematen duen informazioak urteko langile kopuru osoari egiten dio erreferentzia.

### *Langileak, kualifikazioaren arabera*

GZEZEren arabera, abenduaren 15ean, berezko langileak honako irizpide hauen arabera sailkatzen ziren:

#### *Administrazioa eta orokorrak*

Bi langile mota hauek hartzen ditu barne:

- a) Zuzendaritzako eta administrazioko langileak: zuzendaritza eta kudeaketa, administrazioko langile teknikoak, administrazio-langileak eta laguntzaileak.
- b) Gainerako langile orokorrak (zerbitzuko langileak): langile urgazleak eta mantentze-lanetakoak, ostalaritza-sukaldekoak, garbiketakoak eta beste zerbitzu orokor batzuk ematen dituztenak.

### *Gizarte-lana*

Gizarte-lanean aritzen diren teknikariak hartzen ditu barne.

*Hezitzaileak, langile sanitarioak eta beste langile espezializatu batzuk*

Langile mota hauek hartzen ditu barne:

- a) Hezitzaileak: gizarte-hezitzaileak eta irakasleak, baita psikologian edo pedagogian adituak diren langileak ere.
- b) Langile sanitarioak: medikuak, erizainak edo fisioterapeutak, terapia okupazionalan jarduten dutenak eta droga-mendekotasunak prebenitzeko lanetan aritzen diren teknikariak.
- c) Beste teknikari batzuk: gizarte- eta kultura-animazioan adituak diren langileak.

### *Zaintzako langile laguntzaileak*

Bi langile mota hauek hartzen ditu barne:

- a) Klinikako eta geriatriako laguntzaileak.
- b) Zerbitzu pertsonalak ematen dituzten langileak (zaintzak, etxeko laguntza eta abar).

### *Monitoreak, langilezainak eta tailerreko buruak*

Monitoreak, langilezainak eta tailerreko buruak hartzen ditu barne.

*EZB langile-erabiltzaileak*

Desgaitasunen bat duten eta gizarteratzeko eta laneratzeko enplegu-zentro berezietan lan egiten duten pertsonak.

Gizarte-zerbitzuen erdigunearen kasuan, jarduera okupazionalak eta enplegu-zentro berezietako berezko jarduerak konbinatzen dituzten zentro mistoen kasuan baino ezin dira agertu. Azken mota honetako plazak ez dira, baina, aintzat hartu gizarte-zerbitzuen erdigune horri buruzko txostenean.

### ***Langileei buruzko datuak: orokorrak eta LOB***

Langileei buruzko informazioa modu orokorrean edo lanaldi osoaren baliokidea (LOB) terminoaren arabera eman da. Azken kasu horretan, langileei buruzko informazioa lanaldi osoa kontuan hartuta estandarizatu da, lanaldi osoa urtean 1.600 ordu edo astean 35 ordu direla ulertuz.



## KUDEAKETARI BURUZKO ADIERAZLEAK

### *Zentro edo zerbitzuen okupazio-adierazlea*

Okupazio-adierazlea edo -ehunekoa erreferentzia-urteko abenduaren 15ean zeuden erabiltzaileen eta aztertu diren zentro edo zerbitzuetan zeuden plaza guztien arteko harreman portzentuala da.

### *Gastu arrunta erabiltzaileko*

Adierazle horrek termino absolutuetan lotzen ditu aztertu diren zentro eta zerbitzuei dagokien gastu arrunt osoa eta zentro edo zerbitzu horiek erreferentziako urteko abenduaren 15erako artatuak zituzten erabiltzaile guztiak.

### *Erabiltzaileko batez besteko kuota*

Adierazle horrek termino absolutuetan lotzen ditu erabiltzaileek kuoten bitartez egin duten ekarpenaren zenbatekoa eta erreferentziako urteko abenduaren 15erako aztertutako zentro edo zerbitzuek izandako erabiltzaile kopuru osoa.

### *LOB erako berezko langileak 100 erabiltzaileko*

Adierazle horrek erreferentziako urteko abenduaren 15ean aztertu diren zentro eta zerbitzuetan lanean ari ziren berezko langileak eta egun horretan zeuden erabiltzaile guztiak lotzen ditu, bider ehun egin ondoren.

Adierazle hori egiteko, berezko langileak lanaldi osoaren baliokidea (LOB) aintzat hartuz kalkulatu dira.

### *Langileko (LOB) batez besteko soldata*

Adierazle horrek elkarrekin lotzen ditu erreferentziako urteko abenduaren 15ean aztertu diren zentro eta zerbitzuetan lanean ari ziren berezko langileak eta egun horretan zeuden erabiltzaile guztiak.

Adierazle hori egiteko, berezko langileak lanaldi osoaren baliokidea (LOB) aintzat hartuz kalkulatu dira.

Batez besteko ordainsariari dagokionez, aztertu diren zentro eta zerbitzuetako langileei egotz dakizkiekeen gastu guztiak hartu dira aintzat, baita enplegatzaileak eskudirutan eta espezetan ordaindutako guztia ere, aztertu den aldian egindako lanaren kontrapartida gisa. Soldaten ordainsariak honela banakatzen dira: eskudirutan eta espezetan ordaindutako soldata eta ordainsariak, enplegatzaileak egindako edo enplegatzaileari egotzi zaizkion gizarte-kotizazioak eta enplegatzaileak langileei ordaindu behar dizkien gainerako gastuak.

## LURRALDEARI DAGOZKION ALDERDIAK

### *Udalergi motak*

Hau da txosten honetan erabili den udalergi multzokatzea:

#### *Gasteiz*

Gasteiz hartzen du barne.

*Arabako beste udalergi nagusi batzuk*

Amurrio eta Laudio hartzen ditu barne.

#### *Arabako gainerakoak*

Arabako lurralde historikoko gainerako udalergi hartzen ditu barne (baita Arabako esleitu gabeko erregistroak ere).

#### *Donostia*

Donostia hartzen du barne.

#### *Gipuzkoako beste udalergi nagusi batzuk*

Eibar, Errenteria eta Irun hartzen ditu barne.

#### *Gipuzkoako gainerakoak*

Gipuzkoako lurralde historikoko gainerako udalergi hartzen ditu barne (baita Arabako esleitu gabeko erregistroak ere).

#### *Bilbo*

Bilbo hartzen du barne.

#### *Bizkaiko beste udalergi nagusi batzuk*

Barakaldo, Basauri, Durango, Galdakao, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestao hartzen ditu barne.

#### *Bizkaiko gainerako udalergi*

Bizkaiko lurralde historikoko gainerako udalergi hartzen ditu barne (baita Bizkaiko esleitu gabeko erregistroak ere).